Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Ondarroa

Ondarroako armarria

Aurkibidea

Udalerria: Ondarroa

Sarrera



Lea-Artibai eskualdeko herria, Bizkaiko ipar-ekialdean. Arrantzaren inguruan eraiki dute herriko ekonomia, batez ere azken mendeetan; izan ere, Euskal Herriko alturako porturik garrantzitsuena da. Hala ere, baserri guneetako auzoetan nekazaritza da nagusi. Berriatua, Mutriku (Gipuzkoa) eta Kantauri itsasoa ditu mugakide. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAko (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.

- **Biztanleak**: 8.834
- **Euskaldunak**: %81,06

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **36**
- Zintak: **62**
- Pasarteak: **608**
- Transkribatutakoak: **194**
- Audioak: **82**
- Bideoak: **526**

Proiektuak

- 101L - Herriz herri
- Ahaztuen Oroimena
- Berriz 1936 gogoratzen
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko txori eta animaliak
- Fondo partikularrak
- IRALEren Bizkaiera Bilduma
- Josu Arrizabalaga Basterretxearen fondoa
- Lea-Artibaiko ahotsak
- Markina-Xemeingo hezkuntza publikoa (1844-2025): hazitik lorera
- Mutrikuko gerra zibilaren memoria
- Ondarroako ahotsak
- Ondarroako Historia Zaleak
- Ondarroako institutuko grabazioak

Hizlariak

None "Porru" anaiak kantari

1963. urtean Suediako SVT telebista kateak grabatutako irudiak dira. Ondarroako Txartangu tabernan hartutako irudi hauetan "Porru" anaiak (Sabin, Imanol, Mikel eta Andima) ageri dira kantari, herriko beste hainbat gizonekin batera.

Eulogio Alkorta Badiola (1932-2022)



Eulogio Alkorta Ondarroan jaio zen, Kalandin. Aita arrantzalea zuen eta berak ere probatu zuen gazte-gazterik, baina nahiago izan zuen lehorreko lana eta 15 urte zituenetik erretiratu arte saregina izan da Ondarroako kaian. Elkarrizketa bere emaztearekin batera egin zitzaion, Ikerne Artetxe (Ondarroa, 1932).

Lorea Amutxastegi Aspiazu *Euskadi* (1935)



Kantoipen jaio zen, baina Itsasaurren hazi zen izeko batenean. Ama Elgoibarkoa zuen eta aita Saturrarangoa, Mutrikukoa. Aitaren baporea zen "Euskadi" ezizenez da ezaguna herrian. Zortzi-bederatzi urtegaz eskola nazionaletara joan zen, baina 11rekin umezain lanetan hasi behar izan zen 13 neba-arreba izan ziren-eta. Gero Orlandoren eta Arrutiren lantegietan eta portuan aritu zen 20 urtegaz ezkondu zen arte. Gazterik alargundu zen, 28 urte eta lau seme-alabetatik hiru zituela; hala ere, koinatuen laguntzarekin aurrera egin zuen. Herriko ekintza eta ekitaldi askotan parte hartutakoa da Lorea.

Domeka Arantzamendi Artetxe (1926)

Juanito Arantzamendi Mugartegi (1916-2013)



Kantoipen jaio zen bederatzi neba-arrebatako zortzigarrena. Gurasoak ere bertakoak zituen, itsasoko bizimoduarekin lotutakoak. Ondarroako Kresala dantza-taldeko ezpata-dantzaria izan zen mutikotan. Eskola utzi eta 13 urterekin Saturrarango seminariora joan zen. Bost urte igaro zituen bertan eta beste bi Gasteizeko seminarioan. Gerra hasi aurretik, etxekoek Bilborako bidea hartu zuten eta berak Arana Goiri batailoian eman zuen izena, "Enlaces y transmisiones" konpainian ibiliz Bizkaiko hainbat frontetan. Atxilotu eta langile-batailoietan izan zuten ia bost urtez Espainia aldetik. Herrira bueltatzerakoan, "Compañia Esperanza" autobus-enpresan hasi zen inspektore lanetan erretiratu artean.

Arrantza Ondarroan 1

2009. urtean Ondarroako Historia Zaleak taldeko kideek arrantzari buruz egindako jardunaldi batzuetako testigantzak jasotzen dira grabaketeta honetan.

Arrantza Ondarroan 2

2009. urtean Ondarroako Historia Zaleak taldeko kideek arrantzari buruz egindako jardunaldi batzuetako testigantzak jasotzen dira grabaketeta honetan.

Arrantza Ondarroan 3

2009. urtean Ondarroako Historia Zaleak taldeko kideek arrantzari buruz egindako jardunaldi batzuetako testigantzak jasotzen dira grabaketeta honetan.

Arrantza Ondarroan 4

2009. urtean Ondarroako Historia Zaleak taldeko kideek arrantzari buruz egindako jardunaldi batzuetako testigantzak jasotzen dira grabaketeta honetan.

Mikaela Arretxe (1917)

Bi urte zituela ama tifusarekin gaixotu zen eta amamak baserrira eraman zuen. 16 urtera arte egon zen bertan. Ondarroan Ortizenean hasi zen lanean. Antzinako bizimoduaren inguruko kontu ugari kontazen ditu. 86 urte zituen elkarrizketa egin zitzaionean.

Andoni Arrizabalaga (1912)

"Sagastanekoa" etxekoa. Arrantzalea (fogoneroa) eta marinela.

Tere Arrizabalaga Alegria (1936)



1936ko urtarrilaren 19an sortu zen Ondarroako Santa Ana baserrian. Beraien etxea elizaz Berriatukoa da eta udaletxez Ondarroa. Aita bertakoa zuen eta ama Berriatukoa. Umetan Gorozika auzoko eskolara joan zen eta Ondarroako klase partikularretara. Mojetan ere ibili zen eta bertan ikasi zuen josten 20 urterekin; etxekoentzako prakak egiten zituen. Bere neba bat pilotari profesionala zen, "Santa Ana" izenez ezaguna, eta Terek egiten zizkion prakak. Baserriko lanetan aritu izan da beti eta oso ondo ezagutzen du mundu hori: egunero Ondarroako Berdura plazara joaten ziren eta sagardoa egiten zuten etxean. Errenteria auzoko Etxarrenera ezkondu zen eta 3 sema-alaba izan zituen. Hogei urtetik gora Gerrika auzoko Beitia baserrian bizi izan zen. 2007. urtetik Lekeitioko Uribarren Abaroa egoitzan dago.

Jesus Artetxe Malaxetxebarria (1928)



Kalandin jaio zen 1928. urtean. Aita Eperkaleko zuen eta ama Egiguren baserrikoa. Zazpi neba-arrebatan bosgarrena izan zen bera. Umetan kofradia zaharreko eskolan eta eskola barrian ibilitakoa da. 15 urterekin itsasora joan zen lanean: hasieran, baxuran aritu zen eta gerora, beti, arrastrean makinista moduan. Bere lagun Patxi Etxabururekin batera azaltzen da grabaketan.

Ikerne Artetxe Zubikarai *Kantxopeku* (1932)



1932an jaio zen Kantoipen ("Kantxopi"). Arrantzale familiakoa, bizi guztian ezagutu du hur-hurretik arrantza mundua. Bederatzi anai-arreba izan ziren. Gerran, aita frontean zela seme zaharrarekin, ama espetxeratu egin zuten, 2 urteko umea altzoan zuela. Ikerne eta gainontzeko anai-arrebak bakarrik geratu ziren etxean, 13 urteko ahizpa zaharrenaren zaintzapean. Eulogio Alkortarekin (Ondarroa, 1932) ezkondu zen. Elkarrizketa elkarrekin egin zitzaien.

Rosario Badiola Alkorta *Tobaneku* (1926)



San Inazio kalean jaio eta hazi zen. Gurasoak ere Ondarroakoak zituen, biak lehendik alargundutakoak: amak 2 seme zituen, aitak 7 eta ezkontza honetatik beste 5 jaio ziren, Rosario nagusiena. 14 urtera arte eskolara joan arren herriko lantegi desberdinetan ume-umetatik aritu zen beharrean, hori izan da bere bizimodua: behar eta behar. Gerra Zibilean reketeak herrira sartu zirenekoa, reketeen eta falangisten jantokietara jateko eske joaten zirenekoa, dorreko ezkutalekuko egonaldiak... ditu gogoan, besteak beste.

Juan Balenziaga Osa (1931-2013)



Kale handin jaio zen 1931. urtean. Lau neba-arrebatatik gazteena izan zen. Ama Ondarroako saregina zen eta aita Berriatuan jaiotako baxurako patroia. Arrantza munduarekin lotutako familia izan arren, Juanitok beste bide bat hartu zuen. 17 urtera arte eskola eta partikular desberdinetan aritu zen lanean hasi arte. Herrigintzan asko aritu izan da: Aurrera kirol elkarteko presidentea izan zen eta Ondarroan abuztuaren 17an ospatzen den Arrantzale egunaren sortzailea ere bada, 1957an antolatu eta ospatu baitzuten lehen aldiz. Kulixka tabernan lan egin ostean, Sokoa taberna zabaldu zuen.

Nati Bedialauneta Arkotxa *Nati Osoro* (1929)



Zaldupebidean jaio eta hazi zen. Gurasoak ere ondarroarrak zituen. Amak Ortiz lantegian egiten zuen lan; aitak, ostera, gerra hasieran Ingalaterrara egin zuen alde eta bertan hil zen handik gutxira. Aita abertzale gogorra zen eta klandestinitatean ezpata-dantza maisua izan zen. 11 urtegaz eskola utzi eta lanean hasi zen: umezain, lantegian, Urberuagako hotelean, portuan ("diar eintzailli" eta bodegako arduradun) eta tabernan aritu izan da. Ondarroa bertako Peli Osorogaz ezkondu eta Kaleandira joan zen bizi izatera. Saturrarango kartzelako emakume bati jatekoa eramaten ziotenekoa eta euskarazko lehen eskola klandestinoko berri eman digu, besteak beste.

Hipolito Egiguren Badiola (1909)



Lore Egurrola Urkiola *Txaille* (1924)

2007. urtean Ondarroako Historia Zaleak taldeko kideek Espainiako Gerra Zibileko testigantzak jasotzeko grabaketetan parte hartu zuenekoa da grabaketa hau.



Kontxita Elu Arantzamendi (1937)

Ondarroako moilan jaio zen arrantzale familia batean: ama sare-konpontzailea eta neskatila izandako armaginaren alaba zuen eta bere aita arrantzalea zen. Aititaren ordez bere amak hartu zituen familiako bajurako txalupen ardura. Umetan 12 urtera arte Eskola barrian ibili zen. Hala ere, laster heldu zion familiako zereginari, zortzi urterekin antxoei burua kentzen hasi baitzen eta hamar urte zituenerako hasita zegoen sareak josten ikasten eta neskatila, "krixada", lanetan. 45 urtera arte sare-konpontzaile lanetan aritu zen. Senarra Arteta baserriko Arkotxatarra du.



Patxi Etxaburu Ajarrista (1929-2022)

Erribera kalean jaio zen sei neba-arrebako famili batean. Gurasoak ere ondarrotarrak zituen. Hiru urterekin hasi zen mojen ikastetxean eta gerora kofradia zaharrean eta eskola berrian ibilitakoa da. 15 urterekin itsasora joan zen lanean: hasieran, baxuran aritu zen eta gerora, beti, arrastrean makinista moduan. Antzinako kontuez eta Ondarroako historiaz interes berezia izan du eta bilketa lan handia egin du Ondarroako garai bateko bizimoduaz. "Ondarroako Historia Zaleak" elkarteko kide eta presidente ere izan da eta "Ondarroa" urtekarian ere hainbat artikulu kaleratu izan ditu. Hitz egiteko orduan hizkera "jasotzeko" joera dauka (euskara batuko, gipuzkerako edo bizkaiera literarioko formak erabilita), baina oro har Ondarroako hizkera natural eta bizi-bizi darabil. Bere lagun Jesus Artetxerekin batera egin zitzaizkion zenbait grabaketa.



Miren Lore Ibazeta Solabarrieta (1936)

Ipar kalean jaio zen. 8 neba-arrebatatik gazteena izan zen. Gurasoak ere Ondarroakoak zituen, aita gerratean preso egondakoa. Umetan mojen ikastetxera joan zen. Bere ahizpa Nekanerekin, gogoratu ditu umetako garaiak, jolasak, gerraren ondorioak, erlijioaren indarra, gaztetako ibilerak, erremedio naturalak...

Nekane Ibazeta Solabarrieta (1925-2014)



Ipar kalean jaio zen 1925. urtean 8 neba-arrebatako familia batean. Gurasoak ere Ondarroakoak zituen, aita gerratean preso egondakoa. Umetan gutxi joan ei zen eskolara, ez baitzen bere gustukoa. Bere ahizpa gazteenarekin, Miren Lorerekin, gogoratu ditu umetako garaiak, jolasak, gerraren ondorioak, erlijioaren indarra, gaztetako ibilerak, erremedio naturalak...



Mari Kruz Lekunberri Rodriguez (1943)

Azpiltzako eskolako andereñoa izan zen 1970-1972 bitartean.

Terese Lertxundi Kaltzakorta *Porru* (1930-2016)



Kaleandin jaio zen 1930. urtean. Hamar neba-arreba jaio ziren etxe berean, bera seigarrena izan zen. Aita arrantzalea zuen eta ama Larruskaingo (Markina-Xemein) baserritarra. Hamar neba-arrebak hasi ziren umetatik lanean: morroi, neskame, umezain... Terese 12 urterekin joan zen Elgoibarrera umezain mantenu truke. Fabrikan ere aritu zen ezkondu aurretik. Bere senarrarekin batera Ondarroako Zubi Zahar ikastolako zaintzailea izan zen urte askoan, bera ikastolako garbitasunaz arduratu zen bertan bizi ziren bitartean.

Domeka Markuerkiaga (-2013)



2007. urtean Ondarroako Historia Zaleak taldeko kideek Espainiako Gerra Zibileko testigantzak jasotzeko grabaketetan parte hartu zuenekoa da grabaketa hau.

Mariatxo Martin Ibarloza (1927)



Donostian jaio zen Mariatxo, Abuztuaren 31 kaleko 12. zenbakian. Ama ondarroarra zuen: Kontxa Ibarloza, nortasun handiko emakumea, errepublika garaian ere abertzaleentzako botoa eskatzen aritutakoa, erabakiak azkar eta taxuz hartzekoa. Aita ferratzailea zen eta lantegia zuen Anoetan. Gerra hasi zenean, aita ebakuntza baten ondorioz inora joan ezinik zegoen eta ama-alabek Ondarroarako bidea hartu zuten 1936ko irailaren 12an, hain zuzen ere. Harrezkero Ondarroan bizi izan da. Ondarroako euskara darabil. Ahaztuen Oroimena taldekoek egin zioten elkarrizketa, gerrako bizipenak jasotzeko (ikusi euren webgunean).

Agurtza Osa Etxebarria *Bermeo* (1930-2021)



'Agurtza Bermio' bezala ezagutzen dute Agurtzane herrian. Ama zuen bermeotarra eta aita Ondarroakoa bertakoa. Bolibarko baserri batean hazi zen bertako familia batekin 10 bat urte izan zituen arte, bere ume eta gazte garaiko urterik onenak izan omen ziren bertan bizitakoak. Tarte hartan, ama inude joan zen Bilbora eta Zaragozara gerra garaian gainerako seme-alabekin Frantziara joan zen arte. Aita Gerra Zibilean langile-batailoietan izan zuten. Bolibarko auzo-eskolan ibili eta gero Ondarroako eskola nazionaletara joan zen. Lan desberdinetan aritutakoa da Agurtza eta urte luze hauetan bizi eta ezagututako hainbat konturen berri eman zigun.

Jon Plaza (1968)

Ondarroarra, gaztea izan arren, ondo ezagutzen ditu txori kontuak eta mendiko kontuak.

Sorkunde

Berriz 1936 gogoratzen elkartekoek egindako grabazioan parte hartu zuenekoa da grabazio hau.

Antigua Urbieta Etxaburu (1938)



Gerraostearen ondorioz, Donostiako Altza auzoan jaio zen, bere aita Pasaiako arrantza-ontzi baten ibili baitzen lanean. Baina bost bat urte zituela bueltatu ziren gurasoak beraien jaioterrira eta ordudanik bertan, Ondarroan, bizi izan da Antigua. Zaldupe auzoan hazi zen eta handik joaten zen eskola nazionaletara, baina eskola gustuko izan arren ezin izan zuen nahi beste joan, gazterik hasi baitzen lanean: kontserba-lantegian zein umezain. Gerraosteko Kresala dantza-taldean parte hartu zuen umea zela. Ondarroako iragana eta oraina oso ondo ezagutzen dituen emakumea da, eta antzinako hainbat kontu kontatu zizkigun. Jose Uribe patroiagaz ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituzten, horietako gazteena Kirmen Uribe idazle ezaguna.

Elisa Uriarte Elordi (1935)



1935ean jaio zen Errenteria auzoko Goiti baserrian. Aita zuen bertakoa; ama, berriz, Berriatuko Olabe baserrikoa. Hiru neba-arrebatan zaharrena. Gorozika auzoko eskolan ibili zen lehenbizi eta gero Ondarroan bertan, mojekin. Josten ikasten ere ibili zen. Berriatuko Patxi Kalzakortarekin ezkondu zen.

Gorka Urkizu Ortiz de Guzman (1963)

Ondarroan jaioa, Bekobentako irakaslea eta DBHko zuzendaria da 2001-2002 ikasturtetik gaur egunera arte.

Rosario Urrosolo



2007. urtean Ondarroako Historia Zaleak taldeko kideek Espainiako Gerra Zibileko testigantzak jasotzeko grabaketetan parte hartu zuenekoa da grabaketa hau.

Miren Zubikarai Larreategi (1933)

1933. urtean jaio zen. Lau alabatik nagusiena, ama lekeitiarra zuen eta aita arrantzalea. Hiru urtegaz kanpora joana: Katalunia, Frantzia... Bere bilobak egin zion grabazioa Ondarroako institutuko ikaslea zela.

Jon Zubikarai Osa *Ixkiri* (1933-2024)

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Politika

1.1. Umea izandakoan, gerra etorri

- **Hizlaria(k)**: Arretxe, Mikaela
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ramos Elordi, Ander
- **Erref**: OND-001/003
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:04:41. **Bukatu**: 00:07:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
  Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena**: Ezkondu eta gerra etorri zen. Mikaelak umea eduki berria zuen, eta gizona gerrara joan behar izan zen. Sarritan umea hartu eta baserrira joaten zen, Hernanira. Ondarroatik irteteko baimen berezi bat behar izaten zuten. Erreketeak bi-hiru aldiz joan zitzaizkion Mikaelari, gorria zelakoan.

Transkripzioa

- 36xan gerri etorri zan eta, gerri etorri zanin, ba, bueno, ordurako, ba, ezkondu giñan. Ezkondu giñan ta ordun, ba, maixatzan 16xan ume bat euki neban, semi. Eta hillan... hori maixatzin, 36xan, gerran zerin. Eta juliuan etorri zan, ba, gerri, 18xan. Ta gero, ba, ni geatu nitxan Ondarrun ta neure gixona jun zan gerraa. Eta, klaro, gerran ibili zan batea ta bestea ta ni, ba, neure umiaz, ba, hamentxe Ondarrun. Eta sarrittan juten nitxan, ba, neure umi hartu eta, ba, baserrire, neure aumana, ze aumak beti esaten ostan, ba, juteko eta halantxenik eta juten nitxan baserrire.
- Hori Hernanire?
- Hernanire, bai. Ba juten nitxan baserrire Hernanire umiaz, eta hantxe igual eitten neban, ba, hillebete, edo bi edo, hantxe. Ze ordun gerra denporan Ortizen fabriki be zarratute euanetik, ez dotsen /eztotzen/ lagaten iraitxen, ta ba hantxe. Ta gero, ba, etxea. Ta klaro, ordun hamendik urteteko salbokonduktu bihir ixaten zan. Ondarrutik urten bihir bagendun, salbokonduktu ataten neban.
- Hori zer zan permisu edo?
- Bai, permiso bat; bai, paper bat firmaten oskun eta, ba, hantxe auditorixan eitten oskuen hori. Eta, ba, hantxe emoten oskuen /emotezkuen/ [paperra], salbokondukto bat, ba, noa guzen ta dana. Eta juten nitxan hara. Eta gero, ba, hillebete edo ein ta etorten nitxan. Eta ba, bai, 2 ero 3 bidar etorri jatazen reketik ordun, ba, etxea, ze esaten otsela herrixan ba gorrixetaku nitxala. Klaro, gorrixak zin ordun ba Francon kontra ebizenak, ofizial... Eta grazixak hareaz salbokonduktuaz, haixe erakusten netsen zelanik neukan permisu.
- Demostra, ez?
- Bai, haixe demostraten neban. Eta ha demostra ezkeo, ba, bueno, ba ia libre lagaten ostan /laateoztan/, baiñe 2-3 bidar holantxenik etxea etorri jatazen deteniutea, ba, eskapa ein nebala gixonaana ta. Eta, ba, halantxenik, gero, ba, klaro.

1.2. Baserrian ere gosea

- **Hizlaria(k)**: Arrizabalaga Alegria, Tere
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-010/019
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:27:39. **Bukatu**: 00:29:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Bere etxekoek gerra sasoian eta gerraostean gosea pasatu zuten, nahiz eta baserritarrak izan. Arroz asko jaten zuten eta askotan gauez egin behar zituzten lanak, inork ez ikusteko. Estutasun larriak bizi zituzten.

Transkripzioa
- Ordun, zuk baserridxe eukindde ganera, amak-eta sekula ez otsuen esan goserik paseu zenduenik?
- Ez, ez, ez. Gosie eurek bai. Gerraostien eurek bai, pasau eben, eurek bai honbre! Arroza ta arroza ta arroza ta arroza jan, arroza ta lentejie.
- Baia ortuaridxek-eta beti ez zien falteko...
- Bai, baiña gerra denporan ordun momentun, biharrik ezin eiñ kanpun, txarrena hori egon zan. Ta garidxe erain biher, garidxe erain biher, eta gabaz, gabaz garidxe eraitten. Pentsau zelan ibilko zin isilik, zelaku gari-eraittie eingo eben. Ta gero artorik-eta be ezin erain. Gero bai, gero behin martxan jarritte bai, baiña ordun momentun txarto, bai. Akordetan na, ama difuntik esaten eban: "arrozaz ya beteta na!". Arroza ta lenteji edo ez dakitz ze izeten zan, eta beti geuza bat beti geuza bat, zozer jan ein biherko eben-ta. Bueno etxin eukiko eben ordun be porruk-eta egongo zin ortuaridxen, baiña momentun derrigor egon biher zen estutasune. Gero gerra denporatik esaten eban etorritte danak, zelaidxe guztidxek-eta danak, danak bedarrak behetik gora-ta.

1.3. Francoren denboran Ondarroako kale-izenak aldatu egin zituzten

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Malaxetxebarria, Jesus; Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-011/003
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:03:40. **Bukatu**: 00:05:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
  Politika » Euskara eta politika
  Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- **Laburpena**: Erribera kalean jaio zen. Baina Francoren denboran "Jose Cruz Allo" jarri zioten, errekete baten izena. Franco hil geroztik berreskuratu zuen kaleak izena. Beste kale askorekin ere gauza bera gertatu zen, gerra denborako "arrain zatar" guztiak alde egin arte ez ez zuten berriz hartu izen zaharra. Gaur 31 urte Tejero Madrilgo Parlamentuan sartu zela.

Transkripzioa
- Gerra aurria zan hori eta gerra aurrian Erribera eukan izena harek. Eta gero gerra denpora pasata [...] pasata barriro kaliek euskeratuta daz eta Erribera [daka], lenaoko kalien izena.
- Lehenago zer izen euki eban ba?
- Gerra urrin, gerra denporan? Ba José Cruz Allo. Hori zan rekete bat ofiziala, gerran hil zana. Hemen bera ondarrutarra izatez, militarra; haretxen ixena ipiñi etsen hil zalako. Hemen danak euezen, General Mola ta Generalísimo Franco ta horrek gizonok. Comandante Velarde ta Jefe Requeté del Cantábrico ta, [General Tutor] ta. Horretxek zien kaliek gerra denporan. Urtietan egon zien.
- Requetés del Cantábrico ta.
- Holako ixenak.
- Gero berreskuratu zien.
- Bai-bai. Urte pilla bat pasata gero. Handik zenbat... Hogei bat urte pasata gero. Bai, harek fatxa guztiak alde ein ebenin, gerra denporako "arrain zatar" guztiak alde ein ebenin, hamen gure bizitzatik, orduntxe.
- Arrain zatarrak.
- Franco hil ostian aldatu zien izenak ala Francogaz?
- Ez, gero, gero, ostien, ostien. Horrek danok bukatute gero.
- Ointsu?
- Bai, ointsu.
- Gaur 31 urte ha pistolerue urten ebala be. Teniente Coronel. Haren lagun asko daz ondiokan hor bueltaka. Bandido asko.

1.4. Eskola barik urte eta erdian gerragatik

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Malaxetxebarria, Jesus; Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-011/005
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:07:00. **Bukatu**: 00:08:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939)
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Patxi, lehenengo, mojan eskolan ibili zen. Gerora, biak "Eskola Nazionaletan" ibili ziren, zazpi urterekin, Kofradia gainean. Don Pedro izan zuten lehenengo maisua. Gerra hasi zenean, errepublikazaleek kuartela ipini zuten eskolan. Frankistak herrira sartu zirenean, italiarrek gauza bera egin zuten. Urte eta erdian eskola barik egon ziren.

Transkripzioa
- Eskolako lelengo akorduek edo lelengo gomutaten dozuena zer da halan eskola sasoikoa?
- Patxi: Don Pedro zein zan hori hamenguoi?
- Jesus: Zer?
- P.: Hamenguoi, Kofraixa gaiñin bixi giñana, ibili giñana gu.
- J.: A eeeeee Don Pedro.
- P.: Don pedro.
- J.: Bai.
- E.: Kofradixa ganien egon zan eskolie?

- J.: Bai, Kofrai Zaharra bada hamen ba?
- E.: Bai.
- P.: Hantxe.
- J.: Ba hor lelengo solairu bi eukazen: lelengo solairu zan arraiñan salmenti eitten zana, benti arraiñana, eta bigarrena zan, eskoli zan. Ta hori zan gerra aurrin. Han, ba, 7 urte ein arte ni ibili nitxan, parbulutan ibili nitxan umetatik. Guri, 3 urte neukala, aitte hil ein gaskun, ta ama geatu zan 6 umekin, 10 urtetik eta urte 1ea. Ta, ordun, urte bateko arrebi mojeta eskola sartu eban ta ni parbuluta, mojeta. Parbulutan ibiltten zin mutillak 7 urteraiño. Gero 7 urte einddakun, ba, "nazionaletan" esaten dan herriko eskoleta sartzen giñan. Ta ni hantxe bixi nitxan, ta han hurrin bixi giñanak hantxe gebizen, hortxe, honek esan daben eskolan ibili giñan.
- P.: Batea.
- J.: Ta gerrik urten ebanin 36xan, ba, errepublikanu zan bera ixatez, kanpotarra. Ordun maixo guztik kanpotarrak zin. Eta ein eban, ba, frenti hamen geatute egon zan 7 hillabetin, ta frentik hamendik alde ein ebenin, Francon indarrak ona ailla zinin, harek be alde en eiban /eiban/. Hortxe arte ibili giñan, hillabete batzuk ibili giñan hor eskolan. Gero hamen eskolaik ez zan eon. Hamen frenti 7 hillabetin eon zan ta eskolak hamen daozenak horretan eon zin italianuk. Eta Frenconak sartu aurrin, gerri urten ebanin, hor eon zin errepublikanuk, gorrixan aldekuk. Errepublikazalik eon zin hor kuartela eurana. Ta ordurako eskolaik ez euan hamen, gerri hasi zanin.
- P.: Frenti hamentxe egon zan.
- J.: Eta gero urtebeten edo urte ta erdixin-edo eskolaik ez zan eon. Ta gero, hori denporioi pasa zanin, eskolak zabaldu zin hamen; ha gehixa ez zan zabaldu Kofraixe eskola, ez zan ixan.
- E.: Ta hamen nun diñozu?
- J.: Hamen.
- P.: Hamen, eskolan, bertan, hamentxe.
- A, bale.
- J.: Eskola nazionala [...], hamen patixu, errekreu esaten gakona.

1.5. Mutikoak instrukzio militarra egiten

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Malaxetxebarria, Jesus; Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-011/013
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:18:00. **Bukatu**: 00:19:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Rico Azpiazu, Aitor
- **Gaia(k)**:
  Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
  Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
- **Laburpena**: 10-11 urterekin instrukzioa egiten zuten. Maria Luisa maistrak esaten zuen Alemanian bezala ume-umetatik erakutsi behar zela. Don Luis medikua zen frankisten burua herrian. Haren arreba zen Maria Luisa.

Transkripzioa
- Jesus: Ta gaiñea neuk esango dotsut goorraua. Hamentxe. Hau ni baiño urtebete gaztetxua ranez ez dai akordaten zan.
- Patxi: Beatzi hillabete. Urtebeteik ez e. Urtik hamabi hillabete akaz da.

- Jesus: Momentu asko da ba. Gerta zan hamentxe gerra denporan geuazela, hamentxe eskolan, hamabi urteaz urten gendun ta, hamar urte, hamaike urte edo eukiko gendun, eitten gendun instrukziñoi eitten gendun hortxe, Guardia Zibillen aurretik zir .Ta d
oña Maria Luisai entzunde na ni; don Luisen zer da, koiñati?
- Patxi: Arrebi.
- Jesus: Harek esaten ban: “Como en Alemania, a los niños hay que usar una instrucción verdadera”. “Heip, houp”. Hamaike urteaz ibiltten giñan hortxe gerra denporan.
- Patxi: Hori don Luis zan politikan hamengo kabezilli. Bat izatekotan bera zan herrixan. Reketin aldeku bez. Guk Reketik esaten dotsau horrei beti. Guk ezautu genduzelako hamen gerran, ba reketi zan euran indar militarra. Horreik zin Karlistak ixatez, baiñe gero ein zin Francon denporan Francon aldea pasa. Lehena Karlistak zin Liberalan kontraixuk. Ta Karlistan helburu zan Euskal Herrixe askatzi euran erregiaz, Karloseaz. Ez? Ta gero horrek, gerran, nahasta zin, eta gerra aurrin hor Naparrun ibili zin preparaten ibili zin indar militarrak, Reketik esaten jakuenak. Eta Ondarrun be ibili zin, da Ondarrun horren buru zan don Luis. Mediku zan, arpei biku esaten etsena, eta asma etsen ixena “Capitan Araña”asma etsen, beran behikuluk halakuk zilako. Ta horrek zin, familixi arrebak eta danak holakoxik zin, eta honek esan daben maistri zan hor bat, doña Anita.

1.6. "Flechak" eta "Pelayoak", faxisten mutiko-taldeak

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Malaxetxebarria, Jesus; Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-011/015
- **Iraupena**: 0:00:24. **Hasi**: 00:20:36. **Bukatu**: 00:21:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
  Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- **Laburpena**: "Flechak" Falangekoak ziren eta "Pelayoak" Erreketekoak (Flechas y Pelayos). Egurrezko fusilekin egiten zuten instrukzioa mutikoek, behartuta baina pozik, soldadu tartean.

Transkripzioa
-Eta hor instruziñuen ibiltzen giñan ordungo urtietan, hamen instruziñuen ume guztiak kalien ibiltzen giñan "Fletxak" eta "Pelayuk" zien. Fletxak zien falangekuk, eta Pelayuk zien rekete, eta uniformie jantzi, egurrezko fusillek emoten oskuen, egurrezko moldiaz, eta haretxekin desfilia eitten ibiltzen giñan. Behartute, e! Orduen eskolaik ez euan, ta umiak ba pozik ibili hortxe, soldau tartin ibili.

1.7. Miseria handia gerra ostean

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Malaxetxebarria, Jesus; Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-011/016

- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:21:00. **Bukatu**: 00:21:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
  Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- **Laburpena**: Jesus mutikotan ia Lekeitioraino joaten zen su-egur bila. Ez zegoen dutxarik eta antzekorik. Galtzontzilorik ere ez soldadutza arte. Miseria handia. 12 urterekin eskola utzi eta zerrategira lanera. 15ekin itsasora, Patxi bezala.

Transkripzioa
-Gure aitta ta anaixe jun zien gerra denporan, gu amumakin. Zein jungo litxake gaur, haurei esan (aldamenean dauden mutilei) hamazortzi-hamar kilometro gu egurretara juten giñan gu Moko [...], Mokora, ta Lekatxo (Lekeitio), hamendik eta lau kilo-bost kilometro juten giñan, [...]. eta [enda?] igarixan eitten gendun, dutxaik eta, urik ez euan gure amamanin, Eper kalin, hirugarren pisun. Gure amumak eukezen, sei ume euki eban; gure aittak lelenguku, ta alargun geldittu. Han ez euan urik. Dutxi.., hamen jangoikuk be ez eukan, Bastidanin, Don [...] dutxi. Iñork ez eukan dutxaik hamen, gero jun die dutxak etor... hamen. Kantzontzilluak be, handik eta soldauxka arte kantzontzilloik jantzi be ez, esate baterako. Miserixa asko. Hamabi urte orduko eskolatik urten eta serraa jun. Eta diruik ez. Serran hiru urte eiñ ta gero itxesora hamabost urteaz. Zu zenbat urteaz jun za itxesora?
-Hamabosteaz.
-Hamabost urte, itxesora. Eta baso por la altura ikesitta bakarrik. Aitzen dozu? Eta gerokun geroku, ba ahal dan modure ba...

1.8. Arrantza asko ugaritu II. Mundu Gerrari esker

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Malaxetxebarria, Jesus; Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-011/024
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:29:46. **Bukatu**: 00:31:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)
  Itsasoa » Arrantza-kanpainak
  Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza
  Itsasoa » Arrantza motak » Alturako arrantza
  Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak
- **Laburpena**: II. Mundu Gerra sortu zenean, Europan arrantzari utzi zioten, eta asko ugaritu zen arrantza Kantauri Itsasoan. Hurrengo urteak oso onak izan ziren arrantzaleentzat. Arrastrean diru gehiago irabazten zen. Eurak makinetan hasi ziren lanean, irabazpide seguruagoa zelako.

Transkripzioa
-Gero hortik etorri zan, hau gerri amaittu zanin, Bigarren Munduko Gerratik urten eban, eta ordun...
-Arrastreruk Gran Solera ta ezin jun...

-Hori xan Gerra Mundialak urten ebanian.
-Baiña gu harutz ezin jun.
-Baiña horrek urten eban, Gerra Mundialak urten ebanin hamen Españiako gerria amaittu eta gero Gerra Mundialak urten ebanin, ordun Frantzin ez ebizen arrantzan, eta alemanak be euran gerri ta abar eta ezin. Eta gero hamen arrasteruk eta hemendik eta Gran Solera bittartin arrasteruk ibiltzen zienak, han ez zebizenetik arrantzan, han urte bat eta bixan eta hiruan ein zan legatzez bete zan itsasu. Eta haraxe juten zin.
-Haraxe juten giñan.
-Eta gero hortik urte horretan hamen txalopak ein zin, gerria amaittu zanin txolopak hasi zin pixkaka-pxkaka, ta arrantza gehittute euan, arraiña gehittute euan asko eta urte aberatsak izan zin arrantza aldetik. Urtietan-urtietan.
-... bajurako danak kasi desintegra ein zin, gitxittu asko, eta arrastera jo eben.
-Baiña aurretik bajurara jun zien asko gehitzen jun zien, handitzen, nausixao, txalopak handixauak, inddar gehixaokuk eta ba gero horrek ekarri eban ba inbertidutia arrasterun han etekiñe segurua zalako. Eta gero holantxetik arrastera sartu giñan, ba hamen irabazten gendun soldatie..., arraiña atrapaten bazan, ba haren arabera kobraten gendun. Ez bazan arraiñik atrapaten ba ez [geunkan] ezebe. Ordun ba, norbere [...] makiñan hasi giñan, ze makiñan egon zalako aparte honenbesteko bat, hillien fijo egoten zan. Eta gero arraiñana irabazixa aparte. Eta ba ezkondu eta umiak eta gauzak eta irabazixa segurutxuao eukitzearren. Horretxeaitxik zan arrastera jutia.

1.9. Saturraranera, soldaduen arrantxo hondarrak jasotzera

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Malaxetxebarria, Jesus; Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-011/037
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:55:43. **Bukatu**: 00:56:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Gerra denboran, Jesus Saturraranera joaten zen jan bila. Frontea zazpi hilabetez egon zen handik gertu, eta arrantxo hondarrak lapikotxoren batean hartu eta etxera eramaten zituzten.

Transkripzioa

- Patxi: Berak esan dau on Saturranea zeuk esan dozule /esazule/ lehen.
- Jesus: Bai, rantxure juten giñan gu hara.
- Patxi: Bai hori da, bai hoixe ba gerra denporaku.
- Jesus: Gerra denporaku ,gerra denporaku! Hona be bai, gosi, ez euan besteik horraxe juten giñan lapikuaz.
- Patxi: Herrixetatik asko juten zin, ni neu ez nitxan juten, baiñe ba, frenti euan tokixan, ba eurak soldauntzako eitxen eben, jateku eitxen eben, ta euran sobrantik, jenti juten zan lapikukin.
-Jesus: Gehixa eitxen eben lez /belez/ sarritxan eitxen eben herrixai emon.
-Patxi: Lapikotxu bat erun eta botaten eben haraxe ta etxea eruten eben. Eta ogi zatirik be baeuken ogi goorrik sobranti be etxea erun. Edo kafi eurak hartzen ebena ba ha, kafin han pasa ta gero geatzen dan borri,

geatzen dana haxe etxea erun ta hareaz kafi eitxeko etxin horretxek gauzok. Hori zan ba frenti euazen tokixan, han euazen presak euazen Saturranen eta euazen soldauk eurak zaintzen, ta ordun haraxe, hor Santa Kutzen euan frenti soldauk hor be, Santa Klaran be euan frenti soldauk hor be, Etxano mendixan, da horraxe jenti juten zan ta horraxe.

1.10. Saturrarango emakumeen kartzela

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Malaxetxebarria, Jesus; Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-011/038
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 00:56:44. **Bukatu**: 00:58:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Jesusen familiak laguntasuna izan zuen kartzelan zegoen Caspe-ko emakume baten familiarekin. Nahiz eta ondarroarrik ez egon, asko joaten ziren, Patxi barne, jatekoa presoei eramatera. Emakumeei barrura sartzen uzten zieten, baina gizonezkoei ez. Jertseak-eta egiten zizkieten presoek, artilea eramanda. Sei urte iraun zuen kartzelak.

Transkripzioa
- Zuek ezer ikusten zenduen emakumin kartzelan.
- Patxi Etxaburu: Ba ni juten nitxa, hamen...
- Jesus Artetxe: Gure emazti ta bai juten zin eurei ta laguntzea. Ta Kaspeko familixa bateaz intimidaziñoi handixa. neu jun nitxan, ezautu gendun zein zan, han barrun egon zinak-eta.
Patxi Etxaburu: Hamen horrek…
- Jesus Artetxe: Kartzeli zan ha, emakumin kartzeli ipiñi ben.
- Patxi Etxaburu: Mille beratzirehun eta hogeta hamazortzixan hasieran sortu zan hori kartzelioi emakumintzako, eta ordun hor kartzeli berez sortu zan, hemen gerra denporetan urte askon be, beti billurretan eoten ginan alde batekuk...
- Jesus Artetxe: Zeu jun zaz Saturraranera? Jun zaz?
- Patxi Etxaburu: Billurretan bixi ginan gerrako kontukin. Ordun hamen berez guk ez geunkan harekin kontaktoik ixebez, da gainea Ondarrukoik be iñor ez euan, eta berez jenti hasi zan ba bere borondatez ba haretxei jateku zeozer eruten hasi zan ta ordun askorek eruten’ben…
- Jesus Artetxe: Nire amaiñarreba.
- Patxi Etxaburu: Ni neu juten nitxan, domeketan arratsaldin lagun bateaz juten nitxan pakete eruten gendun, ba amak ipini jateku zeoze, arraiñe eta ipini ta erutea haraxe, laguntzaillik esaten gakuen horrei ta Ondarrutik kamiñu beti juten zin, beste batzuk eguenetan be juten zin. Ta juten giñan gu haraxe, ta batzuai, nire arrebi juten zan beste etxe bateko jateku erutea hara, ni baiño gaztiagua, ta harek esaten eban eurai lagaten otsenela atin barrure sartzen monjakana ta monjak hartzen ebela, te eurak kontrolaten ebela. Ni juten nitxala lagun bateaz kanpoko atin sarreran ba hartzen oskun soldauk jateku, lagaten gendun ta akabo. Eruten gendun jateku ta Ondarrutik asko juten zin hara. Eta gero baitxe eitxen eben hori amak andrak hori hori kontaktuoi lortzen eben ezta ba? ta gu umik juten giñan ba mandatu eitxea. Ta andrak gerokun ba lortzen eben, lortu ixan eben denporiaz ba horrek emakumik batzuk puntu eitxen eta ekixen, jertsak-eta etxen, eta holako gauzak, ta ordun ba geuri be ein euskuzen /eiskuzen/

jertsak, neuri ta arreba gaztiai ta ein euskuzen /eizkuzen/, neurrixak hartu, lani erun ta esan ba halako neurrixak haunenbeste urte dakaz honek, holako jertsak ein, alogeran gero zeoze kobratearren eurak. Holantxeik ixan zan hori lau urte ein eban horrek, lau urte ez sei urte ein eban horrek kartzeliorrek, berrogeta lau arte ein eban, ta denpora guztin Ondarrun asko presta zin holanik, hori zan presai laguntzen.

1.11. Ama atxilotu zutenekoa

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Zubikarai, Ikerne
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-018/023
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:24:35. **Bukatu**: 00:27:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Abertzale gogorra izan zen aita. Euren etxean elkartzen ziren lagunak. Gau batean guardia forala etorri eta ama atxilotuta eraman zuten, bularreko umearekin batera. Hamar hilabete eman zituen Ondarretan.

Transkripzioa
- Gure ama... Gure etxi zan bixkat bera hori... etxe barrun danok giñan abertzalik; ordun ixaten zana, abertzale handixak giñan. E? Eta nire ama zan... aitte esaten eban ez zanela. Nire aitte zan abertzale gogorra, baiñe ama zan bixkat rekete tarteku, baiñe ezkondu zanin-ta bixkat ein zan... aittan gauzak... Eta danok dakau guk euskerazko ixenak. Gure amak ume asko eta etxe barrun [eitten zan] ordun telebisiñoik-eta ez euanetik, geure etxea batzen zan generala, zapatutan eta; bestelan itxosun ebillenin ez, baiñe zapatutan-eta etorten zin geure etxea. Eta halako baten, gabe baten, gabe baten etxin dazela bertan... forala esaten otsen ordun, aguazille izan baik, foralak esaten otsen. Aguazillak be baueuazen, baiñe foralak zin kanpoko gixonak, eta Ondarruko, bertako aguazillak, herriko aguazil batek harei foralai esan otsan /esatzan/ ze gure etxin eitten dizela, bigarrengoko pisun ezkerreta, “reuniones clandestinas”. Te esan otsan / esatzan/ ze “reuniones clandestinas?”, "bai". Eta horixe foraloi etorri zan eta esan otsan /esatzan/ ze “¿Qué haceis aqui? todos a casa –erdaldunek– todos a casa a su sitio”. Eta etxe barrun bata jun zan beran tokixeta eta sartu eta, bakotxeb tokixeta jun eta segixan, detentziñoi, kartzela.
- Ama?
- Bai. Ama, zazpi ume lagata, aitte eta dana... Aitte, aitte frentin euan ordun. Zazpi ume laga, nire ama, beste andra bat estadun euana, etxe barrutik erun eben bost andra. Etxe barrutik erun eben bost andra. Eta hamentxe euki eben, “errebala txikiñe” hamentxe kartzeli euan ta, eta nire amak eukan txikixena hamazortzi hillabeteku, neure anaixi, ni zortzigarrena nazena ha beatzi zan. Eta eukan hamazortzi hillabeteku.
- Zeuk lau-bost urte?
- Bai, lau urte nik. Baiñe hori geroku da, hori da gerri urtendaku da hori, baiña geroaku na esaten hori, gerrittik honuzkun, porke gerri ein ta gero erun eben. Klaro, Francok hartu ebanin, orduntxe erun

eben eta nire anaixik eukiko eban, ba, urte bi eskas edo, behintzat urte bi eskas. Eta bularra emoten otsanetik /emotetzanetik/, erun eban horra, kartzela, kartzela erun eban emoteko bularra. Eta herriko aguazil batek ein otsan /eitzan/, keji emon ebanak, gero entera zan bera juizixu Ondarretan euki eben Donostin ta, ein otsan /eitzan/ “Ala, etxea!” eta horretxei andriai eta danai argixak amata eta laga eben illunetan kartzelan, eta umi negar eta negar euki eban. Eta hurrengoko egunin, jun zanin aguazille, danetakuk daz ta, esan otsen /esatzen/ ze “Zuek zelanik zaze argirik baik?”, “Es ke horrek ein dosku, Jose aguazillak ein dosku /eizku/ guri argixe kendu”, “Hoba leukie berai eingo balitzake hoixe” eta argixe. Ta handixek hiru egun hortxe, eta erune ben Ondarretako kartzela, eta gure amak eineban hamar hillabete.

1.12. Goseagatik lapurretan egin behar

- **Hizlaria(k)**: Egurrola Urkiola, Lore
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ondarroako Historia Zaleak
- **Erref**: OND-020/005
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:07:16. **Bukatu**: 00:09:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Goseak zeudela eta oiloak lapurtzera joaten ziren, baita ortuetatik azak ere.

Transkripzioa
- Lapurreta, oillo-ostea.
- Orduntxe…
- Gosi geunkan ta nonoa jun ein bir.
- ... bai, noa juten ziñen?
- Hara Saturraranea baiño lenau oillo-ostea, hara…
- Gorozika edo noa?
- Kanpo-futbolea.
- Kanpo-futbolea.
- Hor bagenkixen zeintzuk euazen halakun, zeiñenak zin harek oilluk. Eta berak andrik esaten oskun /esateskun/ bera susta eitten dala ta ia jungo gazen geu oilluai jaten emotea; "bai, jungo ga. Ta gero arrautzai ze ein bir gako?". Neu nitxan holako txakurre, e? neu. Miren gurie ixillaua egoten zan; Mirenek peni be baeukan handixe. Halako baten, oilluai dapart neuk, dapart kokotetik bihurritu neban eta etxea nik, oillo handixaz.
- Hor, gaiñea, peligru… hor amaittu eitten zan, ezta, herrixe?
- Bai, hortxe, hortxe, hortxe.
- Hor ya trintxeri ta tiruk..
- Tiruk [... ze egoten zan ba gaiñea] jesus...!Gu ez giñuzen [...].
- Alaba: Baiñe, ama, gixon batek ez dotsuen ein ba zakuai buelta, azak dakazuela zeuek esan ta…
- A, bai, azak dakauzela eta. Azak, azak be ostu. Kanpo-futbolin... horrek dana zan ortu…
- Bai…
- Kanpo-futbolin dana… dana...

- Bai, baiñe alperrik galdute.
- Dana ortu. Ta han eguazen [han itxitte] danak. Ta ostu genduzen azak eta gixon bat etorri gazkun ta ["hor zertzuk daruzuez?"]. Ta oillue azpi-azpi-azpixen. Ta halako baten "Azak… Azak daz hamen, aide erun etxea". [...]
- Alaba: Baiñe buelta ez dotsuen erain zakuai [...] batek?
-E?
- Alaba: Zakuai buelta ez dotsuen erain ba egun baten?
- Bai, ba, haxe gixonak.
- Alaba: Eta oillu ez dotsuen atrapa?
- Ez doskun atrapa, ez, oillu azpi-azpixan geunkan ta.
- Alaba: Baiñe lelengoko egunin oillu ostu zenduenin ein gatzuen itto.
- A bai.
- Alaba: Ta gero eitten zeuntsen…
- Gero ez… gero amak esan oskun /esaskun/ bihurtzeko kokota. Ia! Amak be zeoze esan biher oskun/bizkun/.
-A! Itto zako barrun?
- Alaba: Zakun barrun itto.
- Zakun barrun itto.
- Alaba: Bai. Gero eitten otsen /etxetzen/…
- Baiñe harek be balixo eban, harek ez eukan ixe.
- Alaba: ... gero kokota bihurtu.
- Guk jan...
-Sufrimiento gitxia kotxauak harek ordun.
- Guk jan [momentuz] baitte zea be! Pentsaixun, amak beatzi... zortzi umen amak... ta aume zarra ta…
- Alaba: Zazpi, ama.
- Zazpi.
- Zazpi eta bestiaz aldin.
- E?
- Alaba: Zazpi, ama…
- Alaba: Zazpi. [Zazpixeko] Agurtxu hildde eguan ta.
- Zer?
- Alaba: Gerrie baiño ariña ez zan hil ixeko Agurtxu?
- Hil zan, bai.
- Alaba: Gerrie baiño ariña. Zazpi.
- Zazpi.
- Bueno, dana dala, zazpi edo zortzi edo beatzi edo… badait asko giñana.

1.13. Arriaga inguruetan ogia banatu zutenekoa

- **Hizlaria(k)**: Markuerkiaga, Domeka
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ondarroako Historia Zaleak
- **Erref**: OND-022/023
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:47:27. **Bukatu**: 00:49:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Egun batean Bilboko Arriaga inguruan jendearentzako ogia banatu zuten. Gudariak han zeuden preso.

Transkripzioa
- Eguazen Itsasaldekuk Arriagako teatrun, han goixan. Han eguazen sartute. Eta handixeik goittik neuri diar ein batenbatek ta. Hori zan sartu eta, sartu zinin, ogixak emoten eta partiuten hasi zin, Bilbon, ba, danak gosik eguazelakun edo. Eta…. ogixek partidu [zittuen] kamioik, bertan Arenalin, zubixan eskiñan. Han hurrin da… Arriaga.
- Bai, bai, bertan.
- Bai ba. Eta harek ikusten eben, ba. Eta haretxek [... gaztan] handixeik goiko bentanatik, soki eta [...] amarra nik ogixe [...].
- Bai.
- Eta hartun [naben] ogixe eta amarra euran sokiai eta...
- Ordun e... honek, gudarixak, Arriaga ganin eguazen eta bestik Arenalin? Ogixe partiduten ebizenak zeintzuk zin?
- Baiñe gudarixak preso eguazen han.
- Aaaa... gudarixak preso eguazen han! Bale, bale, bale.
- Han sartu zittuezen eurok.
- Hori, hori. Ze pentsau dot eguazela han ba…
- Bai, entrega zinien, entrega zinien, entrega zinien, hara sartu zittuezen. Eta harek ikusi [ginttuen] ogixak [...] eta soki baeuken nunundik, soki erria osten /erriazten/ eta amarra eta gora.

1.14. Bonbak Ondarroan

- **Hizlaria(k)**: Arrantza Ondarroan 3
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ondarroako Historia Zaleak
- **Erref**: OND-025/008
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:14:56. **Bukatu**: 00:17:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
  Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena**: Gorriek Ondarroara bonbak botatzen zituztela oroitzen dute. Aita gerrara joan zen ama haurdun zela. Umea jaio eta urte bat eta erdi zuela itzuli zen aita, baina ez zuen umea ezagutu, hil egin zelako. Ama arraina saltzen hasi zen.

Transkripzioa
Gerra baiño lehenauako gauzak di honek. Ta gero, ba, gerra denpori ailla zan, ibili zan hantxe fabrikan, gerra denpori ailla zan, ta gero ba [...] esaten eban morun, gorrixak bonbak botaten zitxuezen hona. Ta juten zin errixure, ta sartu zan geure etxin be bai. "Hauxe da marki! gorrixak, gorrixak hiltxen" esaten eban, gure ama abertzale gogorra zan. Aittan [...] be bai ta bera be bai, ta... bueno, bueno. [Bi bider afusilateko] erun eben Tontorramendire [... eta reketik]. Tripa handixaz euala. Ze gure aitte jun zan gerran [reinakuk laga otsen] txalopi [mariñeruek] ta jun zan gerra ama estado handixin euala. Ta aitte etorri zan umik urte ta erdi dakarrela, horra, e... [mahixa]? Gero [horrek kartzelan] ibili zin Ondarru guzti garbitzen, garbitzen, lotute ta. Eta ez eban ezautu umi, ze umi be hil ein zan. Ata kontuk! Gero, Santoñan be egon zan kartzelan ta [...]. Gauzi da, ba, gero, gerra ezkeo, farbikan be sartu zanetik egun bi, apurtute geratu zin baztarra guztik-eta, ba, gure amak pentsa eban, ba, zeozetan hasi biher zala /bizala/, ostera [ez] arrain saltzen. Ta hasi zan arraina saltzen.

Orduntxe ein zan arrain saltzailli. Ta hasi zan arraiñak saltzen ta ni akordaten nazen gitxixen... Klaro.,i jaixota ixango nitxan, ni gerra ezkeoku na ta. Jaixo ta gero hasiko zan, baiñe bi, hiru, lau urte ta [...]...
- [... ze zuri 38 urteaz...].
- Hoixe ba. Eta arrain saltzen ibiliko zan orduko denpora guzti, aume eukan etxin ta... Eta ba... ba [holako] gauzak pentsaten dot [...], umik giñan ta.
- Hortxe [aurrin] bixi zan?
- Bai, bai, ta saltzen eban hortxe botikako parin, entradi ta botiki erdixan, ha mahaixe akordaten gasta. [...] geure ama hantxe egoten zan.

1.15. Burgosko prozesuagatik protestak

- **Hizlaria(k)**: Ibazeta Solabarrieta, Miren Lore; Ibazeta Solabarrieta, Nekane
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-031/005
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:11:25. **Bukatu**: 00:12:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Politika eta Franco
- **Laburpena**: Burgosko prozesua egon zenean, elizan egon zen jendea protestan. "Cristo Rey"koak etorri zirenean, apaizarengana joan ziren, elizan ez baitzegoen inor.

Transkripzioa
- Miren Lore: Hamen eguazen, Proceso de Burgos eon zanin, ba, elixan sartute, protestan. Eta, bueno, ba, abarik ba, laga eitten otsen /etxetzen/. Klaro, elixi danona dan morun ba, laga otsen /lagatzen/. Baiña, klaro, ba, gero eguazen usaiñak, gerua ta hurria datozenela horrek, gerua ta enteraua eon eta zeozer eskriton bat-edo entrega eta ya hortxe gabin kasualidadez orduntxe entrega eben.
- Nekane: Arratsaldi zan. Orduntxe, dana dalakun, orduntxe amaittu eban, orduntxe amaittu eben /amatxuben/.
- M. L.: Eta orduntxe gabin etorri Cristo Reykuk eta, klaro, elixa jun tzin, baiña elixan ez eben topa eta elixan... jenteik. Elixan ez eben lez topa, abarin etxea eta abariei eurei saki. Don Jesusei ta.
- N.: Ta orduntxe jantzi nittun prakak.
- M. L.: Orduntxe jantzi ebanela prakak.
- N.: Prakak. Handik, handik…
- Lehenengoko bidar?
- N.: Lehenengo bidar.
- M. L.: Biharreako be bai ordun? Biharreako nitzako lehenagotik zebizen. [...]
- N.: Ez dakitz, ez dakitz /estaitz/. Ziur ez dakitz /estaitz/, baiñe dana be ixango zan denpora gitxi barrun.

1.16. "Cara al sol" abestu behar ogi biguna lortzeko

- **Hizlaria(k)**: Badiola Alkorta, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea

- **Erref**: OND-039/025
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:33:57. **Bukatu**: 00:36:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Etxeko leihotik ikusi zituen erreketeak Ondarroara heltzen. Herrian, jatekoa egiten zuten tokira joaten ziren lapikoekin soberakinen bila. Falangistek ireki zuten jantokian "Cara al sol" abestu behar zuten mahai gainean umeek ogi biguna lortzeko.

Transkripzioa
- Errepublikakorik-eta akorduan dekozu?
- Gerra aurreku akordaten naz geu bixi giñan goixan euan ganbari, eta ganbarik eukan bentani horraxe Santa Kutzea, Santa Kutz dakar ixena ermittik eta. Enda hortixeik behera baja zin reketik. Hortik behera baja zin, ta gero batelin –zubixak botata euazen ta– batetik bestea pasa zin. Hori gogun dakat: batetik bestea reketik hori eindde. Ta gero juten giñan gu bixkat, bueno, asko hori ein baik, ba, eon zin reketik hamentxe, hamen eskoletan. Hamen albun daz eskolak, nazionalak ixandakuk, ta hor behian. Beste estilo batea euan ordun, eskillarak eta beheko hori ta hori. Ta han eitten eben jateku ein ta gero sobranti emon eitten eben /etxeben/ jentiai etxitako. Juten giñan lapikuaz jateko bille. Ta han eoten tzin pertsona batzuk, ba, español usaiñekuk ta gu nazionalistak, ta "Horrek fuera, fuera, horrek nazionalistak di ta”. Ta gu, kotxauok, gaztik, ba, ixil-ixilik, buelta ein. Ta hori. Gero falangistak ipini eben on ee zinin, lehen esan doten /esaoten/ zinin aurrin. Ta gero haraxe juten giñan. Ta han ein bihir /enbir/ ixaten zan “Cara al sol” kanta, mahai gaiñea altzata, jan aurrin. Ta, baakixu, jate... “Cara al sol” kantaten ebanai ogi bigune, ta bestiai ogi siku. Ta “Cara al sol” kantateko, haraxe [berta] altza esku eta “Cara al sol” kantata. Han batzuk “Horrek, horrek nazionalistak di, horrek nazionalistak di ta fuera”. Horrek geu... Ta gaur haetxek di nazionalistak, eta gu fuera.

1.17. Atunetan zebilela atxilotu zuten aita

- **Hizlaria(k)**: Badiola Alkorta, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-039/028
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:38:44. **Bukatu**: 00:39:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena**: Rosarioren aita atunetara joaten zen gerra garaian. Itsasoan atxilotu eta Gijóneko zezen-plazan egon zen atxilotuta. Arrantzale gazte bi, aldiz, gerrara bidali zituzten eta han hil ziren.

Transkripzioa
- Zure aitta eta be, berton?
- Ee… hori. Bai, aitte ta. Aitte… aitte itxosun gero ibiltten zan. Eta aitte… hiru txalopa Ondarrun geatu zin. Eta aitte ta beste bi,

aitte ebillena eta beste bi, ba, atunetan. Ta atunak gerua harutza, gerua harutza, ta eitten zin gerua harutza jun. Ein zittuen gorrixak atrapa, ta ein zin plaza de torosen Gijonen, hantxe preso euki zittuezen. Ta gaztik, bi edo hiru euazenak, harek ein zittuezen gerraa bixaldu. Ta bixak… bixak hil zin. Bi badaitt hil zine, ze alabak eukazen, ta alabai esaten otsan harek etorten zanin: “Ondiokan aitte… aitta baik geatuko zaze zuek” esaten ei otsan, ta “aitta baik?” eta “bai, ze gerua harutza guz ta atrapa eingo gaittue”. Ta, efekibamente, atrapa ein zittuezen.</p>

1.18. Saturrarango kartzelara jatekoa eramatera

- **Hizlaria(k)**: Sorkunde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arrizabalaga, Maite
- **Erref**: OND-040/004
- **Iraupena**: 0:04:04. **Hasi**: 00:05:53. **Bukatu**: 00:09:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Benantzi Saturrarango kartzelan egon zen hiru urtez eta irten zenean, lagun bat eta ahizpa neskame zituenez, haiei bisita egitera joan zen. Sorkunde kartzelara joaten zen eguenetan Benantziri jatekoa eramatera eta ama igandeetan. Gogoan du Benantzirekin paseoan ibili izana ere.

Transkripzioa
[...]
- Batez be horrek kartzelan egon zanien eta... Sorkunde zara, ezta?
- Sorkunde: Bai, ze beran alabi zanetik Maria Concepcion, ba, San Fermin bezperan, ipini ostan /ipiniztan/, ba, Sorkunde, neure ama besutaku bera. Eskerrak Sorkunde ipini ostan /ipiniztan/, bestelan Fermina ipiniko osten ta. San Fermin bezperaku na ta. Eta, ba, kartzelan egon zan, ba, nik ez dakit / eztai/ pa hiru urtin-edo eon zan, hiru bat urte edo. Eta esan dotsut / esatzut/, berak urten ebanin, beran lagunai eruten gentsan, berak gehixen e... lagune bat baiño gehixa eukiko eban, baiñe gehixen eukana zan asturiani, Dolores Carpintero.
- Ta gero be joaten zan hanguei gauzak erueten eta...
- S.: Zein? geu? Bai, geure ama.
- Bera be bai.
- S.: Ez, bera ez. Berak kartzelatik urten ebanin, ba, lehen esaten neuana, ba, eukan lagune krixara hantxe, Ondarrun, neu jaixo orduko. Eta, ba, aizti be bai eukan krixara. Eukan Ondarrun ha lagune. Ta eukan aizti Bartzelonan. Ta gero hona be etorri zan, kontixu, ba, diru-edo nahi eban, itxuri. Ta gero eon zan geurin, eta gero jun zan aiztiana Bartzelona. Eta aiztiaz hantxe ba... ez dakit /eztai/ nik.
- Hara jun zan Benantzi, e?
- S.: Bai, ta Bartzelonan eon zan. Kartzelatik urten ta, ba, handik ez dakit ba /eztaipa/, ba [hillak] edo urti edo, ez dakit /eztai/ zemat.
- Laguna: Zati baten bai.
- S.: Eon zan. Ta ha han euan bittartin, gure ama berriz ein zan ezkondu.
- Aaaaa, eta horregaitik e... gero hainbeste [...] eukin zenduzan barriro beste...
- S.: Eeeeee, bueno, bai beste... halaku, bai.

- Laguna: Beste biximodo bat.
- S.: Baiñe zin harek, harek zin aitte baxerrinak. Eta…
- Eta zer kontatzen eban Benantzik kartzelan egon zan sasoien? ze zuek jun eitten ziñien...
- S.: Ba, eee... ia zelan gazen ta "zelan za?" ta "ondo" ta ze esango oskun ba? Ume mokuk giñan ta.
- Ta barruraiño sartzen ziñien zuek?
- S.: Bai, bai. Eta batzutan, batzutan lagaten oskun /latezkun/ e, esaten eben ze, hau, bertako direktori zan Don Pedro, gixon handi-handixe. Edo neu txikixe edo, jo- ta… [ikusten neban gizon haundi]. Ta euan ati bat demasa –ontxe be han da marki–, demasa ati, ate handixe. Eta, ba, ha zati bat irai ta benga, barrure.
- Laguna: Neuk rekuerdo eskasa, [...]
- S.: Eta, ba, [segi] hori, juten giñanin, ba, gu... eguenetan ez gendun eukitxen klaseik mojetan eta, ba, haraxe. Erun jateku bittartin ta aume ikustea. Ama domeketan juten zan, domeka arratsaldetan, bezperak ein ta gero. Eta gu, ba, eguenetan. Eta esaten dotsutena /esatetzutena/, ba, zan guri sinpatixi oskun harek gixonak. Bai, sinpatixi edo sekule ez oskun / eztozkun/ e…
- Laguna: Malik baiko [...].
- S.: Batzuai murruskari edo... baiñe guri… txikixak be bagiñan.
- Eta zuek, umiak bakarrik joaten ziñien?
- Bai, arratsaldin bai, geu halaku hartu ta, jolin. Eta eoten zin garitetan... zin... guk jakin be ez, soldau euazenak zin harek ba. Baiñe gu pentsaten... geutzako guardia zibilak eta horrek eta zin ba... Eta guk pentsaten gendun harek be zinela… eta jo-ta juten giñan bertaa arte bide guztin baztar-baztar-baztar-baztar-bazterretik horra arte, Arbelaitzea arte. Arbelaitzen baserrixan e, halakun sartu ta txixe edo ein biher bagendun / enbibagendun/ edo zeoze, edo ure edo eran ta abante, kartzela. Eta, ba, guri, ba, esaten dotsut /esatetzut/ eta, holanik iñoiz laga oskun /lagazkun/ beraz urteten kanpoa be, ze harek danak eoten zin barrun. Baiñe ixango zan iual egun berezixak edo, ez dakit /eztai/ nik. Baiñe nik dakat hori oroimena, ba, zelan beraz pasietan be ibili ixan giñana.
- Eta aipatzen eban Berrizko beste andra batzuk han euezela eta hori? Ez sekule be...
- S.: Ez, nik ez dot holako...
- Igual ezagutu be ez...
- S.: Igual ikusi be ez, beste pabelloin eta ezautu be ez.
- Laguna: Horrei andrai ez otsen /eztotzen/ lagaten ta.
- S.: Eta jakin, jakin ez. Jakin ez. Ze pentsaten dot eoten zinela, ba, sartu zerin, zein da hori euran e...

1.19. Saturrarango kartzelan ume asko hiltzen zen

- **Hizlaria(k)**: Sorkunde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arrizabalaga, Maite
- **Erref**: OND-040/005
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:09:57. **Bukatu**: 00:12:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

- **Laburpena**: Saturrarango kartzelan ume asko hiltzen ziren, hilkutxa zuria ateratzen zutenean jakiten zuten. Mutrikun lurperatzen zituzten. Anekdota bat kontatzen du, Benantzirentzako zen gaztaia jan zuenekoa.

Transkripzioa

- Sorkunde: Eta gu juten [giñan] gero... Harek urten ta gero, ba, klaro, bixkat zaharrauak; eta, ba, juten giñan eta esaten dotsut /esatetzut/, gure kaleko, hau, Dolores Karpinteruana gero, juten giñan gure kaleko, bueno, esaten dotsut /esatetzut/, mojeta juten giñan guztik. Hasi neu baiño handixauatik eta haunakoxe arte juten giñan; danok. Baztar-baztarretik jun ta harek kanpun gelditzen zin. Eta gu igual barrun geuazen bittartin igual ataten eben /atateben/, honek, kaja zurixak, umik hildde ta. Ta Amaia Uribe da...
- Laguna: Horixe esatera nixun.
- S.: Amaia Uribe da ni baiño 3 urte gaztia, eta aurreko baten esan ostan / esastan/: “Sorkunde, akordaten zaz harek, hainbeste kaja?”, "Akordako ez na ba, zemat ume hildde".
- Laguna: Ha ate handixe honek esan dabena?
- S.: Orduntxe iraitten eben /iraitxenben/.
- Laguna: Eta marki da ondiokan.
- S.: Orduntxe iraitten eben /iraitxenben/.
- Laguna: Ha ate handixe iraitten eban /iraitxenban/ orduntxe. Ta ikasi gendun: “Ene! Ontxe be hilddakue dakarre”.
- S.: Bai ee, zein da hori? Bai, emakumik be bai, baiña kaja zurixak emoten oskun /emotesku/ geuri... uminak.
- Eta, nora erueten ebezan enterretan?
- S.: Mutrikure edo, Mutrikure-edo erungo eben.
- Laguna: Batek baaki.
- S.: Karo, Gipuzku danetik ha, nahitte Ondarrutik bertan eon. Eta, eee... zein da hori? Ba, esaten dotsut /esatetzut/, ontxe be akorda eitten da. “Akordaten za?". Eta esaten dotsut /esatetzut/ “Akordaten za neuaz [...]?”... Gu, Dolores Karpintero ikustea juten giñanin, kartoizko hori lotute halakun, kapazue itxitte e, lotute dana. Eta... eta baten, ba, holantxenik, hau, hau belantxi dana, ta, ba, amak eitten eban /etxenban/ plazan, gaztai [erosi]. Ta niri gaztai asko gustaten gaztan ba. Ta eitten eban /etxenban/, salan eoten zan, komedorin, frutero baten [...] gaiñin, eoten zan gaztai, ba, sikatzen. Eta sikatutakun, bixkat sikatutakun, bixkat hartutakun, ba, eruteko. Ta ni gaztaiai [...], ta, baten, ba, ondiokan ama ezkondu baik, ba, zemat urte eukiko neban? 9 urte ero. Ta... 8-9 urte. Inbidixi ta jo-ta hartzen dot kutxarilli, ondiokan ez euan hain gogorra, ta azpittik... dana. Dana. Jo-ta azpittik gaztai guzti jan.
- Laguna: Azala laga bakarrik, kar, kar, kar.
- S.: Ta amak ipini eban /ipiniban/ inddarrak, eta beran sakramentukin-ta ixaten zan ta fruti ta gaztai ta holakoxe gauzak. Eta, ba, jun zanin hartzea neure gaztaioi, ba, pixoik be ez, ta beatu eban eta ez ei xeban preguntateko be... premiñaik be ez euan. Esan eban “Ba! Sorkunde”, neu nitxan gaztaieri ta. Eta orduntxe esan ei xeban amak “Hauxe da marki – biharra eitten eban /etxenban/, alargundute, ta biharra... baakixu. Ta–, neure umiai ukatzen dotsatena /ukatzetzatena/ eruten dotsat /erutetzat/?". Ta ordun eitten ei xeben txandaka, txandaka: batzutan geuri, ta beste batzutan halaku. Ta tira, [lantzin] jaten gendun ordun. Baiñe, klaro, ezin. Eta gero gure ama, esan dotsut /esatzut/, ba, ezkondu ein zanela. Ta ondiokan ha ezkondute be, ba, eongo zan, ba… Ez, ordurako urtenda… Bartzelonan euan bera; Bartzelonan euan. Eta gero, ba, Bartzelonatik etorri zan aiztiaz.

1.20. Erreketeak etxez etxe abertzaleen bila eta ondasunak errekisatzen

- **Hizlaria(k)**: Lertxundi Kaltzakorta, Terese
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-042/040
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:58:21. **Bukatu**: 01:01:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Politika eta Franco
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
  Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak
- **Laburpena**: Behin bere aita kartzelara eramatekotan etorri ziren beraien etxera. Aita ohe azpian ezkutatu zen. Ohikoa zen etxeak erregistratzea eta bertako ondasunak errekisatzea. Emakumezko erreketeak aritzen ziren lan horretan. Abertzale asko kartzelaratu zituzten; horietako asko eta asko emakumezkoak, ama zirenak. Bilboko Larrinagako kartzelara joaten ziren.

Transkripzioa
- Guri egun baten etorri zin e, aitte kartzela eruteko, etxea. Eta ohie geunkan behian, beheko etxin. Ohie geunkan, ba, nahiku altu, ezta? On bajotxuaua egoten di, eta ordun nahiku altu, ta aitte sartu zan kama azpixan tatarrez-tatarrez-tatarrez, etxea etorten zilako rekisatea. Etxik rekisata? Hor miradorekuai? Dana rekisa otsen /rekisatzen/. Hor denda bat euken, beheko kalin, hor behian, beheko kalin, on taberna [txino] bat da. Eta ha be kendu otsen /kendutzen/, nahi dan beste gauza be kendu otsezen /kendutzezen/ etxitatik. Andrak-eta ibiltten zin, andra erreketik eta, etxik errekistaten. Ta aitte sartu zan kama azpixan. Gixon bat etorri biher zan /bizan/ etxea, aitte kartzela eruteko. Ta andra handi bat, andra handi bat zan, Juana. Harek esan ei otsan /eixotzan/ e... ordun e... “Xaxi”... ez dakit /eztai/ entzunde... ez dozu eukiko entzunde “Xaxi”. Txarrak, gaiztuk. Ha, ha ibiltten zan etxita etorritte. Ta harek andra handixak esan ei otsan /eixotzan/, frankisti zan, ta harek esan ei otsan /eixotzan/ e: “Ze Jose Mari? – esan ei otsan /eixotzan/– Hamar umen aitte kartzela eruten bazu, harek umik ze jan biher dabe /birdabe/?" esan ei otsan /eixotzan/. Eta aitte ezkutata eguan lez, zapo. Entendiduten dozu / entendiutezu/? Pentsa be ez kama azpixan egongo danik, ta ez eben erun.
- Eta ze delitu edo ze ein eban ba?
- Delitoik ixe be ez, abertzali ixati!
- Abertzale guztik kartzela erun zittuezen, hor gehixenak, [familixa] handiko familixak? kartzela umik... Bat kartzelan jaixu ondion bixik da. Kamiñazpin bixi da ha, Elizabeth. E.. holantxen e... familixan... Teresa be bai, nahi dan beste seme-alaban ama, ha Kantxopeku, ha be barrure, kartzela ha be.
- Andrazkuk be bai?
- Andrazkuk, amak, amak. Umik laga etxin ta.
- Ha besti, esan dozuna, enbarazada kartzelan?
- Bai, enbarazada jarri kartzelan, ta umi ixan bertan. Entendiduten dozu / entendiutezu/? Elizabeth ixeneku.
- Nungo kartzela [...]?
- E... hamentxe hurrea, zelan diz honek kartzelok e... Donostin ta Bilbon ta.
- Bilbon, bai, Larrinaga ta...
- A! Larrinaga edo.. haraxe.

1.21. Ondarroarrak Saturrarango kartzelara jatekoa eramatera

- **Hizlaria(k)**: Lertxundi Kaltzakorta, Terese
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-042/042
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 01:01:10. **Bukatu**: 01:02:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Saturrarango kartzelako presoak ez ziren bertokoak, madrildarrak eta ziren asko eta asko. Ondarroako jendeak jatekoa eramaten zien. Kartzelan bertan jaiotako bi ume Ondarroako familietan hazi ziren.

Transkripzioa
- Bai, Saturraranen, bai baiña Saturraranen egon zin presak ez zin ondarrutarrak, Madrilttik eta Valladolidttik etorritxakuk zien harek.

- Bai, Ondarruko jenti juten zan, ez?
- Ondarruko jendik erutetzen jateku, jateku erutentzen ta esangotzut beste gauza bat; horrek Ondarrun askok e, hau be juten ei zan erutea jateku, panaderixan mutil txikixe dala, panaderixan eitte ban biharra mutil honek eta panaderixan sobraten zin ogixak erutera jute ei zan; beronek esate ban haraxe Saturraranea. Eta hau besti hau, Anjaixuk egon zin hamen neska bi, haretxek jaixotakuk hamengo haixe ondarrutarrak hartute bertako etxeako, bai. Eta gero, ume bi ixan ta hamentxe bixi izenak umik, neska-mutillak Ondarrun gelditxu zinak. Oin gurasuk hildde dakarrez e, ez ama bizi(r)ik, ama bizik batenak! Ama bixitan (...) ta madrileñie edo eztakitt zer zan, ta holantxen ta hau Pilarren ama be, hiru umeaz edo etorri ei zan Madriltxik geure (...) eta halantxen ba gurasuk hildde baiña gero umik hamentxe geatu.

1.22. Aita eta aitona atxilotu eta erdaraz komunikatzen jakin ez

- **Hizlaria(k)**: Osa Etxebarria, Agurtza
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-044/004
- **Iraupena**: 0:03:07. **Hasi**: 00:05:00. **Bukatu**: 00:08:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Bere aita eta haren aita ere Ondarroakoak ziren, biak arrantzaleak. Aitonak ez zekien erdaraz. Motor txiki batean joaten ziren arrantzan. Behin gizonezko bat ikusi ei zuten beraien motor txikian sartzen eta handik Pasaiara eroan zuten. Horrela jakin ahal izan zuen Agurtzaren amak aita eta aitona atxilotu zituztela. Baina Agurtzaren ama ez zen ezer egin barik geratu eta bere senarra eta aitaginarreba askatzea lortu zuen. Ama konpontzen ei zen erdaraz, baina gizon biak ere. Hala ere, berba gutxi batzukaz poliziekin ulertzea lortu zuten.

Transkripzioa
- Eta aitta?
- Aitta Ondarruku, Ondarruku, Ondarruku.
- Arrantzali, edo?
- Arrantzali, euskeraz ez ekixena…
- Erderaz...
- Ez, erderaz ez ekixena. Parkatu! Eta aittitte, beran aitte, arrantzale, arrantzale, arrantzali, erderaz ez ekixena. Eta garai harek be ezin ixango onenak, ta holako motor txiki bat euken ta aitte ta semi juten zin arrantza, arrantza txikire, eta hor baten batek ikusi zittuzen gixonezko bat sartzen euran motor txikixin. Eta ordun danak alerta egoten zin. Eta hor, ba, Pasaire, Pasaire erun zittuezen, eta hortik jakin eban nire amak Pasain deteniute euazela aittitte ta aitte. Baiñe nire ama zan “de armas tomar”. Kresala eukan gorputz osun, odolin ta danin. Ia preso, ba, ia zer ein ddaben preso eukitxeko. Jun Zumaixa, jun, eta baekixen erderaz nire amak, ez eban ondo jakingo baiñe, baekixen. Eta bueno!, ata eban buru eta libra zittuzen aittitte Txomin ta beran gixona. Ta "zer galdetu dotsue?” galdetu otsan /galdetutzan/ etxea etorri zinin. Eta Isidro, Isidro ba aittan ixena ta Txomin aittittana. “Isidro, zer esan dosku /esasku/?” aittittak eta, “Ba, baten bat erun doule. Esan dotsau ba baietz, haraxe ixule, Pasaire ixule, ta ie erungo gendun". Eskatu otsela /eskatutzela/ eta, ordun, baietz esan

otsela /esatzela/ eta erun ebela. Ia ikusi eben zeoze erun ebana /erubana/ eskutan edo patrikaran edo... Hain gitxi ekixien, esan otsen "No –"no" eta “si” bai–, no, manos entró, manos salió”. Nik ez dakit /eztai/ argittu bazin ez bazin polizixa harek, baiñe eurak nahi otsela /naitzela/ esan: “Entró con manos vacias y salió con manos vacías”. “Manos entró, manos salió”. Hoixe zan emon otsen /emotzen/ erantzune nire aittak eta aittittak. Beatu zematea arte ez ekixien erderaz, ezta? Garai hartan...

1.23. Gerra Zibilean etxekoak bananduta

- **Hizlaria(k)**: Osa Etxebarria, Agurtza
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-044/019
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:25:52. **Bukatu**: 00:27:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Espainiako Gerra Zibila hasi zenean, bere ama inude zegoen Zaragozan eta beraien Ziortza-Bolibarko baserri batean. Aita langile-batailoietara eroan zuten preso. Agurtzak sei urte zituen eta ama beraien bila joan zen baserrira umeak hartu eta Frantziara joateko. Baina Agurtza gaixorik zegoenez, amak bera han utzi eta bere neba-arrebak hartuta pasatu zen mugaz bestaldera.

Transkripzioa
Gerri sortu zan, gerri honuzke etorren, gu baserrixan geuazen, ta gerri sartu zanin aitte “trabajadorita” erune ben. “Trabajos forzados” edo ixango da gaztelaniaz, ezta? “Trabajadorita” erun eben. Eta ama etorri zan baserrire umik jasotea, beste aldea pasateko, Frantzi aldea pasateko. Hor zan ixiko Maritxu ezautu ebana, barkun ixuzela, nire bigarren ama moduku ha. Eta ordun, ba, etorri zan baserrire umik jasotea. Nik ordun neukazen 6 urte –36xan gerri, nik 6 urte–,ixiko Mirenek 8 urte ta 9 urteik be ez ondion, baiñe hortxe. Osaba Domekak 2 urte gitxia, nik 6, 4 urte osaba Domekak. Baiñe ez dakit ba /eztaipa/ nik zer eukiko neban kostipau edo eztule edo katarru edo ez dakit /eztai/ zer eukiko neban –nik sekule baserrixan ez neban gaixoik euki te–, eta amak ein nittun, ba, ez nitxala ondo billatzen, sukarra edo kalenturi edo neukala ta, eta baserrixan laga. Eta bera jun zan nire aiztiaz eta anaixiaz pasa zan Frantzi aldea gerratik. Hortxe ixan zan nire gerra denpori, 6 urteaz, baserrixan pasa neban.

1.24. Gerra garaian Lekeitio aldera ihesi

- **Hizlaria(k)**: Uriarte Elordi, Elisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-050/011
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:16:20. **Bukatu**: 00:18:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

- **Laburpena**: Bi urte zituen gerra sasoian. Berak ez du oroitzapenik, baina tiroak botatzen zituztenei "kakati!" deiadar egiten omen zien, etxe atarira irtenda. Etxekoek ganaduen jatekoa gauez prestatzen zutela ere entzun izan du. Azkenean, alde egitea erabaki zuten. Trasteak astoan hartu eta Lekeitio aldeko baserri batera joan ziren.

Transkripzioa
- Bueno, gerri... nik urte bi neukezen gerra denporan eta orduntxe gurin... alde ein gendun guk. Bueno, ni umi nitxan ta alde... Osea, horrek esan dabena, hortik tiruk botaten zittuenin, gure [etxe ondoa], nik urten ein neban, urte biaz, eta eitten neban, badakizu, umik gaztetan zertu eitten dala, konturetu eitten dala molestaziñoie ta “Kakati!!!” eitten ei notsen diar, esaten osten /esatozten/, [...] urten ta hor tiruek botaten zittuenin. Eta gero hamen ez dakit ba nik zemat denporan horrek tirukin-ta bizi... Bai, nire gurasuk eta nire tia-ta, akordetan na, gabaz eitten ei xeben ordun – harek be gerran luze eon zin, kontizu, hor baserrixen–, gabaz eitten ei xeben ganajateku, ganauntzako jateku ta. Eta halako baten dezididu eingo zin aldeten eta Lekeitiora pasau. Astun hartu trastik, eta, honek esan dabena, Etxano baserrixen Asterrikatik behetik gora e, zera, Santa Katalinan bizi... bizitzi... Ez dakit, /eztai/ ba nik zemat denpora, baiñe han denporatxu ein izengo zan han bizi izeten, Santa Katalinan. Ez dakit / eztaitx/ badakizun Lekeition nun dauen, han portuan goixen.
- Bai, bai.
- Hantxe bixi izen giñen, bizi... ein giñen gu. [...] Eta ordun be jabonaduri eittea-ta bajetan ei zin hatxea, hatxetako ta... esaten eben e gure zerak. Nik neuk gogun ez dauket, baiñe Lekeition ba...

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. Ezin ezpainak margotu

- **Hizlaria(k)**: Arretxe, Mikaela
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ramos Elordi, Ander
- **Erref**: OND-001/011
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:19:05. **Bukatu**: 00:21:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Apaintzea
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Ahizpak beti margotuta joaten ziren, eta behin Mikaelari ezpainak margotu zizkioten, baina aitonak berriro etxera bidali zuen muturra garbitzera. Orduan, berak gaztetan izandako neska-lagun baten inguruko anekdota kontatu zion aitonak.

Transkripzioa
- Eta zer da hori kontaten dozune ha lehena euki ebanela nobixa bat eta laga ein ebala ta...
- Aa... Bai. Ez, hori berak esan ostan /esastan/ holantxenik ez gakon gustaten pintxata-ta juteik. Baten holantxenik neuk e...
- Makillata?
- Bai, makillata. Eta egun baten, ba, nirin aiztak, neu baiño bat zaharraua, eta besti gazte, nire hurrengoku, eta harek beti ezpanak-edo beti pintxaten

eben. Eta egun baten nik, ba, esan osten /esasten/ ze, zain euan bera behian, pasieta juteko, eta esan osten /esasten/ ze: "Mikaela, bixkat ezpanak pinttako dotsuauz /pintxakotzuauz/". Eta, ba, pintta ostezen "pintxaztezen" politto eta, ba, baja nitxan behera, neure etxetik behera, eta entrada baja nitxanin, beatu ostan /beatuztan/ ta esan ostan /esastan/: "Zu aide etxea eta garbittu hori arpeixoi". Ta orduntxe konta ostan /kontaztan/ zelan berai pasa gakon, ze, Pasain ibili zala itsasun, Pasain. Eta, klaro, han ein ebala, ba, nobixi ein ebala Pasain.
- Pasaiku?
- Nobixi ein ebala, bai. Eta, ba, guapi, guapisimi beti, bai, eta zeata enamorata euala beraz ta dana. Eta egun baten gerta zala aberixiaz etorri.
- Bafora?
- Bafora, bai. Aberixiaz etorri bafora, ta, klaro, ba, esan ebala eze "On Ondarrure jun biher na /bina/ etxea, amai eta aittai bisitti eittea" esan ebala, eta jun zala neskin etxea, ba, esatea, ba, Ondarrure datorrela. Eta neski, ba, klaro, urten ebala, diar ein otsanin /eitzanin/ urten ebala entrada, pintta baik eta ixe baik, ohittik altzatako modun. Eta hain erun ebala desilusiñoi handixe, gehixa ez zala jun be ein berana. Ta horretxeaittik ez dabela nahi neu be pinttateik ixe be, eta ez dostan lagaten, ez dostan lagaten pintxaten be ez dostan lagaten.

2.2. Arropak zelan garbitzen zituzten errekan

- **Hizlaria(k)**: Arrizabalaga Alegria, Tere
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-010/015
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:18:18. **Bukatu**: 00:21:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Kortazar, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: Tere jaio eta lasterrera, gerra hasi zen. Bere gurasoak amaren jaiotetxera joan ziren ganadu eta guzti. Lehen ez zegoen garbigailurik eta kirruzko izarak zelan garbitzen zituzten azaltzen du, ereinotza botatzen zieten. Errekara joan behar izaten zuten garbitzera. Bere amak garbitokia jarri zuen.

Transkripzioa
-Zu jaixo ta seixen gerriek urten ban?
- Seixen ta gure aitte ta amak urten bir izen ben etxetik kanpora euren baserrire ,osake aman etxa. Aman jaxotetxa. Ta gure baserrixe, Santana, geldittu zan hutsik. Hutsik baiño be, bestelaik aittitte ta amume pentseten dot bertan ixen zile, baiñe ganauek, behixek eta euki zittuzen hamen, Arropaiñen. Baten batek lehengusu edo euken bittarteku eta Santanakuk eta Akitxarranekuk euki zittuazen baserri [...] zer, hamen euki zittuezen Arropaiñen gerra denporan urten ein bir izen eben bai, gerra denporan. Ta baakixu gerra denporan e, en fin, ni akordaten naz, bueno, akordau ez na eitten ezer, ze ez nitzen, ze urtebeteik be ez neuken eta zer akordako naz ba. Baiñe eurek esandako gauzak, bai, bai ordun, ordun osake labadoraik eta izer be ez euen, eta gaiñea useten zan ordun kirruzko izerak eta useten zin, ta horrek garbitzeko izeten zan, eukitten eben, holako bukoien moruko zerak, barriek eta ez dai zelako, esaten ban amume difuntik ez dai /eztai/

zelako arrabixok eta ez dai zer da bai dai zer ta eriñotzak bota ta ez dai zelan eitten zittuzela. Ta gero, ama difuntik ipini ban labadori, labadori zera, labadora fregadera horrek urten ben ba? Haxe, ta urten banin ba pozik, gero ba erreka juten giñan zertzen, deslabu ebaitten ure emondakun siketi handixe zanin, ostontzin manantialak emoten ban geutzako izeteko beste, emoten ban, baiña jabonaduri eta deslabetako jun ein bihar izeten giñen. Honetan siketi zanin. Akordaten naz “el año cuarenta y siete”n edo ei ban sikete haundixe, ta ni gazti nitzen, baiñe juten giñan erreka.
-Ordun, zuen ama modernie?
- Bai, labadora fregaderi ipini ban, ta pozik bera. Ongo labadori ikusiko baban, ene Jangoiku!. Ta jabonaduri astin behin eitten zan, baiñe aste erdixen be kanbixau nahi ixeten zan in, porke plaza ta juten baziñen ta iñok ikusteko ba dezente urteteko ,erdixen be kanbixau ein biher ixeten zan. Ez egunin egunin ,baiñe aste erdixen bentzat kanbixau.

2.3. Bi ikastola Ondarroan: "Sindiosku" eta "Kondiosku"

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Malaxetxebarria, Jesus; Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-011/007
- **Iraupena**: 0:00:43. **Hasi**: 00:10:32. **Bukatu**: 00:11:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- **Laburpena**: Ondarroan, gerra ostean, hasieran ikastola bakarra ireki zen, baina gerora bitan zatitu zen: "Sindiosku" (sin dios), laikoa, eta "Kondiosku" (con dios), konfesionala.

Transkripzioa
-Ondarru ixango da bi ikastola dazenak, umenak. Bata da "Sindiosku" ta bestia "Kondiosku". Zuk ez dakixu hori?
-Ez, ez.
-Esaizu.
-Bueno.
-Bata "con dios" ta bestia "sin dios".
-Bueno. Eskola barrixak hamen hasieran... Ikastolie bat lelengo hasi zan. Baiñe gero denporiaz ikusten eben ba laikua ixan biher zala, erlijiñorik ez ebela emon biher, eta hori behartzie dala jenti eta bakotxak berak eukeratu biher dabela eta. Hortik zatiketa bat etorri zan ta batzuk geratu zien erlijiñoie batea, ta bestik ba bape barik. Hoixe ra honek esan dabena.

2.4. Beldurraren erlijioa bizi izan dute

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Malaxetxebarria, Jesus; Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-011/012
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:16:25. **Bukatu**: 00:18:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
  Politika » Euskara eta politika
  Euskara » Euskararen egoera
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- **Laburpena**: Eskola erdaraz zen eta ez zuten ezer ulertzen. Gerra aurretik dotrina euskaraz ikasi zuten, baina ostean erdaraz ikastera derrigortu zituzten. Behartuta joaten ziren eskolara. "Beldurraren erlijioa" bizi izan dute. Eskolara gustura joate hori ikastolak sortu zuen.

Transkripzioa
-Eskolara gustora joaten ziñien?
-Dana erderaz. Eta tutik enteretan ez, ixebez! Belarrixeko zaratie balitz... Dotriñan be bai lelengo euskeri [inponidu oskun]. Ta gero ein oskun, erderaz sartu [...] guri. Komuniua in biher [nunin], lelengo dotriña txikixe zan eta [dotriña] handixe. Euskeraz ikasi gendun. Ta gero inponidu oskun dotriña txikixe ta handixe erderaz. Hoixe inponidu oskun guri.
-Ba gustora ez giñan juten, behartute juten giñan. Ez geunkan beste irteerarik eta jun in biher. Ze ordun guk euki dou, erlijiñoia euki dou... Nik "bildurrezko erlijiñoia" esaten dotsat horri.Erlijiñoia euki dou beti, ba "hau itten bozuen pekatu re /da/ eta pekatun [iltten bazazie] inpreñure jungo zaze, ta sutan erreko zaze inpreñun, eta holako gauzak zien. Eta ordun derrigorrin jun biher giñan eskolaa, juten giñan derrigorrin. Honek esan dabena, danak zien erdaldunak, eta guk erderaz ez genkixen izebe. Ta gero ein biher izaten gendun han ikasten genduna burun sartu, graba burun; graba itten gendun. Eta ez gendun ulertzen izebez. Hoixe zan gure eskolie. Handik eta itxesora jun arte holantxe ibilli giñan. Baiña ikastetxera gustora jutie-te oingotxe, ikastoliek sortu dau /rau/ hau hemen. Hori sistema hori ikastoliak atara dau. Gero honek PNVko ikastetxiak be herri-ikastoliai horixe kopiaxu ein etse. Baiña gero ikastolien sistema, [andereñok horretxek tratue...]. Ikastolako ikaslik honek juten diez ikastetxera gustora. Ta gure denporan sekule be ez holakoik. Behartute, derrigorrez jun biher giñan.

2.5. Elizaren diktadura: mutikoak "teologo" eginda

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Malaxetxebarria, Jesus; Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-011/025
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:31:22. **Bukatu**: 00:33:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- **Laburpena**: Kexu dira elizak eragin zien zapalkuntzaz. Dena bekatua zen. "Beldurrezko erlijioa" deitzen diote. Sarri egunean bi aldiz joan behar izaten zuten elizara. "Teologo" eginda bukatu zuten. Eskola ikasi, ostera, gutxi. Kebradoetara heltzen baziren, pozik.

Transkripzioa
- Jesus: “En cuanto” elizi “tarari que te vi”, elizi. Ai, kaguen, […] inpreñu jo ta zarati, inpreñu, inpreñu, joe!

- Inddarra euki eban?
- Jesus: Bai, dana zan pekatu, dana zan pekatu, seigarren mandamentu, gaiñea hori […]
- Zein zan seigarren mandamientue?
- Jesus: Ta konfesiñoi eitxa jun bir ziñan.
- Patxi: Sexo kontu zan seigarren mandamientu.
- Jesus: San Luiskuk eta esan eizuz /esaixuz/.
- Patxi: Ba bueno, ba hori lehendik etorren, gure aurretik etorren, andrazkuk zin neskatila gaztik zin kongregaziñoi kongreziñoikuk esaten dizenak, Ama Birjiñi zan euran kongregaziñoi. Eta horrek, eta mutilak euken beste kongregaziñoi: San Luiskuk esaten dotsen. Eta hor ezaten zan domeketan konfesa eta komulga, konfesa eta komulga eta halan ba elizan sartute. Eta hortik aparte lehen esaten dotena, hasiera baten nik esan dot horrei, bildurrezko relijiñoi geunkan ordun, gure denporan be, hoixe zan dana: pekatu eta horretxek danok. Niri, normala zan eta goixin altxa zortziretan umetaz,eskolan nabillela, altxa zortziretan, eliza jun mezata, handik etorri, armoza, mandatuk-eta ein eta prepara, beatziretan eskola. Eta sarritxan arratsaldin dotreiñi zala, elizako erresaixu zala, salbi zala,besti zala, illuntzin be beti eliza, eunero-eunero-eunero holantxenik
- Jesus: Teologo eindde geuazen gu ordurako, teologuk. Elizi? Jakin? Baitte eurak baiño gehixaua be, jakingo ez gendun ba, besteik ez euan-ta. [….]. Eskolan “dictado, quebrau de mañana” hantxe-ta. Ta bakizu handik aurrea “raíz cuadrada eta raíz cúbica” irabazten bakizu asko dakizu.

2.6. Dotrina ikasten jo eta ke

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Malaxetxebarria, Jesus; Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-011/026
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:33:00. **Bukatu**: 00:36:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Maisua dotrina ikasteko agindu eta aldameneko gelara joaten zen. Beti dotrina ikasten. Patxik arrebarekin ikasi zituen biderketa taulak. Hortik aurrera ez zuen ezer ikasi.

Transkripzioa
- Patxi: Ni ibili nitxan hor gerra denporan eskolan hasi giñanin ba don Enrique maxu. Haretxeaz ein neban denpora gehixen
- Jesus: Don Benito
-Patxi: Nik gero don Benito. Don Enriqueaz lelengo. Don Enrique honek, maixo bakoitxak beran sistemi eukan, ta honek ba don Benito zan gero hurrengoko maili, gorengoku, eta haren aurrekuk don Enriquek eitxen doskun.
- Jesus: Don Benitoaz ni.
- Patxi: Ba berak eitxen oskun, goxin juten giñan eskola eta lehelengo danoi listi pasaten eban. Lelengo hamen behian tokixe euan ta errekreu esaten gentsan horrei guk, esku altxa da hor eitxen gendun kanta ``Cara al sol´´ ta horrek gauzok kanta,``¡Viva Franco!´´ ta ``¡Viva España!´´ ta horrek ein, sartu barrure. Sartzen giñan, eskolan jarri, lista pasaten eban ta gero ipintxen gatxun danok dotreiñi ikasten. Nik sekule ez dot euki liburo

batik bez ta kuaderno batik bez, kuaderno bat bakarrik euki dot bizitza guztin eskolan.
-Jesus: Enziklopedia bat.
- Danagaz.
-Jesus: Haxe, haxe. Ze niri asko gustaten gaztan beti geometrixi ta aritmetiki, histoixi nik bapez. Honek histoixi [...] eta ostiadak.
-Patxi: Eta ordun harek ipini zoskun /ipiniskun/ sistemi, beran gelan dotreiñi ikasti. Eta eitxen zoskun lelengo ipintxen gatxuen dotreiñi ikasten ta gero bera juten zan beste maisukana kontuk esaten eotea. Ta gero etorten zan denpora bat pasatakun eta galderak eitxen hasten zan: preunta hau, hori ta besti. Eta ahal dabenak ikasten banak ba esaten zotsan /esatetsan/, baiñe batzukin kontu ezin eban kontra errezoirik ata batzukin, ez ben ikasten “txutxutxutxu” ta ikasi bez. Azkanin ein eban fitxero bat ein eban, denpora bat pasatakun fitxerun danok geuazen da halako baten ein eban, hartu eban dotreiñi: “Bueno on ikasi bir dozue /bizue/ gaur hamendixeik ta honaxe arte ikasi bir dozue /bizue/: artikulo honetatik horra arte, kapitulo honetatik horra arte”. Hiru lau preunta ero dana dalaku. Ta gerokun etxen zoskun /etxeskun/ danoi banaka-banaka deitxu eta galdetu haretxek galderak, ez? Eta esaten gendun, ta holanik esaten ebanak ha ipintxen eban lelengo eskolan besti animatzearren, lelengo da besti biarrengo da holantxenik, ba goiz guztin dotreiñi ikasten eoten giñan. Arratsaldin etxea juneran emoten zoskun lesiñoi etxin ikasteko bixamoneako. Eta gero hortik kanpoa irakurten erderaz ikasten gendun eta idazten; eta, gerokun, multiplikarreko tabli, hori buruz ikasi bir zan.
- Jesus: “Hombre!”.
- Patxi: Ba errezena zan “cero por cero” dana zero zan-ta. “Cero por ocho cero, cero por nueve cero”. Ta gero besti ba beatziku ta zortziku-ta bakizu zer dan hori tabli? Ezin ikasitxe ibiltxen giñan. Horrek ikasten gendun gero multiplikar ikasteko. Nik multiplikarre arte ikasi neban, don Benitonea pasa nitxuen eta dibisiñoi, dibidiu bakizu zer dan? Zatiketi ein, ez neban ikasi be ein.
- Jesus: Ilustrauak giñan.
- Patxi: Baiñe arrebi neukan urte bi gaztiua monjetan ibili zana, umetan sartute urte bateaz sartute, harek monjetan kolejixo bat zan herrixan, ta harek asko ikasten ben gure aldin. Eta berak erakutsi zestan lelengoko dibisiñoi ba biaz zifra bateaz eitxen, gero zifra bateaz ein erreza da beste zifra gexauakuk eitxea, eta hori maixuk ez dostan erakutsi, horraxe arte aila nitxan ni, hortik aurrea ez neban izebe ikasi.
- Jesus: Guk ya “raíz cúbica”-ta...
- Patxi: Gero ya hamahiru urte ailla gastazen ta amaitxu.

2.7. Seigarren mandamentua eta txartela

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Malaxetxebarria, Jesus; Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-011/028
- **Iraupena**: 0:03:17. **Hasi**: 00:37:08. **Bukatu**: 00:40:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
  Aisia » Kultura » Dantza
- **Laburpena**: Abadeek benetako galdeketak egiten zizkieten konfesatzera joandakoan sexu kontuetan. Ezkonduta gero, urtean behin

joan ohi ziren konfesatzera eta komulgatzera, "pazkoazkoa" egitera. Dotrina galdetzen zien apaizak. Dena kontrolatuta zegoen. Txartela atera behar horretarako. Patxik txartelaren gorabeherak azaltzen ditu. Emakumeek erlijioaren presio handiagoa zuten. Okerrago pasatzen zuten.

Transkripzioa

Oiñ erlijiñoiagaz ibili garela ta, esan dozue lehen seigarren mandamentu dala ta ez dala.
Patxi: Bai.
Jesus: Bai, dana zan.
Patxi: Ba hor inportantzi handi-handixe eukan seigarrenak. Hoixe zan dana eukana.
Jesus: Ta konfesiñoitxan.
Gaztetan ganera…
Jesus: Ta konfesiñoitxan. “Zelan? Zemat bidar? Zeuk bakarrik?” Iñoaz? Iñonaz? Horrek gero grabik di.
Ezkondu ostien be bai?
Patxi: Bai, bai, bai. Niri hor gauza bat pasa gastan.
Jesus: Ezkondute be ba…
Patxi: Ezkondu nitxan eunin gauza bat pasa gastan.
Jesus: Eske ezkondutakun, eon bixkaten. Ezkondutakun e ez ziñan juten konfesatea ta.
A ez?
Jesus: Klaro. Lehen urtin-urtin jun bir ziñan ta..Urtin-urtin.
Patxi: Bestelanik pekatu zan. Umi noz ekarri ta horrek gauzek.
Jesus: Ta gaiñea txartelana goorra ixaten zan. Neuri gerta gastana gaztetaz zan. “Ave María Purísima, sin pecado concebida”. Ta diñosta ze: “txartela ekarri dozu?”. “Ez!”, “Ba txarteleta aide”. “¡A la puta calle!” Ta ein bir zendun txartela atateko lelen jun bir ziñan sakristeixa,[…] kredu, salbi, ta halaku te bestelaku ta beran galdera batzuk…ta emoten otsun, txartela emoten otsun. Ta hareaz jun bir ziñan txartela eukitxe konfesatea. Ta konfesatakun emoten eben beste txartela, ta txartela entregaten bozu gero komuniñoire jundakun komuniñoin be emoten otsuen beste txartela. Osea dana kontrolata euan, dana! […]Ta zein juten zan ta zein jun ez zan danak kontrolata eoten zin. Han entornun euazen e mangoneaten andrak eta kuadrilla guztik. “Fulanito ez ta jun konfesatea, fulanito ezta jun, urtin behin jun da, ez da juten…”. Ta holantxen behin ezkondu ezkeo ba…“Tu te vas por ahi!”
Patxi: Hori txartelan gauzi de…
Jesus: Goorra niri..baiñe honek be baakar, gero! Hain burun sartu euskun relijiñoi, ta mundu guztin esaten dot nik: haxe fedi bixkat baltza edo karbonu ixan da be ezin gasta jun.
Patxi: Bueno, hori txartelan gauzi da ba ordun Aste Santun urtin behin, Aste Santun, ba konfesa ta komulgati zan ba, obligatoixu zan, ezta ba?
Jesus: Urtin behin,.
Patxi: Eta ordurako, ba kontrola eukitxeko, danok juteko, mundu guzti juteko horra, hori eitxea, konfesiñoi ta komuniñoi, ba Aste Santuk eun grabik eta zin,ta horrek gauzok eta, ba ordun ipini eben, gerra denporan ipini eben txartela. Txartela. Ta hori txarteloi ein bir zan ata, merezimientuaz ata bir zan. Horretako juten giñan dotreiña elixa be, ezta ba? Eunero ta holanik eta gauzak. Ta dotreiñan jakin bir gendun dotreiñin honenbeste parte jakin bir gendun.
Jesus: Bai, bai, bai.
Patxi: Honenbeste errezo jakin bir genduzen.

Jesus: Dotreiñi txikixe ta handixe...
Patxi: Eun batzuk falta zinin txartela atatea juten giñan, behorrek esan dabena eta eitxen oskun galderak han, ba horrek eta erantzun ein bir gendun. Ez pagendun ondo erantzuten txartelik ez toskun emoten.
Jesus: Ta konfesatea jun baziñan ez bada txartelik “a la puta calle!”
Patxi: Txartelik baik ezin zan jun Pazkuku eitxea.
Jesus: Pekato mortala. Ezin leike.
Patxi: Eta Pazkoku eitxea ezin jun. Eta ordun derrigorrin ein bir gendun beste egunin jun, ta beste egunin jun bera egune ailla baiño lehenaua, Aste Santu ailla baiño lehenaua lortu ein bir gendun hori txarteloi. Ta gero horreaz txartelorreaz gerokun juten giñan konfes… komulgatea juten giñan domekan. Eta komuniñoi emon eran norberai haxe emoten gentsan haren truke. Segurantzixe, segurtagirixe.
Andra zein gizon?
Jesus: Bai, bai, bardin.
Patxi: Andrak bardin. Andrakin ez euan hori problemioi. Andrak beti sumisuauak ixan diz. [...] eskukin---
Jesus: Baiñe andrak eta beti presiñoi gehixa eduki rabe. konfesatea juteko, susto gehixa eukitxen eben gizonezkuk baiño.
Patxi: Hoixe zan. Gazte denporan.
Jesus: Bai bai...Mutillan usaiñin ta bakizu ta ikutu [...].
Patxi: Baiñe gero…
Jesus: Txartua pasaten eben emakumik gizonezkuk konfesetea baiño.

2.8. Arreba kongregaziotik bota mutilarekin baltsioan egiteagatik

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Malaxetxebarria, Jesus; Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-011/029
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:40:25. **Bukatu**: 00:42:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Itsasoan lanean hasi zirenean, erlijioaren kontrola lasaitu egiten zitzaien gizonei. Garizuman ez zegoen musikarik. Patxik arrebaren kasua kontatzen du: mutilarekin dantzan egin zuelako katekista neskazahar batek salatu eta kongregaziotik bota zuten. Eskomulgauta geratzea bezala zen.

Transkripzioa
- Patxi: Baiñe gero itsosun sartu giñanin, hori gauzioi, biharrin hasi giñanin, hori gauzioi galtzen jun zan. Ze aste guztin biharra eitxen gendun. Ta domeka goxin be sari sikatu te ha ta hori, ta txalopako biharra ta eitxen gendun. Eta ordun, ba gu horreandik libre eoten giñan, ez? Kostunbri baeuan ta asko juten zin, baiñe obligaziñoi zan itxosun hasi aurrin horrek txartelok eta horrek, eta andrazkuk jarraitzen eben.
- Jesus: Bai, andrazkuk bai.
- Patxi: Itsosure jun /bihar zirelako/bizilako.
- Jesus: Andrazkuk gerua be hor, zuk, kongregaziñoin...
- Patxi: Ta lehen esan dozune, honek esan dabena ezkondu arte...
- Jesus: Mutil batei iual eskutik agarra edo dantzan edo arrima be [...] ein. Ta gaiñea jaixetan be bai, jaixetan musiki joten plazan beatzi pieza joten

zittuen Ondarrun, beatzi, baixakun, gaixuman, gaixuman bapez, gaixuman radikal kendu eben.
- Patxi: Berroi eunin e.
- Jesus: Enda, berroi eunin. Ta gero jaixetan be ba, musiki joten, da musiki iual, bat zan, Marrabal, Manuel Beitia, Manuel [...], bum,bum,bum,bum. Ta Ondarrun, han pasakalli, han joten ebena kiosku, ba kioskotik aparte, han ez zan entzuten, haxe apartetik bum, bum, bum. Ta haxe, abarik korreta beire, gabeko hamarrak, hamaiketan iual, ta hantxe jenti bum, bum, bum situaziñoi peligrosutan. Haxe be kendu ein eben! Haxe musiki be.
- Patxi: Hor andrazkuk euran kongragaziñoin, ba nausixak nire arrebak eta herrixan danak, horren arrebak-eta nausixauak zin ta, ba hamazortzi urteaz ta gitxi gorabehera-ta, ba hasten zin mutillakin baltsiuan ta hasten zin ez?
- Jesus: A la puta calle.
-. Patxi: Ta gero haxe etxin be ez dotsen laaten eta. Eta halako baten, ba gurin arreba nausixauak eta be baeuazen, baiñe batek eun baten, ein eban mutillaz baltsiuan ein eban, tartin ein eban nonoix eta honek, katekistak esaten gakuenak, dotriñi emoten oskun neska zaharrak, honek nausixauak, batek ein eban ikusi, ez? Honek esan dabena ontxe. Eta ikusi eban, ordun harek keji emon eban elixan, harek neskik, haren andrin alabik, ba harek, mutillaz baltsiuan ein dau. Ordun kongregaziñoitxik kanpoa ata eben.
- Jesus: Benga kanpoa.
- Patxi: Ta hori baakixu zelako grabedadi zan etxeako? Amak zelako disgustu hartun eban? Gu gaztiauak billurretan. Eta amak hori jakin banin, zelaku ein otsan alabiai, zelako zigorrak eta gauzak. Eta ordun, gure amak eukan lehengusiña bat, holakoxe bat, gixonan partetik, gure aitxan partetik. Ta trato ona euki eben, da gure amak, kosideraziñoi ona eukan alargun geatu zalako urte askoaz, Ondarrun kaso bakarra zan holaku ta, eta haren mesede handixe ein otsen, horko maistra batei esan otsan, da haretxek parkatu ein otsan gerokun arrebiai delitu hori. Baiñe arrebintzako delitu ixan zan hori, ta kongregaziñoitxik kanpoa. Haxe eitxen eben, kanpoa ataten eben!
- Jesus: Eskomulgaziñoi ixati moure!
- Patxi: Bai eskomulgata latxeik.
- Jesus: Eskomulgata moure, fuera!
- Patxi: Neskai.
- Jesus: Pentsa zelako gauzak.

2.9. Patxiren ezkontza eguneko konfesioa

- **Hizlaria(k)**: Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-011/030
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:42:56. **Bukatu**: 00:45:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena**: Patxik erbestekoa, beste herri batekoa du emaztea. Haren herrian ezkondu behar zuen, eta goiz berean konfesatzera joan zen herriko abadearengana. Homosexual fama ei zuen. Esan ei zion: "Hemendik aurrera lagunak izango gara", esan nahirik bezala handik aurrera ezkonduen intimitateak kontatu beharko zizkiola. Hori

entzutean, apaiz horrekin gehiago ez konfesatzeko erabakia hartu zuen Patxik.

Transkripzioa

Patxi: Eta lehen esan dabela honek hor konfesiñoin gorabehera ta ezkondu ta horrek gauzok eta. Ba holan bazan ta ba ezkontzako sasoi ailla zan hortik aparte ta ordurako urte asko arrastin. Bueno, ezkontzi ezkondu nitxanin ba hogeita beatzi urteaz, eta ezkontzi ixaten zan ba gaur egunin ez dait zelan dan, baiñe gure denpora guztin ixaten zan mezi eta konfesiñoi eta komulgati ixaten zan ezkontzi. Eta ordun, eurak ezkontzen zinak. Eta nik andri erbesteku zan, ta beran herrixan ezkondu bir giñan / bigiñan/. Ta ordun ein nitxan goixin goixa hamen zazpiretan, ezkontzi eguerdixan zan, baiñe zazpiretan jun eta elixa eta konfesa eta bueno jun nitxan don Manueleana. Don Manuel zan hor be gaztetaz guk eukitxen gendun: “Hareana juten bazaz harek arin pasaten dau, hareana juten bazaz harek belarritxik ten eitxen dau”. Segun zelako pekatuk dakazuzen, “ta hareana juten bazaz harek daukezenak barrutik ataten dotsuz”. Lehen beonek esan dabena: “zenbat bidar? zeñeaz ein dozu seigarren pekatu? seigarren mandamientu?” eta hortik…

Jesus: “Eta beste bateaz be bai, zeu be bai” batek esan zotsan /esatsan / beonei: “Kontuz gero nik esan dotelako!”. “Zeu esaten neuri beste bateaz, zuri ze ardura dotsu ni beste bateaz bana ba!”.

Patxi: “En el caso que”zehatzauak zin. Ordun ni jun nitxan don Manueleana.

Jesus: Zapata handi.

Patxi: Errezaua. Don Manueleana jun nitxan.

Jesus: Militarra zan ha!

Patxi: Bai.

Jesus: Militarra…

Patxi: Hori gero esango dozu. Hau laga amaitzen on. Jun nitxan don Manueleana eta honek eitxen eban errez. Esaten eben bixkat marikoi zala ero esaten eben.

Jesus: Bai

Patxi: Ez daitx hori!

Jesus: Bai

Patxi: Eta ni jun nitxan eta berak esan zostan /esastan / ze, estraiña ero aste egun baten goixin goixa konfesatea juti. Andrazku ixan bazan “paso”, baiñe gixonezku juti. Ta halako baten konfesaten gazela, bera holako fresku zan ba, arpeixe eukan ta, “zu zeu zelan zatoz hona e konfesatea ba?”. Ni sekule ez nitxan jun hareaz ta. “Ba ezkondu eitxen naz gaur ta…”

Jesus: Tranpi dala hori.

Patxi: Neuri be beatu ein bir dostazu /enbistazu / berbetan nazenin, ba berantzako txarto ra ta.

Jesus: Han da alkaueti.

Patxi: “Ta ba zu gaur zelan zatoz gaur zu konfesatea?”. Ba aste egunin raru zan ta gixonezku konfesati. “Ba gaur ezkontzen nazelako ta erbestin dakau ezkontzi ta ba ordurako ba konfesa ta komulga hamentxe eitxeko”. Eta bueno ba holan ein gendun eta ordun hori esan netsanin esan dostan ze: “Bueno ordun ezkondu eitxen zaz? Bueno ordun hamendik aurrea lagun handixak ixango gaz”. Eta ni geatu nitxan gorritxute geatu nitxan, hota hamar urte handiaz gorritxute geatu nitxan. Ze, ba, han esatenn eben, ba nausixauak itsosun ta esaten eben: “bai abari marikoi da eta ez dakit ze ondo don Manueleatxik” eta horrek. Eta neuk esan bueno o igual berak esan rban, honek esan dabena, ezkondu eitxen nitxan ta ba ta ordun nahi ixaten dabe ezkondu baik gauzak jakitxi andriai zer da besti ta hori ta, ze

horrek gauzak asko solterotan ebita eitxen zin ta ez ben jakitxen ta. Hori esane banin, konfesa nitxan, komulga nitxan, ta erabakixe hartu neban neure artin erabakixe hartu neban: “Ni ez nu gehixa horreana konfesatea!”. Gehixa ez nitzan jun horreana konfesatea.

2.10. Ezkondu arte sexu harremanik ez andregaiarekin

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Malaxetxebarria, Jesus; Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-011/031
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:45:40. **Bukatu**: 00:47:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Sexu harremanik ez ezkondu arte, baina ez gogo faltagatik. Harremana berotzen hasten zenean, moztu egiten zuten, konfesatu beharrarekin akordatuta. Neska bere etxean utzi, etxera joan eta "eragin" egiten ei zioten.

Transkripzioa
- Eta zuek ezkondu ziñienien andrieri ukitu barik joan ziñien altarera?
- Patxi:: A bai bai bai bai
- Jesus: “Hombre”
- Zeozer eingo zenduen
- Jesus: Ein
- Patxi:: Azaleko gauzak
- Jesus: En zer da?
- Azaleko gauzak...
- Patxi:: Musotxu batzuk eta.
-Azaleko gauzak sikieran
- Jesus: Mamiñekoik ixe be ez
- Patxi:: Bai, baie e sentidu baik, sentidu baik, sentido baik ixan bir zan e.., sentido baik e, eitxen gendune ixan bir zan e.
- Sentidu barik?
- Patxi:: Ba sentidu baik,
- Jesus: Horrek txarto ikasten daz e
- Patxi:: Pekatuko sentido baik ixan bir zan
- Jesus: Horreek txarto, zu! Horreek txarto ikasten daz
-Horrek ondo dakixe ya.
- Patxi:: Ba erderaz esaten dan “amor fraternal” eta “amor maternal” ta horreek.
-Baiñe tentaziñoa eukiko zendun ez?
- Patxi:: Tentaziñoi bai
- Jesus: Bai, sasoi. Ene. Zeiñek..
- Patxi:: Tentaziñoi bai. Irakitxen.
- Hota beratzi urteaz
- Patxi:: Bai baiñe
- Jesus: Itxosun. Txo, itxosutik hogei egun eindde ta etorritxe ta, ta kontaten rekoño, pentsamentu gaiñea hamen, ta neskiaz arrima ra ta ez ta arrima ta, honek beatu ein doste /eiste/ ta bestik ze eta. Jesus!
- Ta zertzuk eitxen zenduezan ordun azaleko horreek zer zien, zirri batzuk eta muxuek besterik ez?

- Patxi: Gerokun aillaten ziñanin gauza berotzen juten ziñan eta punto.
- Jesus: “Eske konfesa baik na ta... konfesa ein bir na ta!”.
- Patxi: Ba “ez hori ez, hori ez!”. Korta en bir de, hantxe ta igual.
- Jesus: “Konfesa en bir nazela ba”.
- Patxi: Etxea jun, eta neski etxea, ta etxin erain gero.
- Jesus: Ez zelan ba, zu. Ze pentsaten dozu? Bat ez! Monuk morun, gehixa. “No te jode!”
- Patxi: Ezin da, ezin aguanta ta neskiaz apurtu te etxea.
- Jesus: Emakume guztik juten zin monugana, ze monu euan han, mono handi bat zahar zahar zahar bat beti kaskaten ibiltxen zana.
-Patxi: Honek esan dabena lehen, ordun arrastin gebizen. Honek esan dabena lehen, ordun arrastin gebizen ta hogetak urtik hogetak eunak ein itxosun ta zezena moure etorten ziñan.

2.11. Masturbazioari buruzko galdeketa eta Santa Teresaren infernua

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Malaxetxebarria, Jesus; Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-011/033
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:47:43. **Bukatu**: 00:49:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- **Laburpena**: "Zenbat bider, zeinegaz?" kanpai-jotzeari buruzko galdeketa abadeak konfesatzeko orduan. Andra ezkonduaz pentsatzen egitea ei zen bekatu handiena. Bekatua ez aitortzea bekatua zen. "Beldurrezko erlijioaren" adibidea ipintzen du Patxik: sermoietan kontatzen zieten Santa Teresaren ametsa: jendea infernuan erretzen betiko, bekatuan hiltzeagatik. Hori barruraino sartuta geratu zitzaien.

Transkripzioa
-Bakarrik egiñikuak be konfesauko zenduezan.
-Bai, "Zenbat bidar"...
-Eurak galdetzen eben.
- "Zenbat bidar". Juten ziñan eta pregunteu beorrek. Hau be bai?, hori be bai? Berak. Ze ostidxa dotsu ardure.
-Zer? Zenbat bidar? Zelanik? Zeiñegaz? Ta norbera lotsatute.
-Zeiñegaz be bai. Ta gehixen beitzen etsena zan ia andra ezkonduaz; haretxek burukomiñe emoten etsen.
-Zetako egixe esan?
-Pekatue zalako!
-Gogorra gaiñera. Konfesatzen ziñan eta komulgaten ziñan, eta zeuri ahaztu baatzu lenauko zeoze pekatu, ha esan biher zendun hurrengun, bestela pekatu mortalin zaaz ta.
-Baiña berak galdetu dabenai, zertako? Ba berak galdetzen eskun berak jakitteko. Eta ez bagendun esaten, pekatu eitten gendun.
-Pekatu, zeaittik hurrengun esan in biher [zendun] ha, hurrengun; retroaktibidadin ein biher zentsan hari, bestela inpreñura zuzen (zindoazen) ta.
-Orduen sinisten zenduen?

-Ordun bai, ordun billurrezko erlijiñoi geunkan.
-Bai bai, inponidu... dana. Zuk deskuidun ez esan, sustugaitxik, haregaitxik, ez jatzulako komeni, eta, klaro, ez bazendun esaten pasatzen ziñan, komulgatzen ziñan, baiña [...].
-Adibide bat hortxe erlijiñozko, billurrezko erlijiñoi, gauza batzuk grabata geratzen diz ta. Baten ba sartzen eskun ba Santa Teresak ein ebala, Santa Teresa ixen zan monjie ta mistiku ta holakotxi; idazlia be bai, eta horrek Santa Teresak Espaiñakuk ba ein ebala, amesa ein ebala baten, eta han amesetan ikusi ebala inpreñú eta inpreñun euazela pertsonak erreten-erreten, harek zirela pekatarixak. Ta guk be pekatu itten badou eta konfesatzen ez bagaz, pekatun hiltten bagaz, ba betiko erreten egongo gazela. Guk horrek eitten gendun, jaixo giñanetik sartzen oskuzenetik eta horrek eitten genduzen mama, dana sartu eitten gendun, sinestu eitten gendun. Nausixek giñan arte, halantxik ointxe arte bizi ixan gaz gu.

2.12. Abadearen igurtziak aitorleei eta aitorleen kontura

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Malaxetxebarria, Jesus; Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-011/034
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:49:26. **Bukatu**: 00:51:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Rico Azpiazu, Aitor
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Patxik kontatzen du abade batek nola lepotik heldu eta "magreatu" zuen aitorlekuan. Arrebak, berriz, kontatu zion berak bekatuak esaten zituen bitartean abadeak eskuari eragiten ziola prakapean. Jesusek dio ezetz esateak ez zuela balio, abadeak bazekielako masturbatzen zirela.

Transkripzioa
- Patxi: Niri beste bat pasa gastan.
- Jesus: Gogorra zan...
- Patxi: Konfesiñoku gero esango dozu hori. Konfesiñoin beste baten don Austiñeaz, don Austin, konfesaten hantxe, konfesaten ta hantxe ta halako baten eoten zin han sartute, ta andrazkuk rejilli eukitxen ben separata ta guk ez, guk libre eukitxen gendun. Bera illunetan eoten zan, gu handik sartzen giñan ta heldu berak holanik kokotetik ta hauxe eitxen ostan kokotin hauxe eitxen ostan, ta ni konfesaten ta ni lotsatute, lotsatute noiz amaittuko. Eta esaten genduzen zirri eitxen otsenela batei da gaztiai ta.
- Jesus: Sarritxan “parte de magreo patriotico”. Nire arrebik etxin esaten ban, nire arrebi zelebri zan, nausixaua, diskreti baiñe zelebri zan. Ba holantxeik konfesiñoiko karreran ez zin aitxatu bir ixebez, baiñe zeozertzuk azaltzen zin.
Ba bera juten zala don Markosenea jun, don Markos zan abari danak jota pasa eitxe zitxun, eta danak haretxeana nahi ixaten ben. “Ra-ra-ra-ra” ta alderdi baten emon, belarrixetan ein pekato bat ein zulako ta parkatute dakazu. Baiñe ha abari ez zan bera bir dan morokoxi. Ta bera konfesaten dala, izterrin hazka ta hazka ebillenela, praka mil rayas eukazenenela sotanan barrutik-eta. Abarik baten. Hor sentidu agertu eban.
- Jesus:”Hau ta hau ta”; “Ez jaune”, “Hori ta besti hori”, “Ez jaune”, “Txo

txo nik barai hori zer dan gero. Sasoi dakazu horretako. Guzurre esaten zaz! Zuk eitxen dozu ta eitxen dozu! “Bai jaune eitxen dot”.

2.13. Linboa

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Malaxetxebarria, Jesus; Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-011/035
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:51:13. **Bukatu**: 00:53:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- **Laburpena**: Jesusek liburu batean irakurritako kasua kontatzen du. Mediku batek xiringa batez amaren sabelean "bataiatu" zuen umea, hilez gero infernura joan ez zedin. Patxik linboa zer den kontatzen du: paraje iluna, ez infernu eta ez zeru. "Linboa" izeneko lur zati bat zegoen kanposantu ondoan eta, bataiatu gabeko umeez gain, fedegabeak lurperatzen zituzten han.

Transkripzioa
- Jesus: On linbune esan eizu /esaixun/, linbune goorra, linbun lehen baakixu zer dan? Ez bazan umi jaixo ta ez bazan bautizaten linbora ixun. Ondarruko kanposantun, kanposanto zati bat euan han linbun linbu, txilin txiliñak. Esan eizu /esaizu/ baten zuk han histoixan ze irakurri zenun mediko batena, bera praktikante egon zana, han histoixan liburo bat irakurri gendun, han Derixon edo topa zendun. Praktikante batek emakumi enbarazata, emakumik ya txarto euala-eta, haxe emakumi hiltxen bazan be ha umi bertan ez bazan bautizaten, inpernure ixun. Ein bir izaten zan ur bedeinkatu sartu eta hantxe bedeinkatu. Bestelan umi hiltxen bazan, inpernure ixun. Aandri hil te umi, bixik barrun, ta haxe bautizatea nu eztai umi Bilboa ixun ta haretxeatxik guati sartu ero jiringa bateaz ur bereinkatu ta berak e, ba hoixe ba lehena abareik ez baeuan be edozeiñek bautiza leiken umi azkanengo momentun etorte’zin ba...
- Patxi: Hori ixaten zalako ba linbu izaten zan umi bautizaten zanin, ba esaten zan ba Jaingoikuana sartu dela, kristianu eitxen dala ta listo. Eta zazpi urtin umik ez daukela arrazoirik eta zazpi urtin pekatuk ba libre eoten zin, ez zan ixaten pekatu, ta zazpi urtetik aurrea konfesa ein bir zan /bizan/, ta horrek gauzok. Eta bautiza aurrin jaixoten zana, umik jaixoten di bautiza aurrin jaixote zinak, ba ordun harek juten zinela linboa, linbu zala gauza illun ba, ez zeru ta ez ifreñu, ta hantxe beti sufriuten eoten zinela, harek bihurtu baik euazelako kristianismure edo kristautasunea bihurtu baik euazelako.
- Jesus: Klaro bi kanposanto, ba albun eoten zin.
- Patxi: Ta honek esan dau Derixon, ba Derixoku jubila ta gero ibili giñan,urtitan ibili giñan Derixon artxibun ibili giñan, elizako artxibutan jaixotzak eta ezkontzak eta herixotzak han jaixotzetan kaso asko ikusten zin .
- Jesus: Andri umiatxik...
- Patxi: Eta Ondarrun ba holan kristautasunin sartu baik hiltxen zinak, horrek eukitxen ben hantxe kanposantun, parte baten eukitxen eben han horrek ez zin kristauk ba, ba ateuk izanda beste zin, eta aparteko lurre, kanposantu lur santu zan berez ta aparteko lurre eukitxen eben. Gaur

eunin ez da, eta iñoiz gerra denporan eta bakarrak hil zinak ateuk zinak eta be, “Atune”-ta ba hortxe kanpun enterra zitxun
- Errepublikanuk be han.
- Patxi: Hori, errepublikanuk eta sozialistak ordun esaten gakuen, hantxe lurperatzen zitxuen.

2.14. Saturrarango presoen umeak

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Malaxetxebarria, Jesus; Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-011/040
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 00:59:20. **Bukatu**: 01:01:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Saturrarango presoak ume txikiekin edo haurdun etorri ziren asko. Haurrek hiru urte zituzten arte bakarrik eduki zitzaketen han. Falangeko andreek-eta ostu egin zituzten hainbat ume hiru urte betetzen zituztenean. Beste hainbat ume Ondarroako familiek hartu zituzten zaintzeko. Horietako batzuk Ondarroan geratu ziren bizitzen. Izen batzuk aipatzen dituzte.

Transkripzioa
- Patxi: Bestelanik, hor ba eitten eben umik, hor hainbeste umek eitten eben /etxeben/ horra sartzen zin presak eta batzuk ume txikixak aldin eukezela; beste batzuk, estadun datozela. Eta ordun, ume txikixak, 3 urtetik goruzkuk, umik eitten eben, honek Falangeko emakumik eta dirodunak juten zin eta umik hartu han, ostu umik, amai eskutatik kendu, eta eurak eruten eben, eurak beste batzuai saltzeko. Eta holanik, erun eben ume asko. Legi ipini eben holan dala hiru urte arte: hiru urte arte umik eukin zeinkin bertan, baiñe hiru urtetik aurrea ezin zeinkin euki, eta, ordun, horretxek jentiorrek, erun eitten zittun. Eta Ondarrun holan familixak eukezenak, presak eukezela esaten gendun, hoxe laguntasune emoten dotsenak. Batzuk lortu eben, hiru urte baiño lehen umi atati handik euraneko etxea aman konformidadiaz. Eta euraneko aitte etxin hazi, horrek libra eitten zin gero kentzea amai eskutatik. Eta holan kaso batzuk egon diz: Maria Laura
- Jesus: Bai.
- Patxi: Pasion.
- Jesus: Bai.
- Patxi: Eta holantxen, ba, hiru-lau kaso egon diz, eta ondion holantxen Ondarrun bixitxen dazenak, handixeik eskutatik librata.
- Jesus: Bai, Maria hil zana, haxe andri.
- Baiña, ostu ebiezan umietariko batzuk?
- Patxi: Ez, han hiru urte ein ixan baben, gero ostu eingo zittuezen.
- A, klaro!
- Patxi: Ta ama geatzen zan ume baik bixi

guztirako. Aurretik hamen, eta urtik pasa eta gero, amak kartzelatik urten ebanin, bittartin jateku eruten dotsen horrek familixorrek, ta horraxe jun zan. Batzuk hor egon zin denpora batez eta gero, euran herrire jun zin. Beste batzuk euran umi hamen laga eben. Beste batzuk umiaz bixitxen geatu zin. Eta bixi guzti hamentxe ein eban, Pasionen amak hamentxe ein eban. Pasion beran umi hamentxe ezkondu zan ondarrutarraz ta hamentxe bixi da. Aume einde da gaur egunin.
- Jesus: Beran gixona hil zan.
- Patxi: Eta beste bat, Maidolos pelukerin-eta lobatzat modure beran ama jun zan hara bixitxea eta hil arte hamentxe bixi ixan da.
- Jesus: Famosu Txurruka pelotaixan famosun andri. Txurruka famosu mutrikuarra handixe. Haretxen andri ixandaku.
- Patxi: Hor beste histoixa bat da Saturraranen, guk historiazalik badabiaune. Eta ongo urtitan pelikuli be ein dabe, dokumentala be bai.
-Pelikulia ein dabe, baina hori, azkenian…
- Patxi: Ontxe zabaldu da Saturraran hamen.
- Bai.
- Patxi: Horretxek zabaldu dau.
- Bai, eta liburuek.
- Patxi: Liburuk eta gauzak.

2.15. Eskola barrian

- **Hizlaria(k)**: Elu Arantzamendi, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-014/035
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:51:11. **Bukatu**: 00:53:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- **Laburpena**: Eskolako hormetan Francoren argazkia eta gurutzea izaten zuten. Abadea joaten zen eskolara, baina dotrinara elizara joaten ziren. Entziklopedia zen izaten zuten liburu bakarra. Euskaraz egitearren beraiek ez zuten arazorik izan. Hala ere, sarreran beti kantatu behar izan zuten Cara al Sol. Ohiko arropekin janzten ziren, baina askotan jartzen zituzten egunkari zatiak zulatutako oinetakoetan.

Transkripzioa
- Kartak. Karti eitteko esaten eustanin /esateztanin/ han... neure gauzak, neure hori izati, hoixe gitxien. Matematikan-ta, ba, matematika ba problemak-eta ixaten zin, ongo gauzak ez zeguazen ordun, ta bueno, ondo manejaten nitxan.
- Ta gero, eskolan bertan eukitzen zenduen erretraturik edo kurtzerik edo...?
- Franco ta horrek. Ta kurutzi ta Franco aurrin. Pentsa, zeure aurrin beti presente zeukazun, Abari etorten zan astin behin edo, bikarixu etorten zan, ez dakit /eztait/ zer esaten euskun /esatozkun/, ee...
- Dotriñie eskolan edo...?

- Ez, ez, ez dakit /eztait/ zetaa etorten zan! ba, haratxe. Hantxe eoten zan ha. Dotriñaa jun eitten giñan gu elixaa. Ee... eskolaku, esateko...
- Ta esan dozu entziklopedixe eukitzen zendula
- Bai, haxe zan geure liburu.
- Ta han ze eukitzen zenduen ba?
- Ba enziklopedia baten eoten zan ba Espaiñiko... Espaiñiko historixi ordun. Haxe zan interesanti eurentzako edo, kontixu, ta haxe.
- Ta kastiguk-eta euskeraz eittearren edo?
- Ez, ni ez na akordaten hori. Esaten dabe toki askotan, e? baserri ingurutan-ta euske... jo be bai euskeraz ein dozulako /eizulako/ be, baiña... Hori bai `Cara al Sol´ kanta ta horrek eta bai, baiñe holako gauzaik ez dot ikusi nik euskeraz eittearren zigortute ta horrek gauzok.
- Ta zuek kanta biher bai.
- E?
- Zuek kanta bai.
- Hori bai, hori bai, sarreran-ta bai, esku altzata, normala.
- Ta, holan, eskolarako ze erropa eroaten zenduen?
- Ez normal, geunkanak, geunkanak.
- Abarkakin eta?
- Ni ez, ni ez abarkakin. Zapatak, igual azpixan zulu periodiko pillo bat ipinitte. Horrek bai. Hori be egixe da! Ta ezin zanin ta...
- Periodikuk zer eitten eban ba? han ure sartuko zan.
- Bueno, sikotan, bueno, behintzat zulu tapata.

2.16. Gabonetako ilusioa

- **Hizlaria(k)**: Elu Arantzamendi, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-014/039
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:59:32. **Bukatu**: 01:01:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Lasarte Akarregi, Beñat
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
  Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- **Laburpena**: Lehen edozetarako ilusioa izaten zuten. Gabon egunak egun handitzat izaten zituzten. Jatordu bereziak izaten zituzten. Bildotsa bizirik erosten zuten eta beraiek hil. Oilaskoa jatea ez zen gauza arrunta, askotan ezkontzetako jakia zen.

Transkripzioa
- Baie gero, lehen edozegaz konformetan ziñien.
- Ah hori bai, hori bai, hori bai…
- Alaba: ilusiño eitteko…
- Bai, bueno Gabonak-eta aillateko...Jesus! On Gabonak dira ta bai…hauxe bez, hauxe be ez dou eukitten ta ordun…ilusiñoi Gabonak! bueno…
- Zelakoak zien ba Gabonak lehen?
- Ederrak, ederrak. Kanta nahi beste, anaxa-arreba guztik kuadrilli batun. Ta gurin Jose anaxe zaharrak gaiñea paiñelu ipintten ebanin bixkat hori inddakun, ala! Kanta ta ba pozik, kartetan ein ta /eindde/ ta jateko be ilusiñoi on aldean. Turroi bi eongo zin: tableta bat gogorra ta bat bigune danontzako. Baiñe…
- Ta zer jaten zan lehen, Gabonetan?

- Ba normalin ba zer esan. Ba zopi, hori bai, hori ez daixela falta.
- Ta zopi, ze zopi?
- Salda garbiko zopi ein, saldi ona. Zopa nausixen, saldi. Ta gero ba, ba okeli, tajadi edo. Ta makallau ta…
- Ta bildotxa ta ez?
- Billotxa ta ez! Billotxa ta gero hasi giñan. Gero txalopak ein gendunin, amak antxoaran ekarten eban billotxa, plazan erosi bixik, bixik erosi. Ta ni juten nitxan mataleku, mateixa eta katillu ta eruten nittuzen. Gurin aizti zaharra zan besti, baiñe ha ez zan mandatuk ta eitten-ta, etxin beti. Ni nitxan holako alkauetexak. Ta akordaten na, zemat bidar, billotxa hiltten ta neu katillu hartzen odola tantaka. On ez, baiñe ordun! Pertsoni ein eitten da edozeta, hartu, billotxa hartu ta etxea, ta bixamonin ba. Hori ixaten zan antxoaran, antxoa asko atrapaten zanin ta txalopak. Baiñe aurretik billotxeta ez.
Oillu hasi zala be, Jesus! Gu ezkondu giñanin oillu bodan ixan zan. Angulak eta oillu. Hori bai! Baiñe oillu zan ordun bodetan-eta be. Gaur beste gauzak dizena oillu zan ordun. Eske ez euan on modun oilloik be ta. On granjak eta urten ebenin /urtebenin/ ba on txintxirrikan, baiñe lehen ez euazen holakoik, baserrixetako oillo bakarrak ta hoixe.

2.17. Musika banda plazan

- **Hizlaria(k)**: Elu Arantzamendi, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-014/041
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 01:01:58. **Bukatu**: 01:04:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Lasarte Akarregi, Beñat
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
  Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena**: Ondarroako musika bandak 6 pieza jotzen zituen plazan: lehenengo 3, atsedena, eta beste 3. Domekako arropak desberdinak ziren, bera ahizpak josten zizkion; takoiak ere 16 urte ingururekin hasi ziren.

Transkripzioa
-Nobixu? Ba…ez pentsa! Nobixu hau hartu neban… zenbat urte neukan? Hogeta bat… hogei, hogeta bat edo…
-Hogeta bat urte.
- Bai…baiñe aurretik, ba Ondarrun erromexeta ta ni ez naz ixan…Ondarrun bai! Pieza… musiki egoten zan, ‘’Izeta’’ ixaten zan direktori ta bandi egoten zan. Joten eben /joteben/ hiru pieza, baltziguan eitten gendun mutillakin ta bai… Ta hiru pieza egindakun ordu laungo deskantsu ta ordun… pasia…da beste hiru pieza…hoixe zan.
-Erropak eta domekakoak eta? Erropak eta…?
- Erropak beti domeketako ba… bai… esaten dotsut /esatetsut/…ixiko, tia bat…, harek josten eban…gero aiztik ikasi eban. Aiztik ikasi ebanin salbo geuazen. Harek…hobetua … Gaiñea ama engaiñateko, sarrittan aizti engaña behar ixaten da /ixatea/. Ze gure aizta zaharrak esaten eban / esateban/ amak… […] ez… ez dakit /eztai/ nik…Baiñe aizta zaharrak esaten dotsanai /esatetsanai/… bai. Aizti engaiñaten baneban segixan erropi eguan. Bai, bai, traje polittak eta eitten ostazen /eitxestazen/ eh

ordun! Bai... akordaten naz.
- Ta takoiek eta ibiltzen zenduzan?
- Bai... 16, 17 urteaz takoi...
- Zenbat eta zarata handixagua [...] egin giñan.
- Bai.
- Ta ibiltzen eta jakin bai? Takoiekaz eta ondo?
- Ondo... ez hain ondo...ni beti makala baiñe ibiltten neban eh! Takoi handixak baik bixkat txikixauak. Ta erropak eta domeketakuk...bai...
- Ta makilleu ta orraztu-ta?
- Ez...makillak eta, makillajeik eta holakoik ez... Horrek gero ikasi doguz, ezpanak pinttati ta...horrek gauzok gero ordun ez. Ez, ez, ordun ez. Orraztu ta ba bai. Pelukeixa be noz juango giñan ba? Sei hillabetetik behin edo... ebakitzea edo baiñe...
- Ebakitzera? Ta permanenti ta...?
- Bai, bai, permanenti be bai baiñe... ''al año San Juan'' eitten genduen e?
- Permanenti igual Aste Santutan edo...
- Bai! On juten gazen modun ez!
- Ta gonakaz eta depilaziñorik bai? Edo...
- Ez, ez... Hori be gero hasi nitxan neure buruai neu bixkat eh... Hasi ez banitxan hobeto!
- Ya baiña gonie euki ta han ulak? Edo...
- Ez neukan gaztetaz eh...holaik eh...Ez! Gero hasi nitxan baiñe ez, ez... kaltzerdixak jazten gendun ta...udan ba...

2.18. Eskutik helduta ezkutuan

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Zubikarai, Ikerne
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-018/036
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:46:19. **Bukatu**: 00:48:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
  Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- **Laburpena**: Jai handia zen Pazko Eguna. Halako egun batean nebekin batera hartutako bermutak eragindako mozkorra gogoratzen du. Nobioarekin paseoa herritik kanpo egin behar zen, inork ez ikusteko helduta.

Transkripzioa
- Edukaziñua-ta, zer zan, askoz itxixaua, eta...?
- Lehen eitten zan, lehen eitten zan...
- Mutillekin eta neskak eta...
- Ni juten nitxan Pazko egunin, ba, Ondarrun aberrixa zelebra eitten zan. Eta nik urteten neban. Hori nobixu [neuan]. Ni horreaz hasi nitxan 24 urteaz. 24 urte, gero ezkondu nitxan 28, lau urte nobixotzat, ta horreaz. Baiñe ordun zan e, dana zan ordun e... Pazko egune eta zelebraziñoik eta horretxek. Eta baten neu, neure anaixak, Aberri egune zelebratea, eta beorreaz nebilen etaesan osten /esazten/ ze: "Hermana, guazen!", eta lau anaixaz jun nitxan eguardixan ta hori. Ta ordun bermute eraten zan ba, mozkorra atrapa neban...! neu ez na /ena/ akordaten sekule, gaixotute, mariata etxea. Zer pasaten gaztalakun ta... bermutak eindde hori. Hau etorri gaztan ta ni ez nitxan /enitxan/ kapaz kalea urteteko; urten ein bihir

douela, pasieta. Ta ordun pasiari eitten gendun Arta, iñok ez gittun [...], herrixan-ta pentsa be ez, porke agarrati esku ta... Nire anaixak ni horreaz "de bracete" ez nttuen /enitxuen/ ikusten, porke bijilaten euazen ba. Eta hogetalau urte! on pentsaten dot ta... baiñe ordun zan... hori, ta ni gaztiena nitxan. Eta begire eta holanik eitten gendun eta horrek eta. Pasieta juten giñanin, Artan zihir, barran zihir jun ixan gaz, baiñe Artan zihir, hantxe geure musutxu batzuk-edo hanntxe emon eta [ya está]. Hori bixkat liberaua zan, porke aurretik euki eban nobixa bi, baiñe neu nitxan moji.
- Berak bazekixan...
- Bai, horrek baekixen, bai; nik ez, nik ez. Ni nitxan moja konpletu, nik errekonoziuten dot. Eta nik alabai, nik hogeta bost urte ein dot portun biharra, eta, holanik e, barkuk etorriadako eta arrasteruk etorriadako eta, ba, zain zazenin arraiñan zain biharra eitteko, konto asko esaten dozu / esateozu/. Ta nik hauxe esaten netsen: "Aprobetxa –gaztiai esaten netsen–, aprobetxa ahal dozuen guzti, e, ni infantile ixan nitxan ta", ni infantile, infantile. Eta, gaiñea be, neuk bixkat ikusten nebanin plazan, neure hamalau, hamabost urte ta –ez na /ena/ esaten 10 urte-ta, e–, neuk esan albokuai: "Txo, mutillaz estu-estu eindde, pekatu da hori e! –esaten netsan–Pekatu da, txo, holako estutzi e". Ta holakoxe gauzak. Ignorantzixi, nik ez nekixen /enekixen/ zer zan, ixe be ez, ixe be ez. Nik ez neki... batzuk ixaten di abantzauk.

2.19. Maisu erdaldunak

- **Hizlaria(k)**: Arantzamendi Mugartegi, Juanito
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-027/003
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 00:03:45. **Bukatu**: 00:06:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
  Euskara » Euskararen egoera
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena**: Mutikotako kaleko giroa ona zen. Herrian sagar asko zegoen eta ostu egiten zituzten. Eskolan erdara zen nagusi maisuak erdaldunak baitziren. Maisu bat oso ona zela gogoratzen du, don Jose Basterra gasteiztarra. Nagusitan gehienak itsasora joaten ziren lanera. Eskola eliza aurrean zegoen. Herriko sarreran, kuartela zegoen eraikinaren aurrealdean, beste eskola bat zegoen, doña Anitarena.

Transkripzioa
- Karo! Ederra gutzat, mutikuntzat ederra, jolin! Eoze leku batera bestea… Jo, apurtu, ostu…Erozer!
- Ostu be bai?
- Bai!
- Ze egoten zan ba ostuteko?
- Ostuteko ze egoten zan? Saarrak gexen bat. Saar asko euen herrixan…
- Herrixen bertan?
- Bai, hor ikusten dan hori berde danoi, danak zin sagarrak. Bai, sagar onak, sagardaua-eta eitxeko-ta, hemen inguruko ontsuenak Ondarrun euazen. Eskola jun goxien, bueno, arratsaldin be bai eskola. Maisuek danak

erdaldunak, ta gero, hantxe!
- Ta zuek erderaz bai, ala?
- Erderaz, guk ordun erderaz. Ez genkixen euskeraz ta erderaz bez. Ba guk dakiauena maiso bat euki gendun, oso ona, Gasteizkua, don Jose Basterra, harek erakusten oskun guri erderie, ondo, ondo, don Jose Basterra. Ta, zeoze ikasi, irakurten be haretxeaz ikasi apur bat. Gero, nausitzen, ba batzuk itsasora, beste batzuk ba zeozer ikastera ba, mendire. Baiña herrixe, dana zan, gehixena itsasuko biharra.
- Ta eskoli nun egon zan?
- Eskoli, elixi joten, daon lekuen.
- On zer da hori?
- Eleixie dau or, ta elixa aurrie zan eskolie.
- Eta Ondarruko danak bertara?
- Bueno ba euezan, goixan da behian euazen, eskola bi, gero, umetxuentzat, mutikuentzat eta, herrixan sarreran, kuartela daon lekuan, hantxe aurrian euan beste bat, doña Anita edo zer zan? Han beste eskola bat.

2.20. Primo de Riveraren argazkia

- **Hizlaria(k)**: Arantzamendi Mugartegi, Juanito
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-027/007
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:11:03. **Bukatu**: 00:13:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Politika » Gerra aurrea » 1923-1931: Primo de Rivera
- **Laburpena**: Maisuak jo egiten zuen; hala ere, ona zela dio. Armiñako kobetara irteerak egiten zituzten eskolatik. Primo de Riveraren argazkia izaten zuten eskolan eta etxera eramateko ere ematen zieten.

Transkripzioa
- Emoten oskuzen ederrak, baiña. Bai, bai maisuk jo eitten eban.
- Zer dala eta?
- Zer dala eta berba ein dabelako, edo ez dalako sasoin etorri edo bestela. Hala, baña hala be gur maisu ona zan, ona. Aber pentsau hemetik eta kobazuluk ikustera eta eruten gintxuzten harek Berriatu atzien han dauz Armiñako koba batzuk haretxek be nik, zortzi urte neukazanako junda na harek ikustea.
-Ta zu Primo De Riveraren sasoian ibili ziñen eskolan, ezta?
- Bai, Primo De Riveraren sasoin, beran erretratuk eta banderak-eta emoten oskuzen?
-Beran erretratu eskolan?
- Bai, etxeako be bai gure eban erun ba emoten eben.
-Etxera eruteko erretratu?
- Bai, banan-banan emon ezkero, ez zeuken probetxorik, Ze iñok be ez ekixen erderaz ta hamen ba bista politxa-edo, harei burletan ibiltxen giñan erretratuai burletan.
- Ta diferentzirik egon zan Primo de Riveraren sasoiko eskolatik eta aparte? edo bardin-bardin?
- Diferentzixa ez dakit ba

- Ba ariñau ero gero klaro gero ya Errepublikan zu eziñan ibilli, ezta? eskolan?
- Ez..
- Edo ariñau zeozer kanbixau bazan edo? Primo de Riveragaz diñot.
- Erderaz gehixo erakusten eben gero Primo De Riveran denporan erderaz gehixo, eta nahiku ondo batzuk asko ikasten eben, baiñe guri ez jakun / etxakun/ komeni zera erderaz ikasti, ezebez. Sagar lapurretako mutille ta arratsaldi holaxe pasa.

2.21. Eskolan erdaraz, kalean euskaraz

- **Hizlaria(k)**: Bedialauneta Arkotxa, Nati
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Basterretxea Alberdi, Aitor - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-032/008
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:11:18. **Bukatu**: 00:12:14
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Doña María eta doña María Lusia maistrak erdaldunak ziren; gainerakoak bertakoak. Hala ere, dena egin behar izaten zuten erdaraz. Kalean euskaraz baino ez zen egiten.

Transkripzioa
- Nati: Bai, Doña Maria bai, hori kanpotarra zan hori. Bestik hori ya, Doña Anita ta Blanquita eta ondarrutarrak, e. Doña Maria Luisa be kanpotarra zan, baiñe harek urte guztin... guk hamentxe ezautu gendun. Harek erdera, erderaz eitten eban /etxeban/.
- Elkarrizketatzailea 1: Eta bestiekaz euskaraz?
- Nati: Iñok be ez euskeraz, erderaz baiño. Euskeraz ordun? Euskeraz ordun? Derrepente hilgo gindduezen. Ez euan, euskeraik ez euan ordun.
- Elkarrizketatzailea 1: Eta erdera jakin zenduen?
- Nati: Erderaz, eskolan. Ikasi gendune erderaz ikasi gendun. Otra cosa no.
- Elkarrizketatzailea 2: Ta kalin?
- Nati: E?
- Elkarrizketatzailea 2: Kalin?
- Nati: Kaliin, kalin euskeraz. Erderaz ez badakiau eitten /ezpakiau etxen/. Ordun gitxi
genkixen eta on gitxia. On ez dou eitten /eztou etxen/ tantaik erderaz ta.

2.22. Gerrako erasoak eta babeslekuak

- **Hizlaria(k)**: Bedialauneta Arkotxa, Nati
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Basterretxea Alberdi, Aitor - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-032/041
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:57:54. **Bukatu**: 00:59:31
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

- **Laburpena**: Gerran, erasoak hasten zirenean, sirenak entzun eta aringa-aringa babeslekura joaten ziren. Gaur egun eskola publikoa dagoen tokian zegoen babeslekua, lur azpian. Mojetako eskolan gurutze gorria jarri zuten, zaurituak sendatzeko.

Transkripzioa
- Sirenaik-eta entzuten zan o?
- Bai, bai. Sartu biher zinin /bizinin/? fua, handixe. Bonbardeu [... zinin] aringa-aringe ontxe eskolak dazen parajea, eskolak dazen parajea. Han subtarreneua da behian, terrazatik, errixo alderdittik. Eskolak hamen, honek eskolok.
- Bai, bai.
- Horrek dakarre subterraneua behian. Ta gu hamen kalaen bixi giñan enda aringa-aringe juten giñan haraxe ezkutatea. Sartu biher zinin /bizinin/ tropak-eta, sireni joten eben, ta haraxe.
- Eta tiroteuak eta balak entzuten zan edo?
- Bai, hamen kanttoipe errebueltan e... ”Migel mutu” ezautu zendun?
- Bai, bai.
- Bueno, ba, orduntxe jun gakon harei, mut... hori... balik jo eban etxin dala, beran gurasukin ta ixikokin edo. Enda etxin sartu gakoen bali, enda orduntxe etorri gakon. Ez dakit /eztai/ mutu zan, ala ordun... ez, mutu halakoxi zan ta "bebebe" gero eitten eban /etxeban/ berba. Orduntxe agertu gakon e, uste dot ee... etorri gakonela berbi. Berak eitten eban /etxeban/ berba bakarra. Migel mutuai. Hamen asko heritxu zin. Gero ostpittala eon zan gerra denporan, len esan doune, mojetako eskoli, hantxe ipini eben Cruz Roja bat, enda, ba, heritzen zinak edo miñe hartzen ebenak, ba, haraxe eruten zittuzen kurak eittea /etxea/.

2.23. Ezkerra izateak eskolan eragindako arazoak

- **Hizlaria(k)**: Amutxastegi Aspiazu, Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-035/003
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:02:20. **Bukatu**: 00:03:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Ezkerra da Lorea, eta eskolan sarri zigortuta egoten zen, ez zuelako besteek bezala idazten. Eskolan aitaren egiten eta eskumarekin idazten bakarrik ikasi omen zuen. Ezkerra izan arren, sinatu eskumarekin egiten du.

Transkripzioa
Eskola jun nitxanin, niri, goorraua pasa gaztan. Nik karnetin Flora dakat ixena. Eskolan... ezkertixe na ni ta ezkerraz eitten dot dana: jan, josi, plantxa, dana. Ta eskolan erakutsi osten /erakutsizten/, sarri egoten nitxan zigortute. Pizarra juten giñan, lehena pizarra juten zan punteruaz eta pizarra jun kleriaz eitten zan eta ni eitten nitxan, zuek hamendik hasten zariena, ni handik. Eta haxe ikasi arte zigortute sarri eon nitxan. Ta ikasi neban bakarrik eskolan, aittiaren eitten eta idazten. Baiñe nik ontxe be ein biher dotenin ixe, ezkerraz eitten dot. Bakarrik eskumiaz eitten dot... firma edo karta bat ein biher dotenin edo, ez na axaxa eskribiuten, ez na, alperra na, nahixa dot mille bidar berba ein, baiñe tokaten danin, hori be ein ein biher /enbir/ ixaten da.

2.24. Semeak umezurtzentzako kolegioan Cadizen

- **Hizlaria(k)**: Amutxastegi Aspiazu, Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-035/010
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:12:50. **Bukatu**: 00:14:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak
- **Laburpena**: Semeek Cadizen ikasi zuten kolegioan, eskola hura zegoelako izendatuta umezurtzentzat: Sanlúcar de Barrameda-ko `El Picacho´ kolegioa. Neskak Mosteiron-eko (Coruña) Carmen Polo egoitzara joaten ziren. Semeek Cadizen kolegioan ikasi zuten lehenbizi eta gero bertako institutuan. Oporretan etxera etortzeko eta itzultzeko bidaia norberak ordaindu behar.

Transkripzioa
- Ta umik, esan dotsuten modun, kolegixun Cadizen.
- Klaro, hori ez dot aittu. Zer dala ta Cadizera?
- Ba umezurtzantzako hantxe egualako bakarrik. Edo aprobetxa bir zendun hantxe estudixati...
- Ta Ondarrun ezin eben ikasi, berton?
- Haxe eguan asignata. Ta Ondarrutik badaz... Ta neskak Galizire, Coruñan, Galizi... Han, Cadizen, Sanlúcar de Barramedan, provincia de Cádiz, Sanlúcar de Barrameda, “Colegio El Picacho”. Eta, hori, neskak Coruñan, Sada Mosteiron, “Residencia Doña Carmen Polo de Franco”. Hantxe eon zin. Baiñe han ze eitten dotsue? Aterkiñe emoten dotsue ta eurixe hasittakun aterkiñe kendu, o sea, premiñi danin. Han ikasten dozu, ba... gure mutillak-eta eon zin kolegixun eta gerokun, ba, bertako herriko instituture, herriko jentiaz eskola. Ta han residentzixan jan ta lo. Ta gerokun, oporretan lehenengo etxea etorteko “bajo tu responsabilidad”, ez dotsuen pagaten. Zeuk ekarri eta zeuk entrega ein bir zenduzen.

2.25. Jaunartzea egin ostean hasten ziren eskolan

- **Hizlaria(k)**: Amutxastegi Aspiazu, Lorea

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-035/012
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:16:05. **Bukatu**: 00:17:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- **Laburpena**: Bi jaunartze egiten ziren lehen, bata zazpi urterekin eta bestea hamaikarekin. Lehenengo jaunartzea egin ostean hasten ziren eskolan, "uso de razón" eskuratutakoan. Eskola nazionaletan ibili zen.

Transkripzioa
- Sasoien, zu eskolara juango ziñen ba?
- Bai.
- Gerraostien eta.
- E?
- Gerraostien.
- Bai. Lehena eskola juteko, jun bir ziñan, hori eindde gero, komuniñoi eindde gero. Lehena ez eguan ongo modun lau urteaz ta bost urteaz eta eskolaik, ez eguan. Lehena eitten zan... komuniñoik be bi egoten zin, zazpi urteaz ta beatzi-hamar urteaz, komuniñoi bi. Esaten eben eskola juteko, euki bir dela “uso de razón”, ta guri erakutsi oskun “que uso de razón es a partir de los 7 años ”, o sea, uso de razonik baik ez ziñan eskola juten. Lehena eskola juten ziñan neska handixe, zortzi urte, beatzi urte, ba haxe.
- Ta zu be zortzi-beatzigaz?
- Bai, komuniñoi eindde. Bai. Ta gerokun hamaikeaz “niñera”, hillin sei hogerleko irabaztea. Ta diru... diru zan haxe be.
- Ta eskolara nora?
- E?
- Eskolara nora?
- Hara. Nazionaletan ibili giñan; bai, eskola nazionaletan.

2.26. Bartolo fabrikatzaileari adarra jo eta gero eskolan zigorra

- **Hizlaria(k)**: Amutxastegi Aspiazu, Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-035/014
- **Iraupena**: 0:00:44. **Hasi**: 00:17:50. **Bukatu**: 00:18:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Eskola nazionalen ondoan Bartolo izeneko baten lantegia zegoen. Tinbrea jo eta abestu egiten zioten: "Bartolo tenía una flauta...". Harek eskolan kontatzen zuen zer egiten zuten eta doña Maria Luisak, eskolako buruak, erregelarekin jotzen zituen.

Transkripzioa
- Eskolatik urten igual ta eguan hamen fabrikante bat: Bartolo Scola. Ta fabriki eukan hor ta Errebala Txikiñin, eskola nazionalak joten. Ta juten giñan ta tinbri joten gentsan ta kanta eitten gentsan: “Bartolo tenía una

flauta con un agujero sólo, a todos les daba la lata con su flauta Don Bartolo". Horretxek kantaten genduzen ta gerokun harek emoten eban parte eskolan ta Doña Mª Luisak, badakixu, "dale que te pego" regliaz danoi. Bai. Ta horren modun ba holakoxe...
- Doña Mª Luisa?
- ... umekeixak. Doña Mª Luisa zan hango buru eitten ebana eskolan, bera zan superiori. Bai.

2.27. Eskolan derrigorrean gaztelania ikasi behar

- **Hizlaria(k)**: Amutxastegi Aspiazu, Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-035/015
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:18:34. **Bukatu**: 00:19:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
  Euskara » Euskararen egoera
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskolan dena erdaraz egiten zuten eta derrigorrean ikasi behar izan zuten. Ondo, gainera. Eskolan neskak alde batean eta mutilak bestean. Irakasle gehienak kanpokoak ziren. Doña Anita zen ondarroarra, baina berari ez zitzaion tokatu.

Transkripzioa
- Erderaz? Bai?
- Dana erderaz. Euskeraz, euskeri zer dan bez.
- Baiñe zuek jakin zenduen.
- Bai ,"por cojones" ikasi gendun guk erderaz. Ikasi be ondo gaiñea. Bueno! Erderaz ikasi? Ondo ikasi be! Berba kilokuk-eta ikasi genduzen guk, berba gatxak be ederto ikasi genduzen guk erderaz. Bai, eskolan dana erderaz. Nire maistri Doña Maria zan, ta bai, erderaz dana eitten gendun. Doña Maria Luisa ta Doña Maria ta erreberentzixi, badakixu, Ama Birjiñiai baiño handixaua. Bai.
- Ta neskak bakarrik?
- Bai, bertan baeuazen mutillak be, baiñe euazen mutillak alderdi baten ta neskak bestin. Gu neska hutsak eoten giñan. O sea, mutillak alderdi baten ta neskak bestin. Bai. Holakoxe kontuk.Ta gero fabrikan beti; fileti edo... arrasterutan be bai hiru-lau bidar ta hiru-lau tokittan ta, ba, hortxe ibiltxen giñan.
- Maestrak-eta nungoak ziren?
- Kanpokuk. Bai. Bat euan, Doña Anita, Ondarruku, gixona dentisti ebana, Ondarruku, baiñe ni hareaz ez na sekule ibili. O sea, ni beti erdaldunakin ibili ixan na. Bai, bai, hamentxe euazenak.

2.28. Kalerako eta lotarako arropa bera

- **Hizlaria(k)**: Amutxastegi Aspiazu, Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-035/023
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:25:50. **Bukatu**: 00:27:20

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Domeketako arropak dotoretxoagoak izaten ziren. Aste Santuetan beroki berria estreinatzen zen, eta ahal zuenak baita traje berria ere. Baita Andra Marietan ere. Eurak asko ziren eta askotan nagusiagoen arropekin edo oinetakoekin ibiltzen ziren. Gainera, neurri guztiak "ondo" edukitzen ei zituzten. Eurei izebak "kamixak" egiten zizkien eta kalerako eta lotarako, arropa bera erabiltzen zuten. Arropa zuria laster betetzen ei zen ardi (arkakuso) kakaz.

Transkripzioa
- Eta jaixegunetarako-ta preparau eingo ziñien zuek.
- Bai, domeketako erropak. Bai, beti. Lehena domeketako erropak eoten zin.
- Zeintzuk zien?
- Ba dotoretxuauak. Lehena Aste Santutan ixaten zan ba... jeneralin abrigu estreiñaten zendun Kontzesiñoi Egunin. Neskatilla gaztin egune ixaten zan ta abrigo barrixak-eta horretakoxe ixaten zin. Eta Aste Santutan, Aberri Egunin ta, udabarrixan, traji edo dakarrenak edo gauza barrixe ta Andramaixetan be bai, etxin jostunak eindde, ba, ahal dabenak. Ta gu asko giñanetik, ba [sarritan] gu baiño... armadorik zinak-eta harek nahi eztakuk igual "zuenin asko daz –zortzi neska euazen– ta baten batek ondo eukiko dau" ta sarri ba... gorputze bai e? tailla guztik ondo. Zapatak be, zein hogeita hamabost ixan, zein hogeita hamazazpi ixan, danak ondo. O sea, “talla única”, danak ondo. Baiñe bai, o sea ke, ba ondo, baiñe gure morukuk be asko euazen, bai. Etxin einddako... gurin tia beti, beti josteko makiñi, neuk be barakat, beti josteko makiñi euki ixan dou, ta tiak eitten eskun /eitteskun/ kamixak manga luzik ta kaleako be abrigata, ta lotako be bera ta hantxe ardi kakaz beteta, ardi kaka. Ardixe badakixu zer dan?
- Bai.
- Tantak eindde koño, zurixe jazten zendun ta gero tantau.

2.29. Arropak garbitzera errekara edo garbitokira

- **Hizlaria(k)**: Amutxastegi Aspiazu, Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-035/024
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:27:20. **Bukatu**: 00:29:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena**: Arropak garbitzera Saturraranera joaten ziren batzuetan errekara, arropak karroan hartuta. Bere etxe azpian garbitokia zegoen. Ura eta Chimbo xaboiarekin garbitzen ziren arropak, harrizko asketan. Xaboia azkenengo tantara arte aprobetxatzen zuten. Arropa zuria lixiba-uretan jarri eta bitartean koloredunak garbitu. Andreen artean liskarrak ere egoten ziren.

Transkripzioa
-Erropak-eta garbitzea-ta, Saturraranea igual erreka. Karrun hartu erropak, erropa lodixak-eta zinin-ta. Mantak-eta lehena urtin-urtin garbitzen zin mantak-eta, labadoraik ez eguan ta. Toki askotan etxin be ez urik eta kalea

jun bir itturrire ta. Bai, o sea ke lehenako biximodu halakoxi zan. Hamen, nire beheian, erreki zan hau publiku, “lavadero público”, nire beheian. Bai, erreki. Ta jenti ba erreka garbitzea, erropak garbitzea.
-Zegaz garbitzen zan? ura eta ze gehixa?
-Jaboi, jeneralin jaboi Chimbo. Jaboi Chimbo ixaten da beti, holakoxe tamaiñoko jaboi pastilla bat. Ta itsosoko erropak-eta grasa-ta asko ba, ta gerokun beti eskobilli. Lehelengo, jaboi emon ta gero eskobilliaz arraska. Eoten zin askak; askak esaten gakue ure ta holanik tablin morukoxi eukitten dabena, harrizkuk, arraskateko. Ta gerokun, jaboi bixkat gastatzen danin, gitxi danin aprobetxateko, eskobilliai atzin ipini, pea-pea eindde ta jaboiaz emon bir zendune, ba, eskobillin popiaz emon ta gero aurretik bestiaz arraska. O sea, aprobetxa azkanengo tanta arte. Bai.
-Eta...
-Eta lejia be bai. Zinke eruten zendun, zinkazkuk. Ba lejia erun. Lehelengo zurixak hori ein ta gerokun beste kolorezkuk eiñ bittartin, harek lejiatan euki bixkat eta gero aklara ta... bai. Sarrittan endredu be bai andrak. Batzuk eitten eben igual zurixak eitteko, ta besti kolorezkuk eitteko aska bi hartu. Ta jente gehixa bada, ze? "Zeuk bi eta nik ez dot bir askaik, ala? Ze? Bakoitxak bat eta nahiku de". Ba danetakuk eoten di danin ta sarri endredun be bai, bai.

2.30. Errekan bainuak barruko arropatan; lehortzeko trikimailuak

- **Hizlaria(k)**: Amutxastegi Aspiazu, Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-035/025
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:29:15. **Bukatu**: 00:32:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- **Laburpena**: Lehen oso normala izaten zen ardiak (arkakusoak) eta zorriak izatea. Etxeetan ez zegoen dutxarik eta errekara joaten zirenean, bertan bainatzen ziren. Berari izekok egin zion bainujantzia, bionbo baten telarekin. Beste batzuek barruko arroparekin bainatzen ziren. Gero etxean haserre ez egiteko, biluztu eta hareatan lehortzen zituzten arropak.

Transkripzioa
-Ardi asko egoan?
-Ardixe, danok ardi-kakaz beteta, kokota be janda eukitxen gendun. Ardixe ta zorrixe lehena, asko.
-Kalien be bai, e?
-Hareik barrun han ibiltxen zin saltoka. Bai. On ezta holakoik, baiñe lehena ardixe ta zorrixe, gu gaztik giñanin, moneda korrienti zan, ontxe makillajiin morun, bardin-bardin. Bai. Ardi-kakak, bueno! Bai. Ta gerokun, klaro, etxetan dutxaik be ez eguan, ta gu erreka juten giñanin, hantxe baiñaten giñan. On igerixan bai, e? Guk han etxin denda aurrin eitten gendun salto. On plazi dana, lehen petrille euan dana, eta petrilletik salto eindde, igaixan bai, igaixan jaixo orduko, danok abante, salto eindde.
-Ta zer erropa?

-Perkala, perkalezkuk.
-Ta trajedebaiñue, edo?
-Trajedebaiñu niri, euki neban trajedebaiñu tiak eindde. Guk han dendan geunkan ohe bi, ta gero, komedoran morun, mahaixe-ta geunkazen, ta geunkan bionbu. Bionbu barakixu zelaku dan? holakuk. Eta lehena eoten zin bionbuk tela loraukin ta kretonazko telak, ta baten bionbuai palo bat apurtu gakon eta ein gakon bisagretatik solta, ta hangoxe teliaz ein estan / eistan/ gurin tiak trajedebaiñu, bonbatxo tipoa. Ba ahal dabenak, ahal dabenak! Ta beste askorek pantaloikin ta kamisetiaz, barruko erropakin. Sarrittan eitten gendun igual plaire jun, barruko erropakin baiñu hartu eta etxin gaizki ez esatearren, gero jarri billotxik eta ipini han hondar sikun gaiñin eta bota hondar siku ta “Sikatu plana” kanta sikatzeko ta gero jantzi. Ez zan hobeto billotxik baiñu hartzi? Baiñe pekatu zan. Ta barruko erropakin askorek, pantaloi hutsik eta barruko erropakin, askorek, bai.
-Eta hori ixikok eiñiko trajebaiñue, zer zan, mangadune?
-Keba, ez, ez, ez. Ontxe eruten dabe petorun bakeruk? Holakoxi. Bonbatxo estiloa, petu ipini, atzin kruza botoi biaz ta hamen, hanka tartin, bixkat gomatxu bateaz, hamen hartute. Ontxe eruten di ba bonbatxuk? Haxe bonbatxu tipoa, bai; petuaz, peto txikixe, teli ailla bez, titi-punta bixak kanpun dile, petu.
-Eta ez zan egoten txarto ikusitte?
-Keba! Trajedebaiñu eukana etxe handiku zan, dendako jaubi zan. Ola! Bai. Hamaike bidar han grisalin, grisala han eskilllarak baja ta igarixan eitteko han etxe aurrin. "Goazen grisalea", ta dendan nik igual tie han dan bittartin-edo ikomelauk-edo dendan hartu ta han eoten giñan eskillaretan jarritte igual jaten. Ta han ibiltxen giñan. Ni aberatsa nitxan!
-Ordun azalan beti kresala eukiko zenduen?
-Bai, baiñe bueno, dan morun, batin azala kendute ta etorriko dala berez ta.
-Erre eta?
-Makiña bat eoten zin gorri-gorri eindde, erreta ta hori.

2.31. Ahizpak belarritakoak jartzeko zuloak egiten zituen

- **Hizlaria(k)**: Amutxastegi Aspiazu, Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-035/026
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:32:35. **Bukatu**: 00:33:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Apaintzea
- **Laburpena**: Bere ahizpak belarritakoak jartzeko zuloak egiten zituen bi patata zati jarri eta orratzarekin zulatuta. Haria sartzen zuen eta hari hari bueltak eman behar zitzaizkion gero. Hiru gizoni ere egin omen zizkien zuloak. Gero sarritan belarritakorik ez janzteko.

Transkripzioa
- Nire aizta zaharrak, bueno, zaharrak... niaz bixi zana, dendan bixi zana —esan dotsut aizta bat euala aurretik junde—, harek danai eitten etsan patati, patata bat gordiñe ipini. Patati, patati hotza ixaten da. Patata zati bat aurrin eta beste patati atzin, eta jostorratza sartu eta danai belarrixan zulu, belarrittakuk jazteko. Eta harixe. Harixe ebaitte, harixe txintxilizke. Ta gerokun harei harixai ein bihar gakon, zolittu baik, txistuaz ein ta harixai

bueltak emon. Ta hiru mutillei-edo be ein etsan zuluk belarrixan nire aiztik. Batei zolittu gakon...! Klaro bueltak emon... Ta halakoxe belarrixaz. Denda han etorri zan, gure tia bixai ataa etsan eskandalu, nire aiztiatxik. Holakoxe gure trabesurak edo gure gauzak edo, baiñe danok belarrixan zulukin han ibiltxen giñan.
- Ta belarrittakoak eta, zelakoak?
- Bueno, gehixenok bape baik, baiñe eukanak zeoze hantxe, tianak ixandakuk edo zeure egunin erregalatutakuk, edo a edo b edo...

2.32. Etxekoren bat hiltzen zenean, lutoa urte osoan

- **Hizlaria(k)**: Amutxastegi Aspiazu, Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-035/027
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:33:40. **Bukatu**: 00:35:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Domeketako arropak aste egunean janztearen inguruko esaera. Etxean norbait hiltzen zenean lutoa erabili behar izaten zen urte osoan. Bigarren urtean luto erdia, grisa edo zuri apur batekin. Eurak beti zeuden lutoan, familian asko ziren eta. Arropak tindatu egiten zituzten.

Transkripzioa
- Ta domeketako erropak, ba, nik nobixu itxosotik etorten zanin, domeketako erropak jantzi ta "Ai, ai, ai, astegun buruzurixan onenaz aurrea? Bai, bai, bai, asko bihako dou /bikou/ guk gutxi luzitzeko". Domeketako erropak zin, domeketako zapatak, domeketako erropi ta harek gauzak edonoiz... astegun buruzurixe ez zan... harek domeketako. Bai. Ta gerokun, iñor hilddakun, lutu, bueno, urte guztin. Gu beti geuazen lutuaz. Askoren tartin...! Edo aitte hil gatzulako... ze nik anaixi itto zanin hamazazpi urte neukan, orduntxe nobixuaz hasi barrixe eta aitte hil zanin be hamalau urte-edo neukazen. Eta gero, esaten dotsut, tie hil dala edo ha hil dala edo aume hil dala edo tio hil dala /hilddela/ edo, beti lutuaz geuazen. Beti! Geure denpora guztin lutuaz, beti. Komuniñoi eittea iñon erropiaz, iñok prestatako erropiaz. Bai, ba holantxenik, baiñe hamen ga.
- Ta lutue zenbat denporakoa ixeten zan?
- Lutu urte guztin, bai. Urte guztin baltz-baltz ta gerokun "alibio". "Alibio" ixaten zan ba grise edo tantau zurixe edo "medio lutu" esaten zana. Bai. Ixaten zan lutu zarratu eta gero medio lutu, erderaz "alivio" esaten dana, "medio lutu" Ondarrun.
- Eta horrek erropak tintxa edo?
-Tintxa. Zenbat erropa hondatu...! Erropa onena igual tintxa ta enkojiu, telak be ongo morukuk ez zin ixaten-ta. Ta erropak baltzittu barrukuk! bueno! Euzkixak baiño baltzaua. Bai. Baiñe dana halantxenik. Lehenako kontuk holakoxik di, bai.

2.33. Eskalearekin gertatutako anekdota

- **Hizlaria(k)**: Amutxastegi Aspiazu, Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-035/029
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:36:35. **Bukatu**: 00:37:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Behin pixarekin zikindutako umearen "aldazapia" uretan pasatu eta labearen atean jarri zuen sikatzen amak. Eskean etorri zen bati kafe usaina zegoela iruditu ei zitzaion.

Transkripzioa
Beste anekdota bat be esango dotsut. Gure amanin, esan dotsut /esatsut/, sue, koziñi ekonomiku ta labako atin, umik txixe einddakun, ba, uraz kendu ha txixe usaiñe, bihurtu ta gero bir dabeneako labako atin sikatzen. Ba badakixu harek lurrune botaten eban bueno... demasa! Bafora. Ta egun baten eskale batek ati jo. Lehena eskali etxita asko etorten zan, eskale asko. Ta eskali. Ta "Hola!" ta "Ama, eskali!" ta "¡Qué olor a café!" berak eskalik. Esan gendun, harek... on akordaten za, harek koittauak kafi zer zan be ez ekixan. Harek nahi eban kafi edo, zeoze nahi eban harek ta azkanin lurrunai be "¡Qué olor a café!". Ta holako anekdotak ba mille. Ezan kontuk, miserixin kontuk. Lehena horixe zan dana.

2.34. Kamiseten edo toallen zatiak konpresa moduan

- **Hizlaria(k)**: Amutxastegi Aspiazu, Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-035/030
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:37:30. **Bukatu**: 00:38:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Lehen barruko arropak flanelazkoak izaten ziren. Mauka luzedun kamisetak apurtzen zirenean, haren zatiak gordetzen zituzten, konpresa gisa erabiltzeko. Bestela toalla zaharren zatiak. Gero urarekin eta xaboiarekin garbitu.

Transkripzioa
- Andrazkuen pañuek?
- Etxin eindde. Gurin amak eitten eban, aberatsak eukiko eben, baiñe guk geuk, gurin amak; lehena ibiltxen zan barruko erropi franelazkuk, o sea, franelak, barrun franeli dakarrenak, ezta? Ta igual, kamisetak eta barruko erropak manga luzik, interior manga luzik, ta amak esaten eban, igual interiorra apurtu edo ta "honetxek mangak gozo-gozuk daz". Haretxek mangak ebai, ta ezkiñi hartu eta "honetxek ederto ipintxeko", ta holakoxik; toalla zahar zatixak-eta ezkiñi hartu eta holantxenik. Ahal dan morun.
- Ta garbitzeko ta, adibidez, garbitzeko?
- Garbitzeko, beste erropan morun, moko paiñuelun morun edo haren morun. Bai. Jaboi emon ta eskobilliaz arraska eta listo.

- Baiña andrazkoen hori, odola ta garbitzen zan?
- Aber, odola urak ondo kentzen dau. Bai. Zuk ontxe odola botaten bazu, ure ipintxen bazu, urak asko eruten dau, Ta beti jaboi Chimbo danetako.
- Ta ura irakitten edo?
- Keba, ur hotza, odola kentzeko ur hotza da onena. Ta ure beru nahi zendunin zeoze eitteko etxin, moko pañueluk edo pantaloik edo garbittu bir zendunin, lapikun ure berotu.

2.35. Plantxa elektrikoa amaren etxean

- **Hizlaria(k)**: Amutxastegi Aspiazu, Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-035/032
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:39:47. **Bukatu**: 00:41:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Bere amaren etxean lisaburdina (plantxa) elektrikoa zegoen. Etxeko entxufe bakarretik jartzen zuten, bonbilla zegoen lekutik. Ez zuen neurririk berotzerakoan, eta arriskua egoten zen arropak gorritzeko, beroaren eraginez. Gorritasun hori kentzeko ur oxigenatua erabiltzen zen. Beste aukera bat trapu bustiaren gainetik plantxatzea.

Transkripzioa
- Eta plantxa?
- Plantxi elektriku bageunkan; gurin amanin baeuan plantxa elektriku. Ta euan... ez zan uraz kargaten, osea, "sin limite" berotzen zan, zeuk hartu bir neurrixi. Ta sarrittan, baakixu, alkondara kuelluk-eta igual gorrittu entsegire plantxik. Ta gurin aitte zan "manitas". Ta etxe guztin bonbilla bi gurin: bat erdi-erdixan ezkatzin, ta besti han sali esaten gakon tokixan. Bonbilla bi. Ta gure aittak eukan bonbilliai ezkatzekuai goixan, portalanparan bonbilli solta ta entxufe bateko hori portalanpari sartute. Ta plantxi ein bihir zanin /enbizanin/, mahaixe erun haraxe parea eta, plantxi eitteko, bonbilli ibiltten zan halantxenik ezkatzeko plantxi eitten. Kordoi halantxenik ibiltten zan. Ta sarrittan, baakixu, kuellu zurixe ta, baakixu, domeketan ta Andra Marixetan ta, itsosotik etorrittako mutillak be harruk ixaten zin. Ordun be harruk zin ta. Kuellu, ta igual kuellu gorrittu plantxik, ta ebiltten zan agua oxigenada beti, plantxin ondun agua oxigenada, ta agua oxigenadaz kentzen zan haxe plantxin gorrittasune. Eta, ba, beste erropa totuaua zinin edo, trapu busti ta trapun gaiñetik plantxa. Baiñe entxufeik be ez etxin, e! Haxe, entxufe bakarra bonbilliai. Bai, lehenako kontuk, bonbilli dantzan plantxiaz batea, harutz ta honutz. Dendan ez, dendan entxufi bageunkan ta plantxi be bageunkan, bai, baiñe amanin ez. Ama-ta bosgarren pisun, hantxe, kanttopin, bai.

2.36. Irakasleek tratu desberdina aberatsei eta pobreei

- **Hizlaria(k)**: Amutxastegi Aspiazu, Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea

- **Erref**: OND-035/033
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:41:38. **Bukatu**: 00:42:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskolan irakasleen tratua ez zen berdina izaten aberatsekiko eta pobreekiko; "según el trapo, el trato" esaera.

Transkripzioa
- Erropak berbetan gabizela, eskolan uniformerik edo euki zenduen?
- Ez... Zeure betiko etxeko erropak, kaleko erropak. Bai.
- Eta diferentzixe egongo zan, ba, batzuk aberatsauek eta...
- Aberatsai igarten gakuen gehixenbat be ba... maistran tratun. “Según el trapo, el trato”, lehena esakeri euan ta aberatsai-ta beti... Txartua eindde be “tienes que corregir, porque esto no se hace así...” ta bestik igual “Esto está mal hecho, a ver cuando aprendes” ta halakoxe... Nahi dotsut /naitzut/ esan eee.. tratu berak erakusten dau. Gero, zeuk be badakixu, aberatsak, armadorin alabak edo, armadorik edo, A edo B edo... beti eoten di diferentzixak, bai. Baiñe eurak eee... eurak maistruk eta maistrak-eta asko... hortan asko distingiduten di. Mojak be bai e, mojak be... hortan asko igarten gakue. Bai, bai.

2.37. Domekan dotore jantzi eta mezara

- **Hizlaria(k)**: Zubikarai Larreategi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Bengoetxea, Maialen
- **Erref**: OND-041/006
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:07:50. **Bukatu**: 00:08:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Astean zehar arropa arruntekin ibiltzen ziren, baina igandeetan guztiz aldatzen ziren: gerri estu-estua markatzen zuten berokiak, takoidun zapatak, mantila tente-tente... Liburua besazpian hartu eta mezara. Latinez izaten ziren orduan mezak.

Transkripzioa
- Domeketan euan domeketako erropi ta astegunin asteeguneku. Asteegunin, bueno, nire aiztak-eta euran amantala plantxataku-ta eukitten eben biharreako, eta neu be... Ni ez nitxanetik / enitxanetik/ juten, ba, nik ez neuka amantalik, nik gona tubu ta jertsa bat ta bueno. Domeki aillaten zanin, danok desfigurata: zapata takoidunak, gerri esto-estuk –eukiko ez gendun, ba? argal-argalak geuazen danok eta–, gerri esto-estuk, abrigu belodune, mantilli tentia ipinitte halantxeik... Hartu misal latín y español, que todavía lo tengo. Liburu hartu kaltzarpin eta elixa errezaixukon. Guantik eta danak jantzi-jantzi eindde, elixa, mezata, mezi entzutea. Ta mezi latiñin abadik emoten baeban, zeuk be bai latiñin irakurri bihir zendun /bizendun/.
- Baiñe…
 - Ta ia nundik zekixun zuk latiñin irakurten.

2.38. Joxpa "parteri"

- **Hizlaria(k)**: Lertxundi Kaltzakorta, Terese
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-042/004
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:06:23. **Bukatu**: 00:07:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- **Laburpena**: Ondarroan jaio zen, anai-arreba guztiak jaio ziren gela berean, "parterak" eta mediku baten lagunduta. Joxpa zen Ondarroako "partera".

Transkripzioa
- Ondarrun anaixarreba guztik kuarto baten, kuarto baten danok. Gu ez giñan jaixo Bilbon ta... hor ta han ta... Ez, Ondarrun parteriaz. Neuk ikusi ittuaz gure anaixak eta jaixoten, ni seigarrena naz ta beste lau beherutz ta neuk ikusi izan nitxun, izan nitxun ikusten Ondarrun zelan kuarto baten danok jaixuk. Hamentxe beheko etxin.
- Parteriagaz?
- Bai, parterak ordun Joxepa parteri esate eutzen hari, ixena eukan Joxepa ta, Joxepa parteri ta merikuaz.

2.39. Medikua mezatan zegoelako umea galdu

- **Hizlaria(k)**: Lertxundi Kaltzakorta, Terese
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-042/005
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:07:08. **Bukatu**: 00:08:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
  Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak

- **Laburpena**: Franco garaian, domeketako meza nagusira, goizeko hamarretakora, herriko pertsona garrantzitsuenak joaten ziren: alkatea, medikua, zinegotziak... Teresa umea izateko zegoela, medikuak esan zion mezatik bueltan joango zela beregana. Beraientzat mezara joatea zen zegoenik eta gauzarik garrantzitsuena. Umea denbora askoan egon zenez jaiotzeko zain, hil egin zen.

Transkripzioa
- Peligrosue izango zan,ez?
- Bai gaiñera neri pasa gaztan meriko bateaz, neuri, neuri pasa gaztan honek Franko denporan hori...Zer da hau? hasi naz ahaztuten.
- Partezie Franko denporan.
- Hori hamarretako mezata juten zin hamengo udal etxeko alkati, herriko meriku, konzejalak eta horrek juten zin hamarretan meza nauxixa domeketan, ta neri lehenengoko umi ixan nebanin, ni eonitxan gau guztin miñakin, miñakin baña nik enekixen zer ein binebanik eta amak esa eztan:" ze noiztik zaz holan?" ta "gau guztin, gau guztin eonda ta zetako za esanbaik!" deitxu geutzan merikuai ta merikuk nun esate ozku: "bueno, hamarretako mezeta junbi naz eta handik etorrittakun atendidukotzut" "ondo, ondo"; ta ordurako gero bokan eukinebala denpora gehixen ta umi zerure. Entendidutezu? Harentzako elizi, eliza juti hoba zan, beste ixe baiñobe. Ze horrek zielako barraketik. Frankistak han euazenak ta, ni hogeta hamarreku naz 1930.

2.40. Hil-kanpaiak

- **Hizlaria(k)**: Lertxundi Kaltzakorta, Terese
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-042/021
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:31:37. **Bukatu**: 00:32:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak
- **Laburpena**: Hil-kanpaiak jotzen ziren norbait hiltzerakoan. Kanpaiak jotzeari utzi zioten gero. Gizonezkoa edo andrazkoa izan hildakoa jotako kanpai kopurua desberdina zen.

Transkripzioa
- Pertsoni hiltten zanin, len, bai umi, bai andrazku, senalli ixaten zan kanpaik jo. Segixan emoten eben parte elixan, ta joten eben kanpaik. Hildde, e, etxin dala. Ta gero hori kendu eben hori, kanpaik-eta joti, ta paperetan-ta ipintxi ongoxe urte batzutan da paperetan. Hilddakun entradan ipintten dabe holako paper bat irudixaz, argazkixaz, eta nox jaixo eta nungu dan eta dana ipintten dabe entendiuten emoteko herrixai hau fulaniau da hildde, ta honen ordutan da enterru honen egunetan. Ta jenti halantxe enteraten da on, kanpairik-eta ez dabe joten. Kanpai joten dabe elizkizune amaittutakun, bertan dazela.
- Bañe esan dozu umiei eta andrei . Eta gizonezku hil bazan?
- Gixonezkune pentsaten dot zala... bi pentsaten dot ixaten zala, “DAN-DAN, han gixonezku”. Hiru andrazkune pentsaten dot. Ziur-ziur ez naz, e. Baiñe andrazkune ixaten zan bat edo... gitxia.

2.41. Baserritik Ondarroara etorri eta erdaraz ikasi behar

- **Hizlaria(k)**: Osa Etxebarria, Agurtza
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-044/006
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:08:13. **Bukatu**: 00:09:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena**: Bolibarko baserri batean hazi zen bertako familia batekin 10 bat urte izan zituen arte, eta ordura arte ez zuen erdararik entzun. Dena zen euskaraz, eguneroko bizimoduaz gain, baita eskola eta dotrina ere. Ondarroara bueltatu zenean, eskola nazionaletara joan behar izan zuen; han dena zen erdaraz eta ez zuen ezer ulertzen.

Transkripzioa
Nik egixe esango dotsut /esangotzut/, ni baserriko umi naz, ez bertan jaixu, baiñe bai baserrixan hezittaku, bederatzi urte ta erdi hamar urte arte. Nik enekixen erderaz. Hamen euskeraz eitten zan, eskolan ibili nitxan euskeraz, eitten zan. Dotreiñi, gaur egun be gordeta dakat hogeta hamalau urteko dotreñi, dana euskeraz euan, nik erderaik sekule neure bizitzan, hor hamar urtea bittartin ez neban entzun, etxea ekarri nitxuenea arte. Ordun ba… klaro, etxea ekarritte gero hamen nazionalak euazen, eskolak, eta hor sartu nitxun nire amak, eta erderaz , baiñe nik eneban ixe ulertzen, daitxena da esaten ostala Doña Luisak: “Tú no sabes nada, al pelotón de los torpes”. Beti azkan. Bai, bai, barre… “pelotón de los torpes”, azken egoten nitxan. Baiñe nire atzetik baeuan besten bat eta zan, Espaiñiko mapi, ni lepuaz Espaiñiko mapi joten eta. Halako baten, eta halako baten eta beti beire eta ba hamalau urte arte euki nitxuen hamen, nire amak ukando bixka bat baeukan zuzendaixaz eta… hamalau urte…

2.42. "Bolo, bolo, boletan, ondarrutarrak kantetan!"

- **Hizlaria(k)**: "Porru" anaiak kantari
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: OND-046/002
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:00:12. **Bukatu**: 00:01:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: Ondarroako gizon talde bat kantuan, 1963an; "Bolo, bolo, boletan, ondarrutarrak kantetan!" bukatzen dute.

Transkripzioa
Jendiak esan arren
hau ta gero bestia,
Joakinek harrapatu
beti langostia. (bis)

Itsaso ta lihorrez,
egunez eta gabez
beti gabiz poz-pozik.

Ondasunez, maitasunez, alaitasunez,
gure herria goratzen.

`Matxinplaka´, txipli-txapla.
Txipli-txapla, ´Matxinplaka´.
La la la laralala, lalala laralala...
`Matxin´ mozkorti.

`Matxinplaka´, txipli-txapla.
Txipli-txapla, `Matxinplaka´.

Kontuz mutilak, bizkortu hainkak,
hona badator, begira zorrotz.

`Matxinplaka´, txipli-txapla.
Txipli-txapla, `Matxinplaka´.

Bolo-bolo boletan,
ondarrutarrak kantetan. (bis)

2.43. Ondo jaten zuten, baina okelarik ez

- **Hizlaria(k)**: Urbieta Etxaburu, Antigua
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-047/006
- **Iraupena**: 0:00:42. **Hasi**: 00:08:06. **Bukatu**: 00:08:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Ondo jaten zuten: baserriko barazkiak; arraina beti izaten zuten, batak edo besteak emanda; arbolatik lapurtutako fruta. Okelarik ez; aita itsasotik etortzen zenean haretxentzat xerra zati bat, besterik ez.

Transkripzioa
- Baiña-patata hutsak eta jan, ta arraiñe, ta... Ta oin, ondo pentsata, generalin, ba, baserritteko berduri, ta gero txalopan arraiñe, beti jaube eitten ziñan: goikuk, albokuk... alkarrei arraiñe emonda. Sagar sanfrantziskuk osten gendun han arbolan, han kolkun sartute erun, atzenin alimentu konpletu! Geuk eitten gendun, bestik ez dakiau zer. Okeli-ta ezta ikusi be ez. Haragixe, aitxe etorten zanin tajadatxu bat, zerra bat, aitxantzako, itxosotik etorrenin, ta guk berak ekarten eban arraiñe. Ta hantxe danok usaiñe hartzen okeliai. Baiñe zu, hamen gogor-gogorrak.

2.44. "Garbantzito"ren ipuina

- **Hizlaria(k)**: Urbieta Etxaburu, Antigua
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-047/016
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:23:04. **Bukatu**: 00:24:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Bilobari "Garbantzito"ren ipuina kontatzen ei dio, baina ez ei zaio gustatzen. Nola kontatzen dion ipuina.

Transkripzioa
- Ipuiñek kontetan be famau ixengo zara orduen.
- Bai... asmatakuk gexenak, ze oinguk ez dittuaz topaten e...
- Edo lehen kontetan zienak eta... lehen asko entzungo zenduzan zuk be, etxien ba, antziñeko ipuiñek-eta umieri-ta konteta jakezenak.
- Upiñak e... ezaunak, betiko ezaunak: Pulgarzito, ta halaku ta... Aiii ba gure neska txikixai gustau ez, Garbantzito. Egun baten, bizi zan Garbantzito. Ta zan txiki-txikixe, garbantzun tamaiñoku, ta jun zan... Hamentxe bixi zan, bera be hazi arte gehixaua hamentxe euan ta... Ta jun zan /juntzan/ horra zelaire, ta halako baten amak ezin topa Garbantzito. Ta “Gabantzito, nun zaz?”, ta “ganarun tripan” ta “noiz urtengo dozu / urtengozu/?” eta “hiru kaka-munto einddakun” ta praus, praus, praus kakaz be..., gustau ez harei. “Ez Garbantzito ez, ganarun barrun” ta, “ez, hori feu da /feure/”. Ta nik gero luzatu bir: ta urten ebanin /urtebanin/, a ze amak poza, kendu eban handik, garbittu eban dotore, ein otsazen / eintzazen/ e, koloniak eta guapun ta jantzi, ta listo. Ta holako zeoze ipini bir, bestela upin guztitik e... Garbantzito koitxaue be gusta be ez.

2.45. Emakume bat zirikatu zutela konfesatu zuenekoa

- **Hizlaria(k)**: Urbieta Etxaburu, Antigua
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-047/023
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:32:35. **Bukatu**: 00:35:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Bekatu txikiak izaten zituen beti abadeari konfesatzeko. Baina behin Basilisa izeneko emakume bati kanta bat abestu zioten eta ernegatu eragiten ibili ziren. Zalantzak izan ostean, abadeari egindakoa konfesatu zion eta honek kanta abesteko eskatu. Lotsa handia pasa ei zuen.

Transkripzioa
- Ta akordaten naz e... Andra bat e... Nik ez dakit /eztai/ nundik ata gendun... Hortxe honutzaua Antsosolo etxe zati bat barrixe dan lekun, hortxe parin eguan etxe bat, lehengu, zaharra, ta haren ondun e... beste holako akopla txiki bat. Hantxe bixi zan Basilisa. Eta... ez dakit /eztai/ nundik ata gendun kantioi “Basilisa toca el bombo, instrumento singular, saca las cuentas y acompaña con la hija de tuturiplas”. Ia horrek ze nahi daben esan...! Baiñe ba... Ta berak “mecauen la puta” eta jo-ta harrixak-eta botaten oskun /botatezkun/. Gu ibili giñan barre algaraka. Ailla zan hillan lehelengoko barixaku; derrigor jun bihir ixaten giñan eskolatik hillan lehelengoko baixakun, kruzatea. Ta neuk esan neban "hauxe da...". Nire pekatuk ixaten zin: amai erneaziñoi emon, de todas todas, ama erneaten

ipini; esne teli, gaiñeko esne guni, teli, haxe ostu. Zoratu eitten gakon ha kazulari ederto dakarrena estropeati. Haxe hartu, batzutan azukriaz eta, azukre gitxi baeuan, ba, azukre baik eta... Esne telak ostu azukriaz, bi azukriaz, bat azukre baik, hurrengun kontako dotsat /kontakotzat/ besti eta ba... Ha ein dot edo hori edo besti eta lantzoikeixa, ume koittauan lantzoikeixak hor zin ba eta... Neukan kezka bat: "Haxe andri ai... Harei andriai guk erneau handixe emon dotsau. Pekatu ete da? Ez dotsat esango". Han nebillen pentsa eta pentsa, eta "Bueno, esango dotsat andra batei burle ein dotsatela eta ya está". Pentsa-pentsa ein eta gero, estu-estu ein eta gero, juten naz eta [...] balitxake modun ez dakit zer, “Andra batei burle ein", "Andra batei burle ein? ze ein dotsazue?” ta "Ba burle...", "Ze esan dotsazue ba?", "Bueno, esan esan... Kanti de", “Kanti de? Kanta ordun” ez dostan esan ba? Eta ni hantxe konfesionaixun “Basilisa toca el bombo...” hoixe kantaten, eta entzuten neban abari barre algaraka. Baiñe ixiltzeko ez dostanetik esaten, ba... Ta halako baten, “basta, basta, basta”. Nik ordun e... Jesus...! Ez dakit /eztai/ jangoiku, abari, zeñei eingo netsan ez dakit /eztai/ zer. Urteten dot, jente guzti [burletan], klaro ba! ze ze.... zetan nebillen konfesionaixun e... Han "Basilisa toca el bombo"... “Basilisa, toca el bombo, instrumento va tocando”... Ze... nik ez dakit /eztaitx/ nundik ata gendun baiñe harek andrik txarto pasa eban, eta nik e... Beste lagunak ez dakit /eztai/ zer ein eben, mundo guzti barre algaraka, burletan... Mekauen diez, gehixa ez dotsat esango Basilisai ixe.
- Eskarmentau zendun behintzet, edo ze? Eskarmentetako.
- Gehixa ez nitzan... Beste zeoze eingo neban, baiña hori ez.

2.46. Eskolara ezin joan, bizimodua atera behar zelako

- **Hizlaria(k)**: Urbieta Etxaburu, Antigua
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-047/039
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:57:45. **Bukatu**: 00:59:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Eskolara joaterik ez zuten izaten, nonbaitetik dirua atera behar zen eta. Gainera, eskolara joaten ziren apurretan, galduta ibiltzen ziren. Buruz ikasi beharrekoak bakarrik jakiten zituen berak, horregatik dotrina kontuetan ongi ibiltzen zen.

Transkripzioa
- Eskoliai ez jakon inportantzirik emoten, eskoliai?
-Ez, inportantzixe... ezin za jun, ez da inportantzirik hor. Hor eguan jan ein biher zala /enbizala/. Ta gero galtzen bada, berez ez bazeunkazun gogu, galtzen bazendun, esan dotsut /esatzut/ ba, jun hara hainbeste denpora ein ta gero, eta alboku ikusten bozu eitten matematika batzuk, ta neu entzuten "bai, hau honeaz, y luego con lo que sale, con lo que sale aquí ponemos...”. Nik han ez neukan garbi ze ein; “con lo que sale"... ¿De dónde me iba a salir a mi? Nik ez nekixen, ideaik be ez. Ta nire morun askok. Ta ordun, ba, holantxen, burutz ikasittakuk-eta, ba, geldittu, baiñe bestelan e… justo. Gero norberak irakurri ta pentsa "ezin leike holan ixan" ta zeoze... hori, ta ba norberak ein, irakurri ta bixkat…

- Baiñe dotriñik inportantzixi eukiko eban.
- Bai, dotriñik handixe, baiñe ni salba eitten nitxan han. Dotriñan kanti asmateko klasan “de lo lista que era". Ikasti zanelako. Hamendixeik haunaxe. Nitzako hori zan “de ole”. Han ez euan e… matematika batzuk, erosizu han ta kenduzu ta hamendik ekarrizu, ta... puf… Ez bazu zuk aurretik... Zuk imajina, juten zaz eta esaten dotsue dibisiñoi bat eitteko. Ez bozu aurretik sumar bat ein, ez bozu haure... Ez dakixu zer dan be eta ze eingo dozu /engozu/ ba? Ixebez! Eta gero zigorra, gaiñetik, “por tonta”, "por no sé qué", atzeko mahaire eta… Zeiñek nahiko eban juti ba? Ta niri gusta eitten gastan eta harei beatu eta horrei beatu eta... baiñe keba, ezin, ezin. Holantxen burutz ikasittaku-ta bai, baiñe… Numerutan-ta, ba, txarto. Kantaten ikasi dou guk eta... “poco más”. Txarto.

2.47. Gorozikako eskola; "Señorita Concha"

- **Hizlaria(k)**: Uriarte Elordi, Elisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-050/002
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:02:30. **Bukatu**: 00:04:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Bost urterekin hasi zen eskolan. Gorozika auzora joaten zen, ordu erdiko bidean. Egun guztirako joaten ziren, jatekoa "kapazoan" hartuta. "Señorita Concha" irakaslea; fama handia zuen eta Ondarroako gazteak ere hara joaten ziren. Hark alde egin zuenean, bertan "interina" egoten ziren zenbait irakasle pasa ziren Gorozikako eskolatik.

Transkripzioa
- Eskola, pregunta ein biher dozu /einbizu/ eskoli?
- Bai.
- Bost urteaz hasi nitzen ni eskolan, zemat, ordu erdiko bidi-edo zan gitxi gorabehera.
- Gorozika.
- Gozika. Gozika barrixu, Gorozika, haraxe.
- Berritxu?
- Ez, ez...
- Bueno Ondarru da.
- Ondarru da, bai, bai, Ondarru, Gorozika izeneko barrixu. Eta, ordun, honek esan... aittek esan daben modun, maestri euen “Señorita Concha”, baiñe zan gerra denporan desterrautaku-edo zan, famaue bera personi [... solteri]. Eta pentsaizu zelako kategorixi euken, Ondarruko gaztik be jun eitten zin haraxe; gu... Goititik juten nitzen modun, harek be beraana jun eitten zin. Baiñe denpora gitxi ein eban /eiban/. Nik ez dakit ba zemat urte eukiko... bostetik urte asko barik aldeko eban harek. Eta haraxe –ez dotsut esan– juten giñen egun guztireko haraxe, hartu kapazun patatak, esni, arrautzak eta gero hantxe, hantxe eskolan preparaten zan jateku eta hantxe pasetan gendun egune. Eta harek alde eban, ni... gero izen zan, ba,

dana interinak-edo euki genduzen eskolan gero. Oseake, ze esango dotsut /esangotzut/ ba? Akordetan na ni umi euk... –hortxe baserrixen hospedetan zan, hortxe, oin bistan da hori etxi– umetxu bat euken, Doña Teresa gakon ixena, eta harek eukan gizona Ondarruko zerin, Ondarruko eskolan, Zeledonio Arriolako eskolan euken. Andra-gizonak. Bera umiaz han egoten zan, eta hoixe. Eta gero beste interina bi edo hiru be bai pasau zin han egon nitzen denporan. Han egongo nitzen ni, ba, hara eta hona eta besti, asko ikesi barik, hamabi bat urtera arte [halakoxi] pentsaten dot egongo nintzela.

2.48. Eskolako bizipenak

- **Hizlaria(k)**: Arrizabalaga, Andoni
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aurre Azurmendi, Jon - Gandiaga, Lurdes
- **Erref**: OND-052/002
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:00:34. **Bukatu**: 00:02:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskolan moja batekin ibili zen lehenengo eta ondoren maisuarekin. Berrogeita hamar ikasle inguru ziren gelan eta klase sozialaren arabera banatuta egoten ziren. Zume-makilarekin jo egiten zituen eta aurretik mojarekin ikasitako guztia ahaztu zitzaien.

Transkripzioa
- Eskola hasi giñan gu, ba, gaztetaz, gazte gazen artin. [Eztai ba ixango giñan hogei o hotairu]. Monjeta juten giñan. Eta euan famosa bat, Sor Luzia ixena eukana, monji; erakusten oskun /erakustezkun/ ondo. Han ailla giñan ikastea, ba, sumar, restar, multiplicar, idatzi beste bixkat eta irakurri be bai eta holaik. Ta hango tenporadi pasa gendunin, han lenengo jaunartzi eitten zanin, gero maixuana pasaten zan. Maixuana pasa giñanin, harek ez doskun ametiru monjak erakutsittako ixebez. Ez doskun pregunta be ein, eta obserbau be ez genduzen ein, ba, noa arte dakiaun. Eta lenengo ze emon doskun / emozkun/ maixuk biharra? Plumi hartu, ipiñi bera plumi eta euki, eukitten. Egunak pasa genduzen haxe plumi eukitten. Eta gero emon oskun /emozkun/ holakoxe paper bat, eta han "palotes" esaten gentsan guk, erraixak ein. [...] Oseake, lengo mojik, Sor Luzia horrek, erakutsittaku, ba, bapeztu ein giñan: ahaztu gazkun, eta han ikasi ez. Eta gero harek maixuk eukazen, ba, hirurogei bat mutil edo.
- Hirurogei?
- Hirurogei bat. Bai, berrogeta hamar bai behintzat eukiko zittun harek. Ta euazen zonak. Harek erakusten otsen, ba, Ondarrun euazen jauntxuk esate gako, ba, bixkat aberatsak edo, zeoze ahal ixati eukenak. Harek ipintten [zittuan] zona baten, ta erakutsi haretxei eitten otsen / etxetzen/. Eta gu beste zonan, "zona roja" esaten gentsan guk hari; ba han batzen giñan, bueno, Ondarruko endredoso guztik. Gure eskolan lantxeik beste eskolan eta holaik. Hara etorten zanin maixu, etorten zan zaplarak emotea, torturatea. Zumar makillak ixaten zin, holaik, makilla mehiak. Geuri ekarri erain mendittik, geu joteko. Eta han ez gendun ixe ikasi, ixebez. Gero tablero baten batzen giñan, ipini multiplicar edo dividir edo, ta, bueno, baten

batek ekixenak-edo eitten eban /etxeban/ eta beste guztik, ba, al garete. Hara eskola juti alperrik zan. Jo ein genduzen asko. ta [...] bapez. Eskola [...]. Ta gero etxea etorrittakun, palizi ostea be; amak gero.

3. Itsasoa

3.1. Lehengo Ondarroa

- **Hizlaria(k)**: Arretxe, Mikaela
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ramos Elordi, Ander
- **Erref**: OND-001/012
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:21:00. **Bukatu**: 00:22:41
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- **Laburpena**: Oroitzen du arrantzaleak goizean goiz joan eta gauean berandu itzultzen zirela. Etxeetara joaten ziren ate-joka, emakumeei "despeskara" joateko eskatzen. Ordu txikietan ibiltzen ziren arrainak banan-banan saretik askatzen. Gero zortzietarako Ortizeneko fabrikara, lanera.

Transkripzioa
- Eta gero Ondarru bera be etorri ziñanetik asko aldatuko zan, ez?
- Ene! Bai, asko, asko, bai bai, bai. Ze lehen txalopak eta danak be zubi zaharreko haraxe juten zin, atuneruk, antxoeruk... danak hantxe.
- Kofrai zaharra…
- Bai, kofrai zaharrea, bai, haraxe. Eta, baakixu... Eta oin, ostea, ba, ia, on han ez da halakoik ixe, ta lehen antxoata be sarrittan juten zin, illuntzin jun eta goxin etorri. Eta gero, ba, hantxe, despeskan ta hori, ze goxin igual etortzen zin goixeko lauretan-edo txalopan, eta diar eitten oskuen igual. BUM, BUM, BUM, ati joten eben mazuaz eta “Fulanaaa, despeska etorteko!”. Eta eitten gendun, ba, despeska jun, ta hantxe txalopan jarri eta saretik bana-banan antxoak kentzen, ba, hantxe eoten giñan. Ta gero, handik urten ta zortziretan, ba, Ortizenea fabrika ostea be. Ta zer da hori danoi, ba, ba igual loguri [etorten] gaskun, igual filetik, eta Jose Ortizek –oin que en paz descanse, baiñe harek– esaten oskun: “Klaroo, despeskan biharrin ibiltten zaze eta on fabrika etorri eta on lo ein” esaten oskun.
- Bronki botaten, gaiñea.
- Bai, bai, klaroo. Ia! Goixeko hiruretan-ta juten giñan despeska ta, han dana ein bana-bana, bana-banan, ta gero harek eindakun ostea be Ortizenea fabrikaa, eta han, filetin jarritte, ba, ia... loguri allaten gaskun ta...

3.2. Bi arrantzale-kofradia politika kontuengatik

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Malaxetxebarria, Jesus; Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-011/008

- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:11:15. **Bukatu**: 00:13:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia
  Itsasoa » Arrantza-kanpainak
- **Laburpena**: Ondarroan Arrantzale-kofradia bi egon ziren. Ikastolaren zatiketan politikak izan zuen eragina eta ordukoan ere bai. Aurretik kofradia bakarra zegoen baina1907an karlista edo espainol jendeak beste bat sortu zuen. Baina 1925 inguruan batu ziren berriro, herriko traineruak garaipen handiak izatearen eraginez.

Transkripzioa
-Baiña hori Ondarrun normala da. Ondarru beti izan da "herri beru" esaten otsena, gu jaixo aurretik be. Ta hamen kofradixak, arrantzale kofradixak iñun ez da historixa guztian, hainbeste mendetan zehar... Kofradi bi egon zien hamen. Oin dala ehun urte... Ointxe be ikastola politiki tartin, ta ordun be hamen kofradi zarrin geratu zien Ondarruko hirutik bi inguru, gitxia-gehixa, ta hirutik bat inguru kofradi barrixe han ein eben. Eta han zin, honek rekete kontuko jenti zin, Españi zalik, eta hamen abertzale kontukuk zin hamen.
-Bermion be bai.
-Eta egon zin milla beratzirehun ta zazpixan sortu zan hori beste kofradixe. Lelengo hantxe euazen etxebizitzen lokal behian. Eta gero denporiaz ein eben, edifizio barrixa ein eben, kofradi barrixa ein eben. Eta dana be ein eban hogei urte, hemeretzi urte ein zaban horrek. Ta gero mille beratzirehun eta hogeta seixan eta hogeta bostin Club Deportivok antolatute berriro ein zien, lena eitten zen modun ba estropadak ein zin traiñerutakuk, ta Bilbora jun ta irabazi, Donostira jun ta irabazi, urte bixen segixan. Eta ordun hamen sekulako jaixak ein zittuen egun askuan, handik eta txanpon guztiak amaittu arte. Eta ordun ta orduntxe hasi zien batzen ta. Batu zin, urtebete barrun batu zin kofradi bixak, eta ostera be ha hustu zan ta hamentxe gaur arte. Ordun zatiketak [...egonda daz] Ondarrun.
-Ondio jarraitzen dabe ikastola bixak, eta nazionala bestia...
-Eukiko ebiezan kofradixak bi sekretarixo... Dana bi.
-Dana. Bi sekretarixo, ta txalopak haraxe saltzera ta hanguk hona, eta [...] sarri hasarrik. Eta holako gauzak.
-Hori Bermion be bai. Ta edifizixo bardiñian...
-Baiña hamen edifizixuak be bi.

3.3. 15 urterekin itsasora

- **Hizlaria(k)**: Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-011/018
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:22:31. **Bukatu**: 00:23:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Rico Azpiazu, Aitor
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
  Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak
- **Laburpena**: 13 urte arte mandatuak egiten ibili zen Patxi. 13 urterekin baserrira joan zen bizitzera. Urtebete egin eta sorbalda hautsita itzuli

zen. Osatutakoan, 15ekin itsasora joan zen eta han aritu zen Jubilatu arte.

Transkripzioa
- Patxi: Eta gerokun, ba, ni hamahiru urteaz jun nitxan baserrire urte baten. Ze hamen lehena etorten zin baserrittarrak ugari etorten zin, egunero hamen inguru hontatik ordu biko bidetik-eta Ondarrure goxin goxik etorten zin. Ta gerra denporan be, gauzin eskasidadi euanetik, etorten zin asko. Ta gure amak alargun geatu zanetik ume txikixakin, eitten eban arrain biharrin eitten eban, launtzen, arraiñe ba alogera zeoze atateko. Eta bihar asko halanik eitten eban eta mandato asko allaten gakozen etxea. Gu herri erdixan bixi giñan ta Plaza Berduratik ba "Erosixu okeli, erosixun arraiñe ta txoixu ta arrautzak" ta bixaldu ta, ba guk horrek mandatuk eitten genduzen etxin, arrebak lelengo eta gero nausitzen jun zinin, harek fabrika ta gero geuk. Eta nik, ba, horretxek mandatuk eitten goxetik eskolaa berandu allaten nitxan beti. Eskolan ibilli nitxan ni hamahiru urte arte. Hamahiru urteaz baserrire jun, urtebete ein han eta etorri nitxan hau hausitte etorri nitzan, hausitte. Eta gero hamen medikuaz ta [...] eta urte bat ein neban horreaz. Hau osatu zanin ondo, ba, hamabost urte ein nittuzen ta orduntxe sartu nitxan itxosoa. Honek esan daben denpori. Gero hor ibili gaz bixok, ba, jubila arte ibili gaz itxosun.

3.4. Itsasoa, irtenbide bakarra ondarroar gehienentzat

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Malaxetxebarria, Jesus; Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-011/021
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:26:36. **Bukatu**: 00:27:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak
  Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- **Laburpena**: Esku-langile eta merkatari banaka batzuk kenduta, jende gehienarentzat itsasoa zen irtenbide bakarra. Zenbait aberaskume Lekarozera eta horrelako lekuetara joaten ziren ikastera. Bastida arkitektoari buruzkoak.

Transkripzioa
- Patxi: Eta gero, handik etorritxe gero, hamen lehena gure denporan ez euan beste irteeraik iñoa.
- Jesus: Ez.
- Patxi: Ba sasoi aillatakun [...] horraxe eta eskoli amaitxutakun, itsosoa arrantza eta asko juten zin gu baiño lehenaua itsosoa.
- Jesus: Partikularrin edo mekaniku edo segundo mekaniku edo eitxeko edo.
- Patxi: Horrek gero itsosun gebizela.
- Dirudunek? Dirudunek? Diru euken familiko semiek.
- Patxi: Horrek zin ba...
- Jesus: Lau edo bost zin bakarrik.
- Patxi: Horrek gitxi zin, e fabrikantik-ta.
- Jesus: Zeintzuk zin horrek ba? Hoixe ba.
- Patxi: Frabrikantik-ta. Fabrikak eukezenak, arrain-fabrikak-eta. Ordun fabrika asko, ez? Horrek juten zin ba kolejixure

- Jesus: Lekarozea hurriena.
- Patxi: Ba ofizinako biharra ikastea ta halakoxik
- Jesus: Ze ez euan batxillerrik-eta.
- Patxi: Gero mekanikuk bakarrak euazen, arotzak bakarrak euazen eta halako igeltseruk bakarrak euazen eta ba beste guztik itsasora.
- Jesus: Arkitektu, Bastida zein zan ba arkitektu? Hamabi krixauaz-eta egoten zan txaletan.
- Ondarrutarra zan ala?
- Patxi: Ez, Bastida zan bilbotarra arkitektu, kategoria handika. Baiñe bera ezkondu zan andra ondarrutarraz, baiñe gure aldin nausixe zan ha, haren seme-alabak gure aldin nausixak zin.
- Jesus: Hauxe, horko diputau zein de hau? Karlos zein de hau? Gatzagaetxea, Gatzagaetxebarrian ama.

3.5. Barkuko makinista titulua atera biek

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Malaxetxebarria, Jesus; Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-011/027
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:36:00. **Bukatu**: 00:37:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak
  Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
- **Laburpena**: Patxik Markinan atera zuen makinista titulua eta Jesusek soldadutzan. Maila ezberdineko tituluak daude: hirugarrena, bigarrena eta lehena.

Transkripzioa
- Patxi: Gero itxosa jun gaz, eta gero..ba itxosun gabizela ba makiñak pentsa gendunin, makiñan be titulu ataa bir zan /atabizan/ . Lehelengo atatenzan segundaku, gero nausixaua primeraku. Ba segundakuaz jun zeinkin ba holako txalopa hona, tamaiño honeta arte.
- Jesus: Bai automobilan moure, automobilak batzuk primeraku, terzeraku ta...
- Patxi: Primerakuaz handixauak eta horra ba kanporaua ta horrek gauzok. Eta horretako ba geure [bostin] ikasi gendun itxosun gabizela biharrin.
- Jesus: Dana bir da. Ta honek merito gehixa dakar nik baiño, gaiñea. Nik ya...
- Patxi: Eskolan normalin, eskolan ikasi.
- Jesus: Soldautza jun nitxan lehen ni, soldautzan makiñan ibili nitxan, galdara makiñetan. ta hango paperak, ondo porta zin militarrak, esamiñetako ta be influentzixa ein zosten /eisten/ niri, primerako primera motoristi eitxeko. Hango militarrak bixaldu zosten ta hangu urte biku ondo bixaldu zosten ta ya primero eitxeko. Ta mayorreako eitxeko ba “ya me contarás! Ya la madre que la parió.”
- Patxi: Ta gure bizixe hor ixan da ba arrantza, eta bajuran ibili giñanin aste guztin biharra eitxen zan.

3.6. "Txo" moduan mandatuak egiten

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Malaxetxebarria, Jesus; Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-012/005
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:11:26. **Bukatu**: 00:13:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza
  Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak
- **Laburpena**: 15 urterekin hasi ziren biak itsasoan lanean; mandatuak egiten. Itsasontzian lanean aritzen ziren gazteenei "txo" esaten zitzaien. Baxurako arrantzan irabaziak eta soldatak nola banatu izan diren azaltzen dute. Hasiberritan, gainerako arrantzaleen soldataren hirutik laurena edo erdia irabazten omen zuten.

Transkripzioa
- Eta hamabost urtegaz hasi ziñienien...
- Jesus: E?
- Hamabost urtegaz hasi ziñien itsosun?
- Patxi: Bai.
- J.: Bai, itxosun bai.
- Ta zeintzuk izeten zien hasikerako lanak? Hasikerako biharrak?
- P.: Bai. Ba… ordun gaztenak, sartzen zinak gaztenak ixaten zin, “Txo” esaten otsen. Ta… ba hamen... Arrantzan da gauza bat, beti ixan da bajuran, e.
- J.: Txarto eon di.
- P.: Ixan da irabazixai buruz…
- J.: Txarto.
- P.: ... ba jaubik hartzen dau honenbeste, ez? erdixe hartzen dau. Eta beste erdixe geatzen da ba arrantzalintzako banatzen da, hamar edo hamabi edo hamalau edo dabizenak. Eta igual, ba, hamalau mille daz, hamalau mille pezeta da astin irabazixe domekako. Hamalau gixon badabiz, erdixe jaubik hartzen badau, hamalau, eta beste hamalau geratzen badiz, ba, zorrak eta janarixak eta ordainddu ta gero, ba, ordun eitten diz, hamalau badaz, hamalau mille badaz, bakotxai mille bana ixaten da. Irabazixe bardin, gixona ixan leike berrogei urteku, berrogeta hamar urteku...
- J.: Bost ume dakazena.
- P.: Eta praktika handixe dakarrena itxosun ta kapaza. Eta ni orduntxe hamabost urteaz sartu eta ixe ez dakixena ta han, ba, "txo-txo ekarri hori, txo-txo ten honei, eutsi hau..." holantxenik.
- J.: Mandatuk eta... lapikuk garbittu...
- P.: Ta ordun guri hasiera baten emoten oskun/emotezkun/ soldata horren hirutik laurena.
- J.: Erdixe.
- P.: ... erdixe… Bai, segun.
- J.: Erdixe [be bai nire lekun].
- P.: Eta emoten otsuen /emotetzuen/ hille batzutan, ta batzuai, ba, ez dizenak desarrollaten sei hillabetin ta urte betin ez dotsen altzaten normalea. Hoixe ixate zan hasiera baten.
- J.: Tristi [...] aitte batek, berrogeta hamar urteko pertsona batek, bost ume dakazenak, ta mutil koxkor bat ontxe itxosun sartutakuk bardin

kobra.
- P.: Bai.
- J.: Hori ezin leike sartu.
- P.: Gehixen be, gitxi bat gora behera, urte betea ia normaltzen gakoen, hiru laurdeneko horrei edo erdixe eukenai.
- J.: Ordun bai, bixkat espabilaten ziñanin, gixontzen ziñanin zeu be, hamazortzi urteaz edo hamazortzi urte [...], ba ia...
- Ordun, lehelengo txo modun, mandatuk eitten, eta?
- J.: Bai, bai bai, lapikuk garbittu...
- P.: Itxosun bertan be bai, e. Itxosun bertan be arrantzan ez, ba, sariaz edo hortik eta "aide aurretik eta ekarri hori".
- J.: "Ekarri jateku niri"
- P.: "Erun hau". Eta gehixaua.
- J.: "Ekarri zigarru", "lapiku garbittu", "hau ekarrixun"...
- P.: "Txo" dator ba hoixe, hortixeik.
- J.: Txo, txo, mandataixe, mandataixe modure. Baiñe tristi da / tristire/ hainbeste ume dakazen gixonak eta bardin kobrati.
- Ta gero zelan juaten zan hori urtebetegarrenien ya...?
- P.: Eiñaz-eiñaz norbera be ikasten juten da gauzi, biharra. Tailler baten sartzen da pintxe bat, arotzeixa baten, tailler mekaniko baten, eta denporiaz ikasten juten da.
- J.: Ikasten, ikasten. Ta [zeuri be] jaubik...
- P.: Halantxenik norbera be eitten da.
- J.: ... [atoan ikusten dotsu/ikustentzu/] aktibidadi edo, zer dakarzun edo... ta...
- P.: Batzuk arintxua ikasten dabe, bihargiñauak ixaten diz, ta ia.
- J.: Ta gaztik be bai hiru-lau gazte [...] bat espabilau ta [...] bestik bixkat pikatearren ta...

3.7. Arraina kontserbatzeko izotza

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Malaxetxebarria, Jesus; Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-012/021
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:35:55. **Bukatu**: 00:37:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- **Laburpena**: Gerra aurrean, 1932an, arrasterako itsasontzi bikoteak sortu ziren Ondarroan. Orduan, ez zen izotzik eta eguneko arraina saltzen zen. Gerra ondorenean, herrian izotz lantegiak sortu ziren, eta segidan, itsasontzietan hozkailuak jartzen hasi ziren.

Transkripzioa
- Patxi: Bueno, ba, hor, gerra aurrin, 32xan sortu zin lelengoko arrastero parejak. Eta, ordun, ba, ez euan izotzik hasi zinin. Eta eitten zin /etxezin/ jun hurrea, eta iluntzin porture etorri; eguneko arraiñe saltzen zan. Ta hortxe, hor 32xan hasi eta 34an, hor hasi zan portun ipini eben... izotz fabriki epini eben.
- Jesus: Pedro Kortazarrrek hamen nox euki eban ba?

- Patxi: Aurretik euki eban hor.
- Jesus: Horixe ba!
- Patxi: Bai, baiñe...
- Jesus: Geure aurrin.
- Patxi: Bai euki eban hor, baiñe gero be euki eban.
- Jesus: Sozixu [...].
- Patxi: Gero, han portun euala, honek etxitako, bai.
- Jesus: Sozixuk, sozixuk gero.
- Patxi: Bai. Eta honek etxitako eta kafetako-eta saltzen eban hori.
- Jesus: Geure etxe aurrin euan. Eta eitten eban limonadak-eta eitten eban /etxeban/ eta jela [...].
- Patxi: Bueno, baiñe gero izotza hortxe gerra aurretxun hasi zan eta batez be reboluziñoi izan zan gerra ondoren hasi zanin, hor geldik egon eta gero. Ta ordun izotza fabrika bat ein zan hamen eta gero denporiaz beste fabrika bat; izotz fabrikak egon zin, izotza bertan eitten zana, eta txalopak [hortxe] hartzen eben izotza. Eta gero hortik hasi zin laster baten neberak eitten txalopa barrun, ze hamen eruten eben izotza eta gero eruten eben txalopan hantxe botata egun bateako edo egun birako; [bixaramun ...] zin izotza [...] porture sartzea.
- Jesus: [...] 30-40 [tonalata] , 30 40 [tonalata].
- Patxi: Eta gero itsosun egunak eitteko ein eben kabida bat eeee...
- Jesus: Neberi, neberi [...].
- Patxi: Portun ee... txalopiai neberi esaten gakon kabida bat eta hantxe sartzen eben izotza; hermetikamente itxi eta egunetako egoten zan.
- Jesus: Gu hillebeteako-ta juten giñan lez, ba, 30-40 [tonalata] ure... edo... hori, izotza. Izotzak. Eitten [zakon] arraiñe bota kajetan eta hamentxe preparaten dan morun baiñe bertan preparaten zan gero.
- Patxi: Gero urte asko...

3.8. "Santoñameriketara" antxoatara

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Malaxetxebarria, Jesus; Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-012/027
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:46:21. **Bukatu**: 00:47:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
  Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsaspeko geografia
- **Laburpena**: Antxoa sasoia udaberrian, martxo erdialdean, hasi eta San Pedroak arte izaten da. Antxoatara zer kalatara joaten ziren aipatzen dute. Kantauri itsasoan barrena (Santander eta Asturias aldera) joaten zirenean "Santoñameriketara" joaten zirela esan ohi zuten.

Transkripzioa
- Antxoadi noiztik nora zan?
- Patxi: Ba hasten zan udabarrixan...
- Jesus: Ontxe, ontxe.
- P: ... martzun hasieran gitxi gorabehera eta San Pedruk arte. Atuneti hasten zan San Pedrutan.
- J: San Pedron, atuneti.
- P: Ya ordurako makaltzen juten zan: behin maiatza-ta aillatakun, makaltzen juten zan.

- J: Gitxitzen, gitxitzen.
- P: Berez, negu pasatukun, udabarrire, tenperaturi bixkat epeltzen hasittakun, antxobi hasten zan. Ta hotzak baeuazen ondion berandutxua hasten zan, ta holanik.
- J: Ontxe moure.
- Nora joaten ziñien antxoatan? Nongo kalatara?
- J: E?
- P: Ba lehelengo hasieran Ondarruko kalara, baiñe denporiaz ibiltten-ibiltten hamen ein zan gitxittu ein zan ba, eta gerokun kanporaua, ta kanporaua ta kanporaua… ta gerokun Kantabrikon ziher, beheruntz.
- Ze izen daukiez kalak?
- P: Santoñameriketa!! Santoñameriketa esaten gako horrei.
- J: Urrun, urrun!!
- P: Santoñameriketa zan oin dala ehundaka urtik, ehundaka urtik, ba…
- J: Santoña aparte euan lez… Santoñameriketa.
- P: Santoñan, ba, portuk-eta ordun ez euazen; porto naturalak, berez, moillak-eta ein baik euazenetik, Santoña be zan porto naturala, mendi handi baten abrigu euan han. Eta hara be juten zin Ondarrutik asko, atuneta-eta juten zin [haratxe, ... etxea].
- J: Fraili, [...] frailli?
- P: Bai. Eta, ordun, antxoatan be bai, ba, hara juten zin asko. Bertan be bai bajurakuk asko euazen. Eta gerokun han beheruntz juten zinin, Santander, ta gero denporiaz Asturiasea eta holanik…
- J: Ondarrun: “Saander”.
- P: ... Horrei danai lehena esaten gak “Santoñameriketa”. “Santoñameriketa” zan, ba, hamendik urten, itsosu, kosti galdu, itsosu bakarrik eta haruzku dana.

3.9. Emakumeak tretzak egiten, despeskan, sareak konpontzen...

- **Hizlaria(k)**: Elu Arantzamendi, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-014/003
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:03:00. **Bukatu**: 00:05:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Bedialauneta Somoza, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- **Laburpena**: Bisigutarako tretzak egin ostean bere ama antxoen despeskan aritzen zen. Gerora bolintxan hasi ziren, gaur egungo baino sare txikiagoekin. Harizkoak zirenez, tindatu egin behar izaten ziren. Astebururo lana izaten zuten: tindatu eta sikatzeko eskegi. Etxeko txalupetan bera eta ama aritze ziren josten. Bere ama zen sare-konpontzaileen arduraduna, maistra; gerora, bere koinata izan zen. Goizeko seietarako joaten zen portura.

Transkripzioa
-Eta ba besiuko denpori gero pasa zan ta gero saritan be bai, antxoatan, ni txikixe nittala ni neu ez baiñe akordate na. Despixkan ta ibiltxen zin, horrek jakingo zue bestik esanda ez? Saritan, despixkan… Ta gero urte eben ba bolintxea, txalopak, bolintxa. Ta bolintxin zin sarik txikixak, on aldin txikixak, ta zin harizkuk, ta horrek en bir ixaten zin tintxa. Hamaike buelta

ein dou tintxalekure jun, tintxa, esei, sikatu, hartu ostabe, tintxa… Nahibeste bidar tintta bir ixaten zan kolori hartzeko ta ze usteldu engo litxake eingo zan bestelanik-eta. Ta gero horrek sariok asteazkan guztittan, antxoaran bentzat, asteazkan guztittan, ata en bir ixaten zin, ze usteldu engozin-ta. Ta ordun asteazkanetan beti zapatu eta domeka biharra geunkan, ostin be bai, bañe zapatun de domekan jai. Agetan eseitte zin sarik eta ba zuluk /topateskun/ topate oskun attak eta zulo txikixak zintta zurixak /ipintxeskun/ ipintxen oskun ta zuluk eitten zapatu ta domeki. Ta gero ba ostontzin bodegan egunero, ama ta ni gaiñea beti. Apurtu ta aberixak eta zinin ba jenti etorten zin, sare-konpontzallik, baiñe bestelanik ama ta neu ixaten giñan ba etxeko morun baakixu. Eta ba hoixe. Gero hasi giñan ba handik denpora batea, urtik pasaten urtik pasaten, ba gero beste batzuta be juten nittan ni sari konpontzea. Ta, ba ze esango dotsut ba? Gero koiñati be sari konpontzalle ein zan da amak guri, maixtri bera zan ama, berak eitten eban dana. Ta ha erretira zanin ba koiñati hasi zan maixtra morun hori. Ta gero hareaz, ha hasten zan beste guztitta be bai ta etten gendun molli be bai, mollako krixadatzi eta sari konpontzen. Ta honek ume kottauak zinin gero ezkondu ta gero, behin o behin, sarri esaten dotset /esatetset/ zemat bidar ba mollan, goixeko seiretan bajaten giñan arraiñak hori eittea. Ta gero trañak apurtute akarrela, “aiba trañak”. “Ai”, orduai beatu beti ta: “umik han eongori zain” de aringaingan. Ta aurtxe eoten zin zain. “Ala etorri kottauok”, emon jateku, ipini platerak eta pare bat jateko ata ta “zeuek ati itxi” ta abante ostabe martxan, biharrea ostabe. Ta holantxeik, hoixe zan gure hori sarik konpontzen. Anbiente edarra eukitten gendun, kuadrilla ederra giñan. Hoixe, ni beti gerriko miñe, ta gerriko miñaz gero ba halantxenik geldittu nittan.

3.10. Sareak zelan tindatzen dira?

- **Hizlaria(k)**: Elu Arantzamendi, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-014/004
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:05:45. **Bukatu**: 00:07:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Bedialauneta Somoza, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- **Laburpena**: Sareak zelan tindatzen zituzten kontatzen du. Tindatu ostean agetan eskegitzen ziren; barra guztian zehar zeuden agak. Nyolenezkoak, gau egungoak, ez dira tindatu behar.

Transkripzioa
-Esan dozu sariek tinttatzen zirela.
-Tintta, bai.
-Ta zelan?
-Tintta leku euan hor barran, eta gixon batek eukan ba tintta lekun bidoi haundixak eukazen berezixak portun eta tintti eitten eban, ta irakitxen eoten zan. Ta gero botaten eban holako harrizko toki batea ta haraxe sartu sarik. Piezak ixate zin erosten zinak, piezak, eta gero harek piezak alkartu eitten zin. Ordun sarik etti, on aldin txikixak ixaten zin; gero harrezkeo, urten eben trañak eta gauzak. Ta tintta, esei, tintta… hortxe ibiltxen giñan, da gero ba…
-Esei non?

-Agetan. Agak ixaten zin hor barran. Gero astakak edo horrek ixaten di ba agak ipinitxe, hantxe esei, sikatu... Eun guzti bertan pasa, eunak. Eueldi ederra eguanin gaiñea dale. Gero agak eotenzin institutu ez dakixu nun dan? Ba ha ez euan, ha zarratu benin, agaz bete-bete eben, sarik esetxeko. Plazan. Herri guzti, herrixe zan sarik. Txalopak be asko euazen, baiñe. Hon ez dizena ikusten ba, plaza musikan be bai, sarik konpontzeko, apurtze benin ata /einbizin/ ein bir zin egin behar ziren. Gaur ez, gaur gexa barrun, ta gaurkuk nylona dizenetik, nylona ba ez da zetan ata, apurtu ezik ez da zetan ata. Baiñe harek bai harek sarizkuk ata eitten zin, sarik ata eitten zin.
-Egoten zan danantzako leku nahiko?
-Bai. Bai, bai, bai. Barra guzti zan agak. Han institutuko han, plaza berduran. Plaza berduran be baserrittarrak erretiraten benin, guk sarikin berta eta egun guztin hantxe, eurixe eta euanin plaza berduran. Ondarru guzti zan, baitte mollan be bai, mollan be bai.

3.11. Sare-Konpontzailearen lana

- **Hizlaria(k)**: Elu Arantzamendi, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-014/005
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:07:48. **Bukatu**: 00:09:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Tejado, Leize
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- **Laburpena**: sare-konpontzailearen egun normal bat zelakoa izatea zen kontatzen du. Bere ama ez zela nekatzen dio, berak minak izaten zituen. Behar asko zegoen, harizkoak zirelako. Marmokak kalte handia egiten zuen.

Transkripzioa
- Ba beatzi t'erdixak juten giñan, hamabixak, eta gero ordu bat eta erdixetatik zazpirak arte. On bixkaka-bixkaka hasi giñan hozten ordu bat erdixetatik ordu bixeta gero ia, urtita, ordu bixeta. Illuntzin ni desiaten eote nittan allateko gerriko miñaz eta gure amak /esatestan/ esaten ostan, ama ta bixok geuazen da /esatestan/ esaten ostan: "Ni ontxe na ba gustoren", kantza be ez zan etten ha. "Ni ontxe na gustoren", "gustoren? Ni ez na ba / enaba/. Ezin ixaten neban onartu ama kantza bez ta ni. Klaro gero problemi karo. Ba hoixe, egunero kasi bihar, negu guztin biharra, on aldin bihar asko ordun. Klaro harixak ixaten zin eta beti euken, ixan eran harizkun, nailona ixan ero harixe ixan harek harixak beti. Ta gero marmoki ibiltxen benin antxoa sasoin azkanetan marmoki eoten zan, ha marmoki ipini eta sikatzen zinin, eta gero konpontzen hasten giñanin negun. Dominstiku pañelukin andra guztik, erremenda etten giñan. Haxe marmokik botaten daben hori, sarik, hartute eukitten eban, da sikatutakun gero negun hasten zanin astintzen, marmokiaz erremenda eitten giñan. Deskargi. Ba hoixe ze esango dotsut besteik ba.

3.12. Sarearen hari-lodierak eta motak

- **Hizlaria(k)**: Elu Arantzamendi, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-014/006
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 00:09:15. **Bukatu**: 00:11:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Tejado, Leize
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- **Laburpena**: Trainak eskua eta txikota izaten du; alderdi batzuk lodiagoak dira besteak baino. Hariak Donostiatik ekartzen ziren, Imaz Iberra zen fabrika bat. Lehenago etxera etortzen ziren saltzaileak. Sareak daraman kortxoaren alderdian, "goiburu" deiturikoan, hari lodiagoa jartzen zen; beheko aldeari, beruna dagoen aldeari, "malloi" deitzen zaio.

Transkripzioa
- Honetxek morukuk, honetxek morukuk, mehiaguak be bai. Klaro ta treiñak eukitten dau txikota eta esku, txikoteku ixaten da lodixaua, txikota ixaten da arraiñe sari botatezu te, sartzen da barrun da eitten da toki batea toki batea arraiñe hori eitten da, ta ha parti ixaten da totuaua, lehena be bai eta ontxe be bai, hari malli totuaua, ta ha ra txikota. Ta gero beste punti re esku, esaten zan. Gero tranpilli, tranpak ixate zin lehena. Baiñe gero aladorak urten banin,modan, aladora, gero tranpillak, osea tranpi holai luxezketa, batzeko eurak, sari erreza batzeko. Baiñe aurretik ez eguan, ezkuz batzen zanetik, etxari ein da eskuz, eskukin. Akordate na ni eskukin hori eitten ebena, gero urte eben aladorak ta, eta gauzak. Nik ez dai /eztai/ ba beste zer esan.
- Ta nundik ekarte zien harixak?
- Donostire juten giñan gu, Imaziberra zan bat, enpresa bat, eta besti ez gasta akordako. Da haraxe jun, geure ixiko bat gaztia nittanin, attittana-ta zinin jute zan ixiko bat hara, ta gero geure ama. Ta gero harrezkeo etorte zin etxea. Lehena etxea etorten zin biajantik, eta edoze. Erropak be, erropak eta telak eta izarak eta horrek be biajanti etorte zan, “Lobo” famosu, ta tratu etxin eitten zan. Sarikin be etxea etorten zin biajantik, on morun ez eguan, geurea etorri da amak erosten ban hori.Ta horrek ba hoixe tintta /enbizan/ ein bir zan. Gero kortxo parin epintxen da goiburu, ixaten zan. Malli totuagua, kortxu, kortxure goixe eta behie beune, da goxan kortxu zati bat goiburu ixaten zan ha, da behian malloi. Hontxe be halantxenik eoten di, handixauak, on zazpi bidar handixaua daz ongo sarik, ongo horrek.

3.13. Arrantza mota desberdinak

- **Hizlaria(k)**: Elu Arantzamendi, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-014/007
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:11:26. **Bukatu**: 00:12:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Tejado, Leize

- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantza motak » Gabarrantza
  Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza
- **Laburpena**: Lehen ezin izaten zen gauez arrantzatu. "Blankuretan" eta "manyuan" aritzen ziren. Txalupa batzuk beste portu batzuetan pasatzen zuten gaua eta lehenago irteten ziren itsasora. Gero hasi zen "ardorean", gauez harrapatzen, gaur egun egiten duten moduan.

Transkripzioa
- A toritak eta, nik horrek /eztai/ ez dai nik e, toritak eta bai bai, jakin bai, baiñe ez dai nik. Holako argi gorri txikixak botaten zin. Itxosoa ezta? Markateko ta arraiñe, nun eguan arraiñe ta hori. Ta lehena-lehena, on gabaz atrapaten da arraiñe, baiñe ni gazti nittanin ez eben lagaten gabaz atrapaten arraiñik. Egunez atrapa bir zan. Ta egunez ba bai esaten zan: “blankuretan hartu dabe”, bankluretan ixate zan ixurdan atzetik antxobi normalin. Ta ixurdak ez zinin blankuretan. Ta gero bestelaik manjuak, manjuan be zan, han duz ezta da aurrin duz ba gixonak beire eta zuriunak agertze dizinin ba manjuan. Holaik atrapate zan lehen, biañe batzuk eguazen, txalupa batzuk bixkat espabilauak eta zinak, Ondarrure etorri baik gaba pasatea, jutezin ba Getaxa ero Donostire ero, eta urtete ben, hamenguk legi zan goixin urten /biben/ bir eben, baiñe urtetei ben goixaldin, laurak edo ta atrapaten ben arraiñak gabaz, eta gero egunez atrapa daben morun bestikin batea etorri. Ta gero handik geruta urte eban ardorak, ontxe atrapaten dan morun, on beti gabaz normalin, egunez be arrapaten da baiñe normalin gabaz gexa arrantzaten da.

3.14. Sareak eta bolintxak

- **Hizlaria(k)**: Elu Arantzamendi, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-014/008
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:12:52. **Bukatu**: 00:14:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxebarria Anakabe, Unai
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- **Laburpena**: Sareetako hariak bodegetan gordetzen zituzten, antxoa denboraldia bukatu eta neguan konpontzeko. Sareak zein bolintxak, biak erabiltzen ziren.

Transkripzioa
- Eta horrek harixek nun gordetan zenduezan?
- Bodegan, bodegetan, bodegan. Karrutan be bai baiñe bodegetan, eitten zin antxoadi akabaten zanin ba sikatu ondo eta bodegan sartu gero negun konpontzeko. Asko eukitten eben /eukitxeben/ harek konpontzeko. Klaro usteldu modun eitten zin atrapaten baotsan /batsan/ harixe una bat muntu modun, ha usteldu eitten zan ta ordun ba zatixe bota edo holako gauzak eitteko .
- Eta zenbat klase diferentiek egoten zien trañak edo sariek eta ezta? Arraiñen arabera segun ze arraiñetarako edo segun ze pasetarako.
- Sari, bolintxe lehena-lehena sarik ixaten zin, sarik, antxoatan sarik, danak sarik ixaten zin. Gero urten eben /urteben/ bueno baiñe saritan ebizen artin be bolintxin ebiltten zin beste batzuk, bai diferentik zin sarik be. Sarik

ba gixon batek erun zeinkin kokotin sare bat baiñe bolintxe ez, bolintxe... Ta on dazenak ba bueno on atrapaten dabe hondoko guztik, lehena eukiko eben /eukikoben/ nik, nik berroi bat urte ta dakatela ba kaidi berroi eta luzeri e laotamar bat eta eukitten eben /eukitxeben/ onguk eukiko dabe..
- Larogetamar braza edo..?
- Braza, braza, brazak esaten zin beti, brazak. Laotamar braza luzeri igual da berroi edo otamazortzi edo kaidi edo beunak ba gexa gitxia segun bakotxak bere hori ixaten zin horrek.

3.15. Neguan ikaragarrizko hotza

- **Hizlaria(k)**: Elu Arantzamendi, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-014/009
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:14:29. **Bukatu**: 00:16:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxebarria Anakabe, Unai
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- **Laburpena**: Egurrezko orratzak erabiltzen ziren lehen sareak josteko, plastikozkoak gerora etorri ziren. Kontxitak nahiago du egurrezkoa. Neguan bodegan edo "tinglauan" egoten ziren josten; gainerakoan, plazan edo barran bertan. Hotz ikaragarria pasatzen zuten.

Transkripzioa
- Harixe esan dozu baiña orratza be espeziala biher zan edo?
- Egurrezko orratzak. Ez, ez, hontxe modokoxik, hon blastik urten dau sarin modun baiñe lehena egurre zan, egurrezko orratzak.
- Ixenik edo eukitten eban horrek orratzak?
- Ez, orratza, orratza.
- Ta zu plastikoagaz ez zara ibilli?
- Bai, bai plastikuaz asko, bai esaten dotsut /esatetsut/ berrotabost urteaz geldittu nitxan ni sarikin ta molla be bai.
- Ta zeñegaz hobeto plastikuagaz edo egurregaz?
- Nik egurre naxa dot /naxat/.
- Zer dala ta?
- Ez dakit ba /eztaipa/ neutzako egurre gexa gustaten gastan, orratza [...] baiñe nik neuk orratza egurre gexa.
- Nun egoten ziñien josten?
- Esan dotsut /Esatsut/ plazan da edoze, negun, negun hotza egoanin / euanin/ bodegan, bodegan. Ta gero, geruta bodegan be ezin sarik kasi kabiaten, bai bodegetan bai baiñe... tinglaun hor barran eta tinglau handi bat ein eben ta, ta zarratute, hantxe ba igual hamar edo... hamarrenak edo eongo zin o gexaua. Harutza honutza baiñe edonundik sartzen zan haixe hotza, hotzetan jaten gendun.
- Humedadie eta...
- Bua hori asko! humedaziñoi ze beatu, antxoadan da ontxe ezta? ta treiñe apurtute dakarre, zaparrari botaten da, da hotza da, ba jun ein bihar zaz / bizaz/. Jantzi plastiku, hamen be epini plastiku amantalan gaiñin plastiku ta bixkat bustitten bazan bakixu hotza, hotzak hille bazaz... hala ekarri kafesni danontzako esan da edan beti kafesnik eta holanik ebiltten giñan. Bai barran be bai, ostontzin bodegetan edo tinglaun negun konpontzi, konponketak zienin.

3.16. Sare-konpontzaileen arropak

- **Hizlaria(k)**: Elu Arantzamendi, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-014/010
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:16:17. **Bukatu**: 00:17:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxebarria Anakabe, Unai
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Sareak konpontzeko, gona eta amantala janzten zituzten. Sekula ez ziren ortozik egoten. Xala ("mantoi") ere jartzen zuten.

Transkripzioa
- Ze arropa edo ze biher izeten zan?
- Hon morun prakaik ez eguan, hoba gendun euki bagendun, ba goni ta amantala. Gero prakak eta urten eben /urteben/, ni neu ez gasta gerta prakakin... bueno bai, bai sari konpontzen da prakakin hasitte geguazen bai, bai aurretik beti gonakin hainkak, geure hainka metxuk freskuran.
- Ta hankak, hankak, oiñetakoak diñot?
- Zapatak, ez, ez, ez ortozik ez, beti oñetaku hori bai.
- Udan bez ortozik?

- Ez, ez, ez, ez iraxak igual sandaliak eta bai baiñe. Bai bero-bero eguanin baiñe ostontzin normalin...
- Ta amantala? Derrigor.
- Amantala bai, hori bai, amantala beti hori sin falta, hori bai.
- Ta zer dala ta?
- Da gero lehena-lehena baitte /batxe/ mantoik eoten zin hiru puntakuk, askok eukitten neban holakuk bata berdi edo grise. Gurin amak eitten ittuazen danak gaiñea. Gure ama famau zan mutil guztintzako be elastikuk eta jertsak eta eitten famau zan, ez eukanin biharrik dale puntuai, nik ez dot ikasi baiñe harek bai.
- Beti josten?
- Beti, beti zeozetan bai. Eta mantoik ederrak ixaten zin hamendik sartu da ba harek asko hori eitten zatxun, baiñe bai.

3.17. Hiru arrotako antxoa-otzarak fabriketara

- **Hizlaria(k)**: Elu Arantzamendi, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-014/011
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:17:38. **Bukatu**: 00:19:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Aranbarri, Leire
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- **Laburpena**: Askotan ez zuten ordutegi finkorik izaten, ezta jatekorik astirik ere. Antxoa-otzarek hiru arroa izaten zituzten (arroa 1= 12.5 kg.) eta arrain-fabriketara gurdietan eramaten zituzten. Ondarroan portuko neskatilei "krixada" esaten zaie, "krixadatzi eitzi".

Transkripzioa
-Eta bueno esan dozu...horarixo barik... askotan ibiltten ziñela goizeko lauretan edo seiretan...
-Seiretan hori txalopi datorrenin... horra moilla.
-Baia bazkalduteko eta denporie eukitten zenduen eta holan edo...
-Ni gazti giñanin esango dotsut /esangotsut/, gazti giñanin, hamazazpi urtean ein zan gurin gurasuk ein eben txalopak. Hasarratu ein zin anaxa-arrebak, eta gure gurasuk ein eben txalopi, eta txalopi ein ebenin han urtin, ba bazkatxa gitxi juten giñan, nik eztait, famauk ondo atrapaten eben. Gero beste urte bire-hirure, beste txalopa bat ein zan eta asko atrapaten eben. Ordun gurin ama famau zan ogixak erosi, jamoi sartu bokadillun ta hala, egun guztin, ze lehena hantxe otzarak, hantxe otzaretan antxobi ixaten zan ta horrek hiru arro eukitten eben. Ta fabriketa eruten zan eta bille jun bihar ziñan /biziñan/, erun ingo otsun /ingotsun/ karruk eta... lehena automobillak... lehena ganaruk eta be ebiltten zin / ebiltxezin/ ta zaldixak be bai ta kotxik be bai. Erun bai baiñe bille..ekarri be ingo otsue paga ezkero baiñe... paga baik ba norbera. Ta Jaingoinkun etxin fabrikak ta handik agarra karruai ta, eun guztin..
-Ta hori zer zan, andran biherra?
-Andran biherra, neskatillan biharra, krixadan biharra.
-Hemen be neskatilla esaten jako horreri?
-Ez krixarak.

-krixadak.
-Krixarak, neskatillak bai entzuten dou hori baiñe berez krixadak Ondarrun.
-Eske Bermion neskatillie ibiltzen da ta.
-Ez hamen krixadi, krixadak. Hamen krixadak.
-Krixadak.
-Bai.
-Ze izen hori ezta...
-Bai.
-Zatarra edo...
-Ba bai, ba bai, krixadak, krixadatzi eitten. Bai, ta niri gerta gasta, ba beti beti beti beti gaztetatik ba, ba, ba hoixe..

3.18. Kotizatu gabeko lana

- **Hizlaria(k)**: Elu Arantzamendi, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-014/012
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:19:29. **Bukatu**: 00:21:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Aranbarri, Leire
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak
  Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- **Laburpena**: Lan asko egin arren diru gutxi irabazten zuten. Berak hango lanak utzi eta segidan hasi ziren kotizatzen, ordura arte ez baitzuten egiten. Gerora jarri zuen dendan egindako lanari esker kotizatu zuen kotizatutakoa.

Transkripzioa
-Ta jornal kontuek eta zelan izeten zien?
-Gitxi, gitxi, biharra bai asko, baiñe diru gitxi. Eta ibili giñan azkanengoko urtitan ahalegiñak eitten ba seguruk eta, jubilaziñoirako ta. Neu geldittu ta bertan urtin kontsegiu eben jubilaziñoirako ta horrek eta.
-Kotizaziñoa ta.
-Kotizaziñoi. Neu geldittu eta orduntxe urtin. Eta ordurarte aurretik ebiltten giñan e? kofraxan batzarrak eta eskatzen eta eskatzen baiñe, ez doskun...
-Eta zuk orduan ez zendun kotizau?
-Ez gero, denda bat epini gendun ta ni dendan, hantxe kotiza nitxan. Ta gero, zer... berrota hemeretzi urteaz emon ostan /emostan/ siatikiaz sikaute geldittu nitxan, dendi itxi gendun ta gero ba beste enpresa baten bittartez... hori, ta kobraten na baiñe ez sari konpontzen da muellan e? Da lehena-lehena gurin ama eta ebiltten zinin be pagaten otsen /pagatetsen/ neskatillai, kotizaten eben /kotizateben/. Ze guri amak kobraten eban ta. Hori baiño gogorraua eitten otsen /etxetsen/ gurin amai ta... Kofraikuk esaten otsan /esatetsan/, sari konpontzen eta muella ebiltten zan, ta muellakuk pagaten otsen /pagatetsen/ armadorik eta. Ta berak esan otsan /esatsan/ kofraiko batek ofizinetan eguanak, pagaten badozu /bozu/ sari konpontzen, bueno sari, ez, muellakuk pagaten dotsu /pagatetsu/, baiñe sari konpontzen be pagaten badozu /badozu/, bittatik kobrako dozu / kobrakozu/. Eta gurin ama bixetatik paga, baiñe kobra batetik ein eban. Harek diruk noa jun ete zin... batetik kobraten eban /kobrateban/. Ta gero ein eben kendu, neure hori zan, sasoi, kendu eben ta neu geldittu ta bertan

urtin... baiñe ez sari konpontzetik eta muellatik eta biharra asko in dou / inddou/, asko, ta ordo asko ein ta diru tamañu eta jubilaziñoirik bapez handik, gero... bai, holantxenik zin gauzak.

3.19. Gizonezkoen eta emakumeen jornalak desberdinak ziren

- **Hizlaria(k)**: Elu Arantzamendi, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-014/013
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:21:27. **Bukatu**: 00:23:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Aranbarri, Leire
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak
- **Laburpena**: Antzeko lana egin arren eta ordu kopuru bera egin arren, aldea zegoen gizonen eta emakumezkoen jornalaren artean. Egunean egunekoa kobratzen zuten. Egiten zen lanerako ez zen dirurik irabazten.

Transkripzioa
-Ta hor egongo zan aldie ezta gixonezkoak kobretan ebiena..
-Baiñe sari konpontzen gixonik ez eguan, alturakuk, rederuk. Alturan rederuk, rederuk ondo irabazten eben. Ondo baiño hobetua.
-Diferentzixa egoten zan ala?
-E?
-Diferentzixa egoten zan?
-Bua! Horixe.
-Ordu bardiñek sartu arren?
-Horixe. Ez ez, ontxe modun, ta lehen gexaua. Andrazkuk andra biharra.
-Eta zemat edo kobretan zenduen jornala?
-Ba eske beti altzaten altzaten nik ez dakit, nik azkanengo be zelaik...
-Eta zenbat edo astien edo?
-Ez eskuz, egunero.
-Egunero?
-Egunero. Egunero. Klaro negun eta igual ba hillebeteko biharra edo bazeukazun ba igual astin bi behin edo pagako otsuen /pagakotsuen/ baiñe normalin illuntzin, da baitte /batxe/ negun be illuntzin jaubi etorten zan da paga ta bueno haregaz dirugaz ba negun lehena ez eguan paroik eta be gixon be ez euken paroik eta bueno haetxeaz ba zeoze bixigaturi edo... Illuntzitan dendan ba erosi ta..
-Esni erosi edo...
-Klaro! Zu, asko ixaten zan /ixatezan/ e? zeoze launtasune baiñe ez, diru ez zan, ez zan diru eitten zan /eitxezan/ biharraz eitten zan /eitxezan/.... hori balixu ez zan. Ze bihar asko eitten gendun guk. Jo ta fuego eitten gendun eta.
-Ta zuzenien armadorak emoten otsuen diru o zelan izete zan?
-Zuzenin diru, aiba!
-Askotan, familiko txalupetan egoten ziñen lehelengo.
-Ni ba familixan bai, baiñe gero edonun ebiltten nitxan, etxin be bai, baiñe etxin be bai da holantxenik edo...
-Da etxin nor zan, zure aitta zan armadora?
-Aitte /atxe/ ta ama, bai.

-Aitte ta ama
-Bai, bai. Ama aitte hil zan sasoin da ama. Ama zan gurin ein ebana / einbana/ be txalopak eta dana, ama zan balienti, ze aittagaittik ixe ez gendun eingo. Ama zan aurrea eitteku. Famau zan, famau zan bai.

3.20. Sareetan eskapularioak eta adarrak zortea emateko

- **Hizlaria(k)**: Elu Arantzamendi, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-014/014
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 00:23:17. **Bukatu**: 00:24:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Bedialauneta, Aitor
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Sineskerak, ohiturak eta erritoak
- **Laburpena**: Sareetan eskapularioak eta ahuntzaren adarrak jartzen ziren zortea ekartzeko; Kontxitak eskapularioa jartzen zuen. Karmengo Ama Birjina jarri izan du beti, baita etxekoen autoetan ere.

Transkripzioa
-Zuek saritan be jarten zenduzan holan eskapularixoak edo?
-Bai, bai ta adarrak be bai, nik neuk eskoplaixu geixa ibili ixan dot... neu... neure... baiñe adarrak ganadun adarra be bai txalopan eruten zin sarin amarrata ta...
-auntzan adarrak?
-auntzana edo, suerti ekarriko dabela ta, holako gauzak.
-auntzan adarra?
-auntze ero ganadun adarra ero baiñe badakit /barai/ zoze adarra ixaten zana. Nik neuk eskoplaixu e? eskoplaixu honei be bai kotxe guztittan dakarre esklopaixu ontxe be e?
-Baina ze, Antigoako Ama edo ze?
-Karmengu.
- a Karmengu?
-eskoplaixu Karmengo Ama birjiñi
- a ta zer dala eta karmengu edo? itxosokoa bera dalako edo?
-ez dakit/eztai/ neuk be /neupe/ zegaittik Karmengu dakarre kotxe guztittan e? ta esaten doste/esatezte/ azidenteik be ez dogu/eztou/ eukitten. Nik danai kotxi ekarrizue? aiba ta dakaz hiru-lau ontxe be e? eskoplaixuk gordeta.
-gastaten dizenin ba ipiñi beste bat
-eta zemat jartzen zien ba sare bakotxin?
-bat, bat, bat, nahiku da /naikure/ bat
-Ta bardin zan [...]?
-bai bai bai nahiku da /naikure/ bera. Klaro!

3.21. Lanean neguan hotz eta udan erreta

- **Hizlaria(k)**: Elu Arantzamendi, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-014/016
- **Iraupena**: 0:02:51. **Hasi**: 00:25:37. **Bukatu**: 00:28:28

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Bedialauneta, Aitor
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- **Laburpena**: Noizean behin beti egoten zen txarto josita ko sareren bat. Kobratu berdin-berdin egiten zen horretaz konturatu baino lehen kobratzen zelako. Maistrak, lehenengo bere ama eta gero koinata, ez ziren batere zorrotzak eta gogorrak izaten. Hotzaren hotzaz askotan atzamarrak kakotuta izaten zituzten. Azken urteetan bainujantzitan egoten ziren udan, lehenago hori ezin zen ezta pentsatu ere. Askotan erretzen ziren eguzkiarekin, krema hondartzarako baino ez zuten ametan.

Transkripzioa
-Eta txarto ein ezkero biherra?
-Bai gertaten zin, sari igual txarto konpondute tengari igual… harixak tengari ondo josi baik eon ta hareatxik arraiñik ezin atrapaua be eon ixan di e?
-Ta kobrau eban?
-E?
-Kobrau baik?
-Ha kobrata dakar, ha ein dabenak kobra dau, ha kobrata da. Eta gero ha ta ez dau /eztau/ atrapaten, honei txarto zoze pasaten gako. Zabaldu plazan eta hamen da pekatu, txarto hori eindde. Harek tengari eitten badau… sarik be eon bihar di /birdi/ ondo.
-Eta esan dozu ama zala maistrie eta gero koiñatie.
-Koiñatie, bai.
-Gogorrak izaten zien zuekaz?
-Ez.
-Baiñe gogor ein biharko eben askotan.
-Keba. Guk ondo eitten bagendun biharra sekule be ez, hori burutik be ez. Gogorra zan gurin ama illuntzin esaten ostanin /esatestanin/: “Ni ontxe na gustoren ba”. Ba illuntzin ba zeoze pasiari edo, kantsata be bai, ta hori: “Ni ontxe na gustoren, eon zaitxez bixkaten” ta hantxe. Zazpi t’erdixak... Esker txarra koittauai ein otsen /eitsen/ baiñe anaxe-arrebak eta, baiñe bueno, ba hoixe.
-Eskuetan-eta zertzuk eukitzen zenduen? Ze guanterik be ez eta...
-Ez, ez, ez, ez, sarri sarik konpontzen eon hantxe egun guztin, altza eta pausuk ezin ein, kongelata hankak, ezin pausoik be ein. Eta atzaparrak be bai kakotute. Esan dotsut /esatsut/ gero kafesniaz edo zeoze bixkat onin nahi ein in bihar /enber/ bixkat hori… zeoze berotzeko edo holaik hor hotzetan geuazenin biharrin. Eueldi ederretan bai ederto, udan ta ixaten zan moillan igual sarik epintten eben /epintteben/ eta trajedebañuaz eta. Horrek zin ongo urtitan e? Lehena ez e? Lehena burutik be ez holakoik, baiñe ongo urtitan… danok e… eta trajedebañuaz sarik konpontzen aprobetxaten be bai. Eta bai! Baiñe gogorra ez, ez.
-Eta moillan erre-ta be eingo ziñien ezta eguzkixegaz eta?
-Bai, honek danok… ez dozu /eztozu/ ikusten mantxaz beteta gaz eta hori hamen erraxi beti. Erre ta kremaik gaurko… ez euazen kremak eta be eta…
-Ez euazen ala jakin ez?
-Ez, gu gazteik geuazela ez e? Eta gaiñea kremak-eta plairako emon bihar zin /bizin/, kontixu, biharreako ez.
-Ya baiña plaira juan ez igual.
-Bai, udan juten giñan honek txikixak zinin. Itsosa atunetan juten zinin orduntxe eukitxen gendun abagunan bat ba… biharrik baik. Eta ala!,

goxetik gabe arte hiru umik hartu eta koiñati be bai ta egun guztin jugua atara bai e? Biharrik ez geunkanin plaixan famauk giñan, famauk.

3.22. Nylona frantziarrek ekarri zuten

- **Hizlaria(k)**: Elu Arantzamendi, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-014/017
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:28:28. **Bukatu**: 00:29:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Bedialauneta, Aitor
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- **Laburpena**: Sareak hasieran harizkoak ziren, gero heldu zen nylona, berak 22 urte zituela-edo. Nylona frantziarrek ekarri zuten. Nylona sekula ez da usteltzen, hori da abantaila.

Transkripzioa
-eta lehen esan dozu /esanzu/ harizkoak zirela sarak
-bai
-eta gero ze etorri zan gero nylona?
-nylona, nylona
-algodoie edo?
-ez ez harizku eta algodoi bat da, bat da harixe eta algodoi bat da.
-eta gero...
-nylona gero.
-eta hori noiz etorri zan edo hasi izan...
-ez dakit /eztai/ ba... Elu hasi zanin harizkuk zin ondiokan.
-Gizonak: [...]
-nik hamazazpi, hamazortzi, hemeretzi, hogei urte neukala harizkuk zin ondiokan . Frantsesak etorri zin... biajantik lehelengo nylona gure etxea. Ba ordun ez dakat, hogetabi urte edo eukiko neban horrek frantsezok etorten zinek ? bai etxe zaharrea etorten zin eta.
- Gizonak: [...]
-bai frantsesak biajantik etorri zin eta nobedadi zan da nylonak, nobedadi. Gero klaro hamen be... baiñe lehelengo frantsesak hasi zin nylonak eta horrek eitten.
-eta manejateko errezaua zan edo?
-antzeraku e antzeraku, antzeraku
-eta ze diferentzi egon zan, bat usteldu eitten zala eta besti ez?
-bai harixe bustixe bara denbora pasau ta eitten da apurtu ta usteldu, usteldu. Baiñe nylona sekule ez da /ezta/ usteltzen horregaittik da hori bentaji, bentaji kruela gaiñea topa zan.

3.23. "Txikota" eta "esku"

- **Hizlaria(k)**: Elu Arantzamendi, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-014/018
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:29:54. **Bukatu**: 00:30:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea**: Bedialauneta, Aitor
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- **Laburpena**: Sarearen poltsari Ondarroan "txikota" esaten zaio. Arraina bertan geratzen da, gainerako sareak gorantz egiten duenean. Atal horretako haria lodiagoa izaten zen eta maila txikiagoa. Beste alderdiari "esku" esaten zaio.

Transkripzioa
-eta gero hori, sarien boltsak edo zertzuk izaten zien?
-“txikota”, boltsi, boltsiai “txikota” esaten gakon hamen
-a bale
-arraiñe sartzen danin eitten da toki batea jun beste altza eitten danetik eta ha da “txikota” eta beste alderdixe ba “esku”.
-eta hori txikota zelan […]?
-hori ixaten zan lodixaua eta malli be txikixaua, malli be txikitxua gatxaua konpontzeko txiki-txikixe, eta lodixau be bai
-eta “esku” zer zan?
-“esku” beste aldierdixe. Osea, hau da /hau de/ sari ezta? hau partiau da txikota totuaua ta beste alderdixe guzti ba esku, Gero tranpillak, kortxu eta goiburuk eta hori, hoixe eukan, horretxe da sari.

3.24. Antxoa sasoian umeak ere lanera

- **Hizlaria(k)**: Elu Arantzamendi, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-014/023
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:33:38. **Bukatu**: 00:35:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Solabarrieta, Edurne
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
  Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- **Laburpena**: Antxoa sasoian kanpotik jende asko etortzen zen Ondarroara. Kontxita bera ere 8 urterekin antxoei burua kentzen joaten zen, mahaira ere ez zen heltzen oraindik. Antxoa garaian ez ziren eskolara joaten. 12 urterako sare-konpontzaile beharretan hasi zen Kontxita.

Transkripzioa
- Antxoa sasoin beti etorten zin, bai, jitanuk be bai etorten zin buru kentzea, antxobi. Ni gazti, umi nittanin, zortzi urteaz, antxobi buru kentzea. Txikixe nittan ez nittan allaten maire bestikin batea ta neu ta neure moruko batzuai tiñi buelta, buelta, motzaua ixaten zan ta hantxe gu buru kentzen, zortzi urteaz. Familixa handixe giñan ta /bizan/ bir zan, ta zortzi urteako. Ta gero juten nittan fabrika eta ordurako ikasten nebillen amaz bodegan sari konpontzen ta hamar urteaz ta ba ikasten, ta erdi ikasitte. Ta gero eskola, eskola be bai, baiñe antxoaran iñor ez zan juten eskola danak buru kentzea, Ondarru guzti. Asko, kasi danok. Normala zan juti antxoaran.
- Eskola barik….
- Antxoara buru kentzea . Danok natural-naturalidadiaz gaiñea ta gero ba ni sari konpontzen hasi nittanin ta fabrika ez nittan juten sarik apurtute

igual ta “zeattik ezaz etorri?” maistrik. Ha gaiztu zan, ha fabrikako maistri gaiztu zan. “Zeattik ez zaz etorri?” ta atrebiu bez sari konpontzen holaik sari konpontzen e neure buru. Ez, ba ondeza bara be asma. Baiñe hamabi urteako sari konpontzen lelengo soldata erdixe urte betin ero gitxiauan ta gero ba normal.

3.25. Partilak banatzen etxerik etxe

- **Hizlaria(k)**: Elu Arantzamendi, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-014/025
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:37:23. **Bukatu**: 00:38:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Solabarrieta, Edurne
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak
- **Laburpena**: Partilak banatzen zituen etxerik etxe, etxe batzuetan eskupekoa jasotzen zuen. Gerora etxean bertan banatzen zuten.

Transkripzioa
- Eta esan dozu hori partillak repartiuten eta ibili ziñela
- Bai, partillak erutea etxeik etxe
- Eta zelan izaten zan hori?
- Etxea etorten zin partilli etxea lehena ba bakarrak etorten zin eta partilli etten zan eta gero ba Fulanona “aiba! erun hara etxea”. Eskoz e, diruk hartu ta etxea jun ta batzutan propiñak. Pozik juten nittan etxe batzuta, han banekixen propiñi neukala beste batzutan ez neukan ta baiñe jun en bihar ziñan. Eta horrek diruok ba hoixe gorde eta eraztuntxu eta holako gero ilusiñoi eukitxen neban ba.
- Partilli emoten juan ta eurek zuei propiñi?
- Propiñi bai bai bai bai askotan gaiñea e. Askotan. Bai. Gero gero normalin kasi danak be etorten zin juten zin bakarrak be gelditzen zin, baiñe kasi danak etorten zin etxea . Dana etxin zan, partilli etxin , gixon guztik etxea, biajantik esan dotsut sarik eta gauzak erosteko be etxea. Etxin lehena etten zin danak.
- Ta bankure ingresu eta hori?
- A bai horrek amak, entendiuten zan bankuko ingresuk ederto eta Banco Bilbau ran tokixan “Banco Bizkaia” ta.

3.26. Soldata amari ezkondu ostera arte

- **Hizlaria(k)**: Elu Arantzamendi, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-014/026
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:38:35. **Bukatu**: 00:39:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Solabarrieta, Edurne
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak
- **Laburpena**: Ezkondu ostean ere, amarenera ezkondu zenez, amari ematen zion irabazitakoa. Bere amak ondo administratzen zioten dirua.

Transkripzioa
- Ordun zu ezkondu arte ez ziñan hasi zure diru administretan.
- Ni, sekule bez. Ezkondu ta gero bez. Ezkondu ta gero amanea etxea ezkondu nittan eta ba zemat urte bi ta erdi edo gero ama beste etxe barrire jun zan ta. Nik mollan ta sari konpontzen bardin segiuten neban ta amak hartzen zittuzen /hartzetxuxen/. Bai honen jornala ,hau e lihorreku zan. Honek jornala gorde.
- Alaba:Hori ez nekixen
- Ez ez zure jornala gorde etten gendun, zure jornala.
- Senarra: Berak gordeten eban.
- Ez, zure jornala gorde etten gendun gero bir ixaten banin prestaten zan, baiñe ez hori sagrau zan, baiñe nik neuri bai . Mollan ta sari konpontzen bardin bardin . Gero beste etxea jun zin ta hamentxe.
- Bueno bañe merezi izen ban hori dana .
- Bai bai bai bai bai bai
- Bihar handixe ein ban harek andrik.
- Bai. Administraziñoi oneku zan ama ondo...

3.27. "Erlí" (erlea), eta "kulumiñu"

- **Hizlaria(k)**: Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-017/002
- **Iraupena**: 0:00:41. **Hasi**: 00:00:26. **Bukatu**: 00:01:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa
  Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Mariskoa
- **Laburpena**: Erleak ("erlík") aginka egiten du. Bada beste bat haren familiakoa, txikiagoa, "kulumiñu".

Transkripzioa
- "Erlí" esan dozu, “Erli” baiña puxkat holan luzekin bat, ainka eitten daben bat?
-Erlik ainka eitten dau, eztena sartzen dau. Ainka eitten dabena hori ez dakit. Bai, erlin familixako bat, erli baiño txikixaua. Ta haxe be, beran kolorie dakar, hamentxe goi partien dakar, begixen albuetan edo, berdí dakar. Pixkat eukitten dabe: “kulumiñu”. Erli langoxie da, baiña txikixaua, beran familixakue. Kulumiñu, txikixaua.

3.28. Itsas-ibaiko karramarroak: kirriska, lasta eta febreroa

- **Hizlaria(k)**: Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-017/003
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:01:07. **Bukatu**: 00:03:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k)**:
  Itsasoa
  Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Mariskoa
- **Laburpena**: Itsas-ibaiko karramarro motak: "Kirriskí": kirriskak beltzak, zapalak, laukiak eta txikiak dira. "Lastí", berriz, haziagoa eta biribilagoa da; agin lodiagoak ditu kirriskak baino. Lata batean egosi eta jaten zituzten mutikotan. "Febreru": handiagoa eta uletsuagoa da. Gozoagoa da baina gutxi zegoen.

Transkripzioa
-Eta kangreju?
-Karramarru.
-Itsasoku edo errekaku?
-Bixetaku. Bueno, gehixa errekakue. Hemengo karramarruk ba hemen gure denporan [...], eta gu holako mutikotan hemen asko euan “kirrixkí”. Ondarrutar berbetan “kirrixkí”. Bera ba lauki bat da, zapala, baltza. Begixak hamentxe eta gero hankak, zapala. Eta hori bai holan hemen errixoku galdute dao; gero petroliuek eta honek danok galdu ein (d)ittuez. Honek makiñak, txalopetako makiñak, petroleuak eta makinetako orixuek eta honek danok. Baiñe hondartzan ondio haitzetan ikusten diez erozenbat. Kirrixkak. Haitzak egoten diez ba itxasbera dauenien, maria beherakun eta. Ez dakizu hori? Eta han ibiltten diz karramarro txikixak ba, umik-eta ibiltzen diz batzen. Kirrixkak die horrek, horretxek die kirrixkak. Nik “Aurtengo Ondarroan” daukat hori eindde, argazki ta guzti.
-Eta karramarruak-eta lehen harrapatzen zien?
-Bai, hori asko harrapatzen gendun. Jolasien ibiltzen giñan, harrapatute hola, hortxe. Gero horrek zien, txikixenak horretxek zien. Gero hazitxuauak euazen hamen, "lastí" esaten getsan. Bai, karramarru, karramarru. Pixkat-pixkat berdera emuten eban, berde illunea pixka-pixkat. Hazitxuaue, ez hain laukia, pixka-pixkat borobiltzen, biribiltzen hamen goiko partin; eta agiñak kirrixkik baiño lodixauak eukitzen eban; beste [haikan aldian lodixauak. Lasti hazitxuaua. Horrek itten genduzen guk gaztetaz, ba hamen asko hartzen gendun udan eta hartu. Gero lata huts bat errixun arkitzen bagendun, ba egurrak ekarri mendittik, sua in hor errixun beste aldetik, eta latan egosi ta jan eitten gendun.
-Bai e?
-Bai. Jateko onak zin. Eta gero beste batzuk bazien, gitxiao, horrek baiño hazitxuauak, karramarruk. Holakua zan hori, hazitxuaua pixkat, eta dana uletsu zan bera. Uletsu ez, ze esango dotsut ba, gorilien beste ez, baiña uletsu dana. Horrek eukan ixena "febreru" hemen Ondarrun. Horrek gitxi egoten zien. Hori jateko gozuaua zan, hobiaua, kalidade hobie eukan, baiña hori gitxi euan ordun be.
-Baiña gozua?
-Bai.

3.29. Itsasoko karramarroak: nekorak, buixak eta txangurroak

- **Hizlaria(k)**: Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-017/004
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:03:50. **Bukatu**: 00:05:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k)**:
  Itsasoa
  Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Mariskoa
- **Laburpena**: Itsasoko karramarroak: 1) nekora; 2) buia edo buixa: lauki-luze formakoa, grisa. Lehen ez zen estimatzen; 3) txangurroa: biribila, gorria. Oso estimatua. Ondarroako aldizkarian itsasoko gauzei buruz idazten du aspalditik. Hasieran azalpenik gabe ematen zituen gauzak, baina jendea kexatu egin zen eta baina azkenaldian deskrizioak egiten saiatzen da.

Transkripzioa
-Gero horrek erderaz “nécoras” eta esaten dotsenak, horrek ez zin hamenguk, horrek itsasokuk diez. Gero itsasokuk bai bi, bat, e, tabernetan-eta jaten diezenak, bata da da holaxe karramarrun formí, gorri-gorrixe, hanka luzik, eta besti de ba rektangulu baten antzeraku, gorrixe baiño marroi argixe edo itten dana, honek, lehen esan dotena, jateko horrek lodixa dakarrezenak, horrek bixok. Bata da ixena... “buey” erderaz da. Oin ahaztu dasta, antzerakue da euskeraz be. Buia, buia! “Buia” eta gero beste letra bat edo bi dakaz. Baiña buix..., buia; buixa, buia. Hori de hori, hori de rektanguluen formakue; eta bestia borobillaua itten dana, ha gorrixe, ba hori... txangurru; txangurru. Ointxe nabil hurrengo Ondarroa Hamarrerako horretxek eitten nabil. Ze nik horren... eitten dot , hasi nitzan urte baten eitten itsesoko giroko berbak, lehenatik etozenak. Ta hasi nitzan eitten eta eitten ba nik ez neban pentsaten iñor interesauko zanik be ez. Nik, e, okurridu astan ba, honek berbok norberak dakixenak galdu eingo diez, eta horrek galduta daz danak, eta norberak dakixenak ba idatzi ezkero hantxe geratzen diez. Ba hasi nintxan idazten eta lelengoko Ondarroan eta bestin eta bestin hainbeste ixen ein nittun, baiña ez neban esplikaten ezer. Esplika ez, ixena bakarrik. Eta jentia arduratu ein zan, "ba holan ez dozu ezer esaten, eta berai emon biher dotsazu, deskriziñoi bat ein bihar dozu" "Ba nik zelan eingo dot ba, nik beti itsasuan eta hortik eta". Bueno ba holan hasi nintzan pixkat, apur bat, eta jarraitzen dot, gehixenak emon dittudaz baiña oinddiok be badakaz emoteko, eta oin deskriziño bat emoten dot, ez dakit gitxi ala gehixa. Eta hor etortzen diz.

3.30. Karramarro txikiak: izkirak

- **Hizlaria(k)**: Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-017/006
- **Iraupena**: 0:00:36. **Hasi**: 00:06:34. **Bukatu**: 00:07:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa
  Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Mariskoa
- **Laburpena**: Izkira ("quisquilla") asko ei zen gerra aurrean, baina orain ez ei da alerik gelditzen. Gozoak dira jateko. "Errixun barrun ur hegalin" harrapatzen ei ziren.

Transkripzioa
-Izkirak. Hori lehena gure ume denporan gerra aurrin asko, Ondarrun asko zan. Gero horrek danak galdu die izkirak. Asko zan hamen. Hor errixun ur

egalin, ur ertzin atrapaten eben eta.
-Errixun?
-Bai, errixun, errixun barrun. Eta horrek atrapeten eben eta guk asko jaten gendun. Gure senide batek, agure batek hartzen eban eta etxien egositte gorri-gorrixak geratzen zien. Bai, gusto ona. Horrek, ixkirak.

3.31. Txibiak eta potak

- **Hizlaria(k)**: Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-017/007
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:07:10. **Bukatu**: 00:08:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa
  Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Txibiak eta txipiroiak
- **Laburpena**: Txibiak daude, batetik, eta potak, handiagoak, bestetik. Pota bastoagoa da. Bere gazte denboran potak ez ziren jaten. Orain bai. Hegalak ezberdin dituzte, baina bestela formaz antzekoak dira.

Transkripzioa
-Eta gero txibixen familiakuak?
-Txibixak diez, ba txibixak. Bestiek diez txibixan formakuk. Hazitxuauak. Txibixak erraldoiak be badaz gaur egunien, lehena ez baiñe. Baiña orokorrin, txibik [...] baiño hazitxuauak, “potak” izena. Potí de txibixan lakoxie baiña ordinarixua txibixan aldin. Eta batak dakaz, heguk dakaz buztena amaittueran, ta bestiek dakaz apur bat goratxua. Bestela bardiñak diz erpak eta danak.
-Eta haunditxuau, hazixaua, potí?
-Bai. Gaur egunin aparatukin ikusten dittuez txibixak askoz haundixauak, jigantiak be bai ikusten dittuez, erraldoiak be bai. Orokorrian lehen handixaua zan potxí beti, txibixak baiño hazitxuaue zan. Bai. Hori gu gaztiak giñanin hori potxí jan be ez zan itten, ya hain ordinarixo ta aprezixau be ez zan itten. Gero denporiaz hasi zin.

3.32. Txokoak

- **Hizlaria(k)**: Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-017/008
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:08:16. **Bukatu**: 00:10:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa
  Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Txibiak eta txipiroiak
- **Laburpena**: Txibiak eta potak luzexkak dira. Txokoa, berriz, zabalagoa eta "trokoagoa" da. Bera umea zela baziren txokoak harrapatzera dedikatzen zirenak. Emea erabiltzen zuten erreklamo moduan arrak erakartzeko, eta horrela harrapatzen zituzten.

Transkripzioa
-Gero beste bat da, zefalopoduek die horrek, eta txibixe, potxi...; “txokue” beste bat. Txokue, bai, txoku. Txoku ba, horrek izaten die, luzexkak die horrek bixok, esan dotena, luzexkak. Burue hamen eta hamen erpak. Zortzi erpa uste dot dakardazela. Eta bestia zabalaua da atzetik hasitte, zabalaua da, trokuaua da, lodixaua, ta zabalaua. Hori, txokú. Horretxek diezela uste dot.
-Eta beste batzuk badare borobil-borobilak.
-Borobilak?
-Bai, sepia edo esaten dana.
-Bai, sepia esaten dotse honetxi, ointxe esan dotenai, txokuai. Bai, sepia erderaz esaten dotse. Hori ba, txikixak be egongo diez, hori gitixi ikusten da. Baiña ikusten dana txibixen aldien handixe da hori; handixe da. Txikixak egongo diz. Lehena zien gehixa ba, gu itsasun sartu aurretik bazin txalopak ibiltzen zienak, batelak, txalopa txikixak ibiltzen zienak gizon bate eta biaz, arrantzale bat edo bi, eta dedikaten zienak arrantza horretara be. Horretarako ordun eukitten eben txoku hori emi jaube eitten zien. Eta ez dakit zelan, ni entzutie neukan ba emie erdiraten eben uretara eta arrak etortzen emiana eta halantxen atrapatzen zittuen. Ez dakitt ze detallegaz ixaten zan, berai segika etorten bazan edo zela. Baina bada zeozer, gauza batzuk umetaz geratu eitten diz eta emí ez dakit zelan ipintzen eben be aparexun, ez, eta arrak emiagana etortzen zien, eta halan atrapaten zittuen.
-Bizirik emia?
-Bai, bai, bizirik. Eta ordun euran engaiñu zan emí.
-Txorittan eitten dan moduan, orduan.
-Bai.
-Reklamua ipini eta.
-Bai, hori be bai. Reklamua, hoixe.

3.33. Olagarroak

- **Hizlaria(k)**: Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-017/009
- **Iraupena**: 0:03:16. **Hasi**: 00:10:12. **Bukatu**: 00:13:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa
  Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Olagarroa
- **Laburpena**: Txibiak bezala olagarroak tinta botatzen du ihes egiteko. Kolorez aldatzen da bizi den lekuaren arabera. bizi den tokiaren arabera Zortzi "erpa" dituzte. "Hamarratza" ere esaten zaio, baina zortzi erro ditu. Zumaia aldeko haitzetan asko harrapatzen zen. Lehortu eta olagarro-zopa egiteko erabili ohi dute herri horretan. Ondarroako kostaldean olagarro gutxi izan da beti.

Transkripzioa
-Gero bestia da olagarru. Honek txibixak eta honek bakizu, tintxia eukitten dabe. Horrek tintxia eukitzen dabe berez barrun. Eta arrisku baten itsasun, arrisku ba arrantzale batena edo beste itsasoko euren arrain handi batena danin, ba orduntxe botaten dabe, deskargau itten dabe, eta ura itten dabe

illundu, nahasi itten dabe ura, nahastau itten dabe eurak ihes eitteko.
-Olagarruk?
-Olagarruk be bai. Olagarru ba bixi da harrixín. Ondun harrixak, harri tartin bixi da. Beti ezkutata egoten da harri tartin. Eta gehixenbat gabaz ibiltten da bera, arrantzan, janarirako. Eta horrek hori txorro hori handixaua botaten dau. Holantxerik. Eta olagarruk, txibixak be bai, kolorie aldatu itten diz baiña olagarrua asko aldatzen da. Tokixan arabera, beran defentsa(ra)ko. Tokixe igual bada, Ondarrun-eta hainbeste ez, hori zemat eta itsaso bareaua ta kolorie aldagarrixaua gehixa egoten diez, ezta. Ta hamen itsaso zakarraua ta ba ordun mobitzen danetik ba gitxiao distingiduten da. Baiña eitten diz arabera; ba igual marroixkie edo arabera kolorie marraixkie edo hartzen dabe. Apartetik eta ba ez igarteko moruen askorek itten dabe, aldatu eitten diez berez. Olagarru kolore askotara aldatzen da. Ta kolore, ez kolore batekuk, kolore mota..., pinttodunak edo hola.
-Eta haundi ta txiki eta klase diferentiak egoten dia?
-Bai, bai. Haundixak be bai ta txikixak be bai. Horrek be dakarre ba zortzi-hamar. Zortzi erro dakarrez, erpak . “Hamarratza be esaten otse izena baiña eukittez daka zortziz. Olagarru. Eta hori urte askun nik ezautu dot hor Zumai aldin ba itsas ertzan goraberi da, haitzak egon eta zelako behie ta. Hor asko harrapatzen eben banaka-banaka. Asko ez saltzeko eta beste, baiña bai. Hola saiatzen zienak. Hori gero eukitten eben hiru bat hillabetien eta sikatzen eukitten eben lehorrin. Sikatzen, hiru bat hillabete, hortxe. Ikusitta dakat nik hori. Eta gerokun batez be zopie itteko izaten zan ona hori.
-Olagarro-zopia?
-Bai. Entzutia dakat lehena. Sikatute, e!
-Gero hona ekarri dabe aspaldiko urtetan, gailleguak ekarri dabe hori. Galizien asko jaten da. Han estimu handixe dakar horrek olagarruk. Nik neuk, e...
-Eta hemen olagarroik eta?
-Bai harrapau, baiña gitxi. Hamengotxe ba turismuan eta ibiltzen diezenak, “hombre ranak” eta horretxek. Bestela ez.
-Bestelan lehenlehen?
-Itsasun bai, arrantzan bai, arrasteruk bai, asko ekarten dabe.
-Bestela hemen kostan eta?
-Hori galdute da, gutxi, hori berez bestela be gutxi izan da.
-Baiña zeuen sasoian bazeuan ohitturarik Arraldera edo joan eta...
-Ez, ez euan. Ez, horrenbesteik ez euan.
-Hemendik Lekeittiora bittarteko kosta horretan eta eitten zenduen?
-Ez, ez euan, horrentzako ez. Zumaia aldian bai, baiña hamen ez.
-Tokixa be ez da izango ona.
-Horretako ez. Hau izan da aberatsa ba sardiñí eta beste arraiñak, bolintxeko arraiñak ixan da, baiña horretan ez da ixan. Kalak ixaten die tokixak ba zelako behi dakarren, zelako harrixak, zelako hondarra ta zelako hori; ba arrain mota batzuk hor egokitzen diez bertan. Arraiñen modura ba bestiek be bai, beste animalixak be bai.

3.34. Kabrak, txistuak, dontzellak eta itsas kabrak

- **Hizlaria(k)**: Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-017/010
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:13:28. **Bukatu**: 00:15:04

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa
  Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza
  Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Beste batzuk
- **Laburpena**: Motor txikietan joaten ziren, eskuzko aparejuekin, kabrak, txistuak eta dontzellak harrapatzera. Itsas-kabrak ere bai. Maila handiko arraina da hau, itsasertzeko arraina, ur bizietakoa delako; horregatik ei da gozoagoa jateko.

Transkripzioa
- Eta, motor txikixak eta batelak eta ibiltzen zian kostan, ba ez dakit, beste arrain…?
- Bai. Hor, beste arrain txikixak, ba, hor apaixuaz eskuz arrantzatekue, kabrak. Kabrak. Hori, ugarixe zan. Hori beti izan da; ointxe be, bai. Txibixak, be bai. Eta, gero ba, txistu, esaten jakona, koloretsue. Kolore […]. Ba, hori gitxiau baiño bai; kabra tartin hori be bai. Txistue ta holako beste bat, bakar batzuk. Dontzeilla be bai eta holako bakarrak baiña gehixena, kabre. Gero, ba kabrak eoten zin […] arrastatzen zienak. Kabra-montesa, esaten gentzan guk Ondarrun baiñe hori de, itsas-kabri, de hori. Horrek, hezur asko eukitten dabenak, arantza asko eukitten dabenak. Eta, oso itsusize dana, bera. Hori, egositxe jateko arrain ona. Hori, mailla haundikue zan hori arraiñoi.
- Baiña hori, maillaku? Hamen kostaku?
- Hementxe barrun. Bai, bai, hori hementxe batelak, arranontzi txikixak, atrapatzen eben hori bai. Bai. Gero, oingo aspaldiko urtitan, kabra gorrixe, arrosa kolori, hori arrasteruk ekarten dabe itsoso partetik. Ona da hori be. Baiña honek, normalin arrain harriku, harriku gozuaua izaten da jateko. Jateko hobie izeten da. Bai. Toki brabuen hazten dan arraiñe, hobi ixaten da jateko. Besti, makalaua, leluaua ixaten da.

3.35. Kantauri Itsasoko arraina Mediterraneokoa baino gozoagoa. Italiarrak kontserba-fabriken aitzindari

- **Hizlaria(k)**: Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-017/011
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:15:04. **Bukatu**: 00:16:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
  Itsasoa
- **Laburpena**: Kantauri Itsasoko arraina Mediterraneokoa baino gozoagoa da, urak biziagoak direlako. Italiarrak aspaldi konturatu ziren horretaz eta horregatik jarri zituzten kontserba fabrikak hemen. Horietako asko bertan geratu zen bizitzen. Kontserba fabrikak oso aspaldikoak dira, duela 150 urte etorri ziren lehen italiarrak. Ondarroa fabrikaz beteta zegoen Patxiren gazte denboran.

Transkripzioa
- Gusto gehixau ta…

- Bai, eukitten dau bai, gusto hobie, eukitten dau. Baitxe, itsosu be, hau Kantauri itsosue, itsaso brabu de hau, Mediterraneoko itsosuan ta aldin. Eta, Medetarraneoko leatzak edo hamengo leatzak, alde handixe dakar. Ta, Mediterraneoko antxoi edo hamengu, alde handixe dauka. Hamen, oin dala ehun ta berrogeta hamar urte-ta, italianuk antxobie Mediterraneoku ba, elaboraten eben ba, salazoin-ta ipiñtten eben-ta. Baiñe gero denporiaz entera zen, hamengue, gure itsas aldeku, askoz hobie zala. Eta, hasi zin ba, hona etorri, te hamen, erosi arraiñe ta hamen, arraiñe, gatzin prepareten zan. Konserba, saniauten zan holanik eta barrilletan bixaltze zan hara; gero, eurak filetik eitxeko-ta. Ta, gero urtik aurrera jun ahala, eurak hasi zin batzuk hona etorten. Etorri hona, hamen biherra eitxen edo fabrika txikixak ipiñtxen, hemenguai erakutsi-te. Hamen, gero ba, edozemat fabrikante italiano bertan geratu, bertan ezkondu, haren umik- eta jarraitxu harek be, bai. Ta, hemenguai, eurak erakutxi eitzen filetik eitxen-ta hemengo antxoiaz.

3.36. Antxoa kontserbatzeko prozesua

- **Hizlaria(k)**: Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-017/012
- **Iraupena**: 0:04:12. **Hasi**: 00:16:11. **Bukatu**: 00:20:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
  Itsasoa
- **Laburpena**: Antxoa lataratzen zen gehienbat. Eurak umeak zirela, antxoari burua kentzera joaten ziren kontserba fabriketara. Sardina oso delikatua da eta zen hemengo fabriketara eramaten. Antxoaren prozesua azaltzen du zehatz-mehatz: burua kendu, garbitu, gazuretan eduki, gatz lodia eman... Barriketan ipintzen ziren antxoak Italiara saltzen ziren fileteak egiteko. Fileteak nola egiten diren.

Transkripzioa
- Eta, hamen noiz, zeuen sasoien bazeun fabrikak-eta?
- Bai, bai.
- Gerra aurrin-edo.
- Bai, asko lehenauatik. Asko lehenauatik. Hau herrixau euan, fabrika gehixenak zin txikixak baiña, fabrika esate baten: herrixe fabrikaz beteta euan dana. Ze, ordureko, aurretik antxoa asko harrapetan zan hemen ba. Eta, horren basi zan antxoi, zan horren basi. Sardiñi adibidez, sardiñi be, harrapatzen zan nahiku baiña sardiñi, arrain delikau de; oso delikau de, arin galtzen da. Ta, hori ez zan hamen fabriketa eruten. Hori, eitxen zan, segixan freskuen saltzen zan kanpora, izotza ipinitxe. Antxoi, fabriketa. Fresku be, saltzen da antxoi baiña asko saltzen da fabriketa-ta, ta fabriketan eitxen da ba, salazoin, eskabetxin-te, ipintxen da.
- Eta, hor zeuen gazte denporan be, holaxe zan?
- Bai, bai. Ta, gu gaztiek giñala, ba, gaztik giñala, ba, ez dakit zazpi urtekin baiña zortzi urteaz-ta, juten giñan antxoa sasoin, ixeten zan udabarrixe, ez? Gitxi gorabehera, martxun hasi eta ekainan azkenetara arte, San Pedruk arte ixaten zan gitxia-gehixa. Hor, gero amaittu eitxen zan hor, ta bestin hasi eitxen zan. Hor udabarrixan ba, antxoi asko juten zan fabriketa.

Eta, gu juten giñan, andrazkuk juten zin fabriketan biharrera; gixonezkuk ba, hamalau urte, hamabi edo hamahiru alegaute, itsasora. Eta, umik itsasora jun aurrin, eskolan gebixenak, eskoliai laga -ordun, ez euan kontrolik- eta juten giñan fabrikara antxoiai buru kentzea. Umik, bai; zortzi urteaz be bai, te segun ze premiña euan etxin. Eta, ba, arrantzalik ba, justun irabazten eben. Bizimodu garratza eta arraiñe beti merke ixan da beti. Eta, aldixak eoten zin, arraiñe gitxi eoten zanak eta holanik-eta. Eta, umik ba, antxoiai buru kentzera juten zin fabrikara. Antxoiai buru kendu eta gero fabrikan eitxen eben ba, beste bihar batzuk eitxen, eotsen; beran elaboraziñoin, garbittu, gatzuretan euki horrenbeste denpora; gero, gaz lodixa bota, gero salmueratan halako dado txikixak lakoxik, gatz berezixe horrenbeste denporan, gero latetan sartu, buru kendute gero tripak kendu, garbittu ondo eta horrek gaz kontuok pasatakun, latetan sartu; holan, banaka-banaka ipini holako latetan, gañien ol bat ipini, ta ola harri haundi bat. Ha, prensaten eote zan ba, hillabete batzuk. Gero, negurako horrek eitxen zin, negun ataraten zin, ta horrek eitten zin; bata, eitxen zan, moñoera preparate zan. Moñoera izaten zan: hartzen zendun latetan antxoa bat, ipiñi hementxe eskun, bestie holanik, besti holanik eta buru kendute eukitxen eban ta buztana meheiaua. Ta, holan geratze zin ba, holan geratze zin. Ta, hauxe eskuko bonbian formi, bakizu zer dan? Ba, forma hori hartzen eben, holanik. Ta, horrei esaten jakue, hauxe esku-beteku, ixaten zan barrun. Ta, izen zan, hoixe, pixkat formiau emon, eta gero hori, ipintxen zan barriletan; berrogeta hamar kiloko barrillak, barrilletan eta hantxe ipintxen zan ol bat, bi, hiru; holan illaran ipintxen zin danin ta gero, gatza emon nahi beste ta beste illara bat, itxi gora arte, gero goixan itxi ta horrek bixaltzen zin Italire. Antxoi horreaz eitxen eben gero eurak, filetik. Filetik, bakizu zertzuk dizen, ez? Hara bixaltzen zan. Bai, hamen filetik eitxen zin, eukitxe zin hamen, hor beste hiru hillabetin-edo dana dalakun negura arte gatzetan, ta horrek konserban holan eukitxen zin. Te, gero negun, ba andrak juten zin te negu guztian biherra eukitxen eben filetik eitxen, eukitxen eben. Ba, eitxen otsen /itxotxen/ harei, ba antxoi izaten zan, buru kendute eta buztena ez. Eta, tripak kendute bahuen ba, apur bat kendute eukitxen eban, hamen uliek eukitxen zitxun, bizarra-ta. Horrek gero, egiten otsen, ebai. Ebai, kutxilluaz eta gero egiten eutsen azala kendu. Zapixak ibiltxen eben ta holan, atzaparra sartu, zapixe etara antxoiai ba, banaka-banaka holanik, holan arraskaten-arrakasten kentzen otsen. Gero, eitxen otsen kutxilluaz filetik; haragixa alde bat eta beste aldi kendu. Ta, harek zin filetik. Gero, eitxen otsen garbittu, eitxen eben trapu sikuaz ostabe eta gero, latetan ipintxen eben, orixu ipini ta latak itxi ta horrek filetik. Eta, hara bixaltzen zin moñutara, halaxe. Hemen geratzen zana, moñoik ein biherrik ez euan.

3.37. Balandrak, hurbileko zamaontziak

- **Hizlaria(k)**: Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-017/013
- **Iraupena**: 0:02:57. **Hasi**: 00:20:23. **Bukatu**: 00:23:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa
  Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Nabigazioa

Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

- **Laburpena**: "Balandrak" hurbileko garraioan ibiltzen ziren zurezko garraio-ontziak ziren. Pasaia, Donostia, Bilbo, Avilés... Horiek ekartzen zuten gatz lodia. Tinetan (barriketan) sartzen ziren antxoak eta han ematen zitzaien gatza. Gero harrizko asketara pasatzen ziren. Prozesu luzea zen. Fabrika txiki asko zegoen Ondarroan. Sasoian, gizonezkoak itsasora eta emakumeak fabrikara joaten ziren. Fabrika handienak bakarrik egiten zituzten fileteak.

Transkripzioa

- Ta, moñuek eitxen zian bixaltzeko?
- Bai, hori. Eta, hamen orduen euazen, ba, balandrak euazan asko gerra aurrin. Ba, bai, hamabi te bai, bauazan. Balandrak, bakizu zertzuk dizen?
- Ez.
- Balandrak diz, merkantiek bakizu zertzuk dien? Ba, egurrezko merkantik ixanda laintxeik. Horrek trafiku euken, ba hementxe Ondarrutik Bilbora, Pasaire edo Donostire, Santanderea. Hamentxe Kantabrikun bakarrik ibillten zin. Asturiasea, Avilesea, holanik. Eta, horrek eitxen eben, hamen, hamengo portutan, ez danak, baia arrantzale portuk zienak, ba antxoi asko sartzen zan ta gatz asko ibillten zan fabrikan. Gatz lodixe. Lelengo fabrika sartu ahala, antxoie euan modure, erosi, erun ta emoten jakon, ba holako tiña handixak eoten zin. Tiñak izaten zin barrilak izanda lantxeik baiñezabalak; goixan tapaik ez eukenak, egurrezkuk, ohola, “tronco de cono” baten, forman. Eta, horra botaten zin eta bota ahala, bota otzarie, antxoa-otzari esaten da, otzarie, ba, antxoie eruteko; hogeta hamarretik hogeta hamasei kilora eukitxen eban horrek, antxoa-otzarik. Ta horrek eruten zin fabrika, ta handik bota ahala, gatza “far-far-far-far” bota, ugari gatza bota ugari. Beste otzarie, ugari gatzaz beteta. Gatzak eiten otsa, ure kendu egunetan. Ure, urten ta urten, han egurrezko egurren tartetik, urten ta urten egoten da. Gero, ez dakit zemat egun pasatakun, ba, eitxen diz aska handixak eoten zin, harrizko askak eoten zin. Ba, gutxi gorabehera, hemendixeik, ta honaxe luzeri ta zabaleri eukiko eben holakoxi. Ta alturi ba personi ailleateko beste bertara. Ta, harek arraiñak paseten zin horra, beste gatz lodi bateaz ipini ta holan, holako bihar batzuk eitten otsen. Persona nausixak eitxen otsen hori. Andrak eitxen otsen, gizon batzuk lagundute. Guk, bakarrik buru kendu, umik eitxen geuntxan. Eta, gero hortik paseten zan beste fase batea ta dana, gatzaz ixaten zan. Azkenien geratzen zan, siku-siku-siku-siku, gatzaz konserbata. Denpora askon konserba zeinke bai, eta arraiñe egoten zan negure arte. Negun, antxoaik ez zanetik eoten, ba negun biharra, hoixe eoten zan fabriketan. Ta, fabrikak euazen, herri guztin euazen. Handixak bauazen, gitxi. Bauazen fabrika handixak baiña gehixenak zin txikixak.
- Eta, herriko jende gehixena...
- Gizonezkuk, itsasora ta emakumeak, fabrika. Bai. Apur bat diru eukenak ta harek ba, fabrikan lan, txarra zan. Umedaziñoi, gatza ta hori, giro horrek ba, barru arte kalaten dau; arrantzan, arrantzalik leintxeik. Ta, ordun ba, gehixenak fabrikara; orduen beste aukeraik be ez euen da.
- Eta, fabrikako biherra orduen, udaberrixan hasi ta...?
- Bai. E, honek fabrika txikixak ziñak, horrek fileteik ez eben eitxen.
- Ez?
- Ez. Horrek eitxen ben, ba, denpora gitxiko biherra eitxen eben horrek gatzaz ta eitxen eben ta gero, esporta-ta, ez dakit zelan eitxen eben, be. Baiña fabrika handixak eta ertaiñak zienak eta be, horrek eitxen eben, ba, negun gero filetik; danak, fabrikante guztik be, ez zin holako potentik, eta

ba, hori ba, horrek handixok, handirakuk eitxen eben,hori, filetik edo gauzioi.

3.38. Bartolo Scola, kontserbagile siziliarra

- **Hizlaria(k)**: Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-017/014
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:23:20. **Bukatu**: 00:25:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- **Laburpena**: Kontserbagileen artean bat nabarmenduko luke: Bartolo Scola siziliarra (Sizilia aldekoak omen ziren italiar kontserbagile gehienak). 15 urterekin etorri zen Santoñara eta han urte batzuk eginda gero Ondarroara. Ondarroako euskara primeran egiten ei zuen. "Scolaren fabrika" esaten zioten industriari.

Transkripzioa
- Zeintzuk zian arrain fabrikarik inportantienak, egoten zienak?
- Ba, hor, hiru behintzat gutxi gorabehera neurri batekun zin: Scola, bat, hau, hau zan italianu zan hau izatez. Lehen esan dodana, interesaten jatzu, ez?
- Bai, bai, bai.
- Hau etorri zan, nik honen historixatxu bat, baten periodikun hartu neban nobelan leitxeik. Pixkat nobela leitxeik, realidadin gauzak aldatu diz, ixen batzuk eta gauzak. Eta, nik entzun dotena hauxe da ta oin ahaztute dakat. Gordeteko eon nitzan ta akabo! Hau etorri zan ez dakit hamalau urtekin edo hamabost urtekin, Siziliaku zan, Palermoku uste dot zala. Behintzat, Siziliaku zan. Eta, handixeik etorri zin italianuk, Siziliatik hona etorritxekuk, bai, behetik. Eta, etorri zan ha, bueno, hamalau-hamabost urteaz etorri zan. Eta honek ordurako eukan bere osaba bat, aitxaren anaixe bat. Santoñan be, fabrika asko eon zin antxoiaz. Eta, hor gero Avilesen edo, bazin fabrikak. Asturiasen, San Vicente de la Barquera, oin, ahaztute daukaz. Beste herri batzuk, fabrikak euazena, Ondarrun ta letxeik, eitxen eben. Ta, haren osaba, antxoa fabrikante euan ordurako. Te, etorri zan ta han ein eban biharra. Denpora gitxi eiban, urte gitxi eiban, han. Gero, ikusi zan gaiñera, beste familixakuekin-ta, ez dakit zelanik, Ondarrure sartu zan. Bera, Gasteizetik etorri zan ta hortxe biharrin ibili zan. Ta, gero denporiaz, ba, berak montau ban beran fabriki. Ta nik ezautu neban, ba, ezkondute gero ezautu neban nik, ha. Berak montau banin, ez takit beran famelixako batek lagundute, nausixauak edo zelan ixan zan. Eta, hori gero, euskeraz be, ondo ekixen. Berak, italianu eitxen eban berba beti. Baiña nik, guk amistade handixe geunkan, ta nik, zahartza-etxin ezautu neban gaixorik euala ta ondarrutar, geuk leitxeik eitxen eban. Bai. Bartolo Scola; Scola italianu, “ese”, “ce”, “o”, “ele”, “a”, italiano abizena. Bartolomeo Scola. Hortxe euki eban fabriki urte askuen. Gero, hementxe ein eban barrixe. Oin, hillde daz, horrek hil zin. Beran seme-alabak, be, danak hillde daz; bat dakar, alaba bat, berak be, berrogeta hamar urte badakaz. Ta, horrek. Horixe fabriki zan ba, Bartolo Scola, Scolan fabriki esaten gentsan bat.

3.39. Ortiz eta Iriondo, Ondarroako beste kontserbagile handiak

- **Hizlaria(k)**: Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-017/015
- **Iraupena**: 0:02:21. **Hasi**: 00:25:25. **Bukatu**: 00:27:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
  Itsasoa
- **Laburpena**: Ortiz zen beste kontserba-fabrika handia; Zumaian eta San Vicente de la Barqueran ere ba ei zuten lantegia. Ortiztarrak arabarrak ziren jatorriz, Ortiz de Zarate. Iriondo zen hirugarrena. Markinako hiru anaia ei ziren Iriondotarrak, gaztetan Ameriketan artzain ibilitakoak. Horietako bik jarri zuten fabrika. Orain dela gutxi itxi zen.

Transkripzioa
- Besti zan Ortiz, ondio hemen dakarrena fabriki. Hauxe zan beste bat, fabrikante handixe. Honek, Zumaixan be, badakar. Eta, gero han behetik be, baukan Santoñan be, bai euki eban sasoi baten, San Vicente de la Barqueran-edo hortxe be, badakar ondio. Ontsure arte euki aban. Eta beste hirugarrena zan Iriondo, fabrikante handixe. Hiru horrek, geure denporan eon diz handixak.
- Ortiz eta Iriondo.
- Eta, Bartolo Scola.
- Bertakue Iriondo edo?
- Iriondo, Ondarruku. Horrek Iriondo zin, gaztetaz jun zien, eurak zin Markiñarrak-edo ez dakit, aitxe eben. Eurak Ondarrun jaixuk edo eurak gaztetaz Ondarrure etorri. Gero, jun zin horrek Ameriketa, artzai jun zin. Ba, artzai jun zin. Ba, Markiñarrak ixengo zin ze, arrantzale mundukoik ez zan juten artzain-te. Eta, hiru anaixe zin horrek, arrebak-eta be bazien. Hiru anai, hirurak jun zin, artzai Ameriketa, Estatu Batueta. Han, ein zitxuen. Nik ordun ez nitxun ezautu, gero ezautu nitxun. Eta, nire gurasoak baiño nausixaua zin horrek-eta. Gero, han urtik ein, te diru apur bat ein benien, etorri zin hona eta ipini eben horko hiruretatik, birek ipini eben fabrika bat. Holakoxe fabrikie. Nik ezautu neban fabriki eindde euan ordurako; ba, hamar bat urte edo gitxia. Hamar urte edo; ez, gehixa. Mille beatzirehun ta hamarrin lelengo fabriki horrek, instala eben, horrek Iriondotarrak, bai. Eta, hori zan nik ezautu neben fabriki handixe; hirurak horrek, bardin zamarrak zin. Ta, tamaiñan, gitxi gorabeheran, holakuek. Hiru handixenak, horretxek zin. Eta, horrek Iriondo, zin ba, hamengoxik. Gero ba, euran semik jarraitxu eben eta ointsura arte, oin dala urte gitxi, ba amaittu zan Iriondo fabriki be. Oin antxoie be, gitxi etorten da, ta ez dira rentablik-ta.
- Ortiz, nungua?
- Ortizek jarraitzen dau.
- Horrek be, Ondarrukuk–edo?
- E, Ortiz bera, zaharra, ba, azkanengo egon dana, Ortiz, hil de. Hillde da. Ni baiño ba, harek, eukiko zitxun, hamar bat urte-edo gehixa. Horren gurasu ezautu neban. Horren gurasuk ta horren aumume, aitxaren ama, zan hamen fabriki sortu bana. Uste dot alargune zala. Nik, haxe neukan entzuti. Ta, horrek zin etorritxe Arabatik, Arabako herri batetik zin etorritxe; Ortiz de Zarate uste dot dizela. Ortiz.

3.40. Kontserba-fabrika txiki ugari Ondarroan

- **Hizlaria(k)**: Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-017/016
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 00:27:46. **Bukatu**: 00:29:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- **Laburpena**: Kontserba-lantegi txiki asko zegoen Ondarroan. Kaleko etxepetan zeuden gehienak, eta soto asko ere horretarako erabiltzen zen. Sotoak ezinbestekoak ziren arrantzaleentzat, han gordetzen zirelako trepetak eta lehengaiak. Oraingo portua 1933an hasi ziren egiten. Lehenago gorago ziren portua eta batelentzako sotoak.

Transkripzioa
- Berau, oin ni baiño hamar bat urte zaharrauan aitxe, ha Ondarruku zan. Baiña beran ama, handik etorritxakuk zin, ta bestik, Ondarrukuk.
- Ordun, hiru handixek, horrek?
- Bai, horrexek die handixenak.
- Eta, gero txikixak?
- Txikixak eta gero, medianuk eta bauezen bai. Hor, asko euazen. Ondarrun euan asko, fabrikaz beteta euan beheko lokalak eta gero, euzan bodegak asko.
- Fabrikak-eta, nun zian, herrixan edozeiñ tokitxan?
- Bai, bai. Bodegak, diz ba, txalupak bodegi biher dabe. Txalupa guztik behar dabe bodegi beran pertretxuk, gauzak eukitxeko. Eta danak. Eta, gehixen be, zin han, portu bakixu nun daun Ondarruku? Hor ez auan, portuik. Hor, darzena bat euan baiñe hori, marie beherezkun, sikatxu eitxen zan dana. Ulertzen ostazu? Eta, hor mille beratzirehun ta hamahiruan ein eben, hasi zin portu eitxen Ondarrun. Ondarruko portu ein eben. Orduen, hori ba, ni hogeta beratzixan jaixo nitxan, ni jaixo nitzanin ez euan ondiokan portuik, hor. Ni, mutiko koxkorra nitxala, ba, ein eben portue, hor; hogeta hamahiruan hasi eta hogeta hamaseixan gerriaz batera amaittu. Ixe amaittu zan; gero, apur bat jarraitxu eben. Eta, hor ez euan bodegaik batik be, orduen. Oin bai, badagoz baiñe. Batik, ez auan, hor. Veganeku bakizu zein dan?
- Ez.
- Ha, oin hotela itxitxe da. Ta, azkanango hor, Alamedatik harutz, paseue hara, azkaneko hotela zan Veganeku ta hamar bat urte edo itxi zan. Oin, “dzanga”, dago. Ha taberni, ta bera edifizixue, hantxe da. Ba, hortik harutz, portu gero, ta hor, ez euan bodegaik bape. Eta, hor bestelan hamen, hamen kale guztin; ta hor ta hamen ta hor ta hamen, normalin, hor Kala Handixe ta Goiko Kalin te bai baiña hor gitxi. Batelak eta gordetako eukazan. Beheko Kalin, hamendik eta Alamedan zihir, danin euan gitxia-gehixa. Han, gitxiau ba, parte dotoriaue zan da, ezta? Baiña hantxe be bai bodegak. Bai, bai, Iper Kalin te be bai, bauazen.
- Eta, bodega bakotxien, e…
- Ba, sarik eta itsosako gauza asko biher diz; masixe ta gauze asko biher dizenak: barrillak eta…

3.41. "Masixe", arrantzarako karnata

- **Hizlaria(k)**: Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-017/017
- **Iraupena**: 0:03:31. **Hasi**: 00:29:47. **Bukatu**: 00:33:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa
  Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua
  Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- **Laburpena**: "Masixe": antxoa txikia, udazkenean harrapatu, gatza eman eta karnata gisa erabiltzen dena, batez ere bixigu eta papardotarako. Norvegiatik ere ekartzen zen "masixe": bakailaoaren "arbixak" (huevas). Barriketan kontserbatzen da masixe eta sotoetan gordetzen. Masixe atzerritik ekartzera dedikatzen zirenak zeuden.

Transkripzioa
- Eta antxoak eta gatzetan eta sartzeko?
- Masixe, horixe da. Ba, kordon bisiutan ta papardotan ta ibilltxeko, udazkanin. Antxoian sasoie, da udabarrixe, da, ez gitxia-gehixa? Gero, udarako amaittu eitten da. Udan eoten da atune, ta udazkana pasaura arte, udazkana arte egoten da atune. Oingo urtitan, ba negun be juten diz ur berota, Canariasea ta hori diferenti; orduen ez euan holakoik-eta. Eta, hor udazkanin, ba urrixan edo hortxe, ba kalendaixuaz ez da ibilltten arraiñe, egualdixakin ibiltxen da, uran tenperaturiaz gehixa ibiltxen da. Gitxi gorabehera hortxe, lehenaua-berandua urrixan, ba antxoa txikixa atrapeten zan; udabarrixan aldin gitxia atrapate zan hamendik kostatik hurrin. Ta, antxoa txikixe gozue izaten da jateko. Baiña hori, erabiltxen zan hori, ba, mendetan zihir ibillten zan hori kordan, bisiutan eta papardotan; batez be, bisiutan. Biseue beti euen. Papardu, aldixetan eon da, bisiu-ta beti. Eta ordun tretzan enkarnateko, eitten zan barriletan arraiñe atrapetan zan. Ekarten zan bizi-bizirik, arrain freskue, eta, barrilleta bota, gatza emon asko ta barrillak horrek, bodegan eoten zin, itxitte. Bai ta haretxek zin, ba, haren tartetatik eitten zan beti, urak urten beti. Urak urten, beran kaldu urten eitten otsan. Eta, haretxek gatzak konserbaten eban antxoie hor, pare bat hillabete-edo; abendun, lelengoko erdixan-edo, hortxe ixaten zan, kordan hasten zin eta ordurako, ba hori ixate zan, karnatie, amuen ipiñtxeko engañue esaten zana. Horrek eukitxeko sasoi horretan, gero udan ba, sardiñie atrapetan zan udan asko, eta udabarrittik eta udan gehixen be, ta sardiñi atrapateko ba, ziur euki biher ixeten zan. Masie, ona izeten zan. Horik, asko balixoten eban, karue. Ba, hori ekarten zan, Noruegatik ekarten zan hona. Noruegan, bakallue erregie danetik, Noruegan ta Islandian ta Terranovan ta Groelandian ta horretan, ba hor eitten otsen bakaillaue urte guztixen atrapetan da hor, ta ba, bakaillauai eitten jakoz tripak kendu, urdaillak, esaten jakoz, arbixak. Tirpak eukitten dittuz, ba, bat esateko, “huevas” esaten dotse erderaz. Horrek, arrosa kolori, gorrixe, argixe, horrek ixeten die. Bakixu ala ez?
- Bai, bai.
- Horrek bi ixaten diz alkarri lotute, arrautzak letxeik ixaten diz.
- Hori da arbixa.
- Arbixak, horrek. Ta, gero beste bat egoten da goraua: urdaille. Urdaille da da estomagu, ez? urdaille. Pixkat kuxkurtute eoten da, barrutik pixkat

rizaue eukitxen dabena. Ba dijeriuteko jateku, pertsonik lez. Hori izeten da, bat. Eta, horrek egositte gozuk ixaten diz jateko. Lehenau bakillaue atrapetan zanin hona, horrek asko ekarten zin-ta. Legatzanak-ta, legatz handixanak-ta, etxietan asko jaten zan oin dala urtik. Oin, horrek amaittu zin. Ba, horrek arbixak dizenak, horrek urdaillak ez, arbixak ba horrek eukitten zittuezan konserbaten gatz askoaz eukitten eben barrilletan. Eta, horri masiena izeten da, usaiñe be, ederra eukitten dau, eta ekarten dabe, handixeik ekarten da. Esporta eitten da handik hona; enkargaten da kontxesenarixo batzuei ta holako batzuk, preparata dauzelaik, ekarten dabe. Ta, gero hamen banatzen dotse txalupa jaubiai, eskatzen dabenai, eta horrek be, barrilletan eoten diz. Aurretik euki bihar dozuz /bizuz/ horrek, reserban euki bihar dozuz /bizuz/. Udie aillegata daneko, ba eukitteko. Asegura ein bihar dozu /bizu/ aurretik-eta. Horrek be, bodegetan eote zin.

3.42. Masixe prestatzen sardinatarako

- **Hizlaria(k)**: Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-017/018
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 00:33:18. **Bukatu**: 00:36:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Berdela, txitxarroa, sardina
  Itsasoa
  Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- **Laburpena**: Egunean egiten zen sardina arrantza, kostatik hurbil egoten zelako. "Ondarru Kabra" eta "Deba Kabra" esaten zaie Ondarroa eta Deba pareari. Masixe barrilak eramaten ziren itsasontzian. Arbia xehe-xehe egiten zen ganibetaz itsasora bota aurretik.

Transkripzioa
- Gero, horreaz eitxen zan, sardiñatara juten giñan eunez. Eunez juten giñan ta gabaz etxera etorten giñan. Eunez, sardiña-arrantzie eitxen zan. Eta, kostatik hurrin ixeten zan. Ondarru, aberatsa izan zan. “Ondarru-kabra” hau, […] ta hori, sardiñiaz aberatsa. “Deba-kabra”, “Deba-kabra”k, bakizu zer nahi daben esan? Deba parie, nahi deu esan, itsosu bera be, kanpoko aldetik. Deba hurrin, Deba aurrin esanda beste. Deba-kabran be, aberataa. “Zarauz-kabra”k be, aberatsa sardiñiaz. Bilboko aurri de aberatsa; bauazan tokixek aberatsak zianak. Beste batzuatan, gitxiaua […] tokixek euazen. Beno ba, hor ibilltxen giñan gitxia-gehixa udan. Eta, orduen ba, masixe eruten zan sardiñatako. Eruten zan “tre” eindde, zerkoku […] baiño hazixaua eta ba, masixe eruten zan. Ta, masie hori, eruten zan, ba, barrillatik eruten zan, barrillak, holakoxik diz, e! Lehengo eran moduku, harek eukitxen ebena, berrogeta hamar kilokuk izaten zin moñun eruteko, harek baiño altuauak izaten zin. Bai eta zabaltxuauak. Eta, hor barrillok, ba eruten zan haulako barrilla. Barrilliai berai eitxen jakon, hirutik bat, herenen bat moztu. Eta, han lokarri bi ipini agarrateko lez, eta hortxe ataraten gendun barrillatik ba, zati bat. Parte bat atarata gendun horra, ta hori eruten gendun itsosora. Bera bete baiño gitxiaua eruten gendun, tankeka bat eruten gendun. Egunero eruten zan egunean behar zana. Eta, gero hori itsosora guzela, ba bidin eitxen gendun, ol bat

eukitxen gendun ol bat soltekue, holako honetxen mahi honen lodieraku, ba, pare bat zentimetro lodieraku ol bat. Holakoxe metro erdi luzera, berroi bat zabalera-edo eta hor gañin, arbixak ipini arbixe oso-osoik, biñakakuk izeten zinez...
- Oso-osorik arbixa?
- Bai. Oso-osoik, nahi dot esan, bi, bat eindde eoten zin, bi. Ba, holantxerik biñaka. Oso-osoik, bikotik hazten zin. Harek ez zin eoten zapaldute normal eoten zin. Apur bat zapaldute bai, baiñe antxoi […] zapaldute, gatzetan ez, normal. Beran lodieri eukitxen eban; freskue beste ez, zabaltxuaua. Eta, ordun hartzen zendun holakoxe bikote bat, eta hartu holan bikote bat zeukona, eta hementxe ta kañuetai, kañueta guk esaten dotsauena, ta aizto bat, kutxillo bat, hau, kirten hau ta hauxe formie eukitxen dabena. Ba, horreaz zehe-zehe ebai. Txiki-txiki-txiki eitxen zan hau danau; txiki-txiki-txiki. Zehe-zehe-zehi ein eta hori, beste barrilatxu bat eukitxen gendun hamen, barrilla-erdi bat ta haraxe. Eta, hor euan masie guzti, eitxen gendun, holantxik lelengotik ebai, eitxen gendun. Eta, horra.

3.43. Masixe itsasoan botatzen arrantza orduan

- **Hizlaria(k)**: Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-017/019
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:36:11. **Bukatu**: 00:39:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Berdela, txitxarroa, sardina
  Itsasoa
  Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- **Laburpena**: Kalara (arrantza tokira) heldutakoan, txalupari batek barreiatzen zuen masixa. Garai batean "turtugiaz" (gari-azala?) nahasten zen masa. Bitsa sortzen da ur gainean sardina-sarda hurbiltzen denean.

Transkripzioa
- Gero, itxasora jun dakun ta ikusten zanin, kala allegaten giñanin, kala, badakizu zer dan? Arrantzako tokixe. Eta, ba, normalin ixaten da ba, hamentxe sasoi honetan. Ta, hustu eitxen dabe, ba, ez da hamen, egunaz saiatu gaz ta ez da arraiñik. Ba,Debakora jungo gaz, edo hara, jungo gaz ta holan. Kalara, jun dakoan ba, eitxen zan: ba, txalupik eruten dau batela eruten dau, laguntzailie. Batela. Atzin eruten da erremolkin eruten dau lotute. Bueno, bide asko ein biher bada, barrun sartute eruten dau. Atzien, eruten dau, gehixenetan atzien, barrun. Altxaten da ta antxe eruten da trabez, eruten da. Lotu pixkat eta hantxe. Eta, gero ba, batela botaten da kala allegatutakun eta arrantzale bat batelin arraun biaz jarlekun, tosta, tosti de jarleku. Tosta bat, hau batelan aurrie ta hau atzie. Hau, aurrie te hau, atzie, ez? Erremutan hemen jarri, eta hemendik etara atzera, ba hor behian, haxe masi-barrilli masixaz. Masixe zehetutako, masiona esaten jako horrei. Masiona. Eta, batelin danak eitxen dau, hartu masixe ta masi apur bat, hori sardiñie eoten zan egualdi ona euanien; egualdi txarra bauan, ez euan. Hondun eote zan, hondure eitxen ban-ta, botaten zan apur bat, apur bat botaten ban haraxe, bota. Gitxi, bota /bizan/ bihar zan, ze botaten bazendun asko, amaittuko jatzun eta diru asko balixo ta arraiñik

ez. Botaten zan apur bat ta gero denporiaz urten eban, “turtugi” esaten otsen. Ixaten zan, garixan gari-ali. Garixe ixoten da ba, garixe joten da ba? Eta, garixe joten, garixai ali apartate jako ta beran azalai, “zaixe” esaten jako. Guk hamen zaixa esaten gontzan. Aparta eitxen da. Ba, haretxaz eitxen zan, turtugi ixaten zan, haxe. Ta, horreaz eitxen zan edo holakoxi zan nitzako behintzat. Nahasta eitxen zan masiona, nahasta, uretara bota baiño lehen, eta, ordun harek, mantentzen eban apur bat azalien ze, betibe, hondure juten zan-ta. Ez da komeni hondure juterik, galdu eitxen zan bestelan-ta. Ta, hareaz nahastu ta turtugiaz, ta gehixa aguantaten eban azalin. Eta, gero ba, sardiñie denporiaz-eta, apurke-apurke, ez da ikusten hurreratzen. Baiña zemat eta hurreraua, bitsak urteten hasten diz. Bitse bakizu zer dan? Bitse, adurre edo bitse, horrek ba, arraiñak beran ha. Puspulu txikixak urteten dau ba, arnasi hartueran. Ta, horrek txiki-txikixak arraiñak botaten dittuz. Antxoik eta arrantza barrixe danin, bizi-bizik danin barrun ba, bitse botaten dabe asko. Hil arte botaten egoten diz; hori, adurrak esango baunke lez. Eta, ordun batelekuk ez dau ikusten sardiñaik. Ez dau ikusten baiña hantxe eoten da, adi egoten da. Eta, “bitsak hasi diz”, esaten dau halako baten. Ba, sardiñi hurreratzen hasi dela eta saiatzen da gehitxua botaten. Gehitxau botaten ta zabalaua botaten.

3.44. Sardina harrapatzen

- **Hizlaria(k)**: Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-017/020
- **Iraupena**: 0:02:59. **Hasi**: 00:39:06. **Bukatu**: 00:42:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Berdela, txitxarroa, sardina
  Itsasoa
  Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- **Laburpena**: Batelaren motorra itzalita egoten da. Bitsa hasten denean botatzen da sarea. Batzuetan sarda osoa harrapatzen da, beste batzuetan ez. Gero, txaluparia berriz urruntzen da barkutik masixa botatzera, prozesua errepikatzeko. "Masixa ona" esaten zaio antxoa txikiz egindako karnatari.

Transkripzioa
- Eta, txalopia han eoten da, motorra amatata, parata. Ze, [eskapeko] zaratik kalte /eittotsa/ eitten dotsa ta “txizt” tximistadie eitxen dau te alde eitxen dau segixan. Segunduan parte baten, alde eitxen dau arraiñak-eta. Ta, ordun haratxutxaua, hantxe eoten da ta adi, eoten da patroi. Eta, batelekuk, […] daixola: “bitsak hasi diz”. Eta, orduen [adi] gertaten da. “Bitsak hasi diz”, ta fallatu leike horrek. Etorri leike loditzen arraiñe ta lodixau etorten bada, ikuxittakun bitsak nahiku datoz, ba ordun, sari botateko, zerkateko. Eta holan ba, hortxe eoten da. Ta gero ba, ikusten danien ba, nahiku datozela bitsak edo hori, ba, pixkat arraiñe ikusi be bai, itxain eitxen jako. Eta, atrapaten bada, politxo atrapaten bada, ba baztertu eitxen da ostabe. Ze, gerokun […] eiñeran, ba batzutan urten be eitxen dau, kanpora. Ihes eitxen dau. Sarie, holan batzen zazen arte, batzen zazen arte, eskapa eitxen dau azpitxik zihir; edo hamendik edo hortik eskapetan dau. Beste batzutan, zati bat geratzen da. Beste batzutan, dana

topaten dozu, segun. Eta, ordun ba, behintzat han kalaten bana, batelak lehen kalaten eban tokixan, etorten da kostablera. Kostable da albora, etorten da. Sari sartzen dan arte, hantxe eoten da alboan. Barrure salto eitxen dau eta ha, lehengo sistemi apurtu eitxen da, hantxe. Eta, gero ba, arraiñe sartutakun edo sarie sartzie amaittutakun, ordun barriro ostabe, arraiñe merezi badau harek, bertara erun ta bertan lagaten dau. Eta, arraiñe gitxi bada edo hutsik bada, harutzaua jun ta han, kalata. Hori esaten da, kalati. Kalata da, haxe masixe botaten eotie toki baten. Erramu biaz ba, itsosu beti eitxen dau, itsosun olatue beti gitxi gorabehera mobimentun eoten da. Ta, mobidu eitxen dau txalopie, ez? Edo, haixie pixkat bada, mobiru eitxen dau edo korronta be eoten da ta mobidu eitxen dau. Ta […] eukitxen dau batelak, ba atzetik, ba, sei-zortzi braza soka bat, holakoxe soka lodi bat, eukitxen dau. Eta, puntan eukitxen dau kurkille esaten jakona; holako palotxu bat edo barilla bat. Ta, han eukitxe dozu… Kortxuk, bakizu zelakuk dizen kortxuk? Holako sei-zortzi kortxo eukitxen dau lotute. Eta, ha, botaten dau, te eoten da hamendixeik eta haraxe artxibora arte eoten da batela be. Distantzi, gitxi gorabehera, zortzi-hamar braza, brazatan ibiltzen giñan. Hori baiño gehitxua. Eta, harek, bera eoten da zuzen, batela eoten da sokiaz; holan, beran tengaran eoten da-ta. Eta […] edo batela hau eitxen batsa, bateleku ez da enteraten. Ordun, ha, beatu: batelak eingo dau hau ta bera hantxe eongo da beran tokixan. Eta, ordun eitxen dau erramuaz, haxi beti norbeaz batera zuzen eukitxera. Orekara, esaten jako horri. Ekilibrixu, orekan; mantentzie haxe. Erramu bi eikitxen dau ta zemat eta eualdixe hobiaua, mobimentu gitxiaua. Baiña haxe pixka-pixkat hantxe beti berai begire ta berai begire. Bota masixe ta hantxe berai beire. Eta, iñoz ba, batela jarritxe beratu ostabe. Ta iñoiz, eualdi ona bada ta ikusi nahi, te zutik altxaten da ta hantxe erramu mantenuaz zutik hantxe; ia zer ikusten daben ta holanik. Hori sardiñatan izeten da masionaz. Eta, gero, masiona da hori.

3.45. "Masi zazkarra"

- **Hizlaria(k)**: Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-017/021
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:42:05. **Bukatu**: 00:43:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Berdela, txitxarroa, sardina
  Itsasoa
  Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- **Laburpena**: "Masi zazkarra" "bolintxerako" erabiltzen da; txitxarroa, berdela eta horrelako arrain merkea harrapatzeko. Txorizo-makinaz arrain arrunta zehetuz egiten da.

Transkripzioa
- Horrek barrillak eoten diz, han. Te, “masi zazkarra” edo ha beste masixe. Masi zazkarra izeten da: ba, bolintxin esaten da, zerkoku baiña treñie baiño txikixaua. Hau be itsasertzien eitxen da hau arrantzuau. Hamen Zarautzen-ta, Ondarrutik hurrien, aberatsak izen diz bolintxien, bizi guztin ixan diz. Ta, hori eitxen da ba, txitxarro txikixe, bobie te holako arrain merkiek dizenak, ba horretxei bertan itsosun atrapatakuk, horrek eitxen diz, eruten ta, e…

Txorizuk eitxeko makiñie bakizu zer dan, eskuku, lehen euana txorizuk eitxeku? Lehena, txarrixe hilltxen zanin, baserrixetan-ta, txorizuk eitxen zin.
- Bai okelie sartu ta gero...
- Holan, eskuaz eraindde, bai. Han urteten eben, han zulutatik. Ba, holakoxe makiñie eruten zan. Ta, horra sartzen diz; ba, botatzen dozuz txitxarruk edo holako arrain ordinarixuaua, sardiñian aldin ordinarixuaua, korrientiaua eta erain harei, hori ba itsosora guzela bidien eitxen gendun, erain harei ta han urteten daben masixe, ba, masixe einde, zer da hau? masi einde urteten dabe han zulutatik. Txorizue barrun sartzen jako masi, ba? Halantxerik urteten dabe, masa bat bigun-bigune arraiñana.
- Txitxarruaz zehe-zehe eginda?
- Bai, hori. Eta, gero hor prentsa ta juten danetik, ondio be, zehe-zehe einde baiño be, beran likiduaz ta ba, oindio be masie ba, purean antzera einde eoten da. Eta, hori ixaten da ba masa zazkarra. Horreaz beste horrenbeste eitxen ta negun ixaten da hori gehixen bat. Udabarrixan be bai baiña gehixa, negun. Eta, bolintxin, ta hori izaten da txitxarru ta atrapateko. Txitxarru ta holako beste arrain batzuk atrapateko izaten da hori. Batela holantxeik kalata ta da sistema bardiñe. Ta, hori ixaten da masi zazkarra, esaten jako horrei.

3.46. Arrantzaleen sotoa

- **Hizlaria(k)**: Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-017/022
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:43:42. **Bukatu**: 00:44:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa
  Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
  Itsasoa » Lehorreko lanak
- **Laburpena**: Masixe sotoan egoten da barriletan, arrantza-tresnak eta beste hainbat gauzarekin batera: trainak, bolintxeak, kakoak, sareak... Armadore bakoitzak bere sotoa izaten zuen.

Transkripzioa
- Hori be, ba ez dana masixe latxerik, ze gero arraiñai txitxarru atrapau ahala, beraz be, eintxen da baiñe eoten da, ba, masixe zazkarra eitxeko ba, masixe be eoten da barrilletan bodegan. Ta, gero treiñe, bolintxie, sarik, kakuk eta mille gauza arrantzan barrun ibilli biher dizenak, hantxe eoten diz gauza batzuk. Eta batzutan, tokixe be ahal bada, ba, sari konpontzeko andrak be, sari konpontzeko hantxe toki itxi baten.
- Eta, txalupa bakotxak beran zera eukitzen zeban, beran bodegi edo etxe bakotxak berana edo?
- Txalopa bakotxak. Bai. Ba, etxe batek baukazen txalopa bi, bodega bat eukiko eban hazixaua, bodegi. Baiña gehixenak, zin ba, txalopa batekuk gehixenak. Ba ziran, bikuk ta hirukuk, be bai, gitxi. Edo, bodegi bat beti eukitxen eben.

3.47. Tretzak "enkarnatzen"

- **Hizlaria(k)**: Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-017/024
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:45:10. **Bukatu**: 00:46:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa
  Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
  Itsasoa » Lehorreko lanak
- **Laburpena**: Arrantzale bakoitzak bost tretza izaten zituen. Bakoitzak berak zuen bere tretzak zaintzeko eta "enkarnatzeko" ardura. Normalean emazteek edo alabek ipintzen zieten karnata tretzei. Iluntzean barkura eramaten ziren prestatutako tretzak. Jabearen andreak edo "krixadek" ematen zieten karnata.

Transkripzioa
- Eta, bodegako lanak egoten ziran; hau da, lihorreko lanak, egun batetik bestera gauzak gertatzie? Ez dakit, lehen esan dozu, tretzak edo...
- A, bodegan egoten zan karnatie, tretzak eitxeko. Ta tretzak eitxen zanin, ba arrantzale bakotxak eruten eban bost tretza-edo. Danak, bana eruten eben. Ta, horrek tretzok norberantzako zin. Eta, horrek tretzok, norbera jabetu, norberak zaindu ta norberak karnata, enkarna izaten zan. Eta ba kordara juten zin besiuta, ba etorten zin arratsaldin porture, aillagaten zin te arraiñak atara ta gizonak etxa jute zin. Ta, arratsalde horretan, ba juten zin etxekuk, etxeko famelixako bat, andrazko bat juten zan, andrie edo alabi edo dana dalakue, bodega juten zan balda bateaz. Ikezko balda bateaz, ta han emoten otsen, ba, karnati emoten otsen; holako raziñoi bat, tretzak enkarnateko. Gizonak itsasotik ekarritxako tretzak, etxin illuntzien, etxin andrak enkarna eitxen eben.
- Ordun, andren biharra izaten zan?
- Bai, andren biharra zan hori. Eta, etxin igual ba, gizona eta andrie ba, sari konpontzailli bazan edo fabrikan biharra eitxen bana edo holaku te ba, hara jun biherra baukan biherrea, ba ordun batzuk eitxen eben enkarga beste batzuai, ein ahal dabenai aloberaz.
- Eta, ordainddu?
- Bai, hoixe ordainddu honenbesteko bat eta holan. Gero, horrek eitxen zin illuntzin eruen gaberako, illuntzien gabie baiño lehen, tretzak ein te sartu txalopan ondo ipini, egune dan arte, ordun ez zan eoten argirik eta holan eoten-ta. Eta, hori, horrek karnata ta horrek bodegan egoten zan. Eta, hori emote ben, jabin andrik, emoten eban jeneralin. Beno, jeneralin krixadak emoten eben.

3.48. "Krixadak" edo "neskatilak"

- **Hizlaria(k)**: Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-017/025
- **Iraupena**: 0:03:04. **Hasi**: 00:46:51. **Bukatu**: 00:49:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen

- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
  Itsasoa
- **Laburpena**: Txalupa bakoitzak bi "krixada" ("neskatila" Bermeon) izaten zituen. Armadorearen familiakoak izaten ziren normalean. Patxiren amak, alarguna zenez, "krixada" lana egin zuen bizi guztian. Arrain salerosketan eginkizun inportantea jokatzen zuten. Arroatan hitz egiten zen pisuaz (12,5 kl), nahiz eta gero kilotan kobratu.

Transkripzioa
- Txalupa bakotxak, eukitxen zitxun krixada bi, normalin. Krixadak ixeten zin, emakumik; gaur egunin, esaten dotse, neskatillak esaten dotse. Hamen, beti krixadak esan izenda. Hori, neskatillak hona ekar eben Bermiotik gaur egunin. Eta, normalin ixaten zin, krixada bi txalupa bakotxin. Eta, txalopa bi euazan tokixan, hiru krixada eoten zin. Ta, jeneralin izaten zin jaubineku, familixaku edo bestela patroineku familixaku. Ta, ordun ba, ez bauan hor, holan biherra eingo banik ba, ordun, beste eran ezagunen bat ixaten zan. Gure amak krixadatzi, gure ama alargune zan bixi guztin eta bixi guztin krixadatzik euki eban. Ez eukan gixonik ekarteko alogeran eitxera ta danin eitxen eban biherra harek, arraiñin, karreoan ta krixadatzan, sare konpontzen, ta danetan eitxen eban.
- Eta, zein zan krixadan biharra?
- Krixadin biherra zan, ba gitxi gorabehera ba, txalopie etorten da itxosotik. Hona gora, etorten zin lehen danak. Kofradixe hamentxe, eta etorten zin. Arraiñe, lehenego arraiñe badakar gitxia-gehixa, ba krixadak juten zin eta krixadak hartzen eben arraiñan muestri ta ahal danik bizkorren, bentara etorten zin. Ze, txalupak etorten zin gehixa ze bestie badator ta arrain gehixa etorri ta prezixu bajaten juten zan. Ta, komeni izaten zan ahal danik ariñen. Ta, juten zin horra, eta ba, txandan eoten zin. Benti, eitxen zan ordu erdiro ta txandan arraiñe saltzen. Aurretik beste batzuk bauazen ba harek ein arte, norberana. Saldutakun, juten zin hara, ta esaten otsen txalupakuai, patroiai ba: “Bueno, saldu de Honenbeste ein dau. Ba, arrain zati batek ein dau honenbeste, bestik honenbeste ein dau”, segun zelan zan. Ta: “Erosi dau honek fabrikantionek dana erosi dau. Edo Scolak erosi dau honenbeste ta beste honenbeste harek erosi dau”. Ta eurak erosten ebenak, harek zain egoten zien. Arraiñan zain, hortxe kofraixan ingurun egoten zin, zain molla gañin. Eta, ordun arrantzalik ekarten eben krixadak lagundute, esku-burdixen edo eskun arrain otzarak ekarten eben, hona benta ekarten eben. Bentan egoten zin baskula handixak hor egoten zin. Hiru-lau baskula handi. Han, bertako bihargiñak, pixeruk esaten jakuen, arraiña pixaten eben, hartzen eben noti, ze txalopin ixena, ba honenbeste. Guk, “arru” beti, kiloik ez gendun ibilltxen. Arru, arru zan, hamabi kilo ta erdi, honenbeste. Oin, numeruk eineran eurai, kiluk emoten eben. Bai. Eta, bentan be, bentan be, esaten eban ba, honek 160 arru, antxoi ba, dau de mailla luzerakue, ba honenbeste arru, ehun ta hirurogei arru. Oin, papera gerokun, txalopik kobraten banien, berak eitxen eban bankutik kobrateko ta kilutan etorten zan partikeri beti, sekule bez kilue sartzen zanik. Dana dala, ordun horrek esaten eben ba: “Honenbeste erosi dau honek edo harek”. Eta, gerokun, ba pixaten zan ta pixeruk emote ban ba, bueno: esan, arrutan esaten eban. Eurak entenditzen zin, kiluk eta arruk. Eta, ordun harek, ordun hartzen zitxun harek, erositzallik hartzen zitxun, fabrikantiai. Bai.

3.49. Arrainaren garraioa

- **Hizlaria(k)**: Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-017/026
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:49:55. **Bukatu**: 00:51:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- **Laburpena**: Zalgurdiz edo astoz garraiatzen zen antzina arraina herriko fabriketara. Bilbora-eta "komisionistek" bideratzen zuten, kamioiz, maioristengana. Krixadei barku-jabeek laguntzen zieten lan asko zegoenean.

Transkripzioa
- Honek krixedak eitxen otsen, lagundu kargaten karrure, gero kamionak be hasi zin. Horrek burdixak ixaten zin ba, zaldixaz bai ganadukin ta horrek. Bai eta denporiaz kamioek-eta hasi zin. Manduaz ta astuaz da ixaten zan.
- Astuaz-eta, hemendik nora eroaten zin?
- Ba, herrixan barrun, hara fabrika. Bartolok eukan hor Zubi Barrixe pasata beste aldin eukan. Bestik, hamen eukan. Bestik, hor hurrin. Ahal dan tokire.
- Bilbora ta?
- Ez, horrek ez. Horrek, herriko fabriketara. Herrirako ixaten zin horrek. Horrek, Bilbora-ta bixaltzeko eoten zin beste batzuk, komisionistak esaten otsen /esatetsen/. Honek eitxen eban, arraiñe erosi eta eurak maioristak eoten zin Bilbon edo dana dalakun, ta harei bixaldu. Harek […] erosi te freskun arraiñe pixa, eta emoten jakon gatza ta izotzaz beteten zan eta kamionin kargata eruten eben, harek. Baiña hau bestiau, ixaten zan herrirako. Herriko lokaletako. Nahi ta freskuen ixan, gero herrixan, fabriketara. Eta freskurako bazan, ba bertan kofradixatik hurrin adibidez, lokal bat freskuen hartzen bana, hartzen eban harek, eruten eban hara, eta gero han emoten otsen, gatza apur bat eta izotza gehixaua ta ahal danik ariñen kargaten eben ta bixaltzen eben. Eibarrea, bixaltzen eben Bibora, bixaltzen eben hara, bertatik. Zuzenin be bai, bixaltzen eben.
- Eta, orduan hau salmenta kontu guzti hau, krixaden biharra izaten zan?
- Eta launtzen otsen arrain asko bazan edo eurak arrantzalik be, launtzen otsen ba, burdixa eskure ekarten edo eskuko burdixe ekarten eta horrek. Eta eurak eitxen eben hamen.

3.50. Arrain-otzarak zaintzea, krixaden lana

- **Hizlaria(k)**: Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-017/027
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:51:27. **Bukatu**: 00:53:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa

Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
Itsasoa » Lehorreko lanak

- **Laburpena**: Otzarak batu, garbitu eta gordetzea ere krixaden eginkizuna zen. Zumitzezkoak ziren otzarak. Bakoitzak jabearen inizialak izaten zituen margotuta, ezagutzeko.

Transkripzioa
- Gero, ba arraiñe saltzen zan dana. Eruten eben fabrikantik, eta, txalopakuk eitten eben txalopi-te garbittu eta itsosora urten biharra bazan, itsosora urten. Bestelan, lotu ta gero, ze ordutan urten bihar eben, ba orduntxe urtengo eben itsosora. Emakumiek jarraitzen eben; gero, juten zin fabrikara, ta fabrikan, arraiña aillega ahala, eitten eben hustu. Te, gero atzera emon, lehen esan dotena. Eta, otzarie “ra” ataraten eben kanpora; “ra” botaten zittuen. Ta, emakumiek eitten eben, harek otzarak batu, eskuko burdixen ipini, ha pillau, eta gero garbittu uretan. Hor, eskillarak hemen danin euazen hemendik eta hara arte eta eskillleretan uretan garbittu, bestelan usaiñe eukitzen eben, ba, eta gero, bodegan gorde otzara guztik. Horrek toki handixe biher ixaten eben. Lelengo eukitten eben kanpun, ure pixkat sikatzen eukitzen eben. Eualdi ona bauan, ba, ure juten, eta gero ba, sikatutakun barrure.
- Zerezkuak izaten zian, otzarak?
- Zumiaz, zumia ez zabalaua ixaten da bera. Ahaztute dakat ixena. Honek, arbola berezixak die horrek, zuhaixka berezixek die horrek. Zuhaixkak diz, ez diz arbolak.
- Zaratzak edo zumie-edo?
- Holakoxik, bai diz. Eta holako arotzak, zesteruk, haulako erremintta bat eukitzen eban, haretxaz kentzen otsen azala ta tirak, horretxekin eitten da.

- Eta, hori garbitzia, ta krixauen biherra izaten zan?
- Bai, garbitzea ta otzarak batzea, esaten jakon horrei. Otzarak batu ze, fabrikantik hantxe lagaten zittun. Eta, han lagaten bazuz ba galdu be eitten diz eta hartu be bai, bestik eta gauzak. Otzara horrek, eukitten eben txalopa bakotxan beran inizialak, eukitzen eben pinttata. Bai. Bai, pinttata. Otzarian luzerie, hau eta, igual ba, igual ixena dakar ba, Marko ixena, M handi bat eta gero eukiko eban ba, beste letra bat, luzekera. Eta, ba beste batzuk eukitten eben ba albotan, ba urdiñe faja bat eta horixe beste bat. Eta, euran kontraseñie eukitzen eben. Ta, ordun ba, danak jakitxen eben nungo otzarak zeintzuk dizen eta ez euan harek hartzeik.
- Krixadia gaiñera, ibiliko zan hor.
- Bai, hoixe. Eta, horrek ba, batute sartu eitten eben, ta horrek be, toki asko eruten eben.

3.51. Neskameen beste eginkizun batzuk eta soldata

- **Hizlaria(k)**: Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-017/028
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:53:31. **Bukatu**: 00:55:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
  Itsasoa

- **Laburpena**: Beste hainbat eginkizun ere bazuten kriadek: sare-konpontzaileei deitu, ontzietarako janaria erosi, sotoa txukundu, partila etxeetara eraman eta abar. Irabaziaren erdia patroiak jasotzen zuen, beste erdia arrantzaleen artean banatzen zen. Arrantzale batek 900 pezeta irabazten bazituen, herena (300) irabaziko zuen kriada bakoitzak.

Transkripzioa
- Gero, eitten eben ba, sarrittan sari apurtute etorten zan, gitxia edo gehixa. Ta, sari konpontzailiai-ta, deittu, sari konpontzailik batu hori konpontza eruteko, ta horrei lagundu eta gero, atunetan ta itsosora juteko janarixa ta erosteko-ta, horrek be eurak dendan hartu ta txalopara erun, bodegako biharrak be, eurak eitten eban, lantzin-lantzin jaso bodegi, ondo ipini gauzak eta beste bihar asko egunero. Partillie, domeketan eitten zana, etxitara eurak eruten eben eta holako, holakoxe biharrak eitten eben asko. Bai. Eta, horren irabazixe ixaten zan ba, soldati be, arrantzale baten irabazixe, ez? Ba, arraiñan arabera, ba arraiñak inportie emoten barau hamabi mille pezeta geratzen badiz, erdixe hartzen dau jaubiek gitxi bat gorabehera. Eta gero, beste erdixe beste tripulaziñuantzako. Ba ixan badiz, hogeta bost mille pezta, esan daigun ba, irabazixe aste guztiku, ba erdixe hamabi jaubintzako eta beste erdixe, hamabi, arrantzalintzako, tripulantintzako. Hamabi gixon badaz, bakotxai milla pezeta. Bueno, hor, hamabirei gehitzen jakue krixadentzako. Krixadak irabazte, eben, krixada birek arrantzale baten hirutik bi. Hirutik bi, erdibana. Ordun, arrantzale batek hartzen baban, mille pezeta, beatzirehun pezeta hartzen baben aste baten arrantzale batek, krixadantzako ixango zan seirehun pezeta. Bi, birei, banatu hirurehun pezeta bakotxak biharran araberaku. Hori zan krixadana.

3.52. Partilaren banaketa domeketan

- **Hizlaria(k)**: Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-017/029
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:55:04. **Bukatu**: 00:57:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
  Itsasoa
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak
- **Laburpena**: Lanik egiten ez zenez, domeketan banatzen zen soldata (partila). Barikuetan kriadek gastuen fakturak ekartzen zituzten. Domeka eguerdian jabearen etxean egiten zen partila banaketa. Patroiak irabaziaren erdia hartzen zuen eta bestea arrantzaleen artean banatzen zen. Patroiaren laguntzaileak arrantzaleak baino laurden bat gehiago irabazten zuen.

Transkripzioa
- Eta, diruan errepartua-ta beti domekan eitten zan?
- Bai, beti domekan. Aste guztin, itsosun, arrantzan aste guztin, zapatu arte. Eta domekan ez zan juten arrantzan itsosora. Atunetan zebillenien, atunetan juten zan, baiña ordun bentaik ez zan eoten domekan. Aparte

juten zin atunetan ta itsosun pasaten eben domeki be. Eta, bestelanik, bentaik ez zan eitten domeketan. Jaixetan, bai; jaixa ez, herriko jaixak, bestelako jaixak, ba bai. Urtin jai bat edo besti ixaten zin, ba Gorputz egune ta holako jaixetan, arrantza juten zan. Eta baixakun krixadak, ba ekarten eben ba, sokak-ta erosten zinak itsosorako ta sarik eta horrek-eta. Horren kontuk eguazanak partillako, aurretik ekarten eben. Ta, domeka goixin, eguardi aurrin eitten zan partilli jaubian etxin eitten zan partilli. Ba eruten eben kontulari bat edo euran familixik baauken kontue eitten ekixena, haretxek hori. Dana be, batuketa ta kenketa ta horrek ixaten zin-te. Bueno, eitten zan hantxe eta ba, bai hortxe. Domeketan.
- Aste guztiko ze irabazi zan eta ze gastu eon zan?
- Bai. Kendute garbi geratzen zana ba, banatu. Horri esaten jakon partilli esaten jako horri. Partilli, irebazi horri. Eta, gixonak hartzen bana zan, hor partilli. Soldatie be, bai esaten jakon. Soldati da arrantzako hori, arraiñan irabazixe. Eta, gero hortik, hor patroik eukitten eban gitxi gorabehera bi, soldata bi. Patroin partilli zan soldata bi; bat, arrantzalin, maiñeruen beste, tostartekun beste; Eta, besti emoten otsan, jaubiek berak. Eta, gero eukitten eban.
- Jaubian partetik?
- Bai, bai. Ba, soldatie bazan mille pezeta, ba hartuko eban mille pezeta. Eta, bestik be mille pesta jaubik be. Patroik be mille pezeta geure leitxeik. Gero jaubik emongo otsan beste mille pezeta berai, beranetik. Eta, gero eukitten eban, patroik txalopak handitzen jun zinien, laguntzaili eukitzen eban, bat edo bi. Eta, horrek hartzen eben, ba, lauren bat gehixaua.

3.53. Gazte hasiberrien soldata

- **Hizlaria(k)**: Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-017/031
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:58:04. **Bukatu**: 00:59:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak
  Itsasoa
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak
- **Laburpena**: Mutiko hasiberriek ere soldata irabazten zuten. Normalean erdia, baina denbora pasa ahala, hiru laurden edo osoa, bakoitzaren ahalmenaren arabera. Beraren lehen partila hiru laurden izan zen, baina handik hilabetera osoa kobratu zuen.

Transkripzioa
- Eta, horrek gaztiek sartzen zirenak, ta bertan ebizen adiñeko gixonak, bixi guztin dauzenak, berrogeta hamar urteko esperientxixe arrantzan dakarrenak gizon kapazak, haxe familixakuk, irabazten eben soldata bat partillan. Ba horrek be soldatie irebazten eben. Baiñe gehixetan ixeten zan, ba horrek pixkat heldu arte ba, batzuai emoten otsen erdixe, emoten otsen. Bestiei, hiru lauren emoten otsen. Ba ikusi eitten eben sei hillabetin edo hiru hillabetin edo urtebetin edo dana dalakun.
- Ikasi eitten eben?
- Bai. Ba, hoixe. Danen ahalmena be ez da ixaten itsosun biharreako ta

ikasi baiño itsosun beti maria ta txarto ta ixaten diz-te. Ni sartu nittanin, nire emon osten hiru lauren, baiñe niri laster baten, lelengo partilli hiru lauren altxa neban ta nik ez takit hillebete ein banaban edo gehixen jota hiru hillabete, soldati ipiñi eisten.
- Eta hasieran ya hiru lauren?
- Hiru lauren, bai.
- Ondo, ez?
- Hori, hori dakat gogun...
- Esan gura dot, hamabi-hamalau urteaz.
- Bai, hori eta bakizu [...], ni baiño gazteauak-eta, urtetan ebizenak-eta, harek gitxiau irabazten ebenak. Eta, bertan txalopan.

3.54. "Goma-fardoak", oso "arrain" garestiak

- **Hizlaria(k)**: Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-017/032
- **Iraupena**: 0:05:12. **Hasi**: 00:59:12. **Bukatu**: 01:04:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia
- **Laburpena**: II. Mundu Gerran urpeko alemanek zamaontzi asko hondoratu zuten. Arrantzaleek "goma-fardoak" aurkitzen zituzten itsasoan ur azalean. Paketeetan prentsatutako kautxu-plantxak egoten ziren. Diru asko balio zuten. Frantziako kala batetik bueltan zetozela, pakete bat aurkitu zuten Kontrabandotzat hartzen zuten karabineroek eta sekretu handian hustu zuten kaian. Berehala saldu ei zen.

Transkripzioa
- Eta, atzo gabin karreran urten eban [...]. Ointxe gogoratu naz goma-fardun denpori, urten eban hemen. Goma-fardu, ez dakizu zer zan? Ba, goma-farduk zin hor, bigarren gerratean, munduko gerratean, ba Espaiñiku amaittute gero, hogeta hemeretzittik berrogeta bostera eon zan gerran, hor berrogeta hirutik eta aurrea, alemanak sumarinukin gogor jokatu eben. Eta hor laguntasun handixe etorten zan Ameriketatik, Estatu Batuak gerran sartu aurretik, laguntasun handixe etorten zan Inglaterra, gero hortik hamen zihir zabaltzeko. Eta, gero bera gerran sartu zanin be, gehixaua. Eta, ordun merkante asko etorten zin karga-karga eindda. Han merkantik hasi zin eitten, hor sasoi horretan, “en serie” eitten eben: tipo bi etorri, ta tipo... Ahaztute dakat oin bestie, soldaduriaz eitten eben. Ordura arte, txalopak eitten zin ordun be, errematxikin eitten zin. Ta horrek hartu aben, soldaduriaz ta holan eitten, kotxik lantxeik “ra-ra”, hainbeste eitten eben ta horrek etorten zin kargata. Edozer kargamentu ekarten eben, hau ta makinarixe, gerrako dana, launtasune. Hamen, Europa guzti arrasata euan-ta. Eta hor ba ordun sumarinuk horrek gerran atara eben honek, alemanak atara eben, ta horrek sumarinuk bestik exer ez dakixela eitten eben, ba, hondutik periskopixuaz ba, txalopa asko eurak ez dakixala, eurak ikusi sumariunok, ta torpedukin hondu eitten ebela asko. Ta asko materixal asko hondure juten zan. Ta, guk itsosun ikusten genduzen, atunatan ta zabaltzen giñanin, ba egurrak honeik, tabloi handixak eta egur onak eta kaobak eta holakuk eta preparatakuk-eta. Beste materixal batzuk eta be

bai. Eta hor sasoi baten eon zan hor, berroheta hirutik berrogeta laure-edo eon zan ba, goma-farduk agertzen zin. Goma farduek. Beste materixal asko urak busti, uretan eoten da galdute, ez eban balixo ixaten ezertako. Goma-farduk zin ba, hau lakoxe zabaleri eukiko eben, ba holako bat. Gutxi gorabehera, holan metro bat kuadrau. Ez dakit metro bat inguru zan gehitxua-gitxitxua, metro bat inguru kuadrau. Ta, alturie eukiko eben, hau lako bat eukiko eben. Eta holako plantxak zin gomik, kautxu, baiñe originala, autentiku bai, kautxu. Kolori eukan horixki eukan. Hemendik […ku]. Eta hau lakoxe plantxak, ta prentsata alkarrin artien, ez dakit zelan euazan prensata, ta dana pieza bat zan, bloke bat zan-ta. Eta, ez dakit bauazen lotute alanbriaz edo bauezan ez naz gogoratzen horreaz. Ta horrek gomie zan berez, kautxu, eta baiñe pixu euken ta uretan beti pixue gehittuko jakuen uretan denpora asko eruten. Horrek zin holakoxe merkantik hondoratakuk. Eta horrek asko balixo eben, materixala ona zan-ta. Uretan barrun ta azalin halakoxe bat pixkat. Eta berak hauxe eitten eban: “pul-plu, pul-plu”, eitten eban. Eta, gitxi mobidute zan. Eguraldi txarra bauan, haizie bauan, mobiuko eban asko. Ordun ez gendun aprexixaten, horrek eualdi onetan. Eta, hona ba, hurrea gitxi ailleaten zan. Ta, ni orduntxe itsosun sartu barrixe. Negun, txalopa txikixe zan. Zenbat, hamalau, hogeta lau zaldiko motorra eukan. Eta egun birako urten gendun itsasora. Eun birako jun giñan Frantziko kosta. Ta igul hemen ez euan exer ta hantxe, sardiñetan edurtzan. Eta lelengoko egunin, izebez ta bigarreneko egunin be, sardiña apur bat eta besteik izebez. Eta hortxe honutz gatozela, ba ikusi ban gixon batek, barruko nausixak ikusi ban: “E! hamen gomi, gomi, goma-fardue hor”. Hurraratu giñan eta ordun kakuek. Bakizu zertzuk dizen kakuek, holan gantxuk egurrezko kirtena ta? Itsasora harexek ibiltxen zin beti, edozei agarrateko be. Eta, ordun geldik euan “plu-plu-plu” […]. Txalopi beran kostaun arrima, han geatu, eta ba ondio aurrerutz goiazela, atzerutz emon ta geratu han beran kostan eta han dala kostan dala halakoxe kakukin. Kosta zan asko baiña halako baten sartu zen barrure. Sartu zan barrure eta hamen galazota euan. Eitten eben errekisa eitten eben, karabiñeru euan. Klaro hori kontrabanduko gauzie zan honako ta kontrabandu lentxeik, eitten eben rekisatu eitten eben. Eta, hamen arrasteruk asko billatu eben. Ta arrasteruk, arrasteruko jaubiek, hau ibili zan tokixan be bai, ba hori kontrabandu be, ein eben ta atrapa be, ein zittuen ta kartzelak eta multak eta eon zin. Ta, guk bat bakarrik; eta ordun, holan topeta banak itsosun holakoik, ba iñori ez esatie ixaten zan. Eta ordun ba, guri /esaskun/ esan oskun patroik iñori ez esateko. Ta gu gaztik, ba bueno, iñoi ez esateko, amai be ez etxin esan! Eta ordun ba aillaga giñan hona eta ein gendun, illuntzin sartu gaba eindde euala eta hor mollan kontran, bertan aurrien bodegi, eta ordurako preparata euki gendun, oloniaz. Oloni, ixaten zan toldu ba, sari tapateko, eurixe euanin ta ez bustitteko-ta. Eta hareaz tapata-ta disimulata geunkan, ez zerbaiteaz. Eta, bueno, ointxe ez da iñor, ta halan ta, eskuko burdixe ekarri, ta txalopin ondun ipini, eta mari goian euala sartu eta halako baten: agarra benetan ta hartu te ri-ra karro gainea. Burdixan ganien ipini, olaniaz tapa, masie barrillak-eta albun ipini beste gauza batzuk eta bodega bertatik bertara. Eta, ointxe ez dator iñor hamen, barrure. Ta sartu ta bodegan gordeta euki gendun. Saldu, segixan saldu eben. Segixan saltzen zan. Estimau euan hori.

3.55. Patxiren lehenengo irteeran goma-fardoaren partila jaso

- **Hizlaria(k)**: Etxaburu Ajarrista, Patxi

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-017/033
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 01:04:24. **Bukatu**: 01:06:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak
  Itsasoa
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak
- **Laburpena**: Patxi lehenengo aldiz itsasora irten zenean, ez zuten arrainik harrapatu, baina bai goma-fardo bat. Patroiaren andrea etorri zitzaion etxera goma-fardoaren partila ekartzera. 18 pezeta jaso zituen; berari 3/4 tokatzen zitzaionez, aste hartako partila 24 pezetakoa izango zela uste du. Gogoan iltzatuta geratu zitzaion betiko.

Transkripzioa
- Eta nik bueno hori ahaztute neukan baiñe hortxe, hamentxe galdetu banin irabazixe, hiru lauren ta horrek-eta, ba nik euki neban hiru lauren hasiera baten. Denpora gitxi izan zan baiña euki neban. Ta gogoratzen nitxan horretxegaz. Ba bueno, ordun astin ez geunkan partillaik ixer be. Ez gendun arraiñik ixer arrantza. Eta ez geunkan ixebez. Ta ni gogoratzen naz zapatu illuntzie, gaba einde auala, etxera jun nitxan illuntzin, afaldu aurrin etxa jun nitxan ta ama euan etxin, ama afarixe prestaten eta beste arreba nausixauk ta ba, ondiok kalin edo fabrican-edo euazen. Fabrikan-ta euazen. Eta etxea-ta, ordurako ba etxea, hori ez dakiau noz saldu eben hori, segixan, ba kilu honenbeste. Eta partilli ein zan, baiña ezkutun, jabik ezkutun ein eban hori. Berak etxin ein eban ta eurak entendidu zin te guri ez oskun ixebe esan. Ta, /esaskunetik/ esan oskunetik aurretik, ez zabaltzeko herrixan iñoi be, ba zapatu gabaz patroian andrie, jun zan horren diru erutera gure etxea, ni etxea jun baiño lehen. Eta amak ez eban espero hori ze, baekixen arraiñik ez geunkana ta. Bera be krixadi zan da baekixen horren barri ta. Ba astin arraiñik ez danin bape, ez da partillaik domekan-ta. Eta gero ni etxera jun nitxanin, ba ordurako urtenda euan andri: “ederra semi ixebe esan bez”. Amai be ixebez esan bez e! Hortxe deklara zan. Ta, hori ba gauza batzuk grabatuta geratzen diz, ezta ba? Ta, hortxe konturatu nitxan. Ba izan zan partilli hogeta lau oerleko izaten zan partilli, soldati, ta niri itxaron osten hamazortzi oerleko. Ba, hantxe uste barik, ta hamazortzi oerleko, lautik hiru. Hiru lauren, esaten geutsaun. Ni horretxaz ibilli nitxan hasieran.

3.56. Barikuetan salmenta-diruak kobratu, igandean partila banatu

- **Hizlaria(k)**: Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-017/034
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 01:06:03. **Bukatu**: 01:07:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak

- **Laburpena**: Patroiak barikuetan jasotzen zuen salmenta-dirua, bankuaren bidez. Ordurako eginda izaten zituzten gastuen kontuak. Domeka eguerdian egiten zen partila (soldata) banaketa arrantzaleen artean.

Transkripzioa
- Eta, bestela orduan, beti errepartuetan, domeketan esan dozu?
- Beti domeketan, bai. Sobrak horrek andrak eruten eben; barixakun hasten zin batzen ta ba, azkanenguko momentukuk eta batzuk, prestata eukitten ta ba zapatun. Eta gehixen partillako sasoirako, eguerdi aurrin eitten zan partilli hamarrak-hamaiketatik hamabixeta bittartin-eta eurak, gure amak eta danak eruten eben goxin lehenaua falta zan apurre. Fakturak eruten zittuen partillako.
- Eta, kobrau, bentan eta arraiñan...
- Barixakun kobrate zan. Bai. Ordun partilli eitten zan barixakura arteko, inportie diruaz. Baixakun kobraten zan, ze aste guztin eruten zan eta gero hori diruoi kobraten zan bankutik, Caja de Ahorrostik kobraten zan, aurrezki Kutxatik.
- Ez zan bentatik zuzenien, ez zan eitten?
- Ez, ez, ez. Benteruk emoten otsen fakturie bai, erosten benai, ez? Erosten banak honenbeste kilo, prezixu hau eta totala ba honenbeste. Gero harek eitten eben, ba BBKn edo eurak nun dakarren, haraxe sartzen eben diru eta baekixen eurak noiz arte sartu biben ta barixakun izaten zan azkaneko egune. Eta barixakura arteko diru ataten zan hortik, aurrezki kutxatik. Ordun atarako zan zapatun, barixakun artekue. Zapatun ekarten zana hurrengo asterako geratzen zan.
- Hurrengo barixakurako?
- Bai, hurrengo asterako. Eta domekan ba, partilli eitten zan, hantxe.

3.57. "Ardaun diru" arrantzaleen poltsikorako

- **Hizlaria(k)**: Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-017/035
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 01:07:28. **Bukatu**: 01:10:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak
- **Laburpena**: Partila banatzen zenean, gazte ezkongabeek-eta lautik batekoa jasotzen zuten berentzako, poltsikorako. "Ardaundirua" (ardoaren dirua) esaten zitzaion. Arrain asko harrapatzen zenean diru asko zen. Betidaniko ohitura. Patroiaren eta arrantzaleen artean dirua erdi eta erdi banatzea aldatu egin zen apur bat azken aldera, gastuak ugaritu zirelako. Erdia eta soldata bat edo bi bereganatu ohi zuen patroiak.

Transkripzioa
- Eta partilli eitten zan beste hamengo bat. Soldati esaten jako. Soldati ba, igual soldati ba, ehun pezeta, ez?, esaten baten, numero bat esateko, ehun pezeta. Gitxi edo asko, dana dala. Eta normalin ixeten zan ehun pezeta ba

etxe bakotxea. Ta han juten zienak, ba batzuk juten zin, esan ein oskun ba: “etorri!”, testigu lez. Lekukotasune haraxe, hiru edo lau arrantzale juten zin hara, ikustea, ez zan ixer eitten. Eta ordun ba bidez batez ez zeben gixon ezkonduk eta zienak, ba berala partilli hantxe hartu. Krixadi etxa eruten ibilli barik, hartu hantxe. Eta, gurin ba, amak hartzen eban, ta listo. Ta, batan batzuk, gaztik-eta: “ni, ez noa eitta oin, ta etxea erun”, esaten eben. Txikiterue ez, ordun amorru handixe eoten zan-ta. Eta, ta ehun, ehun pezeta ordun, soldatie. Soldatie, honen bestera. Eta hortik soldatatik etxea eruten zana, batzuk juten zin ardaun-diru hartzen zan hortik. Honenbesteko bat ardau-diru ixeten zan. Hori ixaten zan arrantzalik berantzako patrikarako hartzen eban. Ardaun diru da lautik bat, ehun pezeta bazan, ba hogeta bost pezeta da ardaun diru. Ehun mille pezeta ta bazan, hogeta bost mille pezeta ardaun diru ixango zan.
- Ta hori norberan patrikarako?
- Norberan patrikarako. Oin, batzuk ba norberan patrikaraku hartu arren, etxin entregetan eben. Ni neuk etxin entregaten neban. Nik aittaik ez dot sekule be ta entregeta neban, baiña gehixenak, nire anaixak eta, zaharrau zan ta eurentzako. Ta antxoa asko sartzen zanin, diru asko eukitten eben. Ardautako ixeten zan hori. Ta hori ixaten zan. Ta batzuk eitten eben hara juten ziñin, horrek lekukotasuna jute zienak, eitten eben, euran ardaun dirue hartu, eta partillerun etxea beste gaiñerezkue.
- Gu bagoiaz txikiterora!
- Baiña jun edo ez jun edo txikiterun, hortik aparte lautik bat ardaun diru norberantzat hartzen zan. Beti urte guztin hori. Hori noiz izengo da, orduen?
- Eta, hau oin kontau dozunau, bai gerra aurrean, bai zeuen aurretik eta bai...
- Bai, bai. Hori beti, bizitza guztikue zan hori. Gure aurretik eta gero guk, holan jarraittu gendun.
- Reparto hau, bardiña jaubiak erdixa hartzia edo...
- Bai. Gero, hor denporiaz ba, txalopak jun zin handitzen motorrak handitzen eta gero, be, gasoile garestitzen ta holako gauzak. Eta honek sare kontuk, nailonak-eta sartu zin-ta harixe ta horrek asko garestitzen, ta arraiñe ez zan garestitzen ta beti tamaño baten euan. Ta ordun ba, gastuk izugarrixak eta denporiaz jun zin ba, txalopa handixak zienak, konsumo handixa eukan makiñak-eta, ba erdixetan soldata bat, batzuk; bestik erdixak soldata bi. Horretxek, gitxia gorabeheran hoixe zan.

3.58. Lonjako arrain-salmenta sistema

- **Hizlaria(k)**: Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-017/036
- **Iraupena**: 0:06:07. **Hasi**: 01:10:13. **Bukatu**: 01:16:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
  Itsasoa
- **Laburpena**: Saltzen ez zen arraina itsasora botatzen zen askotan. Salmenta-sistema: kofradian gela handi bat zegoen, lonja, biribilean jarritako 50 jarlekurekin. "Kontularixak" lotea aurkezten zuen: halako barkurena, halako arraina, hainbeste kilo. Prezioa goitik behera kantatzen hasten zen erreматea egiteko: 40-39-38... Jarrita zegoen

erosle bakoitzak bola bat izaten zuen eskura eta norberak nahi zuen preziora iristean, bolari sakatzen zion eta berarentzat zen lote hura. Salmenta goizeko 06:30ean hasi eta gaueko hamabiak arte egiten zen, barkuak heldu ahala. Batzuetan beranduago arte ere bai.

Transkripzioa

- Eta arraiña saltzen ez zana errepartidu eitten zan edo dana saltzen zan?
- Ez. Ez zan saltzen. Askotan ez zan saltzen. Saltzen ez zana sarri, arraiñe botaten eben itsosora.
- Bota?
- Bai. Ba, antxoatan sarrittan, igual egunak gerta asko arrantzatekuk, ez? antxoi? Hor gabiz eta ba arraiñe hartutakun, atrapatakun ba porture. Txalopi ba, hartutakun kantidade dezente, hartutakun porture. Kantidade gitxixaua bakazu, saiatu eitten zara gehixa hartzen. Eta bete edo eindakun, ba porture ahal danik ariñen. Ta etorri eta gero konpradorik jakitten eben arrain asko datorren, atzetik datorren jakitten eben. Eta, ordun ba, geldi-geldi erostie, geldi-geldi ibilltxen zin. Eta hemen pika baik, amarri pika baik, daule. Ze bentan ixaten zan ba, kontulaixe esaten jakon bentaneko igual lelengoko pisun. Ta, Ondarrun euan, berrogeta hamar laguneku, berrogeta hamar jarleku eukazen. Sistemi eukan jarlekuk holan, besuk eukitteko holan. Ta, hamen eukan bola bat, eukan. Eta, hamen atzien eukan beran zenbakixe, eukan hogeta hamazortzi igual. Eta bola horrek erositzaile bakotxak, hor, erositzaili izateko, ba euki /biban/ bihar eban garantixi, diru bat dakarrela. Horretako prestamo bat bankun sartu / biban/ bihar eban, honenbesteko, ahaztute dakat, diru bat sartu /biban/ bihar eban. Eta ordun ba haren ixena han konstate zan nahi arraiñe erosi, nahi ez erosi. Nahi gaur erosi, nahi bixar ez jun erostea. Eta ordun ba hor jarleku eoten zan ta erdixan eukan holako kasetatxu bat, ta hantxe eukazen harek jarleku guztin zenbakixak,eukazen. Ta, mekanismo bat eukan, harei boliai saka eindakun “gri-gra-gra”, han ez zan ikusten. Ola, azpittik behetik handik zihir, sistema baten bola batek urteten eban tubo baten, haulako kaputxa bat eukan alderantziz, latoizku ta haraxe, urteten eban. Ta ha bolie numerata euan, ba hogeta hamazortzi igual, eta aurretik juten zan, kontulaixe euan. Horrek jarlekuok, bera gela guzti hartzen eben. Hemen, pasu, holako sarreri, sartzeko horra jarlekuta, ta han urteeri. Ta han urteran eoten zan holako eskaloi bi edo hiru, mahaitxu bat ta goixan jarritte kontulaixe. Ta kontulaixak esaten eban ba, arraiñe, txalopa baten arraiñe; esaten eban ba, ixena esaten eban, ixena hau eta zenbat arru. Lehen esan dotena, igual ehun eta hirurogeta hamar arru antxoi eta antxoi ba, klaro, antxoi eote zan, fabrika eruteko, filetik eitteko zemat ta handixaua, hoba zan. Eta ordun ba hogei ale kilun sartzen bazin, ta hogeta hiru ale ta hogeta zortzira arte edo ba, hori ixaten zan fabrikako arraiñe, salazoiko arraiñe ixeten zan hori. Ta, ordun kantaten eban ba, hogeta lauku edo hogeta bostekue-edo. Hori aurretik pixa eitten zan beheian, ta gitxi gorabehera esaten eban zelako arraiñe dan, jakitteko txikixe baiño handixaua bada, edo medianu bada, edo holakoxi.
- Ze barkotakua esan bihar izeten zan?
- Bai, lehenegotik esaten eban, ze barko. Ze barko ta kantidadi arraiñe ta ze arrain dan. Ze antxoa sasoien, antxoi baiña negun, txitxarru ta bobi ta besteik ixaten zin. Beti zer aillega. Eta juten zan gitxia gorabehera igual euko eban ba, arraiñak igual hogei pezeta igual eingo eban kilu? Ba ordun bera hasiko zan berrogeta hamarrin. Eta hasten zan berrogeta hamarrin, erderaz kantaten eban, euskeraz jakin bez. Hasten zan ba, esaten eban horrek berbok euskeraz ta igul, ba kilu ixeten zan ta: “Cinquenta, cuarenta y nueve, cuarenta y ocho, cuarenta y seis”. Pratika handixa baukan,

“cuarenta y cinco, cuarenta y cuatro, cuarenta y tres, cuarenta y dos”. Eta nahi bazendun zuk, erosi berrogeta bixan, ba han eongo ziñan adi. Eta “cuarenta y dos” esaten banin, saka eitten otsen boliai ta han urtengo eban. Ta ha bolie bolik atarata eban zarata bat ta ha ixildu eitten zan. Ta esaten eban berak: “cuarenta y dos” esaten eban, errepikaten eban. Eta ordun jarritte euanak ataraten eban beran numeruaz esaten otsan ta esaten eban ze: honenbeste arru. Igual dana.
- Dana edo zati bat?
- Hori ba, zati bat. Ta, dana bazan hantxe amaitzen zan ha dana. Gero beste txalopik jarraitzen eban. Eta harek nahiku bauban arraiñe, urten igual arraiñe ba espabilatea fabrika edo besti edo gauzi. Edo gehixa nahi baban, beran ordezko bat manipulauko eban arraiñe, beran ordezko batek eta berak jarraittuko eban hantxe ostabe. Eta batzutan ixaten zan ba, arrain gutxi eta eunetan arraiñik ez da hasiaz batera, “ra-ra”, hiru-lau bola alde batea, hasiaz batera. Eta, atarata eban ta numeruai beiratu te harek esaten eban: ze, bola hartzen eban lehenengo, bueno urten banaka urteten eben. Urtete banak, nahitte dzangada baten lau bola urten, ba harek esaten baban “dana”, esaten baban, beste hirurak bape barik gatzen zin. Ta harek esaten baban ¡ba nik berrogei” eta hirurigeu bauazen ba hurrengokun ba, sobranti hogei. Ta holan ixeten zin.
- Ordun, beti hortxe, bentan eitten zan.
- Bai. Bentaneku, esaten jakon harei.
- Sekula ez zan saltzen zuzenian fabriketara-edo?
- Ez, ez, horretxei.
- Beti?
- Bai. Eta, erosten bana, behian eoten zan. Baiña nahi banak, ikustea jun, libre eoten zan. Sarri eoten giñan han begire han eote giñan. Bai. Han eote zin jarritte, horretxek, arraiñe erosten ebenak. Eta ba juten zin krixadak be juten zin. Batzutan muestri bertara eruten eben, ze igual benti, arrain asko danin de benti, normalin ordu erdiro eitten zan. Baiñe arraiñe txalopi han dator beste arraiñaz dator-ta. Geratu be baik eoten zin ordu batzutan, benti ein ta ein ta ein. Eta benti eidde hor daz eitten. Eta, ointxe sartu da txalopa bat arraiñaz. Astirik ez auan, pixateko. Muestri eruten eban, berta eruten eban ta han ikusten eben eta beran txandan, saldu eitten zan hantxe.
- Eta bentia ze ixete zan goixez?
- Edonoz. Orduik ez eukan.
- Arraiña sartzen zanian?
- Bai. Gabaz eitten bazan arrantzi, goxien hasten zan. Goxien, sei t’erdixetan hasten zan bentie. Sei t´erdixetan lehenengoko bentie, gabeko hamabixak arte benti eote zan. On gertaten zan gabeko hamabixetan egun batzutan gabaz arraiñe sartu, besigu, papardu ta horrek berandu sartzen zin horrek. Eta, asko sartzen bazan, ba gabe erdixe aillega, ordu batak, ordu bixak, ta azkanengokuk eta biharrin hirurak-eta be jarraitzi be bai.
Bai. Ze, fabriketeta erun ta ekarri ha, otzarak eta gauzak-eta.

3.59. Bisigu eta papardotara neguan gauez

- **Hizlaria(k)**: Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-017/037
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 01:16:20. **Bukatu**: 01:18:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen

- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua
  Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak
  Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua
  Itsasoa
- **Laburpena**: Bisigu eta papardotara gauez irteten zen; urrutira joateko hamabietan eta hurbilerako goizeko lauretan. Arratsaldeko bostak edo seiak aldera joaten ziren lotara, gauez itsasora itzuli behar zirelako. Portura helduta gero ere normalean lan asko izaten zen tresneria atontzen. Domeka aprobetxatzen zuten lotarako. Gogorra zen arrantza-mota hau, negu-neguan izaten zelako.

Transkripzioa
- Eta bisigu ta papardutan ta gabaz urtetze zan, ez?
- Bai. Ba, gabaz urtete zan; gaberdixan urrutire, apartera eta hurrera goxeko lauretan.
- Eta lo noiz eitten zenduen?
- Ba lo ba, illuntzin. Sartu, afaldu illuntzin, itxosotik etorrittakun afaldu ondo, lota gaberdira arte.
- Sei-zazpietan, lota?
- Bai. Hoixe da. Baiña negu, hotza ixaten zan ta lotara.
- Bostetan illun ta?
- Bai. Eta gero ba, etorri jakun, eguardixan etorten zin hurrekuk, eguerdi ingurun arraiñea-ta. Eta gero tretzakin bihar asko eoten zan. Tretzakin nahaste asko eoten zan eta tretzak kalin ata luzatu, askatu, libra ta besti. Apurtutakuk konpondu, tertza barrixak ein. Horrek biharrok ein, akabo arratsaldi! Eta holako biharrik ez baukan edo gitxi baukan, ba ordun ba, gero arratsaldin ba siestie arratsaldin. Siestie, illuntzera arte. Eta gero ba, domekan ein biher gehixaua. Ta holantxeik pasa biher.
- Bisigutako arrantzie, gogorra izengo zan, ez?
- Gogorra zan. Negun, hotza ta ordun, holako jantzirik ez euan. Jantzi normalak, hotza, umedaziñoi, eualdi txarra, txalopak. Lehenako txalopak makiñaik ez eukenak libre zin; ez euken kubiertaik, ez euken, estali bakuk zin. Eta honek kubierti eukenak be, lotako-ta, bai barrun, baiña biharra kanpun ein biher eben. Ta jeneralin honuzkun be biharrin. Haruzkun, haruzkun gertate zan bai, haruzkun ba sartzen zin gauzak, gauzak gogortu eguraldi txarragaitzik edo olatugaittik-eta, gogortu ta patroi juten zan han-ta. Makiñan makiñisti juten zan ta bestik, ordun lota juten zin. Lotan, hantxe ordu bi-edo, haraxe kala aillega arte. Baiña “big eta bug”, sarrittan saltoka baiña hantxe. Barrun epelaua.

3.60. Arrantzarako kalak: Ixkote, Lakraizta

- **Hizlaria(k)**: Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-017/038
- **Iraupena**: 0:00:17. **Hasi**: 01:18:17. **Bukatu**: 01:18:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa
  Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsaspeko geografia

- **Laburpena**: Arrantza-kala asko zegoen. Kanpoaldeko Ixkote eta hurbileko Lakraizta aipatzen ditu.

Transkripzioa
- Zeintzuk zian kala, holan bisiutako kalak?
- Kalak, asko. Ba, nik, bi zin, holan Kanponeku, zan bat. Ixkote. Barruko Lakraizte; horrek urte askun ezagutxu dazenak.

3.61. Italiarrek jarri zituzten kontserba-fabrikak

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Zubikarai, Ikerne
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-018/006
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:05:20. **Bukatu**: 00:06:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- **Laburpena**: Bodegetan, gatzetan jartzen zen arraina; arrain-fabrika handiak ere egoten ziren. Italiarrak etorri ziren kontserba-fabrikak jartzera.

Transkripzioa
- Por ejemplo, hor moilla asko dazenak daz tabernak, baiñe horrek zin arraiñin eitten ebenak biharra, arraiñin, antxoak, salazoi ta horretxek danok.
- Arrain bodegak eta?
- Bodegak, bodegak. Eta, por ejemplo, hamentxe da beste bat edifizixo handi-handixe, zubi- zaharretik pasata, hor da edifizixo preziosu, hori be dana zan fabriki, dan-dana fabriki, eta salazoi zan dana. Ondarrun fabrika asko euazen.
- Antxoi?
- Bai, antxobi, antxobi, asko-asko-asko. Eta besti ezautu dot nik honetxik daz ontxe, porture guzela italiano batzuk etorri zin ona, sizilianuk-edo etorri zin, eta ein eben /eiben/ jauntxuk... klaro, bizixe emon otsan /emotzan/ Ondarruai. Ta gero... Danak zin italianuk, e! Bartolo Scola, hori, italianu eta danak, eta bizixe emon otsan /emotzan/. Eta esaten dot / esateot/ akordaten... Bazuze? Halako baten hori, andra bat, fileteri zan, fabrikan eitten eban /etxeban/ ta jaubi enamora zan bertako zaharran semi filetera bateaz, eta danak esaten eben ze, esaten eben /esateben/ danak ze: "Miren Tere –Miren Teresa gakon, Teresa, guapi baiñe neska ederra zan, guapi zan–, zeuk pentsaten bozu zeuri italianu zeuri begire dala, hor lagako zaittu abandonata". Ta jentik komentaixu eitten eban /etxeban/. Eta, beatu, urte batzuk ein eben /eiben/, ezkondu zin eta feliz. Eta horrek euken fabrika bat. Bai. Gero, horrek ein eben bota eta gerokun horrek ipini eben Markina-Etxebarrin fabriki. Klaro, hori gero hori behie dan-dana ein zan panadeixak, etxik eta danak.

3.62. 14 urterekin sare-konpontzaile lanetara

- **Hizlaria(k)**: Alkorta Badiola, Eulogio

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OND-019/002
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:01:10. **Bukatu**: 00:02:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- **Laburpena**: Familia osoa arrantzalea zen; anaia nagusia eta biak sare-konpontzaileak. Berak nahiago izan zuen lan hori, itsasora joan baino. 14 urterekin hasi zen lanean, eskola lagata. Ikastearen truk hasi zen, kobratu gabe. Zenbat lan egin behar izaten zituzten azaltzen du.

Transkripzioa

- Eta familixi arrantzali? Aitta edo...?
- Danok arrantzalik
- Danak?
- Danak. Bueno, rederu... ni ta bat, anaixe bat, rederuk.
- Eta gaztetatik, edo zelan hasi ziñan?
- Bai gaztetatik, eskoli laga ta biharrea.
- Bai, e? Zemat urteaz?
- 14 urteaz.
- 14 urteaz. Eta zeuk ikasi zendun edo…?
- Eee... bai, ikasi.
- Baiña familixan batenbat zekazun rederu edo...?
- Bai, anaixi, anaixe zaharrena.
- Eta beran bittartez?
- Bueno anaixin [bittartez], baiñe lelengo beste batzukin hasi nitxan. Baiñe debalde, e!
- A, bai?
- Ordun ez zan pagaten.
- Ikasten edo…?
- Ikasten, debalde, eta txinuk baiño bihar gehixa ein.
- Bihar gogorra...
- Jode, bihar gogorra! Bihar gogorra ez zan, zan biharra... sarik ataa, barra erun sikatzea, sikatu, luzatu, gero tintta, barra erun sikatzea.... Ha biharra zan kriminala, kriminala.
- Eta zegaittik hasi ziñan rederu? Zelan esaten dozue rederu edo sare-konpontzailli?
- Bai, sare-konpon... bai, sare-konpontzailli, sare-konpontzailli.
- Ikerne: Bardiñe da, sare-konpontzailli, bardiñe da.
- Sare-konpontzailli.
- Eta saregiña-edo esaten dozue be bai edo...?
- Ikerne: Saregillie.
- Saregillie bai, saregillie, bai, saregillie.
- Eta zelan hasi ziñan ba?
- Ba hasi ba haixe gusta gastalako.
- Itxasora jun biharrian...
- Bai, bai, itxosoa jun biharrenian, haraxe.
- Nahixo?
- Ba honbre! Itxosue... letxes! Ha ez dot nahi iñontzako be ez.
- Eta, orduan, erabaki zenduan ee...
- Bai.
- .... lihorreko lana.
- Lihorreko lana.

3.63. Eskola utzi eta antxoari burua kentzera

- **Hizlaria(k)**: Badiola Alkorta, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-039/007
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:07:14. **Bukatu**: 00:08:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- **Laburpena**: Agirreoanean hasi zen antxoari burua kentzen. Antxoa-sasoian, eskola utzi eta fabrikara joaten ziren.

Transkripzioa
- Umetako ze akordu dekozu zuk o?
- Ba umetako akordu, baakixu, gazteik biharrea. Jun nitxan Aguirreoanea.
- Nora?
- Aguirreoa.
- Aguirreoa.
- Antxobiai buru kentzea. Ta eitten eben harrixe ipini, halako kuadruko harri bat ipini, hantxe gaiñin jarri eta antxobiai buru kendu. Aurten eskolan uda... ointxe ixaten da antxobi, eon da. Eskoliai laga eta jun, ta gero eskolaik natural ikasi be ez, ze eskoli eitteko sasoin laga ta juten bazaz fabrika… Nik ointxe be esaten dotset neskai behian, haunek eta horrek, hori ein ta suma ta resta... nik ez dakit /eztaitt/, e! "Yo soy analfabeta en esas cosas" ta erderaz esaten dotset, eta berak diñoste "no importa". Ta ikusten nabenin, gero eitten dot. Esaten doste: "ondo daz honek, baiñe... zuk esaten dozu hori, baiñe horrenbesteku ez da gauzi", eurak esaten doste. Baiñe barre eitten dotset eta kitto.

3.64. Itsasoko sirena

- **Hizlaria(k)**: Lertxundi Kaltzakorta, Terese
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-042/022
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:32:58. **Bukatu**: 00:34:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasoko arriskuak
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
  Itsasoa » Sineskerak, ohiturak eta erritoak
- **Laburpena**: Itsasoan ezbehar bat egonez gero, herri guztian entzuten da sirena, elizako teilatuan dago bozgorailua. Atunontzia herrira sartzerakoan bat jotzen dute, sardina, txitxarro eta berdelari bina, antxoari lau eta antxoa txikiari lau. Lautik gorakoak itsasoan ezbeharren bat gertatu dela adierazten du. Lehen ez zegoen helikopterorik erreskate-lanak egiteko. Itsasontziak lehen egurrezkoak ziren; elkarrizketa garaian, ostera, burdinazkoak edo txapazkoak.

Transkripzioa
- Itsosuen zeozer pasau badan?
- Sirenik. Hor da sirena bat... e... han da kofraixe, han kalatraba parin. Han da zubixe eta hantxe joten dabe sireni. Baiñe entzuten da elixako teillatutik, e. Herri guztiai hartzeko, altaboza ipinitte da hor. Atunai joten dotse /jotetze/ bat, sardiñiai bi, txitxarruai bi, berdelai bi, antxoa txikixai... antxoiai hiru eta txikixai lau. Entendiduten dozu /entendiutezu!? Lautik gora bada, zeoze desgrazixi, mm? lautik gora. e. Ze lau ixaten dalako antxoa txikixe, ha ixaten dana halako antxoi.
- Eta, esate baterako, zelako desgrazixe edo?
- Ba batenbat hil ta itsosun galdu dela edo itsosun eee...
- Denboraldi dauela.
- Denporali edo gauzi. Baiñe batenbat galdutakun ixaten zan generalin.
- Holakuk asko egongo dire, ezta?
- On ee, on ibiltten dittuez /ibiltxetxuez/ helikopteruk e, helikopteruk ibiltten di. Erriaten dabe, gaixoik dana sartzen dabe helikopterun, hil edo bixi, ba, ospittalea. Ta len ez euan helikopteroik eta hilddakuk hildde daz.
- Barkuek be ez ziren oingo modukuek.
- Ez, len egurrezkuk zin. On ee... arrasterukuk horrek burdiñezkuk di horrek, txapazkuk. (KANPAIAK) Zazpirak, illuntzeko zapirak. Holakoxe gauzak.

4. Familia eta harremanak

4.1. Santa Ana baserria lehen ermita zen

- **Hizlaria(k)**: Arrizabalaga Alegria, Tere
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-010/003
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:01:33. **Bukatu**: 00:04:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Conde, Olaia
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Aita bere jaiotetxekoa zen, Santa Anakoa, eta ama Berriatukoa. Santa Ana baserria udaletxez Berriatua da eta elizaz Ondarroa; hala ere, beraiek Ondarroan egin dute bizimodua. Lehenago ermita bat zen eta bere aitaitaren aitak etxe berria eraiki zuen ondoan. Etxe-ermita hori zelakoa zen azaltzen du. Saihesbidea egiteko bota egingo dute.

Transkripzioa
- Ama ta aitte nungoak auki zenduzen zuk?
- Ba bixek egixe esateko, atte Berritxuku, oseake aiuntamentuz eta elixakuz Ondarrun; eta ama Berritxuku Lakagoiku eta aitte zan Santanaku.
- Eta zu ze jaixo ziñen zu baserri baten-edo?
- Bai, bai baserrixan Santana, baserrixe Santana, “caserío Santana”, lehena ermitti zen.Bai ermitti zan, ta gero ba hortik Gipuzkutik esaten ben lehengo antziñekuk esaten ben, etorri zile ba hortik Arrizabalaga uste dot zala eta han jarri zin bizimodu eitten, ze elixan imajena euen bakarrik, Santana eta ordun zera ipiñi eben, oseake bizimodun jarri zen hantxe, hantxe bixi ixan zin ta gero albun etxe barrixe ein eben. Etxe barrixe ein eben gure attitten aittek eta ordun ba lio, oseake ermitte “se quedo sin nada, osea que como si no sería nada”, baiñe haxe zan, “era caserío

Santana” baiñe ermitti zan, lehen antziña.
- Ordun zer zan itxuraz kanpo ermittiena zan-edo?
-Bai bai bai, ta gero ein zen bat temajanie ein de itxuri ermittiena kendu ein zan porke harek eukan harlaundozko harlaundozko eskillarak eta koru be baeuken eta gero holako ba ez dai /eztai/ zer euken beste ezer. Pentsaten dot imajena handiko partera euela, ze hemetiko partetik sartun eta handiko partera, Berritxu o Ondarruko partera begire. Eta eukezen horrek izaten die ba bentana txikixek harrizko, harrixek harrizkuk izaten diñek harek aukitten zittuazenak /aukitxetxuazenak / atziñakuk halakoxik eukezen: bi goiko partetik, bi beheko partetik eta hango partetik, Ondarruko partetik, beste bi, “yo que sé”. Ta portala edo etxi ati ataixe ondion hantxe da ataixe. Ati lehenaku ipiñitte, ba hoixe.Ta gero on diputaziñoi, zelan doien barianti, “se ha quedau sin nada osea que” pentsaten dot bota eingo dabela ze anaxi handik urten ein bir izan eban eta goiko partin etxi ein.
- A bai bota eingo dabe?
- Bai, urten eben.
- Baiñe ongo barianti itzeko?
- Neure anaxi dauke goiko partin etxi einde kamiño goiko partetik.

4.2. Nebak umetatik itsasoan

- **Hizlaria(k)**: Elu Arantzamendi, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-014/002
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:01:44. **Bukatu**: 00:03:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Bedialauneta Somoza, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua
- **Laburpena**: Bere aitona-amonak txalupa bi zituzten: Milagritos eta San Isidro. Bere neba bat 11 urterekin, etxean ezer esan barik, osaba batekin joan zen itsasora; beste neba be 13rekin joan zen. Bisigutara joan ziren eta bere ama bisigutarako tretzak egiten egoten zen.

Transkripzioa
-Aumak eta attittak eukela…
-Bai, txalopa bi. Bata zan “Klotilde”, ez, “Milagritos” eta “San Isidro” handixaua. “Milagritosek” atrapaten banaz, “San Isidro” makalaua zan ta, bueno, dana dala. Gero horrek , hor ebiltxen zan gurin atte eta osabak eta anaxe bi be bai zaharrenak, ze anaxeik zaharrena hamaike urte t’erdiaz jun zan itsosa, amai esan baik, osabaz itsosa. Ta anaxe zaharraua, ikusi banin gazti, hamaike t’erdi eukan eta bestik hamahiru. Ordun hamahiru urteku be ba itsosa junz an. Gurin amak esate eban lelengoko soldata, soldata erdixe emoten zan lehen, eta soldata erdixaz ba zinke erosi eban jabonaduri eitteko, ia nahibeste ume giñan-ta. Eta gero ba . Ta juten zin besiuta, ta besiutan akordaten na beti gurin ama tretzak eitten-ta eoten zan besiutako: tabli ipini maxan, etxin lehena eitten zin tretzak eta karnati ekarri ta holako gauzak…

4.3. Familiako hastapenak itsas munduan

- **Hizlaria(k)**: Elu Arantzamendi, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-014/028
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:41:12. **Bukatu**: 00:43:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Solabarrieta, Edurne
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- **Laburpena**: Bere amaren amama arraina banatzen aritzen zen otzara buru gainean jarrita Elgoibarrera joaten. Bere aitita morroi lanetan aritu ostean hasi zen patroi moduan beharren eta ezkontzerakoan erosi zuen lehenengo txalupa. Txalupa horri bere emaztearen izena jarri zion, Kontxitaren amamarena, Klotilde.

Transkripzioa
- Ta jun zan Mutrikure baja zin Koasteittik. Baja zin Mutrikure ta bakixu bost ume ta baten batek esatzen “ Ondarrure juten bazaze atakozu biximoru, andrazkuk Ondarrun ataten dau, arraiñe erosi ta Elgoibarrea-ta”. Ordun, etorri zan bera ta arrañin hasi zan. Ta Elgoibarrea lepun goixeko lauretan urten ta juten zin otzara burun dabela. Bai bai bai, holantxenik e hori. Ta gero umik ba bata morroi gurin attitte be morroi eon zan, attittan anaxi be bai. Gero alabak be segiu dabe arraiñin. Ta ondo. Baiñe… ze esatea nixun horreaz ba?
- Ez ba etorri zirela eta ata ebela biximodu.
- Hamentxe ata ben arrañin hasitte. Atte zan, hori zan aman atte ta zan gero patroi. Patroi sartu zan morroitxatik etorri hori eta patroi. Patroi ondo. Ta ein ban ezkondu zinin, txalopa txiki bat ein ben. Klotilde andrin ixena ipinitzan Klotilde. Gurin attittak, attitte, mandatu /eitsan/ ein otsan neska batei ta: "Pentsako dot /pentsakot/” /esatsan/ esan otsan. Ta bittartin, beste kuadrillako batek /esatsan/ esan otsan: “Zutzako dakat arrebi, neska ederra” “ A bai?” ta “Bai, Fulana” “A bale ordun. Hasiko gara”. Bittartin besti etorri zan “Zu, Isidro, pentsau dot baietza” “Ba on neuk pentsau dot ezetza”. Gurin amak esaten ban harek andra zaharrak zemat bidar / esatetsan/ esaten otsan “Zure attak niri /peastan/ pea ostan halakoik pea”. Holakoxi zan, bai. Attitte be zan konto esantzalli. Itxosoko kontuk eta zan normalin attittak eta hartzen zattue ume umetzat . Ni akordaten na hartzen gattuenela pertsona nausi morun trataten gattunela eta nitzako attitte ra attitte beste bat ez moruku ha. Aume ba, baiñe attitte. Ta hareandik dator hori sustraixe txalopak-eta.

4.4. Amak hartu zuen negozioaren ardura

- **Hizlaria(k)**: Elu Arantzamendi, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-014/030
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:44:06. **Bukatu**: 00:45:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

- **Laburpena**: Bere aititaren postua bere amak hartu zuen. Bere ama, emakumezkoa izan arren, inoiz joan zen itsasora aitari laguntzen. Negozio kontuetan bere ama zen agintzen zuena. Kostako herrietan andrek gehiago agintzen dutela dio.

Transkripzioa
- Zeiñek hartu eban zure aittitte ez zanien egon?
- Amak, amak. Ama zan... gaiñea zan aurrera eitteku te bizitza guzti [sare]... Bera gazti zala esaten eban itxosoa be juten zala eta goxaldin...
- [...]
- Bai, amak bai. Holanik behin o behin mariñeru edo hori, ba, bai. Eta goxaldin, goxeko 4rak eta 3rak eta, mariñeruai diar eittea be juten zan ama. Gurin ama igual etxeko biharretan-eta gaztetaz ez, baiñe aittai laguntzen txalopai deittu, gixonai deittu ta behin o behin itxosoa be bai jun ta moillan ta sari konpontzen ta dana umetatik hoxe harek be ikasi eban. Bai.
- Ordun, gixonan biharrak be eingo ebazen, klaro, zure amak?
- Gixon askorek baiño gehixa, bai. 8 ume ta beti kanpun biharrin ta etxin. Ta esaten dotsuut /esatetzut/, jertsak eta puntuk eta eitten ee...
- Kozinateko gauzatan.
- Bai, edozetan, bai.
- Orduen, zure aittek ez eban agindduten zure etxien.
- Agintzen eban, agintzen eban, baiñe negozixutan...
- Amak.
- ... ama zan gehixa. On, amak beran hori eukan, e? Ona zan, baiñe... Hamen kostan normalin gixonak baiño andrak gehixa hori eitten dabe. Hor barrukaldin-ta igual gixonak agintzen dabe, eta boltsi be bai, baiñe hamen ez, hamen andrak dana. Eta gure etxin ikusi dou, ba, andri. Honbre! Aittai be pagi emongo otsan /emongotzan/.
- Baserrittarrak-eta ez. [...]
- Asko gehixa ta baitte hor barrukaldin be bai, baiñe kostan itxosokuk o [penazal] zalako edo diroik ez ebalako entendiu andrik ein biher dau / enbirdau/ ahal daben morun, baiñe hamen gehixa agintzen eban andrik.
- [...]
- Bai, bai.

4.5. Umetatik beharrean

- **Hizlaria(k)**: Elu Arantzamendi, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-014/036
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:53:13. **Bukatu**: 00:55:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga, Leire
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
  Lanbideak » Sastreak, jostunak
- **Laburpena**: Izeko bat jostuna zuten eta berak josten zizkien arropak. Eskolatik etxerako bidean dendatik pasatzen zen ogia hartzera. Eskolan ibili arren umetatik izan zituen etxean betebeharrak: garbiketak, josketak...

Transkripzioa
- Bai, ongo gauzaik ez eguan ordun, ordun aldin pobrezi eguan.
- Ta ze erropa edo ibiltzen zenduen?
- Erropi? ba ba ba ontxe mouku...
- Alaba: Goni ezta?
- Goni edo tia, tia, ba atxan arreba bat zan jostune ta harek josten oskun / josteskun/ erropak eta gauzi. Baiñe bera be bakixu, ondo pentsata, bai. Bai, gero seun ze respontsabilidadi zan eskolatik urtendakun e honutzin denda baten obixak, raziñoin ixaten zin gauza danak. Raziñoin etorten zan, ez daitx /eztatx/, astin behin, hamabostetik behin edo jateko, baiñe obixe egunero neuk erun bihar neban /erunbineban/. Ta kozkorra jati niri ontxe be bai gustaten gata, ta kozkorrak zoratu eitten gako gurin amai "pentsako dabe /rabe/ gosik hiltzen ..." ia ta gozik hiltzen eongo ez giñan ba, pentsako dabe /rabe/ jentik gosik hiltten zazela, ta hori zelan jan leike..." ta hako neu lotsatute. Bixaramunin be hori zeure respontsabilidadi zan ta baitte /batxe/ esaten dotsut /esatetsut/ hamabi urteaz urten neban, baiñe aurretik eskolan nebillela, neure kargun zan etxi: balkoi, eskillarak, kaltzetiñak be harizkuk ixaten zin lehena, on nylonak di baiñe boli egurrezku ipini ta errepasuk eta horrek zin... josten eskolan ikasi neban borda, ba hola, on be umin bordauk eta neuk eskolan ikasittakuk. Ta errepasu be bai. Ta ordun horrek zin neure... aizta zaharrak zin ba etxin jostune zan ha, bueno josten ikasten, ta ha ez zan sari konpontzea juten. Etxin eoten zanetik, honek ontzixak eta jatekuk ta horrek. Baiñe beste gauzak eskillarak... neurik zin e! ta hamabi urteako urtenda neguan, ta aurretik hamar urteaz ta. Biharrin, esan dotsut /esantsut/, biharra ikasi douela eitten ta holantxeik dalakun, ta ontxe be holantxeik dalakun eta ontxe be "sigue y suma" eitten dou.

4.6. Goizean eskolara eta arratsaldean etxean lanean

- **Hizlaria(k)**: Arantzamendi Mugartegi, Juanito
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-027/004
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:06:17. **Bukatu**: 00:08:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskolan bertan izaten zituzten liburuak, etxean egiten zituzten lanak itsasokoak ziren. Nahiz eta ume asko izan, bederatzi, denentzako lana izaten zuten etxean. Maisu batzuk oso onak ziren. Maistrak ere bazeuden. Batzuk partikular moduan aritzen ziren gehiago ikasi gura zutenentzat.

Transkripzioa
- Ta libururik-edo euki zenduen?
- Liburuek? Ez, liburuk geurik ez, eskolan bertan egoten zin halako txikixek eta ... juten giñanin haxe irakurri.
-Orduen etxeko biharrak-eta ez zenduezan eukitten?
- Etxeko biharrak, antxoiai buru kendu ta holakoxe gauzak. Etxin be usain bat! Dana arrain usaiñe! Ezin zeinken siñistu etxe baten hainbeste umeaz horrenbeste bihar hartu te ein zeinkenik, jode! Biharra!

- Bihar ein bir.
- Ta gero geu be emon bihar asko etxien, jode, geatu bez. Noizipein maixuk botaten ban papertxu bat eta amari-edo hori ta. “Dinotsu ba zure umie, fulano tal gaur ez dala etorri eskolara”. Amari edo aitxari pasa hori paperori. Patxada nahiku! On eskola edo maisu onak euki genuzen, oso onak. Goiko beste eskolan euazenak harek ez, harek ei zin txarrak eta eskasak, baiña gure maixuk onak zien. Maistrak be ba euazen, harek be eskas samarrak, bu! Doña Anita edo...
- Baiña hori zer, neskakaz maistrak?
- Maistrak euazen, bi ela hiru, maistrak? Don Bixenten andri bat, doña Anita, doña… Gero erdi partikular moruko maistrak euazen kale batzutan. Gure ebanak ikasteko, baeuan nok erakutsi.

4.7. Eskolara sartu aurretik pilotan

- **Hizlaria(k)**: Arantzamendi Mugartegi, Juanito
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-027/005
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:08:32. **Bukatu**: 00:10:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Umetan pilotan aritzen ziren askotan, Ondarroako "Club Deportivo Aurrera" frontoia beraientzako izaten zuten hartuta eskolara sartu aurretik. Hondartzan futbolean jokatzen zuten. Amari ostutako artilearekin egiten zituzten pilotak

Transkripzioa
-Eskolan jolastu be eingo zenduen?
- Bai errekreo denporan bai, pelotan eitxen gendun. Bai, pelotan hombre gernikarrak baiño hobeto, ez ondo ondo
-Ta ze frontoie euen hala?
- Bai, frontoie Club Deportivo Aurrera Ondarroa. Ta gure maixu ha be Gasteizku zan jun alkatiana eta esan otson: “Mesedez hamar ta erdixetako goizien eskolan etorten di mutikuk, ezta? Eta horrek pelotan eitxen dabe ondo. Hor jarraitzeko horreri nagusitxuek peliotan dabizen horrek kendu hamarretik hamar ta erdixeta”. Umik giñen-eta halaxe, geutzat ixeten zan ha frontoie. Fubolin be bai hondartzan junde-ta.
-Ta pelota barik zertara jolasten zenduen?
- Pelota barik?
-Beste-jokuek edo?
- Beste bat ez daitz nola esaten eutsen, erdaldunen joko holako zelebre bat, baiñe guk besteik ez genun eitxen.
-Ta pelotak zelakoak zien?
- Pelotak lanazkuek. Barrue bixkat gogortxuaue ta kanpue ba lana amai kaltzerdixek eitxen euena ostu eta haxe, bueno.

4.8. Umetako jolasak; mutilekin sagar-lapurretan

- **Hizlaria(k)**: Amutxastegi Aspiazu, Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea

- **Erref**: OND-035/001
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena**: Umetan pagoka (ezkutatzen), arbola-arbolaka, sokasaltoan, "a la bandera"-ka, "tres navíos"-ka edo "pongola"rekin (tortolosekin) jolasten zuten. Pongolarekin neskak bakarrik ibiltzen ziren. Mutilekin sagar-lapurretan ere ibiltzen ziren; mutilak arbolara igo eta neskak behean zaintzen. Geroago mutilekin baltseoan plazan.

Transkripzioa
- Ba lena ba, zer? Mutilakin-ta neskak ibiltxen giñan paoka. Paoka badakizu zer dan? Ezkutaten. Alamedan arbola-arbolaka ero sokasaltun, edo alabanderaka, edo tresnabioska ,edo pongolakin. Pongolan.
- Zer da hori?
- Kastellanoz pongolak di “tabas”. Han ipini ta jokatzen gendun ba pongoletan, pongolak.
- Neska ta mutil?
- Ez, generalin pongolan neskak.Ta mutilakin ba plaza jun ta baltziuan ein. Baiñe egoten zin beatzi pieza. Lelengokuk hasten zin... lelengo piezak... beatzixetako hasten zin eta gerokun ba lelengo piezak ein arte eoten giñan, baiñe gerokun, gabaz-ta, ez doskun lagaten urteten. Ba gure gazte denpori ixan da ba, mutilakin sagarlapurreta jun mendire. Mutilak altzaten zin arbola ta gu behian zaintzen egon, guardi egoten zan ta, ia guardi baetorren edo.

4.9. Herriko eta kanpoko mutilekin harremana

- **Hizlaria(k)**: Amutxastegi Aspiazu, Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-035/002
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:01:07. **Bukatu**: 00:02:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena**: Mutilekin paseoan non ibiltzen ziren; Antsomendineko kafetegia. Hamar urterekin hasi zen eskolan eta hamaikarekin ume-zain joan zen. Eta fabrikan ere betidanik lan egin izan zuen. Kanpotik etortzen ziren marinelekin ere harremana izaten omen zuten.

Transkripzioa
Ba gero mutil txikixakin be, pasietan. Lehena hori... Beheko kali eta hori... gure Itsas-aurre ta ez zin pasiateko kalik. Ixaten zan goiko partetik. Zini bada ba? Kafeantzokixe bada ba? Handik eta gora. Han... Antzomendineko taberni eguan, terraza bateaz, ta Gurea eguan beheragua pasteleixi. Bueno, hori geroa, ni gazti nintxanin baiño geruaua ipini eben hori. Antzomendineku ixaten zan generalin eta ba.. hantxe, nahi dotsut /naitsut/ esan , gure gazte denpori ba, fabrikan... Ni, hamar urteaz sartu nitxan eskola edo hara , bai eskolan, ta hamaike urteaz jun nitxan “niñera”, ya “Bachiller Superior”a amaittute. Hamaika urteaz “niñera” jun nitxan ta beti

fabrikan, arrasterutan be bai te, filetin be bai te, atunin be bai te, Orlandonin eitten gendun biharra ta. Han etorten zin marinero txikixakin, gaillegukin te kanpoko mariñerukin te amistadi hartute ibilitte ba... Gure gazte denpori, ze nahi dotsut /naitsut/ esan ba, holakoik kontatzeko, anekdota handirik be ez dakau. Danok be gutxi gorabehera gure modukuk...

4.10. Nortasun agiria egiterakoan Flora jarri zioten

- **Hizlaria(k)**: Amutxastegi Aspiazu, Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-035/004
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:03:20. **Bukatu**: 00:04:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
- **Laburpena**: Elizan eta epaitegian Lorea omen du izena, baina nortasun agiria egiterakoan, "que eso no suena a cristiano" esan zioten eta Flora ipini zioten. Gerora aukera izan zuen berriz Lorea jartzeko nortasun agirian, baina burokraziaren funtzionamenduak beldurturik bere horretan utzi zuen. Ondarroan Lorea "Euskadi" esaten diote denek.

Transkripzioa
Ta hamaike urteaz jun nitxan “niñera”, txalupi euken ta. Gerokun, karneta eitteko ailla nitxanin, ba Lorea ixena. Ta ni ontxe be botuk botateko ta etorten gazta ixena Lorea, ze nik elixan ta juzgaun te danin dakat Lorea. Baiñe karneta ein bir nebanin, etorri zan baten bat ta esan ostan /esastan/ “que eso no suena ni a cristiano” ta ipini ostan /ipinistan/ Flora ta on dakat karnetin Flora. On dala urte batzuk etorri zan aukeri Floratik Lorea ipintxeko, baiñe esan dotsuten /esatsuten/ modun, ontxe datorren hilin hogeita bostin di berrogeita zortzi urte alargundu nitxala, ta nik hori aukerioi etorri zanin, ba ya Floraz neukan neure “Seguridad Socialak”, “seguro de enfermedad”iok eta neure pentsiñoi, neure hilleku ta danak neukazen ba Floraz. Ta esan neban: "On burokrazixe dala, Flora borra eingo doste /engoste/, baiñe Lorea ipiniko doste /ipinikoste/ altan?" Bildurrak erainde esan neban: “Beatu, Ondarrun Lorea Euskadi naz, bai? Ta karnetin dakat Flora”.

4.11. Amak eta ahizpak eman zieten bularra ama gabe geratu ziren bikiei

- **Hizlaria(k)**: Amutxastegi Aspiazu, Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-035/007
- **Iraupena**: 0:02:39. **Hasi**: 00:07:05. **Bukatu**: 00:09:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
- **Laburpena**: Hamahiru anai-arreba ziren, baina berak hamaika ezagutu zituen. Lehen seme-alaba asko izan arren, denak etxe batean

konpontzen ziren. Gero, asko kanpora ere joaten ziren. Bere bi ahizpa Bergarara joan ziren neskame, Etxenagusia jatetxera. Anaia nagusiari emaztea hil zitzaion bikiak utzita. Biki haietako bati bere amak eman zion bularra eta besteari ahizpak. Bere ahizpa eta iloba adin berekoak ziren eta horregatik "ixiko" gaitzizenarekin ezagutzen da Ondarroan.

Transkripzioa
- Bueno, ta esan dozu hamahiru seme-alaba izan ziñiela?
- Ba, nik neuk, geuaz bixitzen ezautu ixan dittuaz hamaike, baiñe kontuixu aurretik hilde edo, baiñe ixan ga hamahiru.
- Ta zelako etxi zan ba?
- Gu bixi, bixi ixan ga, gu bixi ixan ga, zortzi neska ta hiru mutil, neure akordoz, bai.
- Baiñe zelako etxi zan?
- Tokirik eza ontxe da. Etxitan tokirik ontxe ez da. Lehena zein hamar ixan, zein hogei ixan, danak etxe baten konpontzen zin. On da “sala de estar” ta komedora ta lehena horrek ez zin existiuten. Gu bixi giñan guardilla baten. Bueno, ni adibidez tiaz eon ixan na. Gero pasaten zana da, lehena danak, han etxe baten, danak fabrika ta hara ta hona ta, baiñe krixara be asko juten zin. Gure bi aizta Bergara jun zin, horretxeatxik rekalka daosut / rekalkatsut/ Bergaraku zazen. Gure bi aizta Bergara jun zin krixara, Etxenagusia ixeneko restaurante batea ta bixak hantxe ezkondu zin, hangoxe gixonakin. Eta gerokun beste anaixa zaharra be, harek nire anaixa zaharrak ezkondu zan ta andri hil gakon, hogeita lau urteko andri, ta andri hil gakon partun bikixak lagata, ta haren bikixai nire amak batei emon otsan /emotsan/ bularra ta nire aiztik bestiai. Ta nire aizta gaztenai Ondarrun "Euskadi" baik ezautzen dabe "Ixiko"az, ze berak zazpi hillabete dakarrela euki eban loba bat ahiztine. Ta gerokun, berak hamalau hillabete dakarrela, euki zittuzen anaixik bikixak ta ama ein zan hil. Ta nire amak eukanetik ha "Ixiko" ixeneku bularrin, ze lehena urte biaz ta hiruaz ta titixe emoten otsen /emotetsen/, ba etxea jun zin ta horretxeatxik eskolan sasoi batekuk: “Zein da ixiko ta zein da lobi? Zein da ixiko ta zein da lobi?”. Zu Ondarrure etorten baza ta "Ixiko" esaten bazu, "Ixiko", "Ixiko Euskadi" neure ahizti da. Ulertzen dozu /ulertzezu/ zeaittik?
- Bai, bai.
- Edade bateko lobak geunkalako. Ta, esaten dotsut /esatetsut/, harek bixak Bergara ezkondu zin. Ta beste anaixi itto zana be ezkondu zanin, hareaz ba jun zan da ezkontzen zinak hara edo hona edo ahal dan tokire. Beste anaixi be ezkondu zanin, berak beste etxe batea jun zan. Baiñe umetaz danak hantxe, danak.

4.12. Anaia eta senarra itsasoan hilak; sarritan umeekin bakarrik

- **Hizlaria(k)**: Amutxastegi Aspiazu, Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-035/008
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 00:09:44. **Bukatu**: 00:11:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Alarguntasuna
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Anaia itsasoan galdu zen. Senarra ere hilda ekarri zuten itsasotik, eta bi osaba ere itsasoan hil omen ziren. 3.140 pezetako

pentsioarekin gelditu zen. Lau seme-alaba izan zituen, baina bat meningitisarekin hil zitzaion, gizona itsasoan zela. Laugarren umeak 18 hilabete zituela hil zitzaion senarra.

Transkripzioa
- Hain gazterik alargundute, esan dozu zure nebi be itsosoan itto.
- Anaixi galdu zan, bai.
- Galdu?
- Bai, gorputzik ez zan agertu.
- Zure gixona be handik hildde ekarri.
- Bai. Ta gure amai, amai be, bi anaixe itxosun itto gakozen.
- Ta ze laguntza edo ze alarguntasun edo...
- Ba ni geratu nitxan hiru mille eta... hiru mille eta ehun ta berrogei pesetaaz geratu nitxan, ta hiru ume, ze bat ordurako hildde neukan, ze hamar hillabeteaz hil gaztan ume bat. Nahi dozu /naizu/ erakusti nazimentuku?
-Ez.
- Bueno, igual dotsa. Nik eduki neban… Ezkondu nitxan berrogeta hamabostin, berrogeta hamaseixan alabi, berrogeta hamazazpixan gixona jun zan Dakarrea bajurako txalupetan. Frakaso bat ixan zan, baiñe jun zin zeoze nahaixan Dakarrea. Ta gixona Dakarren dala jaixo gaztan bigarren umi. Neski, zaharra zan neski, hamazortzi hillabete dakarrela, urte eta erdi dakarrela, bigarrena euki neban ta aitte Dakarren. Ta gero gixona Dakarretik etorritte, Ondarrun bajuran itxosun dabillela, etorri zan epidemixa bat meningitisena edo, eta umi ein zan hamar hillabeteaz hil. Aitte itxosun dala hil zan ha be, o sea, jaixo eta hil ein zan umi hamar hillabeteku, aitte itxosun dala.Ta gero euki neban beste semi, on berrogeta hamabi urte dakarrena, eta gerokun bestik ontxe eingo dittu /eingotxu/ berrogeta bederatzi urte Pilarika egunin, aitte hil zanin hamazortzi hillabete eukazen. Berrrogeta zortzi urte aitte hil zala ontxe, ta berrogeta bederatzi eingo dittu /eingotxu/ mutillak oktubrin. Asi es ke holantxik euki neban lau ume. Baiñe esan dotsuten /esatzuten/ modun ez neukan laguntasunik.
- Segurorik eta?
- Bai, seguru bai. Seguru medikune bai.
- Bai, baiña oin biharrien hil ezkero gixona, ba alargunek zeozer hartuten deu.
- Ez, lehena ez eguan holakorik, lehena ez.

Elisabet Santiso Aranbarri

4.13. "Niños pobres" egunean ume behartsuentzat opariak

- **Hizlaria(k)**: Amutxastegi Aspiazu, Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-035/016
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:19:54. **Bukatu**: 00:20:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

- **Laburpena**: Jolas-orduan "txintxirrikan" edo "pongolan" (tortolosetan) jolasten zuten. Orduan tortolosak zituena ez zen edonor. Urtean behin "Niños pobres" eguna izaten zen eta Caritas-ek batutakoa behartsuei banatzen zieten jolas-orduan. Behin azpian goma zuten abarketak eman zizkioten berari, baina biak hanka berdinekoak.

Transkripzioa
- Jolasorduan-ta, errekreoan, ze eitten zenduen?
- Ba, hantxe, txintxirrikan ibili. Txintxirrikan badakixu zer dan? Behan gaiñin eiñ kleriaz erraixak eta saltoka, bat, bi, hiru, txintxirrikan, hantxe. Harri bat ipini, txintxirrikia, hankiaz jo ta... txintxirrikan hantxe ibili. Edo pongolan. Ta hantxe. Pongolak eukazena be edozein ez zan. Lehena oparixe Gabonetan be pongolak-eta ixaten zin. Gero egoten zan urtin behin “Niños pobres”ko egune. Caritasak-eta batutakuk-eta hantxe emoten eben errekreun pobriai. Ta gu beti giñanetik pobrik, ba, niri egun baten emon eusten gomi azpixan euken zapatillak, abarketak, baiñe azpixan gomiaz, zorozkuk baik, ta bixak hanka batekuk emon eusten. O sea ke nahi dotsut / naitzut/ esan, ba, holakoxe kontuk lehena: pobrezi. Baiñe danok giñanetik bardin...

4.14. Mutrikura futbolera joan eta atxilotu zituztenekoa

- **Hizlaria(k)**: Amutxastegi Aspiazu, Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-035/018
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:22:20. **Bukatu**: 00:23:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Gaztetan Mutrikura joaten ziren futbola zegoenean, oinez. Ondarroan kantu bat kantatzen zuten, bertako futbol zelaiarekin lotutakoa, eta Mutrikun beste bat. Behin udaltzainak atxilotu egin zituen eta zigortuta udaletxean egon ziren ordu batzuetan.

Transkripzioa
- Hori izango zan eukiko zenduen dibertsiño bakarrenetarikoa, ezta?
- Bai, bai horixe. Edo, gero, futbola Mutrikun eguanin, Mutrikure futbolea igual. Oiñez jun ta etorri eitten gendun. Kanta Mutrikun kantak, kantaten gendun. Mutrikure junde baten endredu eiñ ta aguazilak erun gaittuen barrure be, sei lagun edo. Kantaten gendun: “En el campo de Zaldupe – Ondarruku Zaldupe– echan agua y salen rosas y por eso le llamamos el campo de las hermosas”. Hori kantaten gendun Ondarruko kanpofubolin. Baiñe gero, Mutrikure jundakun, Mutrikuko kanpofutbola “Campo San Miguel” ta hantxe: “En el campo San Miguel echan agua y salen ranas, y por eso le llamamos el campo de las marranas”. Aiba! etorri, endredun hasi, auskan, mutilak zubittik harri tiroka... Aguazilla etorri ta hantxe euki gaittuen ez dakit /eztai/ zenbat ordun udaletxin ezkiña baten, zigortute euki gaittuen. Ta haxe geure dibertsiñoi.

4.15. Ume txikiak paxarekin; "aldazapia" eta gainetik mantua

- **Hizlaria(k)**: Amutxastegi Aspiazu, Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-035/028
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:35:34. **Bukatu**: 00:36:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- **Laburpena**: Ume txikiei jertsearen gainetik hiru puntako zapia jartzen zitzaien eta gainetik paxa. Lehen ez zegoen pixoihalik. "Aldazapixe", izara zati bat izaten zen; gainetik "manto cuadrado".

Transkripzioa
Ume txikixak be, on dazen Dodotisak eta, lehena umiai eitten gakuen jertsa edo jantzi eta hiru puntako paiñuelu beti. Hiru puntako paiñuelu ipini, holantxenik, eta gero umi paxiaz. Paxi ixaten zan bendin lakoxi, bueltak eta bueltak emon gerrixan, paxi lotu. Nik pentsaten dot lehenako umik behean gaiñea jausi ezkero be tente geratzen zienela. Holantxenik umik, arma-arma eindde. Ta aldazapixe, izara zati zuri bat, lehelengo aldazapixe ta gero manto kuadrau etorten zan, horrek hoteletako mantelan-ta morukoxi, manta kuadrau, barrun zeozeaz bixkat reforzata beste tela bateaz edo. Ta, bueno, Dodotisak eta, horrek eta, paketeik-eta lehen ez eguan. Dana. Ta umiai, barakixu, ha aldazapixe bustittakun, ohian be barakixu izari bustitxen bagatzu hotza zelaku eoten dan, ume koittauak kongelata.

4.16. Umetako gaiztakeriak

- **Hizlaria(k)**: Zubikarai Larreategi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Bengoetxea, Maialen
- **Erref**: OND-041/003
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:01:50. **Bukatu**: 00:03:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena**: Umetako gaiztakeriak. Auskan egiten zutela dio. "Tiragoma" erabiltzen omen zuen poltsikoan. "Tronpi". Gizonen batek bizikleta ate kanpoaldean uzten zuenean, hartu, buelta bat eman eta atzera lehengo lekuan uzten zuten.

Transkripzioa
- Kontastazun ba...
- Gaiztue zelanik? Auskan-ta eitti ta? Ordun zeiñek ez eban eitten auskan ba?
- Auskan eitten zendun, aume?
- Egurrak be muntu einde eukitxen genduzen ta ikutoik be ez, eta buenoo! han ibiltxen giñan holanik. Gaiztu? Gaiztu baiño [txarrao]. Beatu, ni akordaten na 10 urteaz-ta tiragomi eukitxen neban patrikaran.
- Bai. Eske ya espero dot.
- Tiragomi, e, [...]. Tiragomi. Txintxirrike tiragomi. Tronpi, ontxe be badakit / badai/ tronpan ta. Bizikletan. Han lagaten baeben behian [...] edo, gixonen

batek –han taberni euan ta– tabernako atin lagaten baeban bizikleti –ordun gizonezkun bizikletak barra handi bat eukitxen eben: asientu, manillarra ta "una barra", ez zan ongo morure holanik–, ordun eitten gendun barrin azpittik hanki pasa ta bizikletan buelti ein ta osta be lengo lekun laga. [...] Holako gauzak-eta be bai ein douz, ta bueno. Eta...
- Eta askotan harrapa?
- E?
- Askotan harrapa?
- Ez! Bizikletia laga, alla kuidaos jausten bada...

4.17. Kontserba-lantegira edo itsasora umetatik

- **Hizlaria(k)**: Lertxundi Kaltzakorta, Terese
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-042/012
- **Iraupena**: 0:02:51. **Hasi**: 00:18:46. **Bukatu**: 00:21:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- **Laburpena**: Mutikoak 14 bat urtegaz itsasora joaten ziren lanera. Bera gazterik joan zen kontserba-lantegira lanera, harri baten gainean egoten ziren mahaira ez zirelako heltzen. Bertako lanak amaitu arte ezin izaten ziren joan erromeriara, Gorozika auzokora joateko ilusioa izaten zuten. Antxoa eta atuna sartzen zen bertako lantegietara.

Transkripzioa
- Gero itsasoa eh, gero itsasoa sasoie aillau zenin hamalau urtea itsasoa; ze itsasuek be beran urtik dakaz ba, hamalau, batzuk hamaike, hamabiaz be sartu izen di, hamalauaz be bai eta ahal dabanak al dabenin juten da. Holantxek...
- Zu ez ziñen ibili hori?
- Fabrikan ni, fabrikan. Atunin ta antxoan ta.
- Sarietan edo deskargan edo ez?
- Ez, horretan ena ibili, deskargatan ta ez na ibili bañe fabrikan bai. Fabrikan antxoiai buru kentzen, harri gañin mahixak altuk izaten di be eta mahire atsateko ipintxe (o)zkuzen fabrikako jauik harrixak ta harri gañin eta gero engañaten giñuzen, ba bakixu hor, Gosika bara ba hor, barrixo bat, hor baserritxarrak eliza ta guztiku hortxe. Hortxe gañin eta esate (e)zkun... fabrikako uesaba andrik esate ezkun "bueno honetxek bostiñok tiñati handixek izaten diñak". Bete-bete einde, o(i)ngo morun ez ta, lehen ez zan, lehen ekarte eben atrapatako atrapa, baiña oin ez oin kupu dakarre ipinitxe ta oin gitxia etorten da. Ta ordun, fabrikak eta egote zin bete bete ein de, nahi dan beste fabrika euan Ondarrun. Ta eitten gendun, esate (e)zkun: " bueno... honetxek bostiñok buru kentzen batzau, arratsaldien jungo zarie Gosika(ra)." Gu Gosika juteko amorru! Desiaten egoten giñan. Erromerixi eoten zan ba eta hantxe geure ilusiñoi.
Haor hamentxe biretik zihir, hon automobil biri ra ta, baiña o(i)n, lehen hamentxe, hamentxe oin tapata ra hon etxik ta einde daz ta, tapata ra hori bidioi, ointxe, ointxe e(i)tte dabizen barrixe eitten esaten dabe. Halako pausoko bide bat, eh banaka, biñaka juteko bire bat. Ez dakitt oin zelan guri, niri Gosikak eta gauzak ondo eroazen.
- Aldatza dau horra eh!
- Bai, hantxe go-goixan.

- Baiña hor juten ziñen?
- Bai asko, eta hori esate ozkunun gaiñea bostiñok eindekun, arratsaldi libre lagako gaittule ta Gosika, aaai , ordun ta ariña!, ordun ta ariña!
- Antxok kentzen, antxoa sasoien, eta beste urte(ta)ko?
- Ez, atune. Atune besteik ez zan eitten hamen eh!
- Ez?
- Ez, antxoi eta atune oin'e eittetzuen fabriketan ta, frituk eta jatekuk eta eitte ittuazan.

4.18. Jolastu neskak neskakin

- **Hizlaria(k)**: Lertxundi Kaltzakorta, Terese
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-042/032
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:48:06. **Bukatu**: 00:49:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Edozertan jolasten ei zuten umetan: pongolak hartuta, sokan... Hori bai, neskak neskatara, mutilak aparte. Mutilekin ez zuten ia hartu-emonik.

Transkripzioa
- Erozetan. Eee... pongolak, pongolak badakixu zertzuk dizen? Billotxan-ta han beheko barrenin egoten dan eee... pongoli esaten gakon. Haretxei bueltia emon ta gero han "pongola bat, pongola bi...", ezta? kantaten, kantaten. Sokan be bai, ta holantxen.
- Neskak neskatara?
- Bai, neskak neskakin. Eta mutillak mutillakin.
- Aparte?
- Kanta be bai, "Neskak neskakin, mutillak mutillakin".
- Eta mutillakin orduen traturik bapez?
- Bai, guk ee bai, zeoze bai, baiñe ez behintzat, ee...
- Eskolan be ez, jolastu be ez...
- Lehena inozentxixan bixi.

4.19. 'Agurtza', 'Agurtzane' eta 'Maria Rosario'

- **Hizlaria(k)**: Osa Etxebarria, Agurtza
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-044/002
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:00:24. **Bukatu**: 00:02:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: 'Agurtza' bezala ezagutzen dute Ondarroan. 'Agurtzane' amak baino ez zion deitzen, betiere haserre zegoenean. Bataioan 'Maria Rosario' izena jarri zioten. Bere ahizpa bera baino zaharragoa zen eta 'Miren Domeke' izena zuen. Aita besoetakoari eta ama besoetakoari, antza, ahaztu egin zitzaien 'Miren Agurtzane' izena bataio egunean, eta

horregatik jarri zioten 'Maria Rosario'. Ezkontzerakoan aldatu zuen azkenik izena.

Transkripzioa
- Ondarru osoako Agurtza.
- A, bale, Agurtza.
- Eta, bueno, hau, hor ipintxeko ez da ixango baiñe Agurtzane deitzen ostan, en su momento, neure amak, hasarre euanin. Mandature urten eta denpora asko tardaten baneban... "Agurtzaneeee!". Ordun balkoittik-eta deitzen zan. Esaten neban "Adios! gure ama hasarre da", eta amantzako nitxan Agurtzane. Eta, bai, siñadurak edo zeozer, baiñe bestelan... raru eitten gata Agurtzane.
- Baiña bautismotik zara Agurtzane?
- E... aber, aber, itxon bixkat, Maria Rosario bautismotik. Ordun ez zan ipintxen. Eske zelan ez zan ipintxen ordun? eta nire ahizti bi urte zaharraua eta Miren Domeke. Ordun ipintxen zan ba...!
- Sasoien...
- Bi urte zaharraua zan ta. Ba niri Maria Rosario ipiñi osten /ipiñisten/. Egixe esanda, nire amak esan otsen /esatzen/ Miren Agurtzane ipintxeko, baiñe kasualidade bat ixan zan aitte besutakuai ta ama besutakuai ahaztu ein gakuenela ixen hori: Miren Agurtzane. Baiñe ekixena zan horren itzulpena zala Maria Rosario; "Hauxe ipiñiko dou ordun," ta nire aitte besutakuk eta ama besutakuk holan ipiñi eben Maria Rosario. Hori de gerta zana. Baiñe momento haretan be eruten zan euskeraz. Eta ahaztu ein gakoien, bixei.
- Elixan be bai Maria Rosario moduen...
- Bai... ez dakit ba /eztaipa/ Maria Rosario modun... elixan. Ez dot euki premiñaik elixako gorabeherie azaltzeko edo ikusteko, baiñe ezkontzeko neuala ein neban aldatu. Esan neban: "Ez, nire amak nahi eban Miren Agurtza ipiñi..."
- Nik be Agurtza ipiñiko dot orduan.
- Eta ordun... eta zan, ba, hoixe... ahaztu Miren Agurtzane...

4.20. Bermeotarra zuen amarengandiko ezizena

- **Hizlaria(k)**: Osa Etxebarria, Agurtza
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-044/003
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:02:57. **Bukatu**: 00:05:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
- **Laburpena**: 'Agurtza Bermeo' bezala da ezaguna Ondarroan, bere ama bermeotarra zelako. Bere amaren izena Damasa zen, baina ondarroarrentzat ez ei zen izen erraza eta 'Margari' izenez deitzen zuten. Sinatu ere 'Margarita' bezala sinatzen zuen. Ama Lamerako taberna batera etorri zen neskame.

Transkripzioa
- Baiñe Ondarrun deitzen dotsue, zelan? Agurtza?
- Agurtza, Agurtza, Agurtza "Bermeo". Eta zematek esaten doste: “Agurtza, zuri zeaittik deitzen dotsue "Bermeo"?” Ba sinpli de. Nire ama Bermeoku zan.

- A bai?
- Ordun... Margari zan. Hori be ez da egi osu, ze nire aman ixena zuzena Damasa zan. Ondarrure gazteik etorri krixara taberna batea ta mutil kuadrilla bat, txikiteuan, hor tartin beran gixona ixango zana. Ia Damasa, ia Damasa, eta baietz, Damasa Etxebarria zala bera. "Ba hori ixenoi fuera, geuk ipiñiko dotsuau ixen barrixe" eta ipiñi otsen /ipiñitzen/, Margarita Etxebarria. Ala! Eurai politte hoixe iritxi gakoien eta Mar... esaten dot... "bueno, zein ete zan hobi ba?" Baiñe Margarita Etxebarria zan. Eta siñatu eta dana eitten eban e! Eta esaten eban: "Egunen baten etorriko gata, eske, eske... Egurre!
Neure ixena ez danaz siñatzen dot". Baiñe... halan jarraittu eban behintzat. Eta zan Damasa Etxebarria, baiñe Ondarrun Margarita Etxebarria. Eta nik esaten neutsen: “Beatu, nire ama bermeotarra zan, eta ordun, ba, "Margari Bermeo”.
- Eta Bermiotik etorri zan honaiño?
- Krixara etorri zan taberna batea, bai. Nieves "Totola" ta zuk entzuti eukiko dozu. Ez, ezta? Haretxen taberna etorri zan, Alamedan euken taberni, gaur BBK dan tokixan.
- Ta bermiotarra herrikue zan edo auzoren batekue?
- Ez, ez, herriko-herriku, Bermioko bertaku.

4.21. 14 urtegaz maistraren etxean lanean

- **Hizlaria(k)**: Osa Etxebarria, Agurtza
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-044/007
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:09:57. **Bukatu**: 00:11:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Bolibarko auzo-eskolan ibili eta gero Ondarroako eskola nazionaletara joan zen. Hamalau urterekin maistraren etxera joaten zen garbiketa-lanak egitera. 14 urtera arte joan zen eskolara, baina ez zuen ikasi askorik. Bere maisurik onena bere seme bat izan zela dio.

Transkripzioa
Baiñe debalde bez, ze nik hor 14 urtearte hor eukitxeko, trukez, eskolatik urten eta gero beran maistrin etxea juten nitxan garbiketi eittea. Gaur be ontxe be dakat neure aurrin ohi dorau bat. Zemat...zemat mistol edo zer zan ha potitun eoten zana brillu atateku dorauai? Gorrotatu neban bizitza guztirako. Beti haretxei brillu ataten. Emon emon biher zana /bizana/ eta beti brillu ataten. Etxi pasa, beran barruko erropak-eta garbittu ta ba noizbehinka emoten ostan kikara txiki bat bete kafi ta pentsaten ban ba eitten bala... eta, ba, bueno, osea ke ni hamalau urtearte egon nitxan. Ez neban ixe ikasi. Nire irakasleik onena..., hauxe ixan da..., hauxe ixan da nire irakasleik onena. Nik baserrixan ikasi neban suma, batuketa, kenduketa, sumarra, restarra, multiplikarra... dibisiñoirik ez nekixen eta, ba, bueno, gero ya umikin, "ama zelan eztakixu handixe za zu te" esaten osten, "bai, maittia haundixe naz, baiñe ez dot ikasi, ez dot euki aukeraik".

4.22. Bederatzi umeko familiako gorabeherak

- **Hizlaria(k)**: Osa Etxebarria, Agurtza
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-044/013
- **Iraupena**: 0:00:59. **Hasi**: 00:17:40. **Bukatu**: 00:18:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia
- **Laburpena**: Beraien auzoko batzuk bederatzi neba-arreba ziren. Umorez kontatzen du lehenengo altxatzen zenak hartuko zituela galtzontzilo eta galtzerdi garbiak.

Transkripzioa
-Zemat zin? Guztionin zemat e…
- Bederatzi […]...
- Beatzi seme-alaba edo, osea ke, horrek nahi dau esan… Danak sartzen zin, zelan ez dakit /eztaitx/. Baiñe kantzontzilloik garbixenak euazenak lelen altzaten zanak hartuko ban, ta kaltzetiñakin bardin pasako zan. Eske zeiñek daki zortzi-bederatzi umen tartin zer?
-[…] beste era batera zan...
- Beste era bat zan. Total!… baiñe ure ta ardau. Eta gu egon giñan, anaixi eta neu eta aitte eta ama, ze nire ahizti ya gerra denporan Bruselasen, hantxe famili batek hartu ban eta handik egon da eta da. Bueno, segi.

Transkripzioa:
Gurutzne Anakabe Kaltzakorta - IRALE (Eibar) 2016-17 ikasturtea

4.23. Baserrietako auzolana

- **Hizlaria(k)**: Osa Etxebarria, Agurtza
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-044/023
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:36:39. **Bukatu**: 00:38:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena**: 10 urtera arte Ziortza-Bolibarko baserri batean egon zen bizitzen. Uzta sasoian, baserritarrek elkarri laguntzen zioten. Auzoko guztiak joaten ziren baserriz baserri laguntzera eta lan egin ostean, eguerdi ostekoa egiten zuten, afari-merienda balitz legez.

Transkripzioa
… garixana edo hartune edo abar. Ohitturi zan inguruko baserrikuk zeiñek jasoten eban /jasoteban/ uzti haretxei laguntzea: zuk gaur eitten bozu –gaur egun osu, gaur ta bixar o lo que fuera–, hurrengo eingo eban /engoban/, ba, gure albokuk, danok berta laguntzea. Gero goikuk, danok berta laguntzea. Gure egune be aillega zan ta gutzako ixaten zan... bueno! Ondarrun Andra Mari egune ixango balitz morun, juerga pi-pa! Ta pozik eoten giñan. Ba! dana kanpoko jenti etxea, ta gu oso pozik. Tramankulo bat geunkan. Bai, holako altura bat-edo eukan. Ez euan argirik, karburu ibili bir ixaten zan: ohire bazuz, ba, han zuz karburuaz. Makiñi bera be –argirik ez

euan– manibelaz joten zan garixe. Ta hori dana amaittu zan eta gero etxe bakotxin tokaten zanin, eguerdi osteku eitten zan, afai-merixendi deittuko bageuntze morun. Ta, klaro, gure [añiek], ba, presta eban /prestaban/ danentzako, han geuazen jente guztintzako, ta... igual umintzako ez, ze guri... juergi zan gure jana. Ta, ba, bueno.

4.24. Hondartza udatiarrentzat; eurak errekara

- **Hizlaria(k)**: Urbieta Etxaburu, Antigua
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-047/005
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 00:05:40. **Bukatu**: 00:08:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
  Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- **Laburpena**: Amak esaten zien hondartza udatiarrentzat zela, ondo jaten zutenentzat, itsasoko urak makaldu egiten zuela eta. Eta orduan errekara joaten ziren bainatzera. Kaleko askok ez zekiten igerian eta askotan beste umeak uretatik ateratzen ibiltzen ziren, batzuetan benetan, eta bestetan jolasean. Nagusiago egin zirenean "kaseta"k jarri zituzten hondartzan. Pezeta bat ordaindu eta, denentzat bainujantzirik ez zutenez, "kaseta" barruan kantuan ibiltzen ziren.

Transkripzioa
- Eta ze akordu dekozu, umetako Ondarruna eta zuen umetako...
- Umetaz gu, ze esango dotsut /esangotzut/ pe? Hondartzi, hori hondartza ederroi, esaten neban ba, batetik e, ondo jan, ondo bixi, aberatsa ixan, ta hondartzi be eurentzako, nik ez neban entediuten. Gure amak esaten euskun /esateskun/ beraneantintzat dala hondartzi, ondo jaten dabenantzako. Urak zelan eitten daben makaldu, igarixak eta holan, gu ez giñala jun bir. Ta ordun, ba, nahi ez. Ta hor zelan errixu geunkan, hor, hondarra, hondarra deitzen gentsan, “hondarrea”, errixu hantxe. Ez geukan baiñuko erropaik be, baiñe beti... gure amai gustaten jakon ba... obra onak-eta eitti ta holan, eta "tzank"!, erropa ta guzti... Bajaten zin, egixa esan, goiko kaletik eta Kalanditxik herrire bajaten zinin umik, gitxirek ekixen igaixan, ordun jauste zin ta beti gebizen umik salbaten. Behin o behin benetan, ta mille bider ba olgetan. “Umi salba dou” ta halaku, ta nahi beste igari ein erropa ta guzti, ta ala, etxea hundiute gero. “Umi ta ondo da?” “Bai e... estu ta ibili da /ibilire/, estu-estu, baiñe, tire, jun de” ta, listo. Beti asmaten. Ta gero kasetak-eta ipini eben, ta nausitxuauak ein giñanin, hamar... hamar urte ta... gero gure aiztak zaharrauak.... ta, bueno, kaseti rubixi ixaten zan, peseta rubixa bat, eta hantxe erantzi ta... Ez geunkan baiñuko erroparik be, ya esta bien, e? bañuko erropaik be ez. Baiñe beti egoten zan hantxe alkilerreku, edo hangu, edo harek ez dakit / eztai/ zeiñena, edo aiztine, edo [laga ber tzala], lehenengo bat baiña haretxeaz, gero besti... Ta peseta bateaz hamendikaldeko atetik sartu, handikaldeko ati erai, kasetik ate bi eukitten eban ta, ta handik sartu kuadrilla guzti. Sartu kasetin barrun, ta danok ez geunkanetik baiñuko erropaik pe, kanta ta kanta, hantxe. Ta akordaten na nire gixona gero ixan zana, gauzie, e? eitten eben e... kaseta azpire sartu ta [halaik] egurrak [errexak], ta handixek espiaten. “Eee, nun daz?” ta... ze karajo eitten

gendun han? ba, kanta ta kanta, ta txistik konta ta, “nun egongo?” ta... Osea gutzako plaixe... ta igai hondartzan gitxi, oso gitxi: errixun. Nik esate neban. “Ondiokan e, ondo jan, ondo bixi, eskola jun...”, porke niri eskolaa juti-ta asko gustate jat... Lagun bat geukan hor, tarteko aberats bat, edarto bixi, ta plaixe eurentzako. Zela leike ba?

4.25. Hondartzan neskak eta mutilak aparte bainatu behar

- **Hizlaria(k)**: Urbieta Etxaburu, Antigua
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-047/009
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:11:58. **Bukatu**: 00:13:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
  Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- **Laburpena**: Hondartzan txikota (soka lodi bat) egoten zen uretan, neskak eta mutilak elkarrekin ez bainatzeko. Eta zaintzen egoten ziren, gainera. Neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren kuadrillan; haiek ere ez ziren hondartzara joaten.

Transkripzioa
- Euan soka bat, andrazkuk eta gixonezkuk, ta holan trabeseta, ta gero soka bat. Esaten neban, ba, ha soki, ha soki guk segundo baten pasaten bagendun! Harutzatxua jun [buzadi] ein ta yasta! Hondartzan be zaintzen eoten zin, neskak mutillakin batea ez eoteko ta. Ta soki han. On eoten dine boluk, noarte igaire jun biher zazen /bizazen/ ta harutz gehixa ez, ba, ordun on holan dazenak boluk holanik.
- Hondarrian.
- Hortik haruzkun. Hondarrin ez, uretan.
- Uretan?
- Uretan, igaixan ez eben lagaten hondartzan be ibilttren neska-mutillak gaztik-eta batea ordun. Uretan, ba, ze ein eben / einben/? Soki ipini, txikota, lodi-lodixe, ta hamendikaldin mutillak eta hor neskak. Ta guk pasaten gendun buru ta gero osta be hamendikaldea etorri ta...
- Hori txikota hondarrian be bai edo?
- Ez, hondarrin ez. Hondarrin mari beherutz eitten zanin eoten zan, baiñe mari gorutz etorrenin, ba, ez euan gorarte. Ez naz seguru akordaten gorarte edo ure euan lekun euan.
- Ta kuadrillan ez ziñien ibiltten ala?
- Bai!
- Mutillek eta neskak?
- Bai, bai, kuadrillan. Ta... baiñe eurak be ez zin juten hondartza ta eurak be geure moure.

5. Lanbideak

5.1. Eskola eta partikularrak

- **Hizlaria(k)**: Arrizabalaga Alegria, Tere
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea

- **Erref**: OND-010/007
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:05:36. **Bukatu**: 00:07:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Conde, Olaia
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Sastreak, jostunak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskolara egun guztirako joaten ziren etxetik eramandako jatekoarekin. Bazkalosteko harrikoa beraiek egiten zuten. Eskuz bordatzen irakatsi zien maistra batek. Eskolatik irten ostean, Ondarroara joan zen eskola partikularretara: matematika, aritmetika... ikasi zituen bertan.

Transkripzioa
- Eskola jun eta gero ba egun guztirako juten giñen, bertan bazkaldu, bazkarixe eruten gendun etxetik eta bertan bazkaldu eta eitten gendun eta geuk eitten genun fregaue eta han ba lagun asko, ixe ehun lagun egoten zin, bai maistri zan ona-ta, erakustalli zan ona-eta. Ordun juten zin Itxurribatxirrik be bai, Madalenatik be bai juten zin eta hainbeste jente juten zan hara. Bai eta gero bat alde ebanin, beste maistra bat etorri zan, baiñe harek ez zan eskolan holako erakustaille famaue eta eitten ban josten erakutsi, josten bordetan, baiñe eskuz, hantxe ikasi neban nik bordetan, baiñe eskuz. Eta bueno, gero handik urten gendunin, ba etxea eta gero Ondarrure partikularrea. Baiñe partikularrin ikasten gendune gexen gexen haxe.
- Eta ze partikularrea?
- Antzomendiñin zen maistra batzuk euezen, aiztak bixak euezenak bixak zin. Ondarrukuk zin maistrak.
- Ta zelan esan dozu?
- Antzomendiñin. Antzomendiñin euen terraza bat eurena zan eta euken taberni eta horrek zin aiztak hainbeste aizta zin, zazpi aizta-edo zin. Eta bat zan maistri, baiñe gogor, ona zan. Eta haretxek erakutsi oskun / erakutsiskun / bastante matematikasak eta beste gauzarik ordun ez zan, gexen bat zan matematikasak, ze guk ez genun “sociales” ta horrelako gauzak ixebez, bat e osake, gexen gexen matematikas: kontuk ataten ta hoixe. Ta ni [...] enfin aritmetiki problemak azkeneko ordun, osake danak pasau neban eta esan ostan /esastan /: “yasta, amatixu dozu zuk”.

5.2. Neskame mantenu truke

- **Hizlaria(k)**: Lertxundi Kaltzakorta, Terese
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-042/007
- **Iraupena**: 0:03:17. **Hasi**: 00:09:03. **Bukatu**: 00:12:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena**: Hamar neba-arreba izan ziren eta ez zuten eskolarik izan: morroi, kaxak josten, baserri batera lanean, neskame... ibili ziren mantenu truke. Terese jaunartze nagusia egin ostean, 12-13 urtegaz-edo, Elgoibarko etxe batera joaten zen neskame, mantenu truke. Handik, Ondarroako etxe batera joan zen lantegira joan aurretik.

Transkripzioa
- Baiña geu anaixarreba hamar mundun.
- Hamar.
- hamar ta guk eskolaik eta eztau euki, bata morroi, besti kajak josten nausixena kaja josten; biarrena mutille morroi, hirugarrena Imanol, ha be basarri baten eta ahizti be ba (pertikan). Ahizta nausixe Donostin meriko baten etxin kriada urtitan ta holantxe ixan ga gu.
- Hamar ume atateko aurrera e!...
- Bai be, hamar ume atateko ba mantenu trukin, ni junde naz mantenu trukin Elgoibarrea kriada, hamar hamabi urte, hamahiru hola komuniu handixe einda lehena ezate zana komuniu nausixe ba ordun ba junde na ni Elgoibarrera ume zaiña, eta hor euan usaba bat. Mirador haundixa ta beheko etxi eurenak zin, ezta? Zin ba hiru anaixa; hiruak kartzelan egondakuk gerra denporan, eta arreba bi eta horko batek kartzelie laga banien, amaitxu banien kondeni hoi esate eztan: "Ze Terese noa jun zaz?" Esate eztan ta "Elgoibarrea ume zaiña" ta berak esate eztan: "ze geurin egongo ziñake ondo ba." "enee" esan neutzan "pozik etorriko nintzake ona baiñe hamar ogerlekoko erropie eiztezta usaba andrik". Pentsa zelako gauzak e!
Liso liso hementxe fruntziauaz, listo! plaire jun, bertan egunetan , aste bateako etorri giñan ze bera andri zan Elgoibarren bizi arren, hortxe da baserri bat eskutun da, hau txaletau ez, ha besti hortxe, hortxe bertan. Hor da ermitxa bat oin tapa dabe, honek piñuk tapa dabe ermitxi. Hontxe arte biztan eon ixanda e baiñe ieztik da tapata eta horko andri zan lez, Elgoibarren ta hamengo jaixak agertu zinin etorri nintxan Ondarrure ta (gau gehixa Elgoibar).
Elgoibarrea maleti sartzen da morun sartu nitxuen Deban ta aide; "han urtengotzu usaba andrik" esate ezten ezin urten trenetik! maria ta maria, gonbitxun gonbitxun inde señorito bi, estudiantik ero eztakiu zertzuk zin ... " que asco" diñoste harek, ta nik ezin urten trenetik be. Usaba andrik esate eztan han euan ta Elgoibarren: " salto, salto Tere" ta ezin ezin, ez neuan kapaz salto eitxeko. Halako baten ein neban zozelan urteneban ta horkuk esa oztanin geurin egongo ziñake mantenu trukin, ba gehixa ez nintzan jun Elgoibarrea; jarraitxu neban hementxe, hortxe ein nitxuanzen eztakit zenbat urte , gero hortik fabrika(ra).

5.3. Ama inude eta beraiek baserrira

- **Hizlaria(k)**: Osa Etxebarria, Agurtza
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-044/015
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:18:44. **Bukatu**: 00:20:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena**: Bere ama inude ("aiña") joan zen eta hiru neba-arrebak Ziortza-Bolibarreko auzo batean egon ziren, bertan hazi ziren. Agurtza sei ume zeuden familia batean zazpigarren umea izan zen. Ama Torcuato Luca de Tena ezagunaren etxean egon zen inude.

Transkripzioa
- Garai hartan, aiña juten zin gurasuk, eta nire ama, hiru umiokin aiña jun zan, eta hiru umiok hazi giñan Gollibartik (Bolibartik) goratxua, ordu erdi

bat bidin, Jaixo eukan ixena barriadik.
- Zelan?
- Jaixo.
- Gollibartik gora? Eta Gollibar da?
- Semea: Bai, Gollibar baiño goratxuaua.
- Oiñez, mendi gorutz, Jaixo eukan, zan barriada txiki bat. Euazen hiru etxe, bi etxe bikotxak, ezker–eskuma eukenak eta beste bakarra neure anaixi hazi zana. O sea ke gu hirurok hantxe barriadan hazi giñan. Hantxe. Eta nire ahizti eta nire anaixi, Berritxun daz on beran famelixi, aiña Preminak hasi ginduzen. Hortxe argazkixan dakaz aittitte Jose eta aiña Premina, hortxe goixan. Eta ni hazi nitxan, bikotxa zan etxe baten. Sei seme-alaba euazen eta ni zazpigarrena hartu nitxun. Nik ez dakit /eztai/ ze ordaintzen otsen gure gurasuk baiñe... ero ez dakit /eztai/ ze irabazten eben aiña junde, ze, han irabazten ebena , ba baserrixan, baserrixe ordainddu biher eben /biben/ nire amak, hiru anaixa-arreban... jornala edo...
- Baiñe zure ama be han egon zan aiña? Edo zure ama nun egon zan aiña?
- Ez, nire ama egon zan e... Bilbon, Luca de Tena, Torcuato Luca de Tena, el famoso Torcuatro..., Torcuato Luca de Tena. Bai, eta ama eban Kati, Catalina.

5.4. Inude joan beharra ezin ulertu

- **Hizlaria(k)**: Osa Etxebarria, Agurtza
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-044/017
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:22:36. **Bukatu**: 00:23:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena**: Bere ama inude joan zen Bilboko aberats batzuen etxera. Hala ere, Agurtzak ez du ulertzen behar hori, inoren etxera joan behar izatea eta eurak beste norbaiten etxera. Zaragozan ere egon zen gerora bere ama.

Transkripzioa
- Aiña freska, eske...
-Aiña freska jun zan. Aa..
-Bai, bai, aiña freska, e. Nik ez dot ulertzen, eske holantxen zan bizitzi! Baiñe nire burun ez da sekule –ni hilgo naz, baiñe sekule– sartuko hori bizitzi holan ixan bihar zanik.
- Ze zure umiek itzi...
- Ze ni... beran umik itxi eta nik baserriko aiñin esni hartzen neban. Eta nire amak beran... nik hartu bihar neban esni beste ume batei diro baten trukez.
- Biher izena eukiko eban.
- Bai, itxuri bai!
- Hori eitteko ama batek...
- Itxuri bai, eta hirurokin hoixe ein eban.
- Ixen truke ez zan jungo...
- Ez, ez...
- Beti eon bihar zan zeozer, edo diru, edo laguntzak, edo jateku edo...
- Bueno hortik e... Luca de Tenanetik beti erropak-eta be bixaltzen oskuen amak hazi eban uminak eta niri ondo etorten gatazen eta horrek danok.

Baiñe gero, señorak eurak bata bestik ume bat eukitxen ebanin, bata bestiaz konektaten zin, eta bigarren aldiz egon zan Zaragozan.

6. Baserria

6.1. Prakak josten

- **Hizlaria(k)**: Arrizabalaga Alegria, Tere
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-010/008
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:07:33. **Bukatu**: 00:09:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga, Aitor
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Lanbideak » Sastreak, jostunak
- **Laburpena**: Mojetara joan zen josten ikasten, lehendik zekiena hobetzeko. Etxean laguntzeko jostun lanetan hasi zen 20 urte ingururekin; gizonezkoentzako prakak egiten zituen, "pantalonera". Anaia pilotaria izan zuen eta hari ere berak egiten zizkion prakak. Etxetik kanpo ezin zuen lanik egin baserrian laguntasuna behar zelako egunero plazara joaten baitziren.

Transkripzioa
- Ta gero ba “Mojetan” ostea be josi, ta josten ba han be bordetan, korti hartzekun, baiñe bordetan. Eta gero handik be etxin be bakizu biharra gero etxin be lagundu ta ein biharra ixaten zan eta ordun, ordunhasi nitzen josten. Josten baiñe bastante urtikin, oseake hogei urteaz edo hasi nittan josten eta korti hartu neban eta gero pantalonera ostabe. Eta pantalonera ba etxin eitten nittuzen prakak eta danak, gixonezkuntzako be bai, neuk josten nittuzen, neuk josten nittuzen. Goxin zortzi t’erdixetan hasten nitzen josten, eta lehena barakixu ebillak eta atzin eruten zittuzen prakak eta konplikau zan. Konplikau ez zan, biharra ein bir zala gexa eta harek josten nittuzen danak, lau gixonezko euzen etxin. Eta anaxi be pelotarixe zan eta pelotako be neuk etten nittuzen prakak eta danak. Bai, josten ondo ikasi neban.
- Dendantzat eta ez zendun josten??
- Ez, ez, hori ez neban ein, hori ez neban ein, etxeako bakarrik. Ordun momentun ein izen baneu, baiña baserrixen be laguntasune bir zen ze eunin eunin plaza jun bir ixaten gendun. Eta plazako gauzi preparau ein bir ixaten zan beti. Eunin-eunin plaza karruaz eta kaballuaz, eta plaza eunin-eunin.

6.2. Azpigarritan basora

- **Hizlaria(k)**: Arrizabalaga Alegria, Tere
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-010/016
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 00:21:02. **Bukatu**: 00:23:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea

- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Azpigarrirako ira behar izaten zuten eta basora joaten ziren bila, Gorozika pasata Kondebasora joaten ziren. Gerora zerrautsa erabiltzen hasi zen, baina ez da ona tintea baitu. Simaurra derrigorrean behar zen. Zaldia hartuta jatekoa eramatera joaten ziren basoan zebiltzanei.

Transkripzioa
- Eta gero ba basora be juten nitzen, osake baserridxen euezen sei behi ta bost txahala, horixe izeten zan. Eta juten giñen basora, baiña etxik berak ez euken biher dan beste basorik, basorik azpigarridxe eitzeko (...), azpigaridxe eitzeko ez eukon biher dan beste lurrik edo terrenoik, basorik. Ze euken basorik, euken basu zan egurre, egurre ebai ta sutarako eitzeko. Ordun jun biher izeten gendun Gorozike pasau ta Kondebasora, Kondebaso, kondiena ei izan, ta hara jun biher izeten zan ba zerak eitzen, azpigarrixe eitzen, ze astin jornada bat gasteten zan, eta ha eitzeko jun ein biher izeten zan. Ta simaurre, ordun simaurre biher izeten zan, ordun ez euen oingo moduen zerik nitratorik eta holako gauzaik eta simaurre biher izeten zan. Gero, ba zerri-ta hasi zen eta zerratik apur bet bakizu ganauek apur bet siku-edo eukitzeko edo garbi-edo eukitzeko apur bet, eruten zan baiña ortu barrireko txarra zan, zerrautse geuzerik txarrena da, tinttie deko-ta, “tiene tinte”. Ta simaurre biher izeten zan derrigor. Ta harek biharrak hortixik urten eban, porke ni plazara jun etxa etorri ta amak bazkaridxe prest eukitzen eban, lapiko ta geuzek ipinitze. Zaldidxe soltau, atza barriro lotu, asto-otzarakin ipini, jateku ipini ta Basora jateku eruten juten nitzen. Ño! Izerdidxe ataten gendun guk zaldidxek eta bixok. Neuk be oin baiño saso hobie neuken-ta. Bai, eta haraxe erun, etxa etorri ta baten baiño gehidxa ein neban josta jun, josta be jun, ein neban baten baiño gehidxauten, bai.

6.3. Ganadua izan arren, plazan saldutakoarekin aurrera

- **Hizlaria(k)**: Arrizabalaga Alegria, Tere
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-010/017
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:23:09. **Bukatu**: 00:24:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Zaldia eta "muli" zuten, ez zuten ez mandorik ez astorik. "Muli" burugogorra eta mantsoa zela dio. Behiak eta txahalak ere bazituzten, baina plazan saltzen zutenarekin egiten zuten aurrera. Bizimodu gogorra zen, errentariak izan arren beraiek ordaindu behar zituztelako kontribuzioak.

Transkripzioa
- Ta zaldidxen ibiltzen ziñien beti? Astorik ez zenduen euki?
- Ez, astorik ez gendun euki. Muli Auki gendun, baiña ño! Terku zan muli,

muli ez da ona, bueno ona ez, biharreako bai e! biharreako fiñe da, bai. Ganaduen aurrin-eta tiretzeko-ta ona da mandu, edo muli, mandu ez zan muli zan. Eta baiñe kaballue eukitzen gendun jeneralin, kaballo baltza, txarra, gaiztu zen. Bakizu ze eitzen eban? Ikusten ebanin arkadi, arkadi handidxe euela-edo ikusten ebanin, pentsau animalidxe zelako listue, juten zan atzeara atze-atzera, ta inddar guztidxeaz tiretzen eban, ta zoze, apurtu edo zozer eingo eban, marki da hori gero e! ta ez gakon hori kostunbri juten gero e! ez terko [...]. Ostantzien ona zan e, mantsu zan, baiñe.
- Ta ze beste, ganaue-edo ze euki zenduen ba?
- Sei behi ta horixe, bost txahal izeten zan. Baiñe ordun esaten notsan nik aitte difuntuai: “baserridxe ondo ibiltzeko, hillin txahal bat saldu biher dogu aitxe, ostantzien ez dau balidxo”, esaten notsen, ze sueldorik, eskerrak plazaku, egunin egunin egunin egunin plazaku, ba handik eitten zan asko. Bestelan, ze ordun kontribuziñoi be pagau norberak pagaten ta errenteruk giñen, ta kontribuziñoi be norberak pagaten eban, hori gogorra zan e! Eurek uzabak pagau biharreñin kontribuziñoia errenteruk pagau biher izeten eben, bai guk errenteruk geuk pagaten gendun. Gero, aparte ba urteko zera.

6.4. Ogia etxean egiten zuten

- **Hizlaria(k)**: Arrizabalaga Alegria, Tere
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-010/018
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:24:56. **Bukatu**: 00:27:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Kortazar, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Garia
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Etxeko errenta diruz ordaintzen zuten. Gerraostean, garia entregatu behar izaten zuten udaletxean. Ogia etxean egiten zuten: lehenengo, labeko sua; eta, gero, sukaldean egiten zuten. Ogia zelan egiten zuten kontatzen du. Terek ez zuen ezagutu labeko sua.

Transkripzioa
- Ta errenteru bizitzen ziñienien, diruz pagetan zenduen?
- Diruz, diruz, guk diruz pageten gendun. Gero eon zan unekara bat gerraostin, garixe entregau ein bihar izeten zana aiuntamentuetan, ez dai / eztai/ dakizun, entregau ein bihar izeten zan, ez dai /eztai/ zemat, ez dai / eztai/ zemat ganera izeten zan entregeti bentzat, ta gero kendu ban hori baiñe, gauza asko izeten zan, osake zati handixe kentzen gakon norbera izeteko. Gero norberak eruten eban hori, garixe eta errota ta errotan zertute, ogixe be etxin eitten gendun. Lehena-lehena labako ogixe eitten gendun, baiñe gero ez, gero koziñan eitten gendun.
-Ta labie ze euki zendun zeuena ero auzokoana?
- Ez, ez, ez etxeku. Eurek euki ben, gurasuk aurretik euki ben, labako sue eitten eben. Baiñe gero ba, koszñi ipini zanin, ba koziñan, ta ondo, ondo urteten oskun. Ze labadori, eo lebaduri, ez kendun usetan lehelengo lehelengo apur bat, hasierako. Baiñe gero ogixe eitten danin, apartau beti zati bat, ta gero haxe ixenda, bera lebaduratzat eitten dau berak madrik eitten dau. Bexperan ipini arrotzen eta gero ogixe bixamonin eta gero arrotu eta gero laban sartu. Ta ogixe asko gozuaue eta hobiaue.

-Eta labako sue zelan eitten zan-edo?
- Hoixe ez naz akordaten ni. Ze guk e amasaran eitten gendun, etxeko euen armaxo bat ta gero euken tapi ta amasari. Ta hantxe amasaten gendun goxan, norberak eitteko etxeako. Ta beste gauzaik ez naz akordetan lehengo horrelako ize ez dekot akordun. Labako sue eitten ebenik ez naz akordaten, ze hori handixaue izeten zan porke pentseten dot astebeteako edo hamabost euneako edo eitten bela. Nik ez daitx ordun pertsonak hazi be zelan eitten zin, ze akordaten naz, beatzi seme-alaba zin aurreauako aldikuk, attittan anaixa-arrebak eta, zelako zelako pertsona haundixek. Harel zelan hazi be. Ta gu ixikoaz hazi ta hazi ogixaz, ogixe ta esni ta artu. Artu ta esni morokille be bai. On jaten ez dan asko. Ta asko hobiaua.

6.5. Ondarroatik Markinara ikatza garraiatzen

- **Hizlaria(k)**: Arrizabalaga Alegria, Tere
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-010/020
- **Iraupena**: 0:02:49. **Hasi**: 00:29:02. **Bukatu**: 00:31:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Bere aititak Ondarroatik Markinara itsasoz heldutako ikatza eramaten zuen behia kargatuta. Hortik ere diru apur bat lortzen ei zuten. Auzoko asko arrain-fabriketara joaten ziren.

Transkripzioa
Bizitza gogora. Hasierie, osake, hasierie porejenplo ba gizonak be osake, nire atxitxek-eta bolantiaz ganauekin juten zin iketza eruten Ondarrutik iketza Markiñara-eta eruten, ta esaten eban tente lo, behidxen atzetik tente lo. Ta estutasune pasau eben ordun be. Diru apur bet orduntxe esku artin ein ta harek gizonezkuk biharrera juteko, amak esaten eban: "Jo ta apurtu gerridxe ta zerin bedarrak ebai ezinda". Ta negu izen ei zen ona, espeziala ordun, holako negu epel-epela ein ein zeban ta bedarra etor zinin honarte, sagar-arbolak be danak tapaute, ta bedarra ebai biher ta bedarra ebai biher, ta zozer. Ta gero hasi ba behin hasittekun bakizu.
- Ekarten biene iketza Ondarrutik Markiñera zer zan, barkuen ekartzen biena?
- Barkutik ekarten eben, bai.
- Markiñera zetako ba iketza?
- Ba nonora osake erungo eben, porejenplo erute eben horra karmeliteta-edo, ez dait nora eruten eben.
- Ta zetako ba?
- Ba sue eitteko! zetako biher izengo eben ba? sue eitteko, iketzak gastaten eben harek karmelitak be. Goikuk ez daitz, baiña behekuk be bai ta bai iketza ez dait nik, behintzat bakitz kargeten ebena, haidxe esaten eben-ta. Bolantie euken haundidxe eta ganauekin haradxe juten zin, juten ei zin, ze nik ez neban ikusi-ta. Hantxe diru apur bat eta bakizu. Ordun ondio Ondarrun be arrastreruk baeuezen, baiñe gero urtietan egon zinin bestik eta arraiñik be ez dait ba nik, hainbeste hainbeste pagaten zanik edo ez dait nik. Antxoa sasoien-eta bai erosten zin, ta gero bakizu, askok antxoatan be juten zin antxobiei antxoai buru kentzen-ta, niri neuri ez

gasten gertau izen, baiña han auzokuk-eta juten zin. Bai, diru apur bat eitteko eta erropak-eta eitteko-ta, antxoa denporan juten zin, bai juten zin.
- Zuen familidxe itsosora ez zan jun sekule? Portuko biherretan-edo?
- Ez. Bai semi, semi ibil zen, semik eitten eban estudidxau ta portun, portun kamionak kargau gero ta estudidxau ta horretan ibili zen. Mekaniko ibil zen estudidxetan eta horreta ibil zen bai, estudidxau be bai ta biharra be bai, bidxek.

6.6. Goizean goizetik, mezara eta egin beharretara

- **Hizlaria(k)**: Elu Arantzamendi, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-014/038
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:56:12. **Bukatu**: 00:59:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga, Leire
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Goizean goizetik joaten ziren mezara, eguna ondo aprobetxatzeko. Baraurik joaten ziren mezara. Domeketan ere beharra egin behar izaten zuten. Sei litro esne erosten zituen egunero plazan. Barazki asko zeudenean, askotan joaten ziren. Plaza berduran atzealdean egoten ziren arraina saltzen.

Transkripzioa
- Eta nahi dot esan mezata goixin lelengoko ordun gaiñea, lelengoko ordun.

- Seiretan?
- Seiretan eta domeketan be, seiretan egoten zan, baiñe zazpirak edo juten giñan. Gurin amak lelengotik... beti esaten eban gure amak "goixeko ordubete geixa da geroko hiru-lau ordu baiño". Goxeko orduai kentzi, ta egixe da hori e? egixe da.
- Eta zeba joaten ziñen hain goiz edo?
- Zemat ala zela?
- Zer dala ta? zeattik hain....
- Ba gurin amak orduai jugu atara bihar otsalako /atabitzan/ halako egunai, esan dotsut /esatsut/, goixeko ordubete lotan eon edo altzata eon...
- Baraurik ezta?
- E? Barau, jan baik. Gero armoza.
- Hirugarren batek: Zer eittea altzaten zinen?
- Mezata
- Laugarren batek: Zegaittik hain goiza meziattik?
- Bai, lehenengotik mezi entzun, gero plazaku ta gero biharrak eittea.
- Domeka aprobetxetan
- Ta domeki be biharrea gero, baiñe.... neure ohitturi.... famau nitxan neu mezata, on dana na lagata, baiñe gaztetaz mezata egunero be bai, Antiure be bai ta gero plazaku be neure respontsabilidadi zan. Ta klaro sei litro esne egunero, ta gero plaza... bakixu 12 lagun edo geguazen ta...
- Sei litro esne erosi?
- Egunero plazan. Bezeru, bezeru etorten zan eta bezeruai hartu. Da gero, ba amak esaten ostana/esatestana/, edo besti, edo porruk, edo gauzak edo hartu eta bera be famau zan juten, ta holaik sasoi, berdura sasoin ta /

sasoin dde/, hiru buelta da eitten eban /etxeban/ plaza. Honezkeo egongo di desiaten eoteko. Ta hirugarren, beatzi tterdixetan, hamarretan juten zan biharrik ez eukanin, eta ordun eitten otsan /etxetsan/: ala erun! harek be diru bihar eben /biben/ ta... aprobetxaten ta... holakoxe gauzak.
- Da zuek txalupatakoak izenda, ez zenduen eitten trukie arraiñe berdurakaittik edo arraiñe esniekattik edo?
- Ez,ez,ez,ez,ez. Ez da ni juten nitxan plaza anaxe bat gazti, ba nik zemat? hamabost-hamasei urte, hamalau edo, bai hamabost-hamase urteaz gaztiaua ibiltten zan ixikoneko txalopa baten, txikixin, egunero ibiltten zin bolintxin. Ta egunero ekarten eben /ekarteben/ bobak, txitxarru, berdelak... da etxea ekarten eban /ekarteban/. Ordun ni, hartu tabli ta harek arraiñak ta juten nitxan plaza. Plaza, plaza berduran, baserrittarrak dazen, atze partin eoten zin holanik saltzen. Eta etorten zan auazile beti kobratea, saldu baiño lehen. Lelengotik kobra behintzat harek, bai lelengotik kobratea, ta arrantxe hantxe pezeta bi edo hiru hartzen bazendun, ba amai entrega pozik. Ni akordaten na, fabrikatik be, kantsa eitten nitxan / etxenitxan/ orduntxe be asko, klaro gorputze be txikixe ta hori, baiñe ilusiñoi bat amai eruteko diru etxea! ilusiñoi! ta niaz batea ba gure anaxak eta be fabrikan, umetatik fabrikan. Gaurko modun ez da, gaur eskolan egixe esan estudixako dabe umik asko.
- Bai, baiña biximoduko gauzak ez.
- Ez diferente da. Gaur gexei be bai igual, e! Guk gitxiei geunkan, baiñe gaurkuk gexei.

6.7. Baserrian jateko faltarik ez, baina soberan ere ez

- **Hizlaria(k)**: Osa Etxebarria, Agurtza
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-044/020
- **Iraupena**: 0:02:21. **Hasi**: 00:27:44. **Bukatu**: 00:30:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Gerra garaian bera aita preso egon zen eta ama beste anai-arrebekin mugaz bestaldera joan zen, Frantzia aldera. Agurtza Ziortza-Bolibarreko familia baten etxean egon zen, betiere oso gustura. Ez zuten jateko askorik, baina bai nahikoa. Gogoan du behin arrautza frijitua erdibana jan zuela.

Transkripzioa
Ba, bueno, han be, ba... zazpi anaixa-arreba giñan. Okerrak giñan, umik giñalako. Zazpi anaixa-arreba, aittitte Anton ta amume Manuela, eta aitte Julian ta ama Bittori: 7,8,9...11 lagun batzen giñan familixan. Baiñe, ba, baserrixan, sekule ez zan ixetan falta. Ez euan... ez euan bir dan beste gauzaik baserrixan be, ze oilluk gogoratzen naz ez ebela eitten arrautzaik bir dan besteik, bana jateko be. Baiñe gogoratzen naz egun baten aiñik esan euskun /esaskun/: "Ia, ba, umiok, ba, gaur ba, arrautza gitxi dakauz ba, baiñe erdiz bana jango dou". Eta arrautza prijiu bat —gogoratzen naz ondion— nire “hermana de leche” esango gendukena, ha be Miren da ta, nire “hermana de leche”k eta nik arrautza erdi bana jan gendun. Gero egoten zan, ba, labako sue eitten zan. Munittibarrea juten giñan,

Munittibarrea honek e… garixaz ta artuaz urune eitteko. Artu etxin eitten zan, labako sue etxin eitten zan. Guk laguntzen geuntsan añiai, baiñe ez ixen truke be. Ez ez genduleko nahi eiñ, zeozen truke eitten gendun. Eta gure truki zan, labako sue eiñ eran, opiltxuk, masa sobrantikin opiltxuk eiñ eta harek umintzako, guk emon geuntsan laguntziaz. Eta oso pozik. Ta gero pillo bat sagar hartu, laba berta bota, erre... jateko faltaik ez euan. On, arrautzin hori anekdotioi hortxe geldittu zan, arrautza erdi bana be gerta gazkunela jati baserrixan egonarren.

6.8. Zazpi ume baserrian, giro ezin hobean

- **Hizlaria(k)**: Osa Etxebarria, Agurtza
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-044/021
- **Iraupena**: 0:04:44. **Hasi**: 00:30:05. **Bukatu**: 00:34:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- **Laburpena**: Gerra garaian etxekoak preso edo erbestean izan zituen. Agurtza Ziortza-Bolibarreko familia baten etxean egon zen, betiere oso gustura. Etxe hartan arrosarioa errezatzea nahitaezkoa zen. Beheko suko eltzean prestatzen zuten jatekoa. Zazpi ume bizi ziren eta ez ziren geldi egotekoak. Hala ere, sekula etxe hartan ez zuten ikusi aurpegi ilun bat, ez zuen entzun berba baztergarririk, dena zen bakea.

Transkripzioa
Eta bestelan, ba, umik giñan eta okerrak giñan. Eta nire aiñik gabero erresaixu erreza bir ixaten eban. Baiñe 7 ume geuazen han! Eta afaixe eitten euan, eta aitte Julian euan ba behixai jaten emoten e… bedarra asketan ipintxen edo azpigarrixak eitten edo... Ba gixona ba beran biharrak, eta aiñi ba beranin. Eta hor, ba, errosaixu euanin ba danok sukaldin. Danok sukaldin ta nire aiñik, ba, "Agur Marixe" eta "Agur Marixe" eta "Agur Marixe" eta gerotxua be "Agur Marixe". Eta aitte Julianek esaten otsan: “Ia, ba, Bittori, ba, oiñezkeo ez dakit ba zenbat Agur Mari errezau dozuzen” esaten otsan. Eta eske… Eta gero konturatzen naz eta on barre eitten dot, baiñe esaten dot: "eske zer ein biher eban /biban/ nire aiñik 7 seme-alaban aurrin?" Eta holan ez giñan egoten, klaro! Lorrintzen bata bestiai, tengadaka, tikadaka, eta bera koittaue, ba, hantxe. Beheko suan ha, sutako eltza deitzen gako burdiña horrei? Han galdaia bat ipiñi, galdaia bete, ahixe eiñ... eta dana euan biharrena! Eta ordun beheko suantzako trongilak, ba, hauxe tamañokuk, handitxuauak be bai, aittittai burle eitten geuntsanin, Anton gakon ixena eta gure burli ixaten zan: “Anton kekin, pirulero exexin”. Gaur be ez dakit zer nahi daben esan. Egixe da! Baiñe umiok danok “a viva voz” eguerdi ostekua eittea juten zanin, “Anton kekin pirulero exexin”. Eta beheko gelan eitten eban aittittak lo, eta beheko geli euan, ba, haurtxe leixu eta gu hamen, eta hala “Anton kekin pirulero exexin”. Eta gizaju eitten zan aittitte, ba, beran arrebiai keja, aiñiai:“Gaur be honek umiok ez doste ba itxi lorik eitten ta hori te besti te…” Eta aiñik eitten oskun gero gabaz billurtute juteko ta: "Miren, sartu zeu lehenengo", “Agurtza, zeu lehenengo” eta ba holan ibiltxen giñan, "zeu lehenengo", "zeu lehenengo". Eta aiñik ikusten giñuzenin sartzen, ba, trongil

txikitxuenak botaten oskuzen bernetan zir, baiñe ez joteko asmun! Truku hartu geuntsan: guk salto eitten gendun eta hainkapetik pasaten gazkuzen geure egur zatixak. Ya truku hartu geuntsanin ez euan zereiñik. “Beste zeozer pentsa bir dot ba”, gure aiñik, “Honek umiok ba zelan domako dittuaz ba nik?” eta bale “neuk errezaten dot gabaz errezaixu, burle eitten dosten bakoitxin eurak erreza biko dabe, lantzin batek”. Hantxe ikasi neban errezaixu errezaten zigorran behian, bai, hantxe ikasi neban.
Baiñe zemat anekdota politt, baiñe sekule etxe haretan ez neban ikusi arpei illun batik, ez neban entzun sekule: “Zu ez za hamengu” esaten. Dana zan baki. Gu okerrak giñan, baiñe eurak ekixen eruten gure oker... umin okertasune. Baiñe nik sekule ez dot ikusi han etxin ikusi bir ez zanik. Ixebez. “Para nada”. Labako sue ein biher zanin, aiñik be, masi eitteko artazi honarteku, holako honeaz...

7. Aisia

7.1. Anaia, "Santa Ana" zestalaria

- **Hizlaria(k)**: Arrizabalaga Alegria, Tere
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-010/013
- **Iraupena**: 0:03:17. **Hasi**: 00:14:23. **Bukatu**: 00:17:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga, Aitor
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena**: Bere anaia zestalari profesionala izan zen, "Santa Ana" izena erabiltzen zuen, jaiotetxekoa. Argoitia izan zuen irakasle. Kirol garestia zen, baina handik eta hemendik lortzen zuten beharrezkoa. Arropak Terek josten zizkion. Bere senarraren anaia era pilotaria zen.

Transkripzioa
- “Santa Ana” pelotari oseake. Ixena “Santa ana” de hecho, etxian ixena ipiñi otsen. Eta urteten dau ordenadorin, esan ostan /esastan/ lehengusiñik urteten dabela, zerin, ze ixeten da hori? ordenadorin, baiñe... hamen ez dakau on, Interneten urteten dabela.
-Zela hasi zan zure nebia pelotan? ze hasi zan pelotan umetan zure nebie?
-Ez, ume-umetan be ez zan hasi, gerotxua hasi zan. Ta ondo, osake gorputz ona eukela ta ikesi leikela, aitte be enpeiñau ein zen. Markiña juten zan Argoitiana eta baietz, ein leikela, pelotaixe ixan leikela ta segiuteko, eta halantxeik ba segidu. Baiñe ha gazte-gaztetaik nahi dotsut esan ez zan, nahi dotsut /nahitsut/ esan, ha afiziñoi ez eukan. Bera bera izengo zan berez izen bazan, mekaniku edo pilotu edo halako gauza, osake zera izengo zan.
- Argoitiagaz ikasi ban?
- Argoitia zan, zera, entrenadori.
- Eta ze ibiltzen zan ba, parejaka olgetan edo bakarrik edo?
- Kineletan jokatzen dabe zerin Ameriketan, baiñe gero parejan. Baiñe kinieletan irabazten dau horrek gehixen bat, dirurik gehixen kinielatan irabazten dabe.
- Zure etxin eon zan diroik zestak erosteko edo baten batek emoten otson ?
- Bai eoten zan eta ez pentsau, kostaten zan koastaten zan ajentzixati ordun. Pentsa, handik eta bera ein arte apur bet, bai.

- Karue da-
- Bai, gero ta karua, nik pentsaten dot. Erropak be neuk josten neutzazen, baiñe behintzat ein gentsan ahalegiñe.
- Zapatillak be emon eitten otsezan ala?
- Ez, ez, erosittakuk zapatillak-eta.
- Zuek parakien jente asko ibiltxen zan zestan, ezta?
- Bai, Berritxun-ta. On be famauek daz Berritxun. Bereziartua-edo ez dai zein dan famaue da, ontsungun be periodikuk ekarri ban. Eta ostabe da kanpeonatu pentsaten dot Jai Alain, Biolbon dauela pentsetan dot kanpeonatu. Eta gero beste bat, familixan zan nire gixonan anaxi pelotarixe eta ha bai, gazte-gaztetatik hasittaku zan, ha be pelotarixe, Aranbarri pelotarixe. “El Cuervo” esaten otsien Markiñen, Markiñako mota bat da hori eta Deba ezkondu zan “Txapaztanekuaz” eta hil zen bera , iez hil zen bera. Ni baño hiru hilebete zaharra. Bai hil zen bera.

7.2. Kofradian arrantza-museo egiteko proiektua bertan behera gelditu

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Malaxetxebarria, Jesus; Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-011/010
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:14:09. **Bukatu**: 00:16:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Rico Azpiazu, Aitor
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia
- **Laburpena**: Egon zen duela urte batzuk Kofradia Zaharra arrantza-museo egiteko proiektua, baina udaletxe aldaketa gertatu zen eta bertan behera geratu zen. Salmenta-lekua oso berezia zen. Su eman zioten duela hamabost bat urte; guardia zibilek, agian, hormetan agertu ziren pintadetatik ondoriozta zitekeenez.

Transkripzioa
- Patxi: Ez, ba ezta, nahi zan ipini on dala ba hamar bat urte ta hor ibili zin museo bat, arrantzako museo bihurtzeko hau kofrai zaharra, politte da bera ta, bai kanpotik eta bai barrutik. Eta gerokun politikan, alderdi politiku aldatu ein zanin, hauteskunditan, ba ordun harek, lehen ezker abertzali euanin nahi zan hori eta gero PNV jarte zanin, beti lez Ondarrun, haren gauzi [aztarre] guzti desagertzi nahi dau, eta ein ban desagertu hori. Eta on ba, on dala ontsutik da ba, egokittute da ta hitzaldixak eta eoten diz hor, baiñe museoik ez, horretteattik.
- Jesus: Peni ixan dala, hori bolin salmentine politte euan bertan, eta beste leko baten euan justo bakarrik beran moukoxi eta su hartu.
- Patxi: Ez Mutrikun da benti eitten dabena berak, kofraixan, lelengoko solairun, dakaz ba hauxe ezta solairu, ta bueltan, bueltan zirkulun jarrilekuk euran bolak hori eitteko ta sistemi saltzeko, eta holakoik ez da Euskal Herri guztin eta Kantabriko guztin be holako kofradirik ez da. Bakarrik da Hondarrabixan, eta honen aldin txikixe. Ta Mutrikun beste bat, baiñe honen aldin zortzi jarrileko edo dakaz bakarrik, eta honek berrogeta hamar eukazen.
- Jesus: Sue, sue hasi zanin ba...
- Patxi: A eta gau baten, goxaldea, gu ordun kanpun geuazen insersoaz

andriaz, eta sue hartu ban, eta su hartu ban eta teillatu be barriztute euan ordurako, eta eon zan dana, barru kixkaltzen kixkaltzen, teillatu erramenta kixkaltzen eta dana kixkaldute geatu zan. Eta gero, gu hortik hiru eunea Ondarrure alla giñan, eta ikustea junde, Berdura plazi dakar hamendik aldetik, ta han euazen beran, kofraxan azpixan, nik argazkixe be etxin baakat eta, pintadak euazen “Somos de la Guardia Civil. Eta hau hasieri besteik ezta. Guk hurrengoko baten herri guzti erreko dou.“
Holakoxe berbak euazen.
- Eta hori noz?
- Jesus: Denpora gitxi. Ontsu.
- Patxi: Ba on dala hamabi urte, hamabost urte.

7.3. Baxuran soldadutza arte, gero arrastrean

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Malaxetxebarria, Jesus; Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-011/019
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:23:38. **Bukatu**: 00:25:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
  Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
- **Laburpena**: Gaztetan baxuran ibili ohi ziren soldadutzara joan arte. Jesusek dio oso lan txarra zela arrastrea. Hogei urterekin joaten ziren soldadu, Marinara, kostakoak izateagatik, lehorrekoak baino urtebete lehenago.

Transkripzioa
- Patxi: Lelengoko urtik ein doguz bajuran. Bajuran esaten gako ba portutik hurrin ibiltxen dizenai, antxoi ta atune ta horretxek.
- Jesus: Arrain txikixak dazen morukoxik hamen, gu, handixak gitxi euazen, Tobaneku eta hiru lau euazen bakarrik hamen.
- Patxi: Eta gero beste sistemi euan ba arrastea, arrastin eitxen eben txalopak handixauak, sari ordun arrastaka eruten (e)ben.
- Jesus: Zirezko erropak be eskasak euazen ordun. Zer zan? “aceite lineza”z einddakuk, peaten zinak-eta.
- Patxi: Zirezko erropak ixaten zin.
- Jesus: Ordun itsosun ibiltxi, bueno ni baiño arrastan gehixa ibili danik Ondarrun ez da nire edadekoik, ni “en el año”. berrogeta zazpixan jun nitxan itsosa, en ” el año cuarenta y siete” arrastea, handik eta jubila artin berrogeta piku urte itxosan arrastin egin dotxuaz nik hamen. On itxosun ibiltxi arrastan glorixe da ordun aldin, Manuel Etxeberria baten ta…
- Beti arrastran ibili za orduen, beti arrastran?
- Patxi: Arrastean.
- Jesus: Txikitxaz lehelengo lau urtin oo ibili nitxan bajuran, baiñe gero arrastran hasi nitxanin ya…
- Patxi: Gaztetan normala zan ba ibiltxi hortxe bajuran ibiltxi hor, ez? bajuran ibiltxi. Eta gitxi bat gorabehera soldautza arte edo ez. Ze soldautzako beti eukitxen gendun konpromisu, ba behartute geuazen soldautza hogei urteaz juti, ezta ba? Arrantzalik izaneran itsosukuk izaneran, Marina juten giñan soldautza eta lehorrea, baiño urtebete lehenaua juten giñan soldautza. Ordun, hemeretzi urte betetzen gendun urtin, kajan sartzen giñan hori da aseguraten gatxuen ba soldautzako, eta

ez giñan apartea bakaillauta eta apartea extranjexa eta iñoa jun. Eta gerokun sorteu eitxen eben ta ba, ba hor hogei beteten gendun urtin juten giñan, lau reenplaso eoten giñan eta lelengokun, bigarrenin, hirugarrenin, laugarrenin, ba soldautza juten giñan. Ta asko arrastea ezin juten soldautzi ein arte. Gero soldautzi einddakun ba neu be orduntxe jun nitxan arrastea eta hau be bai, igual lehentxua be bai..
- Jesus: Hemeretzi barik hogeigarren urti pasata jun nitzan. Zeatxik? Gerta zalako ordun fetxi euan niri urten dostanin /urtestanin/ hogeta beatzi eguneako, martxo bi.
- Patxi: Soldadutzara joateko.
- Jesus: Baiñe bolik urten eban, esan dogun modun [...], hogeta hamarrak urten eban bolik, hogetamarretik “a partir de treinta marzo, atrás” hareek zin lelenguk, baiñe gu azkanak giñanez, jun gian hogei urte pasata soldautza, baiñe etorri buelta eindde gero ixe hogeta hiru urteaz urte bi pasau eindde.

7.4. Ondarroan gosea sasoiko gizonak alde eginda zeudelako

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Malaxetxebarria, Jesus; Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-011/023
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:28:15. **Bukatu**: 00:29:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kultura
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Gerra irten zenean, Ondarroako gizon askok ihes egin zuen Bizkai mendebaldera beren arrantza-ontziekin. Beste asko gerrara soldadu. Jesus ia-ia Errusiara bidali zuten. Lanerako gizonik ez egoteak eragin zuen gerra denborako gosea herrian.

Transkripzioa
- Patxi: Gerrik urten ebanin, Gerra Zibille zanetik, ba ordun alde batekuk, idea politukun alde batekuk, ba lehenengo hamen euazen errepublikan aldekuk, ta Francon aldekuk, ba Nafarrun altxa zin hamen ta Nafarrun aurretik antolatute euazenetik gerra aurretik, ba ordun hareek hotzin hartun eben, egun bixin hartu ben Nafarroa guzti eta segixan Gipuzkun sartu zin eta hiru egunin Gipuzku guzti hiru bat astin hartun eben eta sartu zin honaxe. Ta ordun honeek hona sartu eran, billurraz hamengo gixonak batez be ein eben alde hemendik txalopetan ein eben itxasoz alde hemendik ba Bizkaxan zir eta...
- Jesus: Nire emazti ta be, izandaku, ni alargun na on, baiñe jun zin Iparraldetik
- Patxi: Bizkaixan zir alde ein eben eta Lekatxon eta Plentzin ta horretan eta Bilbon-ta eon zin
- Jesus: Gu, gu aitxe eta gorrixak euazelez ez giñan Rusire jun "por misericordia", bestelan Rusire gixuzen gu talde bat apuntatea gixuzen, gu be Rusire juteko.
- Patxi: Eta hamen hor, denpora hortan holanik hamen aitxak alogera eruteko etxea, ba sustentu eruteko, ba ez euazen aitxak, ez euazen, ez euazen, itxosun eta gero gerran. Gaztik, sasoikuk zinak, gerra! Boluntaixo ez ba zin juten behartute eruten zitxuen eta nausixauak zinak gerrako sasoire ez zinak aillaten, ba hamazortzi urtetik hogeta hamasei urtea edo,

edo berrrogeta laure-edo kinttada horta ez zinak aillaten, ba hareek billurraz eskapa, ze eitxen dotsen ba hartu ta kartzela ta horreek gauzok.
- Jesus: Trabajadorieta gero!
- Patxi: Eta hoixe zan hamen euana gosi, gerra denporako gosi.
- Jesus: Situaziñoi eskasa, eskasa.
- Baiñe portun be gosi?
- Patxi: Arrantzan ezin ibili, txalopak alde eindde eguazen hamendik, txalopak alde eindde euazen eta ezin ibili
- Jesus: Gerri hamengu amatxute gero ee ez eben lagaten, sumarinuk eta eoten zin arrastea juteko juten giñanin.

7.5. Erromeria, musika banda eta dantza-eskea

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Malaxetxebarria, Jesus; Etxaburu Ajarrista, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-012/001
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
  Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena**: Igandetan musika bandak jo ohi zuen Ondarroan. Negu partean arratsaldetan jotzen zuen. Udan, berriz, afalostean. Hiru musika pieza jo eta atsedenaldia izaten zen; guztira, bederatzi musika pieza izaten ziren. Neskak dantzara joan ohi ziren, eta mutil gehienak tabernarik taberna "txikiteoan" ibili ohi ziren. Emakumeak tabernara joatea eta zigarroa erretzea gaizki ikusia zegoen. Dantza eskeko kontuak aipatzen dituzte.

Transkripzioa
- Erromerixek-eta Garizuman-eta zelakoak izaten zien eta. Baiñe zuek, holan, gaztetan, urtetan ziñienien...?
- Jesus: Dana itxitte baeuan, dana itxitte baeuan, ez baeuan ixe...!
- Ez, baiña Andramaixetan eta...
- J.: Ixe be ez! Bueltan ibili bakarrik hantxe buelta-bueltaka...
- Patxi: Ez, baiñe hori Garizuman zan, baiñe Garizumatik kanpoa urtin zihar...
- J.: Beatzi... beatzi...beatzi pieza joten eben Ondarruko bandan.
- Baiñe zelan izeten zan hori?
- J.: Domeketan.
- Bandie egoten zan eta zuek han dantzan?
- P.: Hori ixaten zan, bandi eoten zan, ba, negun joten eban arratsaldin, ta udan afaldu ta gero hasten zan [gaberdira]... haimaike ta erdixak arte.
- J.: Beatzi pieza.
- P.: Alde bakotxin hiru pieza.
- J.: Hiru pieza.
- P.: Hiru ta hiru ta hiru.
- J.: Pasadobliaz hasi ta tangu edo...
- P.: Normalin, normalin...
- J.: Ordu erdi bat-edo geldittu eta gero beste hiru.
- P.: Bai. Normalin, berak esaten dabena da, ba, erantzune da: neskak juten zin horra, baltsiuan eittea. Mutillak hamen, tabernaik taberna, txikitu ardau eratea. Gehixena hoixe zan.

- J.: Edo tente atzin.
- P.: Ta hara juten zin mutillak, gitxi juten zin, juten zin baiñe gitxi; neskak gehixaua, neskak asko. Mutillak tabernaa.
- Bai, baiñe neskak ez zilako tabernara juten.
- P.: Horixe.
- J.: Karooo!
- P.: Ordun iñor be ez, uuuu_!
- J.: Eneee, ziarru erreten [...] malas, muy malas.
- P.: Errefreskoik be ez, kafesneik be ez! [...]
- J.: "Lo tienes claro!" Ziarru on erreten dan moure ta? txotxo, noa? infreiñure [bueltan hori], pekato mortala! On ez da pekato mortalik, baiñe lehen [...].
- P.: Taberna jungo bazan iñor, [ha lagun txarra] da.
- J.: Baaai, [ha....]. Ha...
- Eta zuek gero joango ziñien ba neskatan.
- P.: Bai, juten giñan.
- J.: Bai, ba, plazan dantzan euala, ba, arrima eitten ziñan; mutil bi [jun haretxengana] ta ["eingo dou?"] ta "ez", ta buelta.
- P.: Gehixenak kalabazak emoten oskun /emotezkun/, e. Ba juten giñan, ezta? ta...
- J.: Eurak be ilusiñoi ba "fulanito etorri da" ta "han da" ta "ha pelmi ontxe dator" eta "gehixei arrimaten da gaiñea hori" ta... Hori zantarra da, gaiñea, hori, [...] arrimaten hori. [...] halan agarra eta, holantxenik neski, hamentxe ipini ta hartu... Eeez, gestu eitteko ba... aaa.
- Bai, bai, baiñe honek [...].
- P.: Ez dau hartzen, ez dau hartzen, alde eitten dozu /etxezu/ estazinoittik eta.

7.6. Hondartzan udatiarrak

- **Hizlaria(k)**: Elu Arantzamendi, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-015/004
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:05:59. **Bukatu**: 00:07:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- **Laburpena**: Hondartzara aberatsak joaten ziren, udatiarrak. Ezkondu eta gero, umeekin asko joaten ziren. Hondartzara ez baina moilan igerian ibiltzen zen umetan eta gaztetan.

Transkripzioa
- ... hondartzara joaten ziñela ta.
- Bai.
- Baiñe gazte-gaztetan joaten ziñien?
- Gitxi.
- Plaire ez?
- Ni? Ez. Ni plai handire... Aberatsak juten zin. Gure lagunak-eta be juten zin batzuk, baiña ni neu ez na...
- Ta aberatsak, nortzuk zin ba aberatsak?
- Beraniantik etorten zinak. Bai, eudan kaxetak eta eudan gauzak eukitten eben /eukitxeben/ ta eudantzako zin harek. Ta gu, ba, ni gitxi gaztetaz plaire. Gero bai, gero ezkondu ta honek txikixak zile. Gero ez zeuazen

beraniantik eta, e? horrek kendu zin, kaxetak eta beraniantik desapareziu zin. Ta gero geu. Tolduaz-ta eoten giñan. Horixe, eun guztirako, e! honek disfrutaten eben uda guztin.
- Ta ze traje de baño jartzen zendun?
- A bai, traje de baño normala. Ordun ezkondute ba, ba bai. E?
- Ya irakutsi ahañ zan
- E?
- Ya irakutsi ahal zala zeozer.
- Bai, bai, traje de bañukin, hoixe. Bai. Bat edo bi eta umik be bai bai.
- Ta bestela zu gazti ziñanin edo holan...?
- Ez, ez. Ez. Ni akordaten na moilan-ta bai itten gendun igai. Moilan e... erakutsi be ein eustan /eistan/osaba batek: sokiaz amarra, kortxuk ipini hamen ta bera moila gaiñetik ta ni hegalin. Halantxenik ikasi be ein neban! Moillan. Eta baitte hor barran ama ta sari konpontzen eoten zinin, ni umi nintxanin, beti amaaz-ta hortxe neuan beti ondun. Eskolatik urten ta haraxe. Eta pantaloikin akordaten na, pantaloi hutsik juten nitxan arlanpan bera igaide be, asike umi ixan biher nitxan /binitxan/. Ia komuniñoi ein nebanin be ama etxin euki gendun bazkaixe eta biharrera jun zan arratsaldin sari konpontzea. Ta neu hantxe, txintxirrikan ta sari konpontzen, aman ondun, aingero zuri jantzitte. Zelaik zin gauzak.
- Bai, bai, komuniño egunin be...
- Bai

7.7. Neskekin harremanik ez; dantzan ikasten

- **Hizlaria(k)**: Arantzamendi Mugartegi, Juanito
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-027/010
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:16:12. **Bukatu**: 00:17:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kultura » Dantza
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Mutilek elkarrekin jolasten zuten. Neskak dantzan aritzen ziren. Ez zuten hartu-emanik izaten. Club Deportibon zegoen maisu baten ezpata-dantza irakatsi zien denei. Nesken eskolara beraiek ikasitako ejerzizioak erakustera joaten zen.

Transkripzioa
- Ta beti mutillan artien, ez?
- Bai hor e deportie bai neskak ez eben ez..neskak dantzan-ta eitten eben. Bai.
-Ta zuek dantzan ez zenduen eitten, ala?
- Ez. Ba dantzan eitten gendun ba soltie, baiñe geu geu gizonezkuk bakarrik.
-Ta ordun, neskakaz ze hartu-emon eukitxen zenduen?
- Ezebez. Etorri zan maixo bat eta club polideportibun dantzari bat euen da hareaz ein eban amistade bixkat, ta harek hartu eban esku eta erakutsi oskun danoi ezpata dantzi eitten ta hantxe be gexen mutillak neskarik ez zan apuntetan. Eta nesken eskola han San Inazio kalin nesken eskolan ba ejerzixuk-eta, holan eskuk eta gora eta behera-eta. Neu bialdu niñun hamengo eskolatik haraxe: “Zeuk dakizune erakusten”. Maxan gañin jarri eta erakutsi haixe, ikusten dozu honek mutikok honek badaki eta zuk ikasi

ein bihar dozu /enbiozu/ ta neskei horixe esan eta bueno. Hala be neskak be erdera gitxi ekixen.
- Danak antzeran?
- Bai.

7.8. Kanpotarrei etxea alokatu eta bitartean ganbaran bizi

- **Hizlaria(k)**: Amutxastegi Aspiazu, Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-035/020
- **Iraupena**: 0:00:28. **Hasi**: 00:24:42. **Bukatu**: 00:25:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
  Aisia » Oporrak
- **Laburpena**: Bere akorduan Veganekoa zen Ondarroako hotel bakarra, baina kanpotarrak etxe partikularretara etortzen ziren. Kanpotarrei etxea alokatu eta eurak ganbaran egiten zuten bizimodua.

Transkripzioa
Ondarrure lehena etorten zin kanpotarrak, bilbotarrak-eta, beraniantik etorten zin. Etorten zin beraniantik. Hotel bakarra Ondarrun, nire akordoz, Veganeku, baiñe etorten zin... Jente bat eguan, etxik udan eitten ebenak alkila ta eurak igual harei hilabeteako-edo diru bat atateko emon, ta eurak igual eitten eben biximodu ganbaran. Ulertzen dozu /ulertzezu/? Ahal dan modun, haxe diru bat atateko edo, bai.

7.9. Zineko zentsuraren koloreak

- **Hizlaria(k)**: Amutxastegi Aspiazu, Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-035/022
- **Iraupena**: 0:00:31. **Hasi**: 00:25:19. **Bukatu**: 00:25:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kultura » Zinema
- **Laburpena**: Domeketan batzuetan zinera joaten ziren, baina lehenengo zentsurari begiratu behar: zuria publiko guztiarentzat, arrosa nagusientzat eta beltza inorentzat ez.

Transkripzioa
Zinea jun, ordu bi´tterdixetan, zinea jun. Lehelengo zentsuriai beatu, ze zentsuri eoten zan. Bat eoten zan ”para todos los públicos” zurixe, besti eoten zan “para mayores”, ta besti... rosa “para mayores”, ta besti eoten zan “mayores y con reparos”, ta besti “negra, nadie”. Ta lehelengo zentsuriai beatu ia jun geinken, ze “negra” edo “rosa” edo bazan porteruk eztoskun lagaten sartzen. Ta holakoxe kontuk.

7.10. Abuztuaren 17an Arrantzale Eguna

- **Hizlaria(k)**: Balenziaga Osa, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-037/006
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:10:54. **Bukatu**: 00:13:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena**: Aurrera kirol klubeko presidentea zela, 1957an bururatu zitzaion udalari proposatzea abuztuaren 17a jai izendatzeko.

Transkripzioa
- Ta hori pasa zan. Bueno, baiñe hori baiño aurrerauaku zan nire asmaziñoia hillan hamazazpiku. Ixan nitxan “presidente del Club Deportivo Aurrera”, en el cuarenta y seis, en el cuarenta y seis. Bai, hotasei urteaz, “nací en el treinta y uno”, hotasei urteaz eon nitxan presidente. Orduen, ba, pentsata bastante urrin euskal jaxak baeuazela ta Ondarrun lehena San Pedro egunien eitten zan jaxe, ta gero gitxi eitten ziela ta, ba, zeoze asma bihir zendun. Ta, ordun, ba, asma neban neuk, Club Deportivoko presidenti nitxanin, ayuntamienture espresati nahi gendule hillan hamazazpixe ipini Día del arrantzale, ta jaixe ixati, gaiñera. Ta ordun erun gendun proposamena ayuntamienture, ta retxaza ein eben / eiben/, karu zala ta. Eta karu zan ordun “doce mil seiscientas veinti tantos” edo hoxe diruoi zan. Baiñe hain gauzaz eta ondo ipinitte geunkan jaixe, ostea be abisa ostan /abisastan/ esaten baietz, proposamena baietzin dala, ta eitteko. Ta ein gendun Día del arrantzale, eta hortixeik da Día del arrantzale.
- Ta hori be cuarenta y seisien?
- Bai. Ez, cuarenta y seisin ez. Txarto esan dotsut /esatzut/ cuarenta y seiseku, joder. Hori cincuenta y sieten zan. Lehenengoko Arrantzale Egune cincuenta y sieten.

7.11. Ondarroako antzarak

- **Hizlaria(k)**: Balenziaga Osa, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-037/007
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:13:19. **Bukatu**: 00:15:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena**: Abuztuaren 15ean edo 16an, marearen arabera, antzarak egoten ziren Ondarroan; mozorrotu egiten ziren lagunak egun horretan. Behin berak diseinatutako zakuzko soinekoekin.

Transkripzioa
- Cincuentaisieten aurretik, egoten zin antzarrak Ondarrun, hillan hamabostin ama birjiñin egunin be bai eta hillan hamaseixan be bai. Mari zelan euan: mari goixan baeuan, egun baten edo bestien, orduntxe

eitten zin, arrantzale egunin. Guk arrantzale egunin eitten gendun disfrazata urten. Han da argazki bat, disfraza, e… bueno, nahi dan beste dakaaz, baiñe etxin dakaaz, hamentxe dakaaz beste bat, polit batzuk... [...] Altza, altza zeu.
- Bai, Han, e...?
- Horretxen azpixan. "Vestido saco", ez za akordatzen? Zu ez.
- Ez.
- Ikusten dozu /ikustezu/, ni hamen, de frac.
- A, hau eskiñakoa zara zu?
- Bai.
- Elegante, bai. Eta hau da arrantzale egunekoa?
- Hori ez, hori da antzarran... antzarrak eitten zin /etxezin/ egunekue, ez dakitt /eztaitx/ hillan hamaseiku edo hamabosteku. Hori neure kuadrilli da. Ta euan momento baten andrazkune, "vestido saco". Ta ordun nik pentsa neban, ba, zakozko erropak eittie, y como me, y como me apellido Valenciaga, y Valenciaga es un gran modisto de la vida Española, del mundo... Getaixan dakar museu ta. Ta, bueno, ba, hortixeik atatakuk zin horrek gure jantzixak eta horrek gauzok. Urtetzen gendun barko baten, barku be jantzitte, ta jaixe ixaten zan.

7.12. Mutrikura jaietara joatearren zigortuta

- **Hizlaria(k)**: Zubikarai Larreategi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Bengoetxea, Maialen
- **Erref**: OND-041/005
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:06:10. **Bukatu**: 00:07:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Behin bi lagun Mutrikura joan ziren oinez, jaietara. Zezenak ikusteko ordaindu egin behar zen eta ez zieten utzi sartzen. Iluntzean berriz oinez itzuli behar- Etxean errieta egin zieten, eta zigortu, gainera. Udara zen eta ezin joan dantzara.

Transkripzioa
- Beste baten jun giñan Mutrikure, Mari Tere eta neu.
- Mutrikure?
- Mutrikuko jaixeta, oiñez. Zemat urte eukiko genduzen ba?
- Mutrikure arte oiñez?
- Ordun oiñez asko eitten zan, autobuseako diroik ez baeuan. Jun giñan Mutrikure Mari Tere eta neu, eta ez doskun lagundu Rosariok bez ta Marilok bez, ez doskun lagundu. Jun giñan bixok. Ala! Jaboiaz gogortu patillak atzerutz eta Murikure jaixeta. Jun giñan zezenak ikustea eta, klaro, paga ein bihir zan entradi eta ez doskuen laga sartzen. Ez geunkan diroik. Ta gero hantxe, ein genduan han Mutrikutik buelta bat edo beste eta iluntzin etxea. Ia, etxea etorri bihir giñan, ta ostera be oiñez etxea. Bixok astebete…
- Ta Kamiñazpira arte.
- E! Aste beteko hori emon oskun /emoskun/ kastigu etxin, neuri be bai ta berai be bai. Lelengo palizi emon oskuen /emoskuen/ Mutrikure jun

giñalako eta gero astebetin. Ta klaro, udi zanetik, Madalenak ixaten di ta, udi zanetik, ba, domekan be baltsiure ezin jun ta eguenin be ez. Hori e... hori zan, kastigo handixe zan, egun bixin baltsiure ezin jun. Astebetin bixok kastigata. Ta on berau Donostin bixi da Mari Tere ta alkarrei kontaten hasten gazenin “akordaten za guk eitten... guri pasaten gazkuzenak?”. Holantxik zan mundu, diferente, diferente-diferenti.</p>

8. Ekonomia eta industria

8.1. Umeak izatearren bajarik ez

- **Hizlaria(k)**: Elu Arantzamendi, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-015/013
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:18:52. **Bukatu**: 00:20:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- **Laburpena**: Umeak izandakoan, ez zuen bajarik izan. Senarrak, itsasotik etorritakoan, kamioiak kargatzen lan egiten zuen, etxera arraina eta dirua eramateko. Kontxitaren ahizpak lagundu zien umeak zaintzen.

Transkripzioa
- Umiek eukitteran zuk bajarik edo ezer eukitzen zendun?
- Zelaik eukiko gendun? ez geunkan ixebe ta, seguroik eta ixebez ta!
- Ta, orduen, zer kobraten zendun?
- Ixebez, ez banu biharrea ez da eta bazuz biharrea, bai. Ixebez! Ta gixona, hau, itsosun sartu zan honek jaixo zinin. Ta itsosun be gero ez gazkun gerta, baiña bueno. Ta itsosun. Ta gero paraten zinin negun, ez zeuan ixer, ez zeuan paroik be, ez zeben kobraten. Gero hasi zin paruku te hori, baiña ordun ixebez. Ta ordun ze eitten eban /etxeban/ hiru ume geunkanetik? Barraa, kamionak kargatea jun. Itxos... Negun, karga-deskargan. Ta arraiñe ekarten eban, ta diru. Ni sari konpontzea be ezin nitxan, txikixa neukan artin. Grazixak aizti gazti, ama ta, amaz-ta bixi zan, baiñe honaxe etorri zan, ikusirik... Harek asko lagundu ostan, Kanadaa jun arte.
- Senarra: [...]
- Bai ta berdurak eta gauzak eta be bai, ta baserrire be juten ziñan laguntzea ta handik be asko bajaten zendun gauzak...

8.2. Seguruak botikak ordaintzea

- **Hizlaria(k)**: Arrantza Ondarroan 3
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ondarroako Historia Zaleak
- **Erref**: OND-025/003
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:04:33. **Bukatu**: 00:05:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Kontrabandoa

Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

- **Laburpena**: Oroitzen dute nola gurasoak, autonomoak zirela, seguru bat ordaintzen hasi eta botikak ordaindu behar ez izatea berrikuntza handia izan zela.

Transkripzioa
- Gurin amai, gurin amai, klaro, 83 urteaz hil zan, eta gurin amai aillega gakon. Eta nik zemat bidar beti berai "aume, on ze esaten dozu /esatezu?" eta “ene txikiñe”. Eta berantzako, klaro, beran gaixuaz ta beti [biher eban / biban/] gero ta gero boltsak-eta be urteten hasi zin eta boltsak oso karuk. Eta hori
berai jun, medikuana jun, errezeti ein eta jun botika eta hoixe paga baik berai emoti gauzak, beran hilleku baiño, nik pentsaten dot, hillero kobraten ebana baiño horretxek berantzako...
- [...] diru asko zan ordun, ezta?
- [Dirua]. Hoixe zan berantzako... Esaten eban “eske hau da...”. Beran bizitza guztin botikak pagaten egondako personi, klaro, "Hau, hau eukitxi...", berantzako zan... ez dakit ba /eztaipa/.
- [...]
- Baiñe hori gurin amai gerta gakon, toka gakon.
- [...] lihorreku zan ta.
- Gurin aitte, bai gurin aitte hargiñe, lihorreku. Gurin aitte egon zan denpora baten Etxebarriaz, denpora txiki baten Etxebarriaz biharra eindde, baiñe bestelaik beran bizitxa autonomu beti. Eta horretxeaittik. Ze, klaro, hori... Eta berantzako zan haxe: botika jun, berak errezetak erun medikuandik eta berai eitti. Ta ba besteik holanik ee...

8.3. Antxoa kontserbatzeko prozesua

- **Hizlaria(k)**: Amutxastegi Aspiazu, Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-035/039
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:49:00. **Bukatu**: 00:52:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- **Laburpena**: Antxoa lantegiko urratsak. Antxoa, itsasotik ekarritakoan, tina handietara bota eta gatza eman. Handik mahai gainera atera. Burua kendu (antxoa gora begira dela) eta kopaletetan (otzaretan) ipini. Berriz tinetara bota eta garbitu. Antxoa handiak hamar kiloko latetan jartzen ziren, banan bana. Antxoa txikiak barriletan sartzen zituzten, eskutadetan, "moñuk" eginda. Latei tapa jarri eta ohol bat jartzen zitzaien gainean, zapaltzeko. Hiru-lau ilara jarri bata bestearen gainean eta hilabeteetan uzten ziren, ondu arte.

Transkripzioa
- Konta zeinke apur bet zein izeten zan fabrikako biharra? Bardin da antxoatan, atunetan... danetarik. Ze bihar eitten zendun?
- Bai. Ba beatu, antxobi eitten da, lelengo, itxosotik etorten da antxobi, fabrikantik erosten dau ta antxoak eitten di tiña batea –tiña handi-handi batea– bota ta gatza emon. Gero eitten da, jenti jun, ataten dabe antxobak

mahai batea, ta egoten di kopaletak. Kopaletak di otzarak, kopaletak dakarre ixena. Egoten di kopaletak. Eitten dozu, buru kentzen danok, eitten dozu, buru kendu, baiñe buru kendu biher dotsazu /bitzazu/ antxobi behera begire holanik kendu baik, antxobi gora begire, eta antxobiai laga biher dotsazu /bitzazu/ hamengo piku, antxobin piku. Osea, antxobin buru gora begire ta holanik kendu, haxe piku lagateko. Han daz sarik bota eta bota eta bota; beste batzuk daz harek antxobak hartu garbittutakuk ta botaten dabe tiña. Tiñan garbitzen dabe antxobak eta beste andra pillo bat daz latak –10 kiloko latak– enpakaten. Osea, harek antxoa guztik selekzionata, batzuk txikixauak eta bestik handixauak. Latako ixaten zin beti piku ondo eukitxi dakarre eta enpaka, holanik, banan-banan ipini ta 10 kiloko latak, enpakadorak. Gero egoten zin gixonak, lateruk edo, andrai aurretik kentzen otsenak /kentzetzenak/ latak, eta beti haren biharra da haxe eitti. Gero, antxoba txikixe zana –selekzionata egoten zan, ba, kopaletin be txikixak eta handixak–, txikixak, botaten dittue /botatetxue/ tiña. Tiñan gatza bota ta harek ez [dotxue] enpakaten, harek eitten dabe, holantxenik hartu antxoa mordo bat –hartu, ba, 10 antxoba edo 12 edo segun, eskokada bat– eta barrilletan sartu. Hori da moñuk, moñuk eitteko, antxoa txikixaua, moñuk eitteko. Gerokun eitten dabe, antxoak enpakatakun, ipintxen dabe bagoi, tabla batzuk; harek latak juten di filan ipinitte, halantxenik, bagoin. Ipintxen dotse beran tapi egurrezku, holanik, ta gaiñin ipintxen dotse /ipintxetze/ tako bat egurrezku. Ta gaiñin beste tabla bat. Gero gaiñin, holantxenik, lau illara-edo ipintxen dab. Ta harek egon bihir di hantxe heldu arte, ba, 5 hillabete edo 6 hillabete edo segun. Eurak igarten dotse /igartetze/ e zelaik. Ha juten da prentsi bajaten ta ha kaldo guzti kentzen. Hori da antxobin lelengo elaboraziñoi.

8.4. Matxetea norberak erabiltzea hobeto

- **Hizlaria(k)**: Badiola Alkorta, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-039/017
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:18:52. **Bukatu**: 00:20:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- **Laburpena**: Ortizek zinema egin zuenean, fabrikatik eraman zituen langileak hura garbitzera. Handik heldutako bi gizon zituzten fabrikan atunak erditik ebakitzeko eta burua kentzeko, baina eguerdiko txikitoak hartuta etortzen zenez bat, andreek nahiago zuten eurek egin lana, edandakoaren matxetetik hurbil ibili baino. Galdarak ere emakumeek garbitzen zituzten.

Transkripzioa
- Eta esan dozu gizon biharrak be bai, eta zeintzuk izaten zin gizon biharrak?
- Gizon biharrak ixaten zin, ba, esan dotsut /esatzut/ ba, atunak hori eindde, atune gero erdittik bi ein biher zan /bizan/, eta matxetaz. Gixon bi etorten zin hona Ortizenea. Zini Ortizek ein eban han zini; zini dakar Ortizek han e, aldatzin bixkat guzela, hori, Bide-Onera. Haxe garbitzen be parte euki neban nik. Fabrikatik bixaldu genduezen zini garbitzea. Haxe be garbittun... parte. Eta gero, e... hori. A! Ta fabrikan, gixon... handi biharrak

amaittu zittuenin, fabrikakuk, ba, despatxa ezin zittuen ein ta ekarri zittuen honaxe. Eta bixak eitten eben... batak eitten eban, bazkaittik urtendakun, txikituk eran, ero bazkaittan be eran eta gero etorten zan matxetaz atunek ebaitxen. Eta gu aurrin, tiñatik ataten. Ta guk ni ez nule haren aurrin eittea, ze kutxilluk eskapaten badotsa /batza/ geuri sartuko doskule / sartukozkule/ eta, nahixa dotela /naxarotela/ neuk eitti. Berak ein biher eban /einbiban/ biharra, norberak ein: atune erdittik bi, buru kendute eotezan ta. Ze aurretik eitten zan buru kendu, kakati eitten zan ba bean gaiñin dala. Hartu alderdi bateku eta jo matxetaz eta buru erdixe; beste alderdire buelta eta beste hori, eta gero ata tripak eta buru. Eta ha eitten zan gero ba prejiuteko ero, egosteko ero… zetako zan. Eta holantxeik e, holakoxe biharrak eitten. Eta beste gauza asko be bai. Galdarak igual atati zanin ta, galdarak garbitzea eta, gixonan biharrak di horrek, baiñe geuk eitten genduzen, ze ez euan gixonik biharreako ta.</p>

9. Iritziak

9.1. Sutarako ikatz-hondarrak eta Dongreneko ezpalak

- **Hizlaria(k)**: Amutxastegi Aspiazu, Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-035/017
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:20:50. **Bukatu**: 00:22:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Ikatz-kamioiak zetozenean atzetik joaten ziren, erortzen ziren ikatz hondarrak batzera, etxerako. Dongreneko zerrategia. Hara joaten ziren sutarako egur bila. Euren bizimodua gaur egungo gazteentzat pelikula baten antzekoa dela dio.

Transkripzioa
- Gero ikatzan barku etorten zanin be, ikatza kanbioneta botaten-ta asko soltaten eban ta paletiaz ta balde bateaz haxe ikatza batzea, behian eguana, etxin hori eitteko. Eta gero Dongrenin... Altza zeu tente ni altza baik. Beatu, altza bixkat goratxua. Han bada ba Artan, itxosun horizontin etxe bat bakarra bedar tartin?
- Bai.
- Gorengo-gorengo, e! Go-goixan ez, uretan hegaleta beatu.
- Bai, bai, bai.
- Bentanak goxe dana zarratute eta behian bentana bi ikusten gakozena. Hori de kamiñu Lekatxoa juteko errebuelti. Hori zan zerreixa bat, Dongreneku, ta horra juten zan herri guzti egurreta. Egurrak, eitten eben tronguk ebai ta jenti juten zan aizkorakin ta tronguai gaiñeko ozpalak kendu ta ozpalak batzen zenduzenak, ba, etxea ekarteko. Ta gerokun bertan eitten eben eskiñak-eta ebai. Zerreixi zan hori danoi, ta haraxe juten giñan, etxin sue eitten zanetik, ba, sutako egurreta. Ta mutillakin sagar lapurreta mendire ta horretxeik trabesurak. On ikusten dozu, ba, zine "blanco y negro”n ikusten dozu ba? ba holakoxe tipokuk gauzak. On gaztiai esan ta pentsaten dabe ontxe ikusittako dokumental bat kontaten gazela. Holakoxe kontuk.

9.2. Neguan ur-hodiak izoztuta

- **Hizlaria(k)**: Amutxastegi Aspiazu, Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-035/031
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:38:50. **Bukatu**: 00:39:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- **Laburpena**: Lehen hotza handia zegoenean hodietako ura izoztu egiten zen, eta kolpeak eman behar izaten zizkioten, izotza askatzeko. Edo, bestela, txorrota pixka bat irekita uzten zen, hori gerta ez zedin. Sukaldeko ekonomika izaten zen orduan etxe osorako berogailua.

Transkripzioa
Eta lehena, negun, hotz handixak eoten zin. Hotz handixak, bueno, ez eukan reserbaik. Ta ure eitten zan konjela, ta ure konjelatakun, itturrixan ez zan etorten urik, konjelata. Ta haretxeaz eskobilliaz eitten zan, tubuk bistan eoten zin be, ta igual tubuk, tan-tan-tan, tubuk jo, izotza soltateko. Ta baitte iñoiz eitten gendun dana txurru itxi baik, bixkat iraitte laga ez daittin /eztatxin/ zarratu. Baiñe lehena eoten zin, hamen elixan behian, kandelak goittik behera, baiñe... konjelata dana. Lehena asko ikusten zan konjelaziñoi asko, bai, hotza. On danin da kalentadora, estufi ta danak, baiñe lehen ez eguan holakoik. Lehen etxeko koziña ekonomiki esaten dana haretxeaz berotzen zan etxe guzti.

9.3. Arrantzaren sasoi onetan, Ondarroa aberatsa

- **Hizlaria(k)**: Zubikarai Larreategi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Bengoetxea, Maialen
- **Erref**: OND-041/016
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:21:23. **Bukatu**: 00:22:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
  Aisia » Kultura » Zinema
- **Laburpena**: Arrantzaren garai onetan Ondarroa oso aberatsa izan zen. Orduko bizipenak. Bi zinema zeuden: Alameda eta Bide-Onera. Non zeuden eta nolakoak ziren. Inguruetatik jendea etortzen zen domeketan eta hiru ilara ere egoten ziren batzuetan.

Transkripzioa
<p>- Gero hasi zanin itsosu emoten-ta, herrixe [altza zan] dana, bai. Nik ezautu dot Ondarru aberats-aberatsa. Aberatsa benetaku, e! Barakat ondiokan erretrato batzuk, e, Ondarruko portun, edurre eindde, erretratu atata, edurraaittik atata. Portun ez zan kabiaten orratzik be ez, dana txalopi, dana [haxe] txalopi. Euan... bueno! Ondarru zan ordun... Ondarru zan handixe. Ondarrun euazen zine bi ta domeketan etorten zan Markiñatik be bai jenti ta Mutrikutik be bai jenti, autobusetan. Etorten zin zinea. “Cine Bide-Onera” ontxe goixan dana eta

besti kafe-antzokixe zan lekun euan zini, “Cine Alameda” gakon hari ixena, ta “Cine Bide-Onera”. Baiña zinin, ba, [oin] ze esango dotsut ba? 150 bat lagun-ta igual kabiateko beste bai. Bai, bai, handi-handixak. Kafe-antzokixak ointxe dak... eukan eskillarak eukazen lekun, ba, eskillaran hegaletik hasi ta kamiñura arte, hiru illara, hiru illara, e, horrekin…
- Bai, bai.
- ... asientukin. Ta gero goixe ointxe dan modure, ointxe be ez da goixe kendute ta. Ha zan “anfiteatro”. Ha merkiaua zan.

10. Herria, azpiegitura

10.1. Bost urterekin Donostiatik Ondarroara; Zaldupe auzoa

- **Hizlaria(k)**: Urbieta Etxaburu, Antigua
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-047/002
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:00:38. **Bukatu**: 00:02:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Donostian jaioa da, 1938an, gerraostean aita bertan hasi zelako lanean, arrastean. Bost urte inguru zituenean itzuli ziren Ondarroara, eta Zaldupe auzoan bizi izan ziren. Auzoa nolakoa zen. Erreka ondoan bost-sei kontserba lantegi zeuden eta, mekanikako lantegi bat ere bazen.

Transkripzioa
- Donostin.
- A bai?
- Bai. Hamen e... gerra ostin jun zin /juntzin/ hara Pasaire arrastea, arrasta hasi zan han, garai hartan, ta han auzuna bat, Buenavista edo, ta zelan e, Donostiri tokaten gakon auzuni zan, ba, hor nau neu e... donostiarra.
- A... orduen gerrie dala ta...
- Gerrien atzetik, klaro, ni zelan hogeta hamazortziku.... hogeta hamazortzi, hogeta hemeretzi lasterrin etorri zan atxe, ta ordun e... haraxe, hantxe hasi zan arrastako mobida barrixe. Ta haraxe jun zin bixitzea. Ta neu hantxe jaxo [ha(ra) hor].
- Ta noz bueltau ziñen ba?
- Bueltan ein bost bat urte ero, ni ez nai ixebe akordetan, ixebez. Amak esaten dau, bost bat urte-ero eukiko nebanela.
- Ta Ondarrure, nora edo?
- Zaldube. Oin bada ba e... hori e... bide barrixa? han euan Zaldupe, oso auzuna politte. Bueno, gutzako. Hantxe, Zaldupen e...
- Zaldupe han f... e...
- On e, bada ba... zu e... etorri zazena e, hoixe... zubi bat e... bariante barri dana? Haxe zan. Han euazen behian e... errixue joten etxe batzuk, eta gero bidi ta goixan beste batzuk. Hor zan, ba, “Zerki” deitzen gentsan ta hantxe. Handixek iñora be ez.
- Zer zien, etxiek, baserrixek... edo...
- Ez, etxik, etxik, baiñe etxe horrek piso bikuk. Piso bi, hiru… altuena be, e... holantxen, ta fabrikak euazen bertan edozenbat.
- Zer, kontserberak?

- Kontserba, antxoa-fabrika ba... sei bat-edo bai, han behi guzti... egongo zan bat, bi, hiru... bai, bost-sei bat fabrika egongo zin.
- Han erreka-eskiñan?
- Bai. Ta ontxe esaten dot “nun da hareik gauza guztik?” bebai euan arotzeixi, eta, e... tallar bat, tallar mekaniku... horretxek fabrika guztiok eta hainbeste etxe ta hainbeste jente... hantxe bizi kamiñun, hantxe gaz, geuazen... Gauzie, e...
- Joe.
- Klaro, urai hartute, ba, mendixei kendute... ba, zabaldu. Haintxe, zerkan, Zaldupe, ixena [...] ixena politte.

11. Euskara

11.1. "Hiru aeroplano" kanta herrikoa

- **Hizlaria(k)**: Urbieta Etxaburu, Antigua
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: OND-047/011
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:14:33. **Bukatu**: 00:16:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararen egoera
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: Ez zekiten euskarazko kanta askorik. Amak kanta herrikoi asko zekizkien eta horiexek bakarrik abesten zituzten euskaraz, eskolan erdarazkoak ikasten zituzten eta. "Hiru aeroplano" kanta herrikoiaren lehen zatia abesten du.

Transkripzioa
- Zer kantaten zan ba?
- Euskerazko kanta asko ez genkixen, gauzi de, erderaz eskolan. Baiñe guk geuk e gure ama zan kantalaxe, hamengoxe herrikoi-herrikoi kantak, betiko-betikuk horretxek kanta.
Umetako... berezi kanta euskaldunik guk ez genkixen, ze erderaz e... ikasi genduzen jokuk. Baiñe herrikoi kantak, entzunde etxitan ta...
- Ze kanta zien edo?
- Bai, “Hiru aeroplano pasa ta bat itsasora jausi” ta horreitxek.
- On kantetako moduen bai?
- E?
- Kantetako moduen oin bai? Ze horrek be ia galdu eitten die, ez?
- On, on? Ba bai! On nik kanta? Jesus!! Bueno...

Hiru aeroplano pasau-ta,
bat itsosara jausi.
hiru aeroplano pasau-ta,
bat itsosora jausi.
ekarri
Seberianok ekarri
Seberianok ekarri
Seberianok
barran fonduan utzi.

Bota-ta
ezin atrapa bota-ta

ezin atrapa bota-ta
ezin atrapa,
txikotetik eskapa.

Hori egixe da, hori egixe da,
neuk ikusitelako,
hori egixe da,
hori egixe da,
neuk ikusi dolako.

Egongo diz gehixaua be bai, holakoxik, da “Ixil-Ixilik dago” hoixe [...] horretxek oso polittak.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Aragoitik Euskal Herrira (101-136/002)

Chuserra Aragoikoa da: Zaragozakoa, hain zuzen ere. Ondarrun bizi da baina Donostian ere bizi izan zen.

2. Aragoieraren arnasguneak (101-136/004)

Aragoiera batez ere Huescako zatian eta Zaragozako zati batean hitz egiten da. Hizkuntza egoera txarrean dago.

3. Aragoieraren egoera (101-136/006)

Politikoen jarrera aragoiera hizkuntzarekin txarra dela dio. Aragoiera estatutoan aipatzen da, baina ez da ofiziala. Gobernuak hizkuntzari jartzen dizkion trabei buruz hitz egiten du.

4. Aragoieraz lagunekin, hara doanean (101-136/008)

Euskal Herrian bizi denez, gertu dauka Aragoi eta hilean behin joaten da. Beraz, mantentzen du aragoiera bere lagunekin.

5. Euskaltegian eta kalean ikasi du euskaraz (101-136/009)

Euskaltegian ikasi zuen euskaraz eta gero kalean praktikatu izan du. Bere esanetan, garrantzitsua da pertsona batekin lehenengo kontaktua izaten duzun hizkuntza; asko baldintzatzen du gerorako hizkuntza-harremana.

6. Neskalagunaren bidez hasi zen euskaraz (101-136/010)

Hizkuntzak ikasteko zaletasuna dauka, eta euskarak bere arreta piztu zuen. Neskalagunarekin hasi zen euskarazko lehenengo hitzak ikasten.

7. Nolakoak dira euskaldunak? (101-136/012)

Euskaldunak itxiak diren ala ez pertsonen arabera dela dio Chuserrak. Hala ere, igartzen du aldea Zaragoza eta Euskal Herriko jendearen artean. Euskarak intregatzen lagundu izan dio.

8. Jendea, ohiturak eta kultura faltan ematen ditu (101-136/013)

Bere herrialdetik jendea faltan ematen du. Zaragozako ohiturak eta kultura ere faltan ematen ditu.

9. Euskal Herriko gustukoena: Klima eta jendearen inplikazioa. (101-136/014)

Euskal Herritik gehien klima eta tenperatura gustatzen zaio. Euskal Herrian gauzak lortzeko jendea nola inplikatzen den ere gustatzen zaio.

10. Ingurukoen egoerari buruz ezagutza eskasa (101-136/015)

Euskal Herriko batzuek inguruko herrialdeetako egoera politiko eta sozialari buruz daukaten ezagutza eskasa ez zaio gustatzen.

11. Oinarrizko hitzak aragoieraz (101-136/017)

Aragoieraz oinarrizko hitzak esaten ditu Chuserrak.

12. Gustuko hitza aragoieraz (101-136/019)

Aragoieraz bere gustuko hitza esaten du Chuserrak.

13. Aragoeiraz jota kantari (101-136/021)

Aragoierazko jota baten zatia. Maitasunari buruzkoa da.

14. Nafar aragoierari aitortza (101-136/023)

Faltan ematendu Nafarroan nafar aragoierari bere tokia eskaintzea. Erromantzea baino ez dute aipatzen.

15. Donostiatik Ondarroara (OND-001/001)

Mikaela Donostian jaio zen, eta bi urte zituela, amak tifusa hartu eta gaixotu egin zen. Ondorioz, amaren gurasoen baserrira joan zen, hamasei urteak bete zituen arte. Ereñozuko eskola txiki batean ibili zen, neska eta mutilak denak elkarrekin. Eskola bukatutakoan baserriko lanei ekin zien. Hamasei urterekin gurasoengana itzuli zen. Ortizenea fabrikan ibili zen lanean Ondarruan.

16. Senarra ezagutu zuenekoa (OND-001/002)

Kofradia ondoan zirkua jarri ohi zuten. Bertara joan ziren bere laguna eta bera, bi mutilekin batera. Zinera eraman zuen mutilarekin nobiotan hasi zen Mikaela, eta beranduago ezkondu egin ziren.

17. Senarra Bilbon atxilotu (OND-001/004)

Erreketeek Bilbo hartu eta Mikaelaren senarra atxilotu egin zuten. Umea amaren etxean utzi eta senarra bisitatzera joaten zen Bilbora. Askatu zutenean, Batallón de Trabajadoresen sartu zuten.

18. Gaztaroa Hernanin (OND-001/006)

Baserrietan bizi ziren umeak batzen ziren jolasteko. Igandero Hernanin batzen ziren kartetan jolasteko. Osabak Donostian banatzen zuen esnea, baina oroitzen du Mikaelak, Jaunartzea egin zuen egunean osaba harengana joan zela.

19. Ondarruko fabrikan lanean (OND-001/007)

Ondarrura itzuli zenean, anai-arreba guztiak han hazi zirenez, baztertuta egoten zen Mikaela. Iritsi bezain laster, Ortizenea fabrikan.

20. Hernaniko eta Ondarroako euskara (OND-001/008)

Hernanin ikasitako euskara Ondarroan entzun zuenaren oso bestelakoa zen, baina segituan egokitu zen Mikaela.

21. Ama hernaniarra, aita pasaitarra (OND-001/010)

Aita pasaitarra zuen, eta ama hernaniarra. Aitona ondarrutarra zuen, betiko arrantzale horietakoa.

22. Urberuagako bainuetxea (OND-001/014)

Amaren ahizpak asma zuen, eta Urberuagako bainuetxean egoten zen. Ondarroako jende asko joaten zen bertara lanera.

23. Igande arratsaldeak Mutrikun (OND-001/015)

Igande arratsalde pasa joaten ziren Mutrikuko petrilera. Oinez joan ohi ziren Ondarroatik.

24. Emazteak nola ezagutu (OND-012/002)

Emazteak nola ezagutu zituzten kontatzen dute. Jesusi amak esan zion praka berriak egiteko, eta etxe aurreko jostunarengana bidali zuen; prakak egiteko neurriak hartzera joan eta han ezagutu zuen gero bere emaztea izango zena. Patxi, ostera, Vega hotelean zerbitzari lanetan zebilen Elgoibarko neska bati begia botata urtebetean egon ondoren, lagun baten bitartez mandatua emanda hasi zen neska harekin.

25. Itsasontziko mekanikari (OND-012/003)

Itsasontziko mekanikariak izan ziren biak. Itsasontziko makinista izateko nautika-eskolara joan behar izaten zen; eta hara joateko, batxilergoa beharrezkoa zen. Itsasontzietan ibiltzeko zer ikasketa eta titulazio behar diren azaltzen dute.

26. Eskola faltan, norbere kasara ikasi behar (OND-012/004)

Lehenengo, laguntzaile moduan hasi ziren itsasontzian, eta gero, mekanikari izatera iritsi ziren. Horrela ikasi zuten ofizioa. Era berean, mekanikari titulua atera zuten derrigorra baitzen. Urtean bi azterketa deialdi izaten omen ziren. Lau erregelak, geometria, sistema metriko hamartarra... galdetzen zizkieten azterketetan. Praktikak ere egin behar izaten zituzten; motorrarekin, limatzen, zerratzen... aritu behar izaten zuten. Garai hartan Ondarroan ez zegoen nautika-eskolarik eta etxean ikasi behar izaten zuten. Patxik etxean ikasi zuen, eta Jesus, ostera, Lekeitioko nautika-eskolara joaten zen ikastera.

27. Baxurako arrantza eta arrastea (OND-012/006)

Arrastea 1932an sortu zen. Arrastean egiteko bi txalupa aritzen dira sare batekin. 1932tik 1936ra bitartean arrasterako bost itsasontzi bikote sortu ziren Ondarroan. Aurretik, Ondarroa arrastearen aurka ei zegoen; arrantza mota horrekin baxurako arrain dena desagertu egingo zela defendatzen zuten. Gerra garaian, arrantzan etenaldia egon zen.

28. Itsasontziaren antolamendua (OND-012/008)

Itsasontzi baten antolamendua azaltzen dute. Itsasontziaren goiko partean patroia, erdian kontramaisuak eta tostartekoak edo marinelak, eta behean, mekanikariak egoten dira.

29. Tostartekoa edo marinela (OND-012/009)

Tostarteko hitzaren jatorria azaltzen dute. Duela ehun urtera arte itsasontzietan ez zen makinarik eta arrantzaleek arraunean egin behar izaten zuten. Denbora honetan itsasontziek zer bilakaera izan duten azaltzen dute.

30. Antxoei burua kentzera (OND-012/012)

Patxik eta Jesusek zortzi urte inguru zituztenean, Ondarroan arrain-lantegi ugari ziren; txikiak gehienak. Antxoa sasoian, lantegira joan ohi ziren antxoei burua kentzera. Emakumeek urte osoan bertan egiten zuten lan. Antxoei burua kendu, garbitu eta gatza ematen zitzaien negurako kontserbatzeko. Gero, neguan xerrak ateratzen ziren. 10 urterekin lantegian irabazitako diruarekin lehenengo komuniorako behar zena erosten omen zen. Lantegi horietan lan egiten zuten emakume gehienak arrantzaleen familiakoak izan ohi ziren.

31. Emakumeen lehorreko lana (OND-012/013)

Arraste denbora sortu zenean, emakumeek lan asko egiten zuten lehorrean. Arraina prestatu, sailkatu, paketetan bildu, kaxetan izotza ipini, kamioietan kargatu... egin behar izaten zuten goizaldean.

32. Zapata faltan, ezin akolito izan (OND-012/015)

Jesus ez zen akolito egin zapatarik ez zuelako. Gerra denboran izekok ez zion aldarera joaten uzten zapatarik ez zuelako. Akolito gehienak gizenak izaten zirela diote; sakristian ezkutuan ardoa edaten omen zuten.

33. Emakumea eta itsasoa (OND-012/016)

Emakumeen beti egin izan dute lantegietan. Sare-konpontzen ere emakumeak aritzen ziren. Denborarekin, ahalmen gehiago zuten etxeetan alaba gazteena lantegira beharrean josten ikastera bidaltzen zuten, lantegiko lana gogorra zen eta. Arrasteko andrazko beharginek zer lan egiten zuten azaltzen dute.

34. Arrain-saltzaileak eta Errioxako ardoa (OND-012/017)

Lehengo arrain-saltzaileek buru gainean eraman ohi zuten otarra. Otzararen azpian sorkia jartzen zuten; buruan pisua eramateko jartzen den zapia. Garai batean, Ondarroatik mendiz mendi joaten ziren arraina saltzera Oñatira, Azpeitira... Errioxara ere joaten ei ziren. Gero, mandazainek Errioxa aldetik ardoa eta hango produktuak ekartzen zituzten Ondarroara, eta trukean, arraina eramaten zuten. Bezero asko egiten zen horrela. Denborarekin, zenbait errioxarrek herrian denda jarri zuten eta bertan gelditu ziren.

35. Bailandra, Kantauriko antxoa eta italiarrak (OND-012/018)

Bailandrak arrantzako txalupak baino ontzi handiagoak izaten dira; egurrezko merkantzia-ontzi txikiak. Ondarroatik Bilbora joan-etorrian ibili ohi ziren. Italiarrak Euskal Herrian arrain-lantegiak sortu aurretik, Kantauriko antxoa "moinuetan" prestatuta esportatzen zen. "Moinuak" nola egiten ziren azaltzen dute. Denborarekin, italiarrek lantegiak sortu zituzten bertan.

36. Bailandratan ekarritako gatza eta ikatza (OND-012/019)

Arraina kontserbatzeko zer gatz mota erabiltzen zen azaltzen dute. Bilbotik bailandretan ekartzen zuten gatza. Bilbora, berriz, Cádiz eta Gijóndik iristen zen. Gero, bapore-ontziak erabiltzen hasi ziren. Itsasontzi horiek ikatz asko behar izaten zutenez, Ondarroako portuan ikatz biltegi moduko itsasontzi bat jarri zuten. Handik banatzen zen gero ikatza portuko itsasontzietara.

37. Ur-txakurrak (OND-012/024)

Duela ehun urte, bapore-ontziak hasi zirenean, arrainak banaka-banaka tretzatan sartzen ziren. Noizean behin, arrainak askatu eta uretara erortzen ziren. Arrain horiek berriz harrapatzeko txakur bat egoten zen itsasontzietan. Ur-txakurra esaten zitzaion txakur horri, eta arrantzale batek bere borondatez eraman ohi zuen.

38. Atunaren kanpaina (OND-012/025)

Atunaren kanpainari buruz hitz egiten dute. Atuna denborarekin ibilbide bat egiten duen arrain mota izaten da. Kostera uztailaren amaieran, San Pedroetan, hasten zen, eta abuztuko jaiak arte arrantzaleak ez ziren Ondarroara bueltatzen. Andremariak arte ez zen atunik sartzen herrian, eta beraz, udan ez zen lantegian lanik egoten emakumeentzat. Herrian lanik ez eta kanpora joan ohi ziren neskame, iñude edo "aña"... 1934an merkantzia-ontzi bat erosi zen Pasaian. Itsasontzi horrek egunero egiten zuen Ondarroa eta Santander arteko buelta. Antxoa sasoian herrian lan asko egon ei zen.

39. Antxoa sasoia (OND-012/026)

Antxoa nola harrapatzen den azaltzen dute. Herriko emakumeak sareak askatzen aritzen ziren. Lan horiek egin ostean, arrain lantegian izaten zuten lana. Orduko hainbeste erreal irabazten zuten.

40. Izurdeei jarraika antxoak harrapatzeko (OND-012/028)

Ondarroako kalak aipatzen dituzte: Kabra, Artape, Santa Klarape, Saustan, Mokukoburu... Arrantzako hainbat pasarte kontatzen dituzte. Izurdeak eta txoriak lagun onak izaten dira antxoak harrapatzeko.

41. Txoriak arrantzarako lagun (OND-012/029)

Arrainak harrapatzen dituzten txorien izenak aipatzen dituzte; kaioak, kala-txoriak, antxetak, txartelak, kofrak... Arrain horiek ikusmen ona izaten dute. Txoriak laguntza izan dira arrantzaleentzat; arraina non dabilen adierazten dute.

42. "Han gorrixe, han gorrixe!" (OND-012/030)

Antxoa uretan dagoenean multzoan ibili ohi da. Arrain multzoa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta kolore gorriagoa hartzen du. Arrain multzo horri "gorrixe" esaten diote. Multzoa gehiago handitzen bada, ilun kolorea hartzen du. Arrainak igartzeko beste modu batzuk: ur azalera salto egitean eta mazitzean.

43. Mazitzea (OND-012/031)

Sardinak arrantzatzeko mazitzea nola egiten den azaltzen dute. Norvegiatik arrainen tripa barruak ekartzen zituzten upeletan kontserbatuta; garestia ei zen. Mazia txiki-txiki egin eta bi gizon batel batean joaten ziren hura uretara botatzera, arrainak ur azalera agertzeko, erakartzeko. Arrainari bista kentzeko gariaren zahiarekin egindako turtubia izeneko nahasketa bat ere erabiltzen zuten. Behin arrainak ur azalera agertzen zirenean sarea botatzen zien. Txitxarroari ez zitzaion mazia botatzen, arrain merkeagoa botatzen zioten.

44. Seineroaren abisua (OND-012/032)

Korda eta tretzaren sistema nola izaten zen azaltzen dute. Udazkenean, antxoa txikia harrapatzen zen. Antxoari gatza bota eta upeletan kontserbatzen zen negura arte. Arrantzaleak gauez ateratzen ziren itsasora. Herrian hiru seinero zeuden. Haien egitekoa zen gauerdia baino lehen eguraldia nolakoa zen ikusi eta arrantzaleei abisua ematea. Parrokia aurrean burdinazko ate handi bat zegoen, eta mailuekin jotzen zuten arrantzaleei itsasora ateratzeko abisua emateko. Herriko beste hiru-lau tokitan ere gauza bera egiten zuten. Bapore-ontziek martxan jartzeko denbora behar izaten zuten.

45. Itsasora atera aurreko lanak (OND-012/033)

Itsasora irten aurretik itsasontzian zer-nolako prestaketa lanak egiten ziren azaltzen dute. Sareak ehunezkoak izaten ziren eta lehortzera atera behar izaten ziren; izan ere, kresalaren eraginez usteldu egiten ziren.

46. Sare-konpontzaile asko (OND-014/021)

Sare-konpontzaile asko zeuden, baina bakoitzak bere kontura egiten zuen lana. Maistra bakoitzak 8-10 sare-konpontzaile izaten zituen bere kargura eta horrelako hiru bat talde egon ziren. 70 urterekin ere oraindik andrazkoak lanean aritzen ziren.

47. Ezkondu eta berehala umea ekartzea lege (OND-015/002)

Ezkondu eta berehala umea ekarri behar izaten zen, hori zen legea. Ume bat eta handik gutxira bikiak izan zituen. Senarra itsasora joan zen eta bakarrik moldatu behar izaten zuen.

48. Jaunartze handia (OND-015/005)

Jaunartzea zuriz jantzita egin zuen hamaika urterekin. Etxean bazkaria egin zuten. Egun hartan ama lanera joan zela gogoan du eta bera inguruan ibili zela. Mezak latinez ematen zituzten eta apaiza bizkarrez egoten zen.

49. Ahizparen ezkontzako komeriak (OND-015/007)

Ezkontzako jantzia zuria izan zuen Kontxitak. Ahizparen ezkontza nola moldatu zuten kontatzen dute.

50. Umeen izena aitita-amamen esku (OND-015/010)

Jaio eta biharamunean bataiatzen ziren umeak. Izena jartzerakoan, aitita-amamek agintzen zuten.

51. Kantxopi, lehen Nueva España (OND-018/002)

Jaiotza-data eta jaio zan kalearen izen aldaketa azaltzen ditu. Kantxopi kalea, "Kantoipe", Nueva España izan zen Francoren garaian.

52. Sareak bergetan eskegita (OND-018/003)

Ondarroan, goiko aldea aldatu da, mendi aldean etxe asko egin baita. Bergak (makilak) egoten ziren sareak eskegitzeko Kantoipen.

53. Itsasontziak errekan gora (OND-018/004)

Elizaren beheko aldean dauden uztaiak mamuen heldulekua zirela esaten zen. Gaur egungo Kantoipe kalean ez zegoen etxerik lehen, erreka zen dena. Goraino heltzen ziren itsasontziak.

54. Arraina kalean lehortzen (OND-018/005)

"Despeska" egiten zen kalean. Egurrezko astoetan eskegita lehortzen zen arraina kalean, gero fabriketara bidaltzeko.

55. Motor txikiak ziren denak (OND-018/007)

Motor txikiak ziren denak, arrastekorik ez. "Miren Kepa" zen euren motor txikia; behin itsasontziko lapikoa etxera eraman zuen aitak eta handik jan zuten etxeko guztiek.

56. Denenak ziren bergak (OND-018/008)

Itsasontzi bakoitzak ez zuen leku jakin bat portuan, ezta berga jakin batzuk sareak eskegitzeko ere.

57. "Despeskan" bergetan (OND-018/010)

Txitxarroak alde batera eramaten ziren; eta sareak zintzilik zeudela, batez ere emakumeek eta umeek kentzen zituzten haietatik antxoak; lan hori zen "despeska".

58. Andrazkoaren lana Ondarroan (OND-018/011)

Andrazkoak lan asko egiten zuen Ondarroan: bergetako lanaz gain, atunaren eta antxoen kontserban, besteak beste.

59. Senitartekoen artean egiten zen lehorreko lana (OND-018/012)

Itsasontziko familiako ume eta andreen artean egiten ziren lehorreko lanak. Geroago antolatu ziren taldeak sareak josteko.

60. Arrautza frijitua saritan (OND-018/013)

Antxoa sasoian, eskola utzi eta fabrikara joaten ziren burua kentzera. Amak arrautza frijitua eskaintzen zion saritzat.

61. Antxoari burua kentzen gaztetxotan (OND-018/014)

Hamahiru urte ingururekin joaten zen arrain-fabrikara; eskuak hoztuta egiten zuten lan, baina hala ere, eskolara joatea baino nahiago zuen han aritzea.

62. Jende askori ematen zion lana antxoak (OND-018/015)

Jende askok egiten zuen lan antxoa-kontserban. Etxera ere antxoa asko eramaten zen. Gaztetxo eta umeek burua kentzen zieten eta helduagoek egiten zituzten gainerako lanak.

63. Antxoa tinetatik kopaletetara (OND-018/016)

Tinetan gatzetan egoten zen antxoa; handik ateratzen zizkieten kopaletetara (saski biribil txikiak) eta gaztetxoenek kentzen zioten burua antxoari.

64. Tamainaren araberako lana (OND-018/017)

Gaztetxo guztiak joaten ziren antxoara, burua kentzera, eskola utzita. Zaharragoek antxoa ontzi handiagoetan sartzen egiten zuten lan, eta emakume beteranoek latetarako xerratzen.

65. Arropa zaharrena lanerako (OND-018/018)

Ez zuten erabiltzen eskularrurik; arroparik zaharrenak ziren beharrera joateko. Garbitu, hondartzan edo errekan garbitzen ziren.

66. 20 25 zentimo burua kentzeagatik (OND-018/019)

Antxoa garaian lan asko egoten zen fabriketan eta asko ziren kontserba-fabrikak, baina indartsuenak italiarrak edo Siziliakoak ziren. Aberastu egin ziren jabeak.

67. Kaminoan paseoan gora eta behera (OND-018/020)

Paseoa egiten zen, baina kaminoan, ez gaurko tokietan. Alamedatik goiko zinera arte joaten ziren. Elizako ospakizunen inguruan egiten zuten jai.

68. Apezpikuaren aita izateko esperantzan (OND-018/021)

Oso elizkoia zen aita; hamaika seme-alabaren aita izan zen, eta haurdunaldi bakoitzean seme elizgizonen bat izateko itxaropena izaten zuen.

69. Hogei urterekin gudari (OND-018/022)

Hogei urteko neba borondatez joan zen gudari Itxasalde batailoira. Zazpi neba-arreba gurasorik gabe egon ziren gerra garaian.

70. Hamahiru urteko ahizpak zaindu zituen gazteagoak (OND-018/024)

Hamahiru urteko ahizparen ardurapean geratu ziren neba-arreba gazteago guztiak. Egunez, senideen etxeetan bazkaltzen zuten, eta gauez elkartzen ziren etxean.

71. Soinerako ezer gabe eta emaztea kartzelan (OND-018/025)

Aita etxera etorri zenean hustuta aurkitu zuen etxea eta emaztea kartzelan. Lagun batek utzitako trajearekin joan zen emaztea ikustera Ondarretako kartzelara.

72. Salatzailea agerian (OND-018/026)

Amak jakin zuen nork salatu zuen. Kartzelatik itzuli zenean ere seme-alabei euskal izenetik deitzea aurpegiratu zion herriko emakume batek.

73. Bodegetan ezkutatzen ziren (OND-018/027)

Bodegetan ezkutatzen ziren bonbardaketa mehatxua zegoenean.

74. "Reuniones clandestinas" zer zen ere ez zekien amak (OND-018/028)

Amak ez zekien "Reuniones clandestinas" zer zen, eta hori leporatzen zioten. Gorrotoaren ondorioz egindako salaketa izan zen.

75. Hilotza ardo kupelean (OND-018/030)

Periko neba okin aritu zen Itxasalde batailoian. Osaba ere gudari, hantxe zauritu zuten. Beste pasadizo bat kontatzen zuen nebak: batailoikoek kupel handi bateko ardoa bukatu zutenean ikusi zuten hilotz bat zegoela barruan.

76. Bederatzi pieza baltsiorako (OND-018/031)

Astean behin musika egoten zen plazan: bederatzi pieza. Urriaren 4an ere egoten zen musika, baina ez zuten dantzarik egiten, eurak ikustera joaten ziren eta frankistak dantza egitera.

77. Aberri Eguna Olatzen (OND-018/032)

Olatzera joaten ziren Aberri Eguna ospatzera; han bazkaria prestatu, jan, abestu eta etxera.

78. Arantzazura eta Estibalizera eskursioan (OND-018/033)

Zinea egoten zen. Ikerne egunero joaten zen elizara eta elizakoek antolatutako irtenaldietara joaten zen. Begiraleak zituzten, dantzaldietan mutilarekin dantzan eginez gero, zigortzeko. Markinako Congreso Eucarístico-a ere gogoratzen du.

79. Hamalau urte zituela hil zitzaion aita (OND-018/034)

Hamalau urte zituela hil zitzaion aita. Ama, aldiz, aitak aurreikusi zuen moduan, askoz geroago hil zen, 95 urterekin.

80. Blanco, rosa eta negro (OND-018/035)

Pelikulak hiru eratakoak ziren: blanco, rosa eta negro. Sekula ez zuen ikusi beltzik.

81. Elizak lotuta eta beldurtuta (OND-018/037)

Eliza giroan hezi zuten, eta sartutako beldurraz bizi ziren. Sexuari buruzko ezer ez zion inork inoiz azaldu. Lagun arteko elkarrizketetan mutila guapoa zen ala ez baino ez zen komentatzen.

82. Barku bakoitzak bere-konpontzaileak (OND-019/003)

Sare-konpontzaileen lana. Besteei begiratuta ikasten zuten. Barku bakoitzak bere konpontzaileak izaten zituen. Ehundik gora sare-konpontzaile ziren garai batean Ondarroan.

83. Sare-konpontzaileen lan-baldintzak (OND-019/004)

Sare-konpontzaileen inguruko azalpenak. Bodega zutenek bertan lan egiten zuten. Bodegarik ez zutenek barran, kanpoan, eguraldiari aurre eginez. Ez zuten lan-ordu finkorik. Lana zegoenean lan egin eta lanik ez zegoenean jai. Domekan eguerdira arte lan egiten zuten. Barkua bazetorren, deskarga egin behar.

84. Sare-konpontzaileen lana (OND-019/005)

Sare-konpontzaileen lana. Txalupa iristen zenean, apurtutako sareak atera eta beste batzuk jartzen ziren. Txalupa hurrengo zetorrenerako sareak konpondu behar. Sarea josi, tindatu, lehortu... lan handia izaten zen.

85. Sareak "tinttalekura" tindatzera (OND-019/006)

Sareak "tinttalekura" eramaten zituzten tindatzera, konpondutakoan. Jostun batena zen tindategia eta berak tindatzen zituen sare guztiak. Non zegoen. Tinta harri-koskorra bezalakoa izaten zen eta ur berotara botatakoan urtu egiten zen. Sareak han sartzen ziren tindatzeko. Gero, karroan hartu eta barrara eramaten ziren sikatzera. Sikatutakoan, bodegara. Lan gogorra zen.

86. Sareak burdinezko karroan garraiatzen ziren (OND-019/007)

Sareak, tindatu ostean, barrara eramaten ziren sikatzera, karroan hartuta. Orduko karroak, astunak. Lan gogorra izaten zen. Gaur egun lana asko erraztu da.

87. Faustino Ituarte jostunak tindatzen zituen sareak (OND-019/008)

Faustino Ituarte zen tindategiko nagusia. Jostuna zen izatez. Baina aska handi bat zeukan eta bertan tindatzen zituen sareak.

88. Sareen inguruko azalpenak; materiala eta neurria (OND-019/010)

Sareak kalamuzkoak (cáñamo) izaten ziren orduan. Gero plastikoa etorri zen. Gaur egun nylonezkoak izaten dira. Neurri ezberdinetakoak egoten ziren.

89. Sare-konpontzaileen lan gogorra (OND-019/011)

Sareak elkarri lotzea izaten zen lan gogorra. Lan asko zutenean, beste gizon batzuk hartu behar izaten zituzten sareak prestatzen laguntzeko. Lan handia zutela-eta armadoreari kexatu zitzaizkion eta hiru hilabetez greba egin zuten.

90. Soldata hobea lortzeko hiru hilabetez greban (OND-019/013)

1960 inguruan 6000 pezeta inguru kobratzen zituen Eulogiok. Soldata finkoa zuten, ez arrantzatutako arrain-kopuruaren araberakoa. Armadoreak ordaintzen zien sare-konpontzaileei. Ez zeuden konforme lan-baldintzekin eta greba egin zuten. Hiru hilabetez egon ziren greban. Armadoreek sareak konpondu beharra zuten eta gauez sareak kanpora bidaltzen hasi ziren. Orduan piketeak jarri zituzten herritik sarerik irten ez zedin. Batera eta bestera jo ondoren lortu zuten soldata hobetzea.

91. Ondarroa Chicagorekin alderatu zuen Bilboko abokatu batek (OND-019/015)

Bi armadorerekin ibiltzen zen Eulogio. Behin armadoreetako batekin Bilbora joan zen abokatuarengana. Hango bulegoko batek esan zion Chicago ez zela Ondarroaren orpora ere iristen, diru asko zerabiltelako esku-artean.

92. Mutikotako lehenengo lanak eta soldatak (OND-019/020)

Sare-konpontzaile lanetan hasi zenean, urtebete egin zuen soldatarik jaso gabe, ikastearen truk lanean. 15 urterekin lehenengo soldata: hogeita hamar ogerleko. Udan atunetara joan zen arrasteroan dirua irabaztearren, baina ez zitzaion esperientzia gustatu.

93. Neska-lagunarekin irtetearren mezara joan behar (OND-019/025)

18 urteko mutil gazteak txikiteoan ibiltzen ziren denbora librean. Eulogio liberala omen zen, baina Ikernek berarekin irten nahi bazuen mezara joan behar zela esan omen zion, eta joan egin behar.

94. Arrantzaleak parrandazaleak (OND-019/026)

Arrantzaleak parrandazaleak ziren. Ondarroan "kafe-torero" egin eta segi egiten zuten parrandan goizaldera arte.

95. Sagar-lapurretara inguruko baserrietara (OND-019/028)

12-14 urte ingururekin sagar-lapurretan ibiltzen ziren inguruko baserrietan, gosea zegoen eta.

96. Baltseoan egiteko zain (OND-019/029)

Jaietan musika egoten zen. Ikernek dio baltseoan dantza egiteko zain egoten zirela. Ezkontzaren batera joatea izugarrizko festa izaten zen beraientzat.

97. Frankistak sartutakoan, bizimodu txarra (OND-020/003)

Urrian frankistak sartu eta otsailean etxetik bota bitartean, bizimodu txarra izan zuten. Santa Kurutzen arrantxoa banatzen zuten baina bila joan zirenean, harrika bidali zituzten.

98. Erreketeen arropak garbitzen (OND-020/004)

Saturraranen zeuden frankisten arropak garbitzen zituzten. Zorriz beteta egoten ziren arropak eta aparte garbitzen zituen amak. Dirua eta jatekoa ematen zieten.

99. Etxean giltzapetuta, soldaduengandik babesteko (OND-020/006)

Erreketeen arropak, zorriz betetakoak, nola garbitzen zituzten kontatzen du. Alemaniarrak eta italiarrak etorri zirenean, amak ez zien irtetzen uzten, emakumeak bortxatzen zituztelako. Neska gazte bat abortatzerakoan hil zen.

100. Erreketeak etxean (OND-020/007)

Zazpi errekete izan zituzten etxean bizitzen. Loreren amak alabak giltzaz ixten zituen logelan, soldaduengandik babesteko. Behin aita gauez etxeratu zen amarekin egotera eta berriz ihesi joan zen.

101. Aitari etxera ez joateko abisatu ziotenekoa (OND-020/008)

Logelan itxita hilabeteak pasatu zituzten. Erreketeek eramaten zieten jatekoa: arroza eta bakailaua. Aita etxera zetorren batean, bere lagun errekete batek abisua eman zion, zazpi errekete etxean zituela zain. Gehiago ez zen etxera agertu. Senarra izango zena eta aita Etxanon zeuden frontean.

102. Ama kartzelara eraman nahi izan zutenekoa (OND-020/009)

Ama haurdun zegoela, etxetik atera zuten kartzelara eramateko. Kalean konortea galdu eta jausi egin zen. Erreketeek etxera ekarri zuten. Errekete bat neska gazte bat bortxatzen saiatu zenekoa kontatzen du.

103. Amaren erditzea frontearen erdian (OND-020/010)

Etxean bertan izan zuen amak umea, berak bakarrik, tiroetatik babesteko leihoan koltxoia ipinita zeukala. Gau guztia negarrez eman zuten umeek, ama kartzelara eraman nahi izan zutenean.

104. Biraoak kalean (OND-020/011)

Ondarrutik joateko esan zietenean, pozik joan ziren, beraien alderdikoengana zihoazelako. Kalean andre batzuek oihukatu zietena gogoan geratu zitzaion.

105. Ondarrutik bidalita, Lekeitiora (OND-020/013)

Ondarrutik alde egiterakoan, bandera zuria eraman zuten. Etxanora joan zirenean, autobusak zain izan zituzten. Kukurruku eztula zeukaten orduan. Lekeition ongi-etorria egin zieten.

106. Lekeitiotik Bilbora eta aitarekin topo (OND-020/014)

Amaren anaia Lekeition zeukaten. Lekeitiotik Bilbora eraman zituzten autobusean. Aitarekin egon ziren han.

107. Habana barkuan Frantziara (OND-020/015)

Bilbon beste herri batzuetakoekin batera etxe handi batean egon ziren. Habana barkuan joan zen Frantziara. Gerrako barku bi etorri zitzaizkienean, beste barku errusiar batek aurre egin zien.

108. Alemaniako mugara (OND-020/016)

Donibane Lohitzunera heldu zirenean, sirena jo zuten eta hegazkinak zetozelakoan, beldurtu egin ziren. Amak eskatu zuen etxeko denak batera

egotea eta Alemaniako muga ingurura eraman zituzten. Jatekoa Euzkadiko gobernuak ematen zien.

109. Gerra zetorrela eta, Frantziatik alde egin behar (OND-020/017)

Arrou izeneko herrian egon ziren Frantzian. Alemaniarrak etorri zirenean, handik nora alde egin nahi zuten galdetu zieten. Ondarrura beharrean, Bartzelonara joan ziren trenez. Sichesen egon ziren. Valentziara joan ziren gero bost neba-arreba.

110. Valentzian hiru urtez (OND-020/018)

Valentzian eskolara joaten ziren. Ia hiru urte egin zituzten han. Gurasoek jakin gabe, etxera bidali zituzten autobusean. Erdaraz berbetan etorri ziren. Aitak errietan egiteko erdara xelebrean esaten ziena kontatzen du. Naranja lapurretan ibiltzen ziren Valentzian. Bainatzera eramaten zituzten.

111. Etxean lapurretan (OND-020/019)

Aita preso egon zela etxera etorri eta gero jakin zuten. Amama etxean utzi zuten Ondarrutik alde egin zutenean, izebaren zaintzapean. Izebak Itziarrera eraman zuen amama. Izeba Ondarrura itzuli zenean, etxea zabalik eta hutsik topatu zuen.

112. Etxerako altzari berriak Azpeititik (OND-020/020)

Izeba Isabelek altzariak ekarri zituen Ondarruko etxerako neskame egon zen lekutik, Azpeititik. Bere koltxoia beste etxe bateko balkoi batean ikusi zuen.

113. Valentziatik etxera (OND-020/021)

Valentziako alkateak autobusa jarri zuen Lore eta beste guztiak Bilbora eramateko. Zaragozan sikiatrikoan pasatu zuten gaua. Bidaia guztian zehar zaintzaileak izan zituzten. Bilbotik Ondarrura autobusez joan ziren. Etxeratutakoan denak harrituta laga zituzten.

114. Umeei jaten emateko beharra (OND-021/001)

Nazionalak Ondarroara heldu zirenean, umeei jaten eman behar zitzaiela erabaki zuten, gizonik ez baitzegoen herrian. Komandantzia non jarri zuten kontatzen du eta hara joaten ziren umeak jatera.

115. Bonbak portura (OND-021/002)

Mutil batzuek goitibeherarekin egurra eramaten zioten amari sua piztu zezan arkupean. Behin hegazkinek bonbak bota zituzten portuan; haietako bat lurrean sartu zen eta ez zen lehertu, eta beste batek beraien barkua lehertu zuen. Arotzaren laguntzaz konpondu zuten.

116. Mendexatik bonbak kainoiarekin (OND-021/003)

Etxean bazeukaten jatekoa eta amak beharra zuenari eman egiten zion. Mendexatik kainoiarekin bonbak botatzen zituzten eta ezbeharrak gertatzen ziren.

117. Kartzelaratu zituzten emakumeak (OND-021/004)

Nazionalak sartu zirenean, emakume batzuk kartzelara eraman zituzten, lehenengo herrikora. Izenak ematen ditu. Isabel izeneko bat haurdun zegoen

eta hura kartzelatik gurutze gorrira eraman zuten. Kofradia zaharra soldaduz beteta egoten zen. Alemaniar injeniari bat etxean eduki zuten, Martin Campos alkateak bidalita.

118. Preso bati jatekoa eramatera (OND-021/005)

Isabeli jatekoa eramatera joaten zen egunero hiru-lau aldiz gurutze gorrira. Italiar ofizial batekin topo egiten zuen egunero eta gau batzuetan autoz eraman zuen Rosario gurutze gorriraino. Isabelen erditzean egon zen.

119. Herriko kartzelatik Donostiara ume eta guzti (OND-021/006)

Erditu ostean, Isabel eta beste emakume batzuk kartzelara eraman zituzten. Ume txiki eta guzti joan zen Isabel. Gainontzeko seme-alabak herritarrek hartu zituzten etxean. Kukurruku eztula harrapatu zuten.

120. Errazionamendua alondegian eta harategietan (OND-021/007)

Kamioietan janaria ekartzen zuten nazionalek eta alondegira eramaten zuten errazionamendua. Han ilaran egoten zen jendea. Haragia Argentinatik ekartzen zuten eta harakinei ematen zieten banatzeko.

121. Ondarroatik alde egin beharra (OND-021/008)

Ondarrutarrak bota zituztenean, mutrikuar batzuk ere etorri ziren haiekin Bilborantz joateko. Oinez abiatu eta Lekeitioraino joan ziren. Han argazkiak atera zizkieten.

122. Gerra garaian Bilbon antxoak saltzen (OND-022/021)

Bilbora joan zirenean, antxoak eraman zituzten eta antxoa plater bat pezeta baten trukean saltzen zuten. Oso gaztea zen orduan. Bertan zeudela, 3 sirena jo zituzten jendea kaleetatik erretiratzeko. Asko kosta zitzaion etxera heltzea.

123. Frankistek Bilbo hartu, eta Ondarroara bueltatu zen (OND-022/027)

Frankistek Bilbo hartu eta handik 5 egunera, osaba Pedroren emaztearekin etorri zen Bilbotik Ondarroara. Lehenengo Atxurin trena hartu zuten, gero autostopean, Amorebietatik Durangora oinez, eta Durangon berriz trena hartu zuten Debaraino.

124. Erosteko baimena: bolak (OND-025/001)

Bolarik gabe ezin izaten zen arrainik erosi, erosi ahal izatekozen bakidun bola hartzen zuten denek.

125. Penizilina kontrabandoan (OND-025/002)

Bai ama eta bai aita autonomoak izatean, seguroa ordaintzen zuten. Oroitzen dute nola penizilina kontrabandoan pasatzen zuten. Hiztunetako baten amak erosten zuen bere gaixotasunerako.

126. Ama arrain-sailtzaile (OND-025/005)

Ama zubi berrian ibiltzen zen arraina saltzen. Gurdiak egoten ziren kalean bertan arraina saltzeko.

127. Izebak turroia erosi zuenekoa (OND-025/006)

Ama eta haren ahizpa elkarrekin ibiltzen ziren arraina saltzen. Izebak, egun batean, irabazitako diru apur batekin turroia erosi zuen.

128. Arrastre-ontziak gustatu ez (OND-025/010)

Lan faltan arrastre-ontzian lanean hasi zen, baina ez zitzaion bertako giroa gustatzen. Kaxak josten hastea otu zitzaion ondoren.

129. Amak dirua fabrikatik (OND-026/002)

Amak dirua fabrikan irabazten zuen, istripuz semea hil eta lantegian lana izango zuela esan zioten.

130. Arrantzari lotutako langileak ezin erretiratu (OND-026/005)

Sare-konpontzaile sartu beharrean, nesktila gisa apuntatu zen. Lan gabe gelditu zenean, kofradian ez zuten bere egoera babestu, eta hamabost mila pezeta ordaindu behar izan zituzten erretiroa hartu ahal izateko.

131. Belauneko egiten zuten lan Ortizenean (OND-026/007)

Hamalau urterekin Ortizenea lantegian lanean hasi zen. Arrain mota guztiekin egiten zuten lan lantegian, urte osoan zehar, gabonak ospatu gabe. Lana belauneko egiten zuten lan, eta eskuz.

132. Lanean kantuan eta kontu-kontari (OND-026/009)

Lanean zeudela abestu eta errezatu asko egiten zuten. Lagun batek nobela asko irakurtzen zituen, eta laneko gainontzeko emakumeei kontatzen zien irakurritakoa.Ohikoa zen oso lankideetako bat zinera joatean, hurrengo egunean ikusitakoa oso-osorik kontatzea, lanean ari ziren bitartean.

133. Fabrikako komeriak (OND-026/010)

Laneko zenbait anekdota kontatzen dira pasarte honetan.

134. Mahai azpiko berogailua (OND-026/012)

Ortizenean mahai baten buruan egiten zuten lan, eta berogailua egur-ikatzezkoa mahai azpian egoten zen. Kontu-kontari egoten ziren, baita errezatzen ere.

135. Dirua eskatzeko beldur (OND-026/014)

Garai batean egunero-egunero ematen zieten irabazitako dirua. gero astero.

136. Diputaziora lekzioa ikasi zutela frogatzeko (OND-027/008)

Maisuek ahalegin asko egiten zuten umeek erdara ikas zezaten. 3-4 mutiko diputaziora eramaten zituzten frogatzeko. Maisuak makila batekin jotzen zituen.

137. 13 urtegaz Saturrarango seminariora (OND-027/014)

Eskola bukatu ostean, 13 urtegaz, Saturrarango seminariora joan zen. Gerra etorri zenean utzi zuen. Guztira 7 urte egin zituen seminarioan.

138. Seminariotik Arana Goiri batailoira (OND-027/015)

Gerran, Seminarioa utzi zuen frontera joateko. Gernikako bonbardaketak ere bertan harrapatu zuen. Arana Goiri batailoira joan zen boluntario.

139. Morse ikasten Zornotzako komentuan (OND-027/017)

Arana Goiri batailoia Bilbon sortu zen. Zornotzako Larreako komentuan ikasi zuten ikasi beharrekoa, morse.

140. Gernikako bonbardaketan (OND-027/018)

Zornotzako Larrea komentuan morse ikasi ostean, Arana Goiri batailoira bideratu zuten. Lekeitiotik Bilbora zihoazela harrapatu zuen Gernikako bonbardaketak. Ez zuten jakin babeslekurik zegoenik ere.

141. Bost urte langile-batailoian (OND-027/019)

Frontean zebilela atxilotu eta langile-batailoietara eraman zuten. Urte bi eta piku egin zituen lehen langile-batailoian; eta, gerora, beste bi urte eta erdi bigarrenean.

142. Frontean pikatxoia eta pistola (OND-027/021)

Pikatxoia eta pistola frontean zeuden guztiek eramaten zuten. Beraiek ez zuten pistolarik eraman "enlaces y transmisiones"en egon zelako. Batailoian arropa onak zituzten. Fusilak pisu asko zuen, aldean eramateko.

143. Fronteko gosea, nekea, usaina eta jornala (OND-027/022)

Frontean gutxi jaten zuten, eta asko argaldu zen. Edonon egiten zuten lo, ahal zen lekuan. Fronteko gogorrena usaina zen: hildakoena, su hartutako gauzena... 3 erreal inguru kobratzen zituzten eguneko Arana Goiri batailoian.

144. Bizkaiko hainbat frontetan ibili zen (OND-027/024)

Arana Goiri batailoian zein frontetan egon zen azaltzen du: Lekeition, Urkiolan, Zollon, Sopuertan... Batailoiko konpainia bakoitzean 150 lagun inguru zeuden. Bilbon, kamioi batzuetan, intendentzian, banatzen zieten jatekoa, gero beraiei mendira eramateko. Arana Goiri batailoian ondarroar gutxi zeuden, gehienak Enkarterrietakoak ziren.

145. Langile-batailoietako bizipenak (OND-027/025)

Ondarroar asko Itsasalde batailoian egon ziren. Langile-batailoian zeudela, Espainiako leku askotan egon ziren. Bertako egun normal bat zelakoa zen azaltzen du. Meza ere izaten zuten frontean.

146. Trintxerak zelan egin (OND-027/026)

Trintxerak zelan egiten ziren azaltzen du. Pikatxoia eta pala erabiltzen zituzten.

147. Hildakoak lurperatu eta gutunak etxera (OND-027/027)

Hildako jendea beraiek egindako zuloan lurperatzen zuten. Ofizialak arduratzen ziren senitartekoak abisatzeaz. Frontean zegoela, etxekoekin karta bidez komunikatzen zen. Guztira, 5 urte eta 2 hilabete egin zituen. Langile-batailoietan ez zuten jornalik izan.

148. Heriotza-zigorra ihes egiten saiatzen zirenei (OND-027/029)

Beraien batailoian gutxiri ezarri zieten heriotza-zigorra. Ihes egiten saiatzen zirenei ezartzen zioten zigor hori. Ihes egiten ahalegintzea erraza ei zen, baina helburua lortzea ez hainbeste.

149. Barandiaran eta Lekuona izan zituen maisu (OND-027/031)

Saturrarango seminariotik Gasteizkora joan zen, ikasgai desberdinak ematen zituzten bertan. On Joxe Migel Barandiaran eta On Manuel Lekuona izan ziren bertako irakasle batzuk. Seminarioan erdaraz izaten zituzten irakasgaiak, baina Lekuonak astean behin ematen zieten euskarazko klasea.

150. Erreketeen 'Círculo vasco-español' (OND-027/035)

Batzokia eta errepublikazaleen egoitzak eta erreketeen Círculo vasco-español egon zen. Ondarroan ere bazeuden erreketeak.

151. Gerraostean baserritarrekin trukea (OND-028/001)

1939ko Gabonetan bueltatu zen etxera gerraostean. Hala ere, langile-batailoira eraman zuten eta beste bi urte eta erdi egin zituen. Gerraostea lana ez zuenarentzat izan zen gogorra, arrantzan bazegoen lana-eta. Baserritarrek ekartzen zuten jatekoa plazara. Trukea egiten zuten arrantzaleek baserritarrekin.

152. "Compañia esperanza" autobusak (OND-028/004)

"Compañia esperanza" autobus konpainiako inspektore moduan hasi zen lanean. Ondarroatik Bilbora eta Gernikaraiñoko autobusak egoten ziren. Antonio Begiristain zen bertako arduraduna.

153. Hara eta hona joateko garraiobideen maiztasuna (OND-028/007)

Lekeitiora hiru autobusetan joaten ziren egunean. Debaraino joaten zen autobus hori; eta, handik Donostiara joateko, trena hartzen zuen jendeak. Bilbora pare bat autobus zeuden; eta Gernikara bakarra, astelehenetan. Astelehen berezietan autobus gehiago jartzen zituzten Gernikara joateko.

154. Antzinako egunkariak (OND-028/010)

Ondarroan batez ere Euzkadi egunkaria irakurtzen zen. El Diario Vasco eta Excélsior kirol-egunkaria ere bazeuden. Zubi ondoan egoten zen itsu batek, Alejandro Badiolak, saltzen zituen.

155. Irratia (OND-028/011)

1926. urtean entzun zuen lehenengo biderrez irratia. Boxeo-konbate bat entzun zuten. Gerran batailoi batetik bestera jasotzen zuten informazioa.

156. Kresala dantza-taldea (OND-028/014)

Kresala ezpata-dantza taldean ibili zen mutikotan. Inguruko herrietara joaten ziren. Zein arropa erabiltzen zituzten azaltzen du. Hasieran mutilak bakarrik aritu ziren; gerora, neskekin nahastean. Zezilio Badiola zen irakaslea.

157. Euskal izenak kendu (OND-029/002)

Gerra denboran eta ostean euskal izenekin arazoak izan zituzten. Nekaneri "María Dolores" deitzen zioten eskolan eta Miren Loreri "Florita". Beraien nebari "Bitor" izenagaz sinatu zuelako atentzioa deitu zieten.

158. Bandera eta geziak janztera behartuta (OND-029/003)

Gerra denboran paparrean Espainiako bandera txikia jartzera behartu zuten. Gero falangeko geziak jarri behar izan zituzten.

159. Soldaduen beldur gauzak erre edo ezkutatu (OND-029/004)

Gerra garaian, soldaduak etxez etxe joaten ziren arakatzera. Liburuak, poxpolin arropak eta gainerakoak erre egiten zituzten beldurrez, baina beraien amak erre beharrean, koltxoian gorde zituen. Pregoia zabaldu zuten etxeetan zituzten gauzak entregatzeko. Beste alderdikoa zen emakume batek abisatu zien ordurako abertzaleek gauzak erre zituztela.

160. Erreketeak ohe bila (OND-029/005)

Erreketeak etxerik etxe joan ziren ate joka ohe bila. Beraienera ere joan zen behin bat mozkor-mozkor etxez erratuta.

161. Egur bila (OND-029/006)

Gerraostean, Nekane mendira joaten zen egur bila. Karga handia izaten zen beraientzat.

162. Gerrako babeslekua (OND-029/007)

Gerrako babeslekua etxe azpiko denda bat zen. Momentu horietako kontuak kontatzen dituzte.

163. Eskolak-ihesi (OND-029/008)

Nekanek eskolak-ihesi (sasieskola) asko egiten ei zituen. Maistrak joanez gero asko ikasiko zuela esan zion. Ez zitzaion batere gustatzen. Gauza asko kantatzen ikasten zituzten. Behin aitak eskolaraino jarraitu zuen bertara zihoala ziurtatzeko.

164. Neba-arreben arteko haserreak (OND-029/009)

Hainbeste mutilen artean etxeko lanak Nekanek egiten zituen. Arazorik eta haserrerik ez izateko etxetik atera behar izaten zituzten nebak. Behin neba batek zinemako programak-edo apurtu zizkion eta Nekanek berari zesta-puntako xistera.

165. Umetako jolasak I (OND-029/010)

Jolasak: poto-potoka, pongolak...

166. Jangela sozialak (OND-029/011)

Erreketeek jantoki sozialean jatekoa ematen zuten. Bertan izandako bizipenak dakartza gogora Nekanek. Falangekoak ere ematen zuten jaten.

167. Bala galduak (OND-029/012)

Gerra zibilean, Miren Lore umea zen eta Nekane neskatila; garai hartan, kalean zehar bala galduak zeuden, batetik besterako balak.

168. Umetako jolasak II (OND-029/013)

Normalean neskak neskekin eta mutilak mutilekin aritzen ziren jolasean. A la banderaka, txintxirrikan...

169. Andrakiletak (OND-029/014)

"Andrakiletak" (panpinak) ikusi baino ez zituen egiten Nekanek. Bat izan zuen, baina euriaren apurtu egin zitzaion. Gerraostean dena aberatsentzat ei zen.

170. Jatekoaren truke mandatuak egin (OND-029/015)

Nekane bi emakumeren etxera joaten zen gaztetan mandatuetan-eta laguntzera, horiek Gabonetan ematen zieten jeneroaren truke. Leihotik kantin bat eskegitzen zuten mandatuak bertan jartzeko.

171. Lehengusua takoiarekin jo (OND-029/016)

Nekanek beraien lehengusu batekin izan zuen liskarra kontatzen du. Takoi altuko zapata batekin jo zuen eskuan lehengusua bere beldur zen eta.

172. "Alabado sea Dios", "la hora de amar a Dios"... (OND-029/021)

Mojekin hainbat esaldi askotan errepikatzen zituzten: "Alabado sea Dios", "¿Qué hora es? la hora de amar a Dios".

173. Mezaren garrantzia eta debekuak (OND-029/022)

Nekaneri eskola ez zitzaion gustatzen, baina dotrina bai. Mezara asko joan behar izaten ziren, askotan lo egiten zuten. Mojen ikastetxean puntuak lortzen zituzten mezara joanez gero. Nekanek herriko eskolan ikasi zuen eta ez zuten mezara joateko derrigortasunik. Mezara ezin zitekeen edozelan jantzita joan: eskotearekin, galtzerdi gabe...

174. Meza orduak eta egunak (OND-029/023)

Beraien etxean amak derrigortzen zien mezara joateko. Egun seinalatu batzuetan, berean behin baino gehiagotan joaten ziren. Astegunez goizeko 7etan izaten zen lehena, eta domeketan 6etan. Komulgatzeko baraurik joan behar izaten zuten.

175. Mezara arrain usainagaz (OND-029/024)

Domeka goizetan sarritan lanetik zuzenean joaten ziren mezara arrain usain handiarekin. Don Manuelek atzealdetik aurrera pasatzeko eskatzen zien. Amak beti esaten zien: "Mezatxu batek ze kalte eingo dau ba!"

176. Neba erretako elizara laguntzera joan eta bertan hil (OND-029/025)

Berriatuko elizak su hartu zuen 1945. urte inguruan. Beraien neba bertara joan zen laguntzera eta teila bat-edo jausi eta bertan hil zen. Bera ez zen mezara asko joatekoa, baina egun hartan bertan harrapatu zuen elizak.

177. Konfesatu eta komulgatu (OND-029/026)

Komulgatzeko konfesatu egin behar izaten zuten. Pazkotan konfesatzerakoan txartela ematen zien eta komulgatzeko txartela eman behar izaten zuten froga-agiri bezala. Nekanek behin komulgatu aurretik azukre-koskorra jan zuenez ezin izan zuen komulgatu.

178. Meza latinez; sermoiak (OND-029/028)

Mezak latinez izaten ziren eta ez zuten piperrik ere ulertzen. Sermoiak, ostera, ondo ulertzen ziren.

179. Zentsura zineman (OND-029/030)

Zinemak zentsura zegoen eta ezin zen edozein pelikula ikusi. Zati batzuk kendu egiten zituzten eta askotan ezin izaten zuten pelikula ondo ulertu. Elizak indar handia zuen.

180. Erromerian mutilekin komeriak (OND-031/002)

Igandeetan erromeria egoten zen kioskoan. Helduta dantzan eginez gero, Mariaren Alabetako domina kentzen zieten. Dantzan egiten ez zekiten mutilak ere ibiltzen ziren erromerian. Anekdota bat kontatzen du. Neskak elkarrekin dantzan hasten ziren eta ausartzen ziren mutilek dantza eskatzen zieten.

181. Arropa berria andramarietan (OND-031/003)

Andramarietarako arropa berria janzten zuten. Martxoan antxoei burua kentzera joaten ziren eta han jasotako dirutik gordetzen zuten arropak erosteko beste. Neguan zelako jantzi eta oinetakoak izaten zituzten kontatzen dute.

182. Makilatu ez baina depilatu bai (OND-031/006)

Erromeriarako ez ziren makilatzen. Nekane depilatu beti egin izan da; lehenengoan bizarra kentzekoarekin, gero atxurrarekin eta ondoren krema batekin. Galtzarbeak ez zituen depilatzen.

183. Hilekoaren tabuak eta mitoak (OND-031/008)

Hilekoarekin bainurik ez zuten hartzen eta garbitu ere gutxi. Zapiak ur hotzetan garbitzen zituzten eta barruko sokan esegitzen zituzten. Hilekoaren gaia tabua zen. Lagunartean isilpean eta lotsaz berba egiten zuten. Hilekoa izanez gero, entsaladari ozpinik ezin zitzaion bota, bururik ezin zen garbitu, ezin zuten bainatu...

184. Aita salbokondukto eske (OND-031/009)

Aita preso egon zen Miren Lore oso ume txikia zela. Kartzelatik etorritakoan, salbokonduktoa behar zuela eta, agiri eske joan zeneko pasartea. Aita abertzalea zen.

185. Esaerak, gizonaren ordez fraka eta emakumearen ordez gona (OND-031/011)

Gizonaren ordez fraka eta emakumearen ordez gona hitzak erabiltzen zituzten ezkutuan berba egiteko.

186. Etxeko erremedioak; kipula, azukre errea eta erreparua (OND-031/012)

Beraien amak sendabelarrak eta etxeko erremedioak erabiltzen zituen. Kipularen mintza jartzen zen zauriak lehertzeko. Enplastuak egiten zituen amak. Gripearentzako azukrea erre eta insentzuaren moduan jartzen zuen geletan. Erreparua egiten zuen: trapu bat alkoholetan busti, sua eman eta tapatu, eta berehala sabelean ipintzen zen, beherakoak eta antzekoak arintzeko.

187. Etxeko erremedioak azaleko gaitzentzat eta erreumarentzat (OND-031/013)

Karatxentzat belar bat erabiltzen zuten, haren zukua jarrita. Azaleko ultzerentzat baraurik zaudeneko txistua egiten zaio zauriari. Pixa jartzea ere ona dela entzun izan du. Erleak ziztatuz gero, ozpina ematen zen. Erreumarentzat argizaria erabiltzen zuten.

188. Umetako olgetak (OND-032/004)

Zaldupebidean "A la bandera"ka eta "Tres navios"ka aritzen ziren. Sokasaltoan eta pongolan ere jolasten ziren. Pongolak bildotsak belauneko hezurrarekin egiten ziren. Barre asko egiten zuten eta baita burlatu ere.

189. Jendeari barrezka eta burlaka (OND-032/005)

Bere ahizpa batek ez zuen nahi izaten berarekin kalera irten, jendeari barre eta burla egiten zietelako. Behin "el afilador"ri egin zizkiotenak dakartza gogora.

190. Eskolako maistrak (OND-032/006)

11 urtegaz utzi zuen eskola. Eskola nazionaletan ibili zen. Cara al Sol abestu behar izaten zuten. Dotrina ere ikasten zuten bertan. Maistrak aipatzen ditu: doña María gaiztoa zen; doña Anita, ostera, ona.

191. "Urte guztiko eliza" (OND-032/010)

Dotrina elizan ikasi zuten. Lehen jaunartzea bertan ikasitakoarekin egin zuten. Gazterik hasten ziren: 7 urtegaz lehen jaunartzea eta 11gaz bigarrena. Elizara joatea derrigorra zen. Amama edo ama-edo hiltzerakoan, "urte guztiko eliza" izaten zuten. "Urte guztiko eliza" zer den azaltzen du.

192. Eskolan mutilak aparte zeuden (OND-032/012)

Eskolan giro ona zuten. Ez zuten zigor gogorrik izan. Eskolan mutilak beste alde batean egoten ziren.

193. Gaztetatik denetariko lanak egin behar (OND-032/015)

Nati gazterik hasi zen lantegian lanean, eta lantegia esku desberdinetatik pasa arren han erretiratu zen. Tabernan ere aritzen zen, gizon artean eta gizonen moduan, berak dioen legez.

194. Kontserba-lantegiko lanak (OND-032/018)

Kontserba-lantegian zein lan egiten zuten azaltzen du: atun zein antxoa kanpainan. Dena egiten zuten eskuz, baina atun xerrak (tajadak) makinak ebakitzen zituen. Beharraren araberako lanaldia zuten. Astero kobratzen zuten eta ordurako diru nahikoa ei zen. Orduko kobratzen zuten.

195. Irabazitakoa etxean eman behar (OND-032/019)

Lanean irabazitako dirua ez zen beretzat. 22 urtegaz Urberuagako hotelera joan zen lanera. Hurrengo urtean San Juanetatik iraila hasiera arte joan zen. 22 urtegaz joan zenean, bertan irabazitakoarekin urte osoko etxeko errenta ordaindu zuen. 24 urtegaz, ezkonberria zela, amaginarrebak ez zion utzi lanera joaten.

196. Urberuagako hoteleko beharra (OND-032/020)

Urberuagako hotelean egiten zuten lana azaltzen du pasarte honetan. Uniforme dotore-dotore izaten zuten. Irabazitako dirua etxean eman behar izaten zuten.

197. Lanera joateko abisua; "diar eintzailli" (OND-032/022)

Urberuagako hotelera lanera joateko abisua arrain-saltzaileen bitartez jasotzen zuen. Hala ere, "etxe handietan" bazegoen telefonoa. Lehen arrastreroetara lanera joateko ere etxez etxe deiadarka abisatzen zitzaien. Nati bera "diar eintzailli" eta bodegako arduraduna zen. Deiadar zelan egiten zuten azaltzen du.

198. Hil-kanpaiak (OND-032/023)

Lehen kalean ez zegoen hildakoen eskelarik. Gizonezkoaren hil-kanpaiak hiru izaten ziren; andrazkoarenak bi; eta, umearena, txilin-txilin.

199. Turruna (OND-032/024)

Portura arraina sartzen zenean "turruna" jotzen zen, hori beti egon da.

200. Errekan igerian eta hondartza (OND-032/025)

Hondartzara ez ziren bainujantzia jantzita joaten. Etxeko ondoko errioan ikasi zuten igerian.

201. Aberatsen eta pobreen hondartzak (OND-032/026)

Lehen bi hondartza zeuden: pobreak txikira joaten ziren eta aberatsak handira. Eurak hasieran txikira joaten ziren; gero, handira. Kasetak aberatsentzako ziren, eta bakoitzak berea izaten zuen. Ahal zuten guztietan joaten ziren hondartzara. Ez zuten eskuoihalik (toallarik) izaten. Eguzkitako kremak "articulos de lujo" ei ziren.

202. Lapetan (OND-032/028)

Hondartzan zeudela ez ziren haitzetara joaten, ez zegoen holako ohiturarik. Lapak hondartzan bertan hartzen zituzten.

203. Zaldupebideko hondar txikia eta haitza (OND-032/030)

Karramarroak errioan harrapatzen zituzten. Sua egin eta potoetan (piper-potoetan edo) ura irakin eta hantxe prestatzen zituzten. Lapak gehiago gustatzen zitzaizkion. Igerian gazterik ikasi zuen etxe ondoko "hondar txikixe"n, Zaldupebideko denek hantxe ikasi zuten. Uretan haitz handi bat zegoen, baina marea gora zegoela tapatu egiten zen eta mare behean handik salto egiten zuten.

204. Errekan bainuak baino ez, garbiketarik ez (OND-032/031)

Errekan bainuak baino ez zituzten hartzen. Garbiketetarako barrurako dagoen errioa erabiltzen zen. Kontserba-lantegitik irteten zirenean ere joaten ziren bainatzera, zubian beti egoten zen aguazila zain. Uretako jolasak gaur egungo kontuak ei dira, lehen ez zegoen horrelakorik.

205. Estropadetako zaletasuna (OND-032/032)

Estropadak beti izan dute indarra Ondarroan. Bertako estropadei buruzko kanta bat ere badago. Herritarrak Donostiara ere joaten ziren ikustera.

206. Ur korrontea, komuna eta argia (OND-032/034)

Etxean beti ezagutu du ura, iturri bakarra zuten ezkaratzean (sukaldean). Komuna zelako zen azaltzen du. Komuneko papera ez zuten izaten eta egunkaria erabiltzen zuten. Beraien burua garbitzeko txandak egiten zituzten. Neskak garbitzerakoan, mutilak etxetik bidaltzen zituzten. Pobreak izan arren ez zuten ezer falta. Bere ama Ortizeneko lantegiko maistra zen eta ez zuten ezeren faltarik izan. Argia ere beti ezagutu du, hiru zituzten etxean: ezkaratzean (sukaldean), pasilloan eta egongelan.

207. "Arenadura" (OND-032/035)

Etxeko egongelan oholezko aulki batzuk baino ez zituzten izaten. Hondartzako harearekin "arenadura" egin eta zuri-zuri jartzen zuten egurra. "Arenadura" zelan egiten zuten azaltzen du. Egongelan argizaria ematen zuten.

208. Gerran zubia bota eta etxez aldatu ziren (OND-032/036)

Gerra denboran, etxe ondoko zubia bota egin zuten eta beste aldera pasatu ziren, lehengusu-lehengusinen etxera. 9 ume batu ziren bertan helduekin batera. Nazionalek herria hartu zutenean sartzen ikusi zituzten.

209. Aita Ingalaterrara ihesi (OND-032/038)

Nazionalek herria hartu zutenean, sartzen ikusi zituzten. Gerra hasieran edo mugimendua hasi zenean, beraien aitak alde egin zuen itsasoz. Frantziatik Ingalaterrara joan ziren eta bertan hil zen.

210. Aita ezpata-dantzako maisu (OND-032/040)

Nazionalak herria hartu zutenean kalte asko egin zuten. Herritar asko ere beraien aldekoak ziren, gogorrak izan ere. Beraiek, ostera, abertzaleak ziren; aita ezpata-dantzako maisua zen klandestinitatean. Bere ahizpa pospolina zen. Dantzari arropak etxeko egurraren azpian ezkutatu zituzten beldurrez, baina handik atera zituztenerako sitsak janda zeuden.

211. Emakume soldaduak (OND-032/043)

Soldaduz jantzitako emakume asko ikusi zituen Ondarroan Gerra Zibilean. Fusil asko ikusten zituzten. Herria hartu zutenean, gainerakoak etxean ezkutatuta egon ziren beldurrez.

212. Egunkaria egunero (OND-032/045)

Bere aitak abertzalea zelako egin zuen alde. Egunero erosten zuen egunkaria eta gainerakoei irakurtzen zien. Berak gaur egun dauden egunkariak baino ez ditu gogoan.

213. Ingalaterran zerraldoa ikurrinarekin (OND-032/046)

Gerra Zibilean alde egin zuten gehienak gizonezkoak izan ziren. Aita kanpoan zela, ez zuten beragaz hartu-emanik izan. Bere heriotzaren berri bertan egon zen abade bati esker izan zuten. Hileta-elizkizunean hilkutxa ikurrinarekin estali zuten, etxean dituzten argazkietan ikusten den moduan.

214. Jateko faltarik ez (OND-032/047)

Aita hil ostean amak ez zuen alarguntasun laguntzarik jaso, ez baitzegoen horrelakorik. Amak behar asko egiten zuen eta horri eskerrak ez zuten ezeren faltarik izan. Ortizen lantegian, amak lan egiten zuen tokian, opil bat ematen zieten egunero.

215. Abertzalea zelako ogia ukatu (OND-032/048)

Gerraostean behin bere ahizpari ez zioten ogi opila eman dendan. Beste ideologia politikoa zuen osabagaz joan eta eman egin zioten.

216. Jangela sozialak (OND-032/050)

Herriko denda batean erosten zuten astean behar zuten jeneroa. Dirurik ez zuten umeentzat jangela sozialak egon ziren. Platera, koilara eta behar zena etxetik eramaten zuten, baina jatekoa debalde zen. Umeak bakarrik joaten ziren. Batez ere lapikokoa jaten zuten.

217. Euskarazko lehen eskolak (OND-032/054)

Euskarazko lehen eskola era klandestinoan jarri zen martxan. Bere semea izan zen bertako lehen umeetariko bat.

218. Itsasoari esker, goserik ez (OND-035/036)

Goserik ez dute pasa inoiz. Denda zuten. Eta horretaz gain, itsasoak beti eman izan ei du ondo, gaur arte. Lehen esaera zen itsasoa guztiena zela, ez zuela jaberik, baina orain kontuak aldatuta daude. Ondarroako aberastasun handiena antxoa izan da. San Jose egunerako fabrika guztiak antxoaz beteta egoten ziren; umeak ere ez ziren joaten eskolara, antxoei burua kentzera joaten ziren eta. Bestela, atuna, berdela edo bakailaoa, beti izaten zuten zerbait.

219. Errazionamendu garaian ogi zuria nahi (OND-035/037)

Errazionamendu garaian ogi-gosea egon zen. Ogi beltza eta gogorra bakarrik zegoen eta ogi zuria nahi. Kartilarekin etortzen zitzaizkien bezeroak dendara. Gerraosteko `Aita gurea´.

220. Ondarroan "goma-fardoekin" aberastu ziren batzuek (OND-035/038)

Gerraostean Ondarroan batzuk aberastu egin ziren itsasoan aurkitutako "goma-fardoekin" (Mundu Gerrakoak ziren). Beraiek ez zuten han partilarik eduki, aitaren barkua, `Euskadi´, itsasoan galdu zelako. Bapore-ontziaren izenetik datorkie gaitzizena.

221. Antxoa "fileteetan" zelan ipintzen zen (OND-035/040)

Antxoa lantegian antxoa prestatzeko beste modu bat "fileteetan" izaten zen. Lehen latetan sartutako antxoa izan zitekeen, edo baita antxoa osorik ere, Italiarako eta. Antxoak kopaletean (otzaran) ipini, handik hartu eta trapu batekin harraskatzen ziren. Atzamarrarekin erdiko hezurra kendu, erditik irekita, eta bizar txikiak aiztoarekin kendu. Filete haiek latetan ipini eta olioa botatzen zitzaien. Gero makinarekin latak itxi. Denboraldi bukaeran lata guztiak zerrautsarekin garbitzen ziren.

222. Atuna kontserban ipintzeko urratsak Orlandorenean (OND-035/041)

Atunaren prozesua lantegian. Lehen mendrezka kendu egiten zitzaion atunari, ez zen aprobetxatzen lantegian, eta nahi zuenak etxera eraman zezakeen. "Kakatzi" egiten zuten lehenengo, atuna garbitzea. Gero galdara handietan "salmueran" egosten zen. Handik ateratakoan lau zati egin eta aiztoarekin harraskatzen zen, beltz guztia kentzeko. Latetan sartu, olioa bota eta itxi. Latak zerrautsarekin garbitzen ziren eta ardi (arkakuso) ugari egoten ziren tartean. Orlandorenean atuna, antxoa eta "fileteak", hirurak egiten zituzten. Gero Arrutirenean ere ibili zen.

223. Arraste-ontzientzat lanean, portuan arraina sailkatzen (OND-035/042)

Arraste-ontzientzat ere lan egin izan du, portuan. Barkua zetorrenean, abisua ematen zieten eta portura joaten ziren. Gizonek karroetan arraina bodegetara sartzen zuten eta eurek arraina sailkatzen zuten, klasearen eta tamainaren arabera. Handiak, esaterako, irekita eta kokotxak kenduta etortzen ziren; kokotxak marinelentzat izaten ziren. Perloi beltzak eta gorriak ere banatuta. Gero, beste batzuek haiek kaxetan ipini eta saldu egiten zituzten.

224. Kontserba lantegiko soldata; kotizaziorik ez (OND-035/043)

Bere lanean ez zuen inoiz kotizatu. 1960ra arte lan egin zutenek pentsioa jasotzeko aukera izan zuten, baina bera 1955ean ezkondu zen eta utzi egin zuen lana. Harrezkero ez zuen gehiago lanik egin etxetik kanpo. Beraz, senarraren alarguntasuna bakarrik geratu zitzaion. Arrutirenean lau ahizpa ibili ziren batera lanean. Hamabi pezeta eta erdikoa zen bakoitzaren asteko soldata.

225. Jaiotzako bandera espainiarra estali zuen (OND-037/004)

Eskola nazionalean ibili zen 10 urtera arte. Andereñoak jo egin zuen Gabonetako jaiotzako bandera espainiarra estaltzearren, eta amak atera egin zuen eskolatik. Orduan eskola partikularretara hasi zen.

226. Lehenengo dendari eta gero tabernari (OND-037/005)

Hamazazpi urterekin itsasorako gauzen denda batean hasi zen lanean. Soldadutzara joan zen. Kafetegi batean hamar urtean egin zuen lan eta hura bota zutenean Sokoa taberna sortu zuen berak.

227. Ondarroako "zezenak" (OND-037/008)

Musika plazan jartzen zituzten egurrezko eskailerak eta zezenketa antzezten zuten.

228. Karroza subertiboak Arrantzale Egunean (OND-037/009)

Arrantzale Egunean denak janzten ziren urdinik, azulik. Behin Bilbotik deitu zioten hurrengo egunean, karroza subertsiboak agertu zirelakoan bezperan.

229. Mutrikuko kondeak (OND-037/010)

Hamabost urte zituela dantzako taldearekin joan zen Mutrikura Francoren emaztearen aurrean dantzatzera. Mutrikuko kondeen berri ematen du: Areilzaren emaztea zen berez Mutrikuko kondesa.

230. "Haurtxo danak alkarturik..." kanta (OND-037/012)

Mutrikutik Ondarroarantzean, autobusean, dantza taldeko gaztetxoek kantatutakoa abesten du osorik. Ondarroako PNVn ikasitako abestia da. Guardia Zibilek "Kanta subertsiboak" abestu zituztela esan zieten, baina eurek ez zekiten zer ari ziren leporatzen.

231. Presidentearen zereginak (OND-037/014)

Aurrera kirol klubeko presidente zela, hainbat zeregin zituen: diru-kontuak ikuskatu, jokalariak...

232. Gipuzkoako Federazioko kide (OND-037/016)

Gipuzkoako Federazioan egon da beti Aurrera futbol-taldea. Gipuzkoako klubekin harreman handiagoa zuten.

233. Arrera, kirol eta kultura taldea (OND-037/017)

Mendi-taldea ere bazegoen Aurreran; kanpalekuak ere egiten zituzten. Horrez gain antzerkia, kultura edo arrauna ere bultzatzen zuten. 1926an, aita patroi joan zen Portugaleteko estropadetara Ondarroako traineru batean.

234. Arraunzaletasuna Ondarroan (OND-037/018)

Gaztea zela, bazegoen arraunerako zaletasuna, baina sufrimendu handiko kirola zen, eta txarto ordainduta zegoen. Orain neskak ere badabiltza.

235. Berbena debekatu zuen Guardia zibilak (OND-037/019)

Berbenak antolatzen zituen Aurrerak. Behin Maite Idirin gonbidatu zuten; Ondarroako batzuek ere kantatu zituzten euskal kantak, eta "Maria Cristina me quiere gobernar" kantatzeagatik guardia zibilek debekatu zuten jaialdia.

236. Berbenako atean guardia zibila (OND-037/020)

Berbenak Zeledonion eta Frontoi plazan egiten ziren. Guardia zibilak atera joaten ziren berbenetan. Gerra aurretik Aurrezki Kutxak eraikitako etxea hartu zuten gerora kuarteltzat guardia zibilek.

237. Serenoak (OND-037/021)

Gauez, edaten zutenak eta kantatzen zutenak eta, zaintzea zen serenoen eginkizuna. Frankistak ziren denak. Lehen ez zuten euskaraz egiten; orain aldatuta daude.

238. Eskolan Juan izan behar zen Jon (OND-037/022)

Eskola nazionaletan gaztelerazko izena esan behar zen. Nolabaiteko haurtzaindegia ere egoten zen orduan. Elizaren gainean egoten ziren eskola eta udaletxea. Neskak Zeledonio Eskolan edo mojetan ibiltzen ziren.

239. Mojak zaharren egoitzen arduradun (OND-037/023)

Zaharren egoitza lehen "Ospitxala" esaten zitzaion tokian zegoen. Oraingo egoitza berria egin zutenean, hango mojek hartu zuten horren ardura.

240. Eliza zen aukera bakarra (OND-037/024)

Gurasoek elizarako bidea irakatsi zioten. Hori zen zegoen bakarra. Dena zen tabu. Gerora, dena ahazten joan da.

241. Seiluak bildu behar ziren, txangoa irabazteko (OND-037/025)

Gutxi joan zen dotrinara. Batera egin zituen Jaunartze handia eta txikia. Gogo-jardunaldien aitzakian, astebete pasatzen zuten etxetik kanpo. Mezatara joateagatik seiluak biltzen zituzten txangoa irabazteko.

242. Zapata-kaxan eskursioko bazkaria (OND-037/026)

Zapata-kaxan eramaten zuten bazkaria txangoetara: tortilla edo "arraina pla-pla eginda".

243. Astelehenetan igando mezari buruzko galdeketa (OND-037/027)

Goizean mezatara joan behar zen, eskola nazionalera joan baino lehen. Domekero joan behar ziren elizara, eta astelehenean galdetzen zieten igandeko elizkizunari buruz.

244. Ezkontzako deietan Gaizka esan zuen apaizak (OND-037/028)

Gaizka Urrestiren ezkontzako deiak izan zirenean, berari Gaizka esateko esan zion apaizari, eta ez Salvador, bestela aldarera igoko zela bere burua aurkeztera. Lagunak joan ziren ea zer gertatzen zen ikustera, baina apaizak euskarazko izena esan zuen.

245. Otoitzak gazteleraz (OND-037/029)

Gazteleraz ikasi zituzten otoitzak elizan.

246. Elizak dioena ez da egia (OND-037/030)

Jesukristoren ordezkoa egon zela eta haren historian sinisten du, gizon izan zen neurrian, ezer berezirik gabe. Orain Elizak esaten dituenak ez dira egiak.

247. Dena aitortu beharra (OND-037/031)

Lehenago, aitortzaren bidez, herriko apaizek familia guztien berri zuten. Dena zen tabua. Aitortzan galdetzen zuten sexu-jarduerei buruz, baina ez zitzaien egia erantzuten. Dena aitortu behar zen.

248. Katolikoak bai, baina denak berdinak? (OND-037/032)

Europan zehar asko ibilitakoa da. Lagunak elizkoiak ziren eta mezatan denak joan ziren jauna hartzera, bera izan ezik; izan ere, berak ez zuen jauna hartzen konfesatu gabe, baina, ordurako, lagunek zioten pulpitotik emanda zegoela barkamena guztientzat.

249. Apaizgaiak erakartzeko propaganda (OND-037/033)

Egunkarian agertu da apaizgaiak erakartzeko propaganda; baina ez zaio zuzena iruditu. Antzina seminarista asko zegoen Saturraranen.

250. Saturrarango presoei eramaten zieten jana ondarrutarrek (OND-037/034)

Ondarroatik jende asko joaten zen Saturrarango kartzelako presoei jatekoa eramatera. Hantxe jaiotako neskatxo bi hazi ziren Ondarroan.

251. Gutxitu dira frankistak (OND-037/036)

Frankista nahikotxo egon da Ondarroan; sasoi batean ia 500 boto lortzen zituzten. Orain gutxiago dira; izan ere, haien ondorengo batzuk ezkerrekoak edo, dira.

252. Ondarroan euskaraz (OND-037/037)

Beste inon ez bezala, Ondarroara heltzen diren guztiek berehala ikasten dute euskaraz. Beti egin izan dute euskaraz. Francoren garaian, eskola nazionalean zigortu egiten zituzten euskaraz egiteagatik.

253. Beristain, dantza-maisu (OND-037/038)

Hainbeste frankista ezkondu ziren abertzaleekin. Lehengo abertzale guztiak ziren PNVkoak. Arreba eta bera ere sei urtetik ibili ziren EAJko dantza-taldean. Ondarroan dantza-maisu ona izan zuten, Beristain.

254. Bi alargun ezkondu (OND-039/002)

Tobanekoa deitu arren, ez dira berez. Astarrikanekoa ama eta Periko Txatoa aita, biak alargunak, bien artean hamalau seme-alaba.

255. Aña siku Madrilen (OND-039/004)

Ama Madrilen egon zen aña siku. Bi alargunen arteko ezkontza hitzartu eta itzuli zen Ondarroara.

256. Nahiago hiletara eskolara baino (OND-039/009)

Hamalau urtera arte eskolan. Azken mailan zegoela, zaharrenek esaten zioten andereñoari esateko hiletara joan behar zutela, eskolatik alde egitearren.

257. Irakasleak jaramonik ez (OND-039/012)

Irakasleak ez zien jaramon handirik egiten, zaharrenei eskaintzen zien arreta.

258. Abila lanerako (OND-039/013)

Hamabi urterekin hasi bazen ere, eskola utzi ondoren ez zitzaion falta lanik. Hainbat arrain-fabrikatan egin zuen lan: Agirreoan, Ortizenean eta Kulixkan. Aitaginarreba eta amaginarreba zituen etxean.

259. Emakumeek egiten zituzten gizonezkoen lanak (OND-039/014)

Orain gizonezkoak ibiltzen dira fabrikan, lehen ez. Emakumeek egiten zituzten gizonezkoen lan asko. Zimarroiari ez zitzaion burua kentzen, baina atunari bai, eta eurek kentzen zioten matxeteaz.

260. Kulixka arrain-fabrika (OND-039/016)

Urkizuk eta Jose Luis de La Ricak arrasteroa erosi zuten eta arrain-fabrika egin zuten.

261. Arrainen neberan hoztuta gaixotu (OND-039/019)

Oso gutxi irabazten zuten. Kartillakoaz gain zerbait gehiago irabazten zuten. Arrainen hozkailuan hoztu, eta kalean gaixotu zela entzun behar izan zuen.

262. Lan bai, baina kotizatu ezer gutxi (OND-039/020)

Ez zuen kotizatu: Agirreoanean zituen egun gutxi batzuk. Fabrikan meniskoa apurtu zitzaion eta Donostiara joan behar izaten zen: lehenengo Debara autoan eta handik Donostiara trenean joan behar izaten zuen.

263. Neska gazteekin lanean (OND-039/022)

Neska gazteekin jartzen zuten fabrikan lanean haiek zuzentzeko, eta Rosariok ondo zekien nola kontrolatzen zituen ugazabak, gazteagoek sinetsi ez arren. Orain ere etortzen zaizkio gazteak agurtzera.

264. Fabrikara gaztetxotan, eta beste guztia ahaztu (OND-039/024)

Dotrinara joan zen jaunartzea egiteko, baina horra ere gutxi. Fabrikara gaztetxotan hasiz gero, beste guztiari ez zaio jaramonik egiten.

265. Bonbardeketetan "torrera" joaten ginen babestera (OND-039/027)

Gerrako bonbardaketetan izebaren etxera, "torrera", joaten ziren, harrizkoa zenez, seguruagoa zelakoan. Bestela, etxe barruan egoten ziren. Zenbait emakume atera zitzaien bidera erreketeei.

266. Zorriz beteta itzuli zen aita (OND-039/029)

Atxilotuta egon ondoren, zorriz beteta itzuli zen aita etxera. Harrezkero, arrantzan jarraitu zuen.

267. Nebak kontzentrazio-esparruan (OND-039/031)

Neba zaharrak kontzentrazio-esparruan egon ziren.

268. Ondarrutik Venezuelara ihesean (OND-039/033)

Izeko bat Bilbora joan zen gerra garaian. Beste batzuk Frantziara, eta batzuk handik Venezuelara. Ondarrutar asko joan ziren Venezuelara.

269. Kaniketan umetan (OND-039/035)

Umetan kaniketan jolasten zuten. Andrazkoek futbolean ez, baina beste jolas asko zuten, txintxirrikan, besteak beste.

270. Bularrak elkarri erakusten (OND-039/036)

Neska koxkorrak zirela, barrara joaten ziren eta arropak erantzi eta elkarri bularrak erakusten zizkioten; erakutsi eta konparatu, eta bera lotsatu egiten zen.

271. Ibon, euskal izena (OND-039/038)

Nebaren izena Ibon zen, eta maisuek gaztelaniaz nola zen galdetzen ziotenean, haserre itzultzen zen etxera.

272. Irabazitakoa amarentzat (OND-039/041)

Irabazten zuten diru gutxia amarentzat izaten zen.

273. "Baltsioan" Andra Mari jaietan (OND-039/043)

Andra Mari jaietan, plazan musika jotzen zuten; fabrikako enkargatua zen musikarietako bat eta esku arteko lana arin amaituz gero, plazara joateko baimena ematen zien. Gero, plazan, kontrolatu egiten zituen "baltsioan" ari zirenean.

274. "Despeskarako" deia etxerik etxe (OND-039/044)

Arrasteroekin lan eginez gero, ordurik gabe. Sareekin arrantzatu ostean, "despeskarako" deitzen zieten emakumeei etxerik etxe, arrainak sareetatik askatzeko portuan.

275. Etxerako antxoa-kontserbak (OND-039/045)

Berak, bere kontura, antxoa sasoian, antxoa-kontserbak prestatzen zituen etxean.

276. Antxoak medikuari (OND-039/047)

Etxeko antxoa-kontserbak fabrikakoen aldean onak dira. Sarritan, medikuei oparitzen zizkien etxeko antxoa fileteak.

277. Gabonetan jateko bereziak (OND-039/051)

Gabonetan ez ziren inora joaten, baina jatordu bereziak egiten zituzten: bildotsa edo txuletak eta turroia edo pastelak, eta beti ardo ona.

278. "Antiguako Ama" kanta (OND-039/053)

Ez da izan oso kantorea, baina kantatu izan du. "Antiguako Ama" abestia kantatzen du apur bat.

279. "Gabon-gabaren zoragarria" kanta (OND-039/054)

"Gabon-gauaren zoragarria" abestia kantatzen du.

280. "San Juan Bautista" kanta (OND-039/055)

San Juanetan auzo batera joaten ziren eta iluntzean danbolinteroarekin aurreskuan jaisten ziren herrira. "San Juan Bautista" kantatzen du.

281. "Santa Klara" kanta (OND-039/056)

Santa Klara egunean ere abestu egiten zen. Ermitara joaten ziren abuztuaren 10ean. Santa Klararen kanta abesten du.

282. San Lorentzo Egunean Asterrikara (OND-039/057)

San Lorentzo Egunean Asterrikara joaten ziren; guardia zibilak egoten ziren han.

283. Iturritik ur-garraioan, zinka buru gainean jarrita (OND-041/004)

Etxean ur gutxi izaten zuten, baina iturri bat zegoen beheko kalean. Buru gainean sorkia ipini, gainean zinka, eta txandan joaten ziren iturrira, ur bila. Berriatuko alkateak iturburu bat aurkitu zuela eta, musika eta dena egon zen herrian. Baina artean hodiak sartu behar zituzten eta beste urtebetez jarraitu zuten ura buru gainean garraiatzen.

284. Elizkizunetara, infernuaren beldur (OND-041/007)

Denak joaten ziren elizara domekan; gutxienez meza bat entzun behar. Larunbatean salbea. Aste Santuan prozesioak. Gogo-jardunak egitera fraide batzuk etortzen ziren, oso gogorrak. Denak bekatariak zirela esaten zuten. Misioak ere egiten ziren bi urtez behin. Jaungoikoagan federik ez zutela orduan dio; beldurra zioten elizari, infernuari. Gaur egun nola bizi duen fedea.

285. Umetan eskola batetik bestera; irakasleak (OND-041/010)

Bera eskolan hasterako, su hartu zuen eskolak eta batetik bestera ibili ziren. Hasieran Goi kalean zegoen Ospitalean, Blanquita Leibarrekin. Gero, gaur egun Musika Eskola dagoen lekuan, Anita Arriolarekin. Ondoren, Carmen Blanco izan zuen irakasle. Bigarren mailatik laugarrenera pasa ei zuten zuzenean. Eskola berria egin zutenean, hara pasa ziren.

286. Eskolan kantuan eta buruz ikasten zuten (OND-041/011)

Eskolako kontuak abestuaz ikasten zituzten. Buruz ikasten zuten, baina ezer ulertu gabe. Oraindik ere gogoan ditu geografian ikasitako izenak. Baina gero ideiarik ere ez zuten bakoitza non zegoen. Gaur egun desberdin ikasten dela dio.

287. Umetan zoriontsu; zeukatenarekin pozik (OND-041/014)

Umetan zoriontsu ziren zeukatenarekin, besterik ez zuten ezagutu eta. Saturraranera joaten ziren presoei jatekoa eramatera, bidean txisteak kontatuz. Komedianteak zetozenean, plazara aulkia hartuta, ikustera.

288. Garai bateko bizimodua Ondarroan (OND-041/018)

Garai bateko bizimodua zeharo ezberdina zen. Gutxirekin bizi ziren, baina inork ez zeukan asko. Gero aldatu zen kontua. Antxoak balioa lortu zuenean, txalupen jabeak aberastu egin ziren eta marinelek ere gehiago irabazten zuten. Gizonezkoak zeuden etxeetan diru gehiago lortu zen, baina eurak lau ahizpa ziren. Euren amak nahiago zuen umeak eskolara bidaltzea, fabrikara baino. Fabrikara Aste Santuan joaten ziren.

289. Amaren bizimodu gogorra (OND-041/019)

Amak eurak eskolara joatea nahi zuen, berak ez zuelako aukerarik izan. Aitita amak zazpi urte zituela hil zen, eta zazpi anai-arreba geratu ziren. Are miseria handiagoan bizi beharra izan zuten. Maria Katalin zuen izena amak, baina "Maria Lekitto" deitzen zioten.

290. Izebak jauregi garrantzitsuetan neskame (OND-041/021)

Bere bi izeba Zita enperatrizaren palazioan egon ziren zerbitzatzen, Lekeition. Bietako bat handik "Sotarenera" (gaur egungo Ibaigane jauregia) joan zen. Lehenengo ume-zain egon zen eta gero giltzari. Zazpi-zortzi neskame ei zeuden han.

291. Aitita eta amamaren maitasun istorioa (OND-041/023)

Mirenen amama Bernardak eta aitita Remigiok nola ezagutu zuten elkar. Aititaren aitak beladun txalupak omen zeuzkan. Bernarda neskame egon zen bertan, eta maitemindu egin ziren. Edarrarekin iturrira joaten zen ur bila eta nahita ura bota egiten zuen gehiagoren bila joan eta han Remigiorekin bat egiteko.

292. Amaren ezkontza Begoñako aldare nagusian (OND-041/024)

Ama neskame ibili zen batean eta bestean. 21 urterekin ezkondu zen Begoñan. Amona "aña" moduan egonda zegoenez bertan, hango etxekoandreari esker aldare nagusian ezkondu ahal izan ziren. Dirua zutenak aldare nagusian ezkontzen ziren, Ama Birjinaren aurrean; pobreak atzean, ipurdia emanda. Belusezko soineko urdinarekin ezkondu ei zen "amuma Lekitto". Eztei-bidaian Santanderrera.

293. Gerraren hasiera: gizonak itsasoan eta ama beldurtuta Lekeitiora (OND-041/028)

Gerra Zibilaren hasiera nola bizi izan zuten. Estatu kolpea egon eta Errepublika kendu zutenean, nazionalek berehala hartu omen zuten Nafarroatik Donostia alderakoa. Herrian zabaldu zen Francorekin zebiltzan moroek euskarazko izenak zituzten umeei bularrak erretzen zizkietela. Ama bakarrik zegoen, aita aititarekin atunetara irtenda zegoelako, eta beldurtuta, amarengana Lekeitiora joateko poltsa prestatu zuen. Hiru egunerako joan zen, baina hilabete eta erdi egin zituen Lekeition, Ondarroan zerrenda beltzean zegoela jakin zuen eta. Bitartean, aita eta aitita Bilbora joan behar izan ziren arrainarekin, gerrako barkuek behartuta. Txaluparik itsasora irten ez zedin, piezak kentzen zizkieten. Halako batean itzuli ziren herrira.

294. Gerra garaian Santanderreraino ihesean (OND-041/029)

Bi lehengusu Bilbon Itsasalde batailoira joan ziren boluntario. Aita eta aitita ere boluntario joan ziren Markinara, intendentzian jendea behar zutela eta. Jatekoaz arduratzen ziren. Intendentzia lehenbizi Mungiara eta gero Gernikara mugitu zuten. Eurak ere Gernikara joan ziren, Lekeitio berehala hartuko zutela jakin zutenean. Handik Bilbora alde egin zuten. Amari umeak barkuan atzerrira bidaltzea proposatu zioten, baina ez zuen nahi izan. Ospitalean zegoen aitita jaso, umeak hartu eta ihesean Santanderreraino joan ziren. Han Euzko Jaurlaritzak ipinitako barkuetan Frantziara eraman zituzten. Han ez zituztela nahi eta trenean Bartzelonara bidali zituzten.

295. Eskolan "Cara al Sol" baino ez zuen ikasi (OND-042/009)

Eskola nazionaletan "Cara al Sol" abesten zuten. Doña Anita zen maistra ondarroar bakarra, baina hura ez zen bere maistra. Ez zuen eskola askorik ikasi.

296. Bezperetako txilinak (OND-042/016)

Elizara joatea derrigorra zen, askok joateari utzi zioten. Domekero joan behar izaten zuten meza nagusira. Zapatuetan arrosarioa arratsaldean izaten zen, bezperak deiturikoak. Txilinak jotzen zituzten elizara joan behar zirela abisatzeko.

297. Bataiatu gabeko umeak linbora (OND-042/017)

Umeak kutxa zurian lurperatzen ziren. Bataiatu gabekoak, kanposantuan bertan lurperatzen zituzten, baina aparte. Beraiei ere hil zitzaien ume jaioberria.

298. Abadea sexu harremanei buruz galdezka (OND-042/025)

Zazpigarren umea izan behar zuela (tartean bi abortu izanda), abade batengana konfesatzen joan zen eta hark senarrarekin zituen sexu harremanei buruz galdetu zion. Dena ondo egiten zuela esaten zion arte ez ziola absoluziorik emango esan zion abadeak.

299. Argazkilari bakarra Ondarroan (OND-042/027)

Ezkontza eguneko argazkia zein argazkilarik atera zion kontatzen du. Alameda zinema-aretoaren ondoan egoten zen herriko argazkilari bakarra, baina ez zen bertakoa.

300. Baltseoa eta tangoa (OND-042/034)

Baltseoan abilak zirela dio. Gogoan du behin gizon bati horrenbeste ez arrimatzeko esan behar izan ziola. Tangoan ere ondo moldatzen ziren. Herriko kioskoan herriko banda egoten zen; jada ez dago horrelakorik. Izeta zen bandako zuzendaria. Mutilak joaten ziren neskengana dantza eskatzera.

301. Lehenagoko abertzaleak batzokian batzen ziren (OND-042/036)

Ondarroan abertzalean Veganeko ondoan zegoen etxe batean batzen ziren. 'Batzokia' deitzen zen, baina ez da gaur egun Artabiden dagoen batzoki bera. Antzerkiak-eta egiten zituzten. Ez du gogoan beste alderdiek horrelako egoitzarik ote zuten.

302. Ume bati buruko lazoa kendu zion Guardia Zibilak (OND-042/038)

Ondarroako ume batek Guardia Zibilaren nagusi batekin izandako liskarra aipatzen du. Umeak bere aita hiltzerakoan, buruan lazo more bat jarri zuen eta hura kendu zion espainiar bandera jarri behar zuela esanez.

303. Umetan ogia egiten laguntzen (OND-044/022)

10 urtera arte Ziortza-Bolibarko baserri batean egon zen bizitzen. Bertako amak ogia etxean egiten zuen. Umeek ere laguntzen zuten ogia egiten.

304. Maskuilua belar batekin sendatu zuen (OND-044/024)

10 urtera arte Ziortza-Bolibarko baserri batean egon zen bizitzen. Behin, etxe hartako alabarekin tramankulu bati begira zeudela, biraderari (manibela) eman eta atzamarra harrapatu zuen Agurtzak. Atzamarrean zuen maskuiluan belar bat jarrita sendatu zuen zapaldutako atzamarra. Semeak istorio honekin ipuin lehiaketa bat irabazi zuen.

305. Ahizpa gerrako ume (OND-044/026)

Agurtzaren ama, neba eta ahizpa Frantziara joan ziren Gerra Zibilean. Bere ahizpa familia batek hartu zuen; nebak, ostera, ez zuen amagandik banandu nahi eta beragaz bueltatu zen etxera. Ahizpa han gelditu zen eta gerrako ume bezala ez zen sekula etxera bueltatu. Bere amak beti pentsatu zuen alaba hura egunen baten etxera ekarri ahalko zuela bueltan. Hala ere, beti izan dute hartu-eman asko.

306. Emakume arrain-saltzaileen inguruko kanta (OND-046/003)

Ondarroako gizon talde bat kantuan, 1963an; emakume arrain-saltzaileen inguruko kanta.

307. Behin lortutako bainujantziarekin gertatutakoa (OND-047/007)

Ez zuten bainujantzirik izaten. Barruko arroparekin bainatzen ziren, eta gero ahal zen moduan sikatu. Kanta bat abesten zuten: sikatzen bazen, zerura, eta bestela infernura. Behin bainujantzi bat lortu zuen nonbaitetik. Etxera bidean arrastaka eraman zuen, sikatzeko asmoz, eta apurtu egin zitzaion. Mutilen bainujantzia lortzea errazagoa zen.

308. Errekan jendearen aurrean bainatzea debekatuta (OND-047/008)

Ez zieten uzten igeri egiten, makaldu egiten zuela eta. Baina errekan "dzangadaka" ibiltzen ziren fabrika gainetatik. Erreka lehenbiziko aldiz gurutzatzea lorpen handia izaten zen. Batzuetan ontziolaraino joaten ziren igerian, baina udaltzainak atzetik segitzen zien, jendearen aurrean horrela ibiltzea ez zelako itxura.

309. Neska-mutilek kuadrillan egiten zituztenak (OND-047/010)

Neska-mutilak elkarrekin ibiltzen ziren kuadrillan. Lehen zakar-bilketarik ez zen egiten eta errekara botatzen ziren zikin guztiak. Pintura pote zaharrak hartu, karramarroak jarri bertan uretan, berotu eta jan egiten zituzten. Asko kantatzen zuten lagunartean.

310. Asko gustatu izan zaion bertso bat (OND-047/012)

Nagusiagotan asko gustatu izan zaion bertso bat (Bilintxena) abesten du.

311. Umeentzako kantak eta ipuinak moldatu egiten ditu (OND-047/014)

Umeei lo eragiteko kanta asko saskarrak direla dio, eta berak bere erara moldatzen ei ditu. Baita ipuinak ere.

312. Egur pusketen formekin jolasean (OND-047/017)

Umeekin enbor eta egur pusketek zeren antza duten asmatzen jolasten du.

313. Eskolako kontuak buruz (OND-047/019)

Antxoa garaian lantegira joaten zirenean antxoei burua kentzera, eskolara ez ziren joaten. Eta gero ezin jarraitu eskolako martxa. Baina buruz ikasi bai, horretarako ez zuen inongo arazorik. Gauza asko kantuan ikasten zituzten. Bilobei ematen dizkien azalpenak.

314. Jolasetan egindakoak ere konfesatu egin behar (OND-047/022)

"Asto-astoka" ibiltzen ziren, elkarri helduta, eta besteak gainera salto egiten. Gero jauna hartzera joan behar zirenean, konfesatu egin behar izaten zuten elkarri helduta ibili zirela. "Tres navíos"; "A la bandera"ka.

315. Herrian gertatutakoei kantak jartzen zitzaizkien (OND-047/024)

Herrian gertatutako kontuen inguruan erraz sortzen ziren kantak (letrak). Gero, Musika Bandako zuzendariak, Izetak, musika jartzen zien eta herri osoan zabaltzen ziren. Letra motzak izaten ziren. Pare bat kasu aipatzen ditu.

316. Ideologia desberdineko bi kofradia (OND-047/026)

Garai batean herrian bi kofradia egin zituzten, ideologia desberdinetakoak, eta saltsa handia egon ei zen. Berak ez zuen hori ezagutu, Kofradia zaharra eta berria ezagutu ditu berak.

317. Menditik su-egurra ekartzen zuten, buru gainean hartuta (OND-047/027)

Sua egiteko egurretara joaten ziren mendira. Egurrak txikotarekin lotu eta buru gainean ekartzen ziren etxeetara. Ekonomika egoten zen etxeetan. Egurretara joatetik sortutako kanta: "Aittitte ta amume bixak egurretan...".

318. "Aittitte ta amume bixak egurretan" kanta (OND-047/028)

"Aittitte ta amume bixak egurretan" kanta abesten du.

319. Kanta txikien esangura handia (OND-047/029)

Kantek, txikiak izan arren, gauza asko esaten dituztela dio. "Aittitte eta amume bixak egurretan" kantak adierazten duena.

320. Ontzioletara txirbil eta egur bila (OND-047/030)

Ontzioletara joaten ziren txirbilaren bila, eta ahal bazen, tartean azaltzen ziren egur puska handiagoak ere hartzen zituzten.

321. Ikatza lortzeko egiten zirenak (OND-047/032)

Bizimodua ateratzeko egiten zirenak. Ikatza barkuetan ekartzen zuten eta portuan hustu egiten zen txalupa batera. Uretara jausten ziren zatiak salabardo antzeko batekin jasotzen omen zituen lagun batek. Kamioikada ikatza hustu ostean geratzen zen hautsa ere batu egiten zuten. Etxera eraman, urarekin bustita bolak egin eta sikatzen laga. Eta ahal bazen, trukea egin edo saldu.

322. Umeak kontserba lantegietan; inspektorea zetorrenean ihesi (OND-047/033)

Umeek antxoei burua kentzen lan egiten zuten lantegietan. Berez debekatuta zegoen, eta inspektorea zetorrenean, ume guztiek Zaldupetik mendi aldera ihes egiten zuten. Arratsaldean lan egitearren ordaindu egiten zieten. Lan zikina zen eta ordu asko egiten zituzten. Azkena zela esan arren, lan gehiago ekartzen zieten. Horren inguruko kopla. Batzuetan euren lana amaitutakoan, alboko lantegira, hangoei laguntzera.

323. Fabrikan irabazitakoa, arropatarako eta zorrak ordaintzeko (OND-047/034)

Lantegian irabazten zuten dirua arropa edo oinetako berrietarako izaten zen. Arropa berriak, izatekotan, urteko lau etapatan erosten ziren. Antxoak bizia

ematen zion herriari. Antxoaren dirua neguan egindako zorrak ordaintzeko izaten zen. Gero, atunetatik ateratako partila; harekin beste zor batzuk ordaindu. Eta irailean berriz inork ez zuen dirurik izaten.

324. Lantegian lan egin eta gaixoak edo umeak zaindu aldi berean (OND-047/035)

Kontserba lantegietan lanean zeuden bitartean gaixoak edo umeak zaindu beharra ere izaten zuten. Lantegitik irten, gaixoaz edo umeaz arduratu eta berriz lanera.

325. Lantegian ez ordutegi, ez egutegi eta ez Gizarte Segurantza (OND-047/036)

Lantegian ez zuten ordutegi edo egutegi finkorik. Gizona arrastetik zetorrenean, esaterako, jai hartzen zuten. Gizarte Segurantzarik ere ez zuten, ezta bajarik ere. Berez bi urte lan egin behar ei ziren erretiroa lortzeko, baina bere garaian ez zegoen ezer. Batzuk langile finkoak ziren, eta haiek antolaketa hobea zuten.

326. Herriko ugazabandreak ere lantegian lanean; arratsaldean arrosarioa (OND-047/037)

Lantegietako nagusien seme-alabak kolegioetan egoten ziren. Asko italiarrak ziren. Herrikoak ziren ugazabandreek lantegian lan egiten zuten, eta arratsaldean arrosarioa errezatzen zuten.

327. Mutilak hamalau urte betetakoan, itsasora (OND-047/038)

Mutilek ere lan egiten zuten antxoei burua kentzen, 14 urte bete arte. 14 urterekin itsasoan hasten ziren. Bere senarra bederatzi urterekin aitarekin joaten zen itsasora motor txikian. Nolako arropak erabiltzen zituzten. Urik ez sartzeko olioa ematen zitzaien arropei.

328. Dotrinan ondo, buruz ikasi behar zelako (OND-047/040)

Dotrina ikastera astean bitan elizara joaten ziren. Buruz ikasi behar izaten zen, eta horretan ondo ibiltzen zen. Behin on Agustin abadeak jo egin zuen aurpegian, eta hortzekin, nahi gabe, eskua odoldu zion abadeari. Haginka egin ziola-eta estutasuna pasa zuen. Dotrina oso ondo zekien, eta kanta bat ere atera zioten.

329. Eskolan oinarrizkoa ikasita, nahikoa (OND-050/003)

Gorozikako eskola utzi eta Ondarroan bertan mojetan ibili zen, "esku-biharra" ikasten. Oinarrizko gauzak ikasi zituen. Baserrian beti lana egoten zen.

330. Bizikletan Ondarroara, josten ikastera (OND-050/004)

Josten ikasten hasi zen Ondarroan. Bizikletaz joaten zen. Orduan ohikoa zen bizikletan ibiltzea eta lasai ibiltzen ziren, gainera.

331. Arropak etxean positakoak (OND-050/007)

Izeko Emilik josten zizkion arropak. Josten ikasten ibili zenean, hango jostunarekin konpontzen ziren. Ez omen zuen askorik ikasi; oinarrizkoa.

332. Baserrian lan asko (OND-050/009)

Luzaroan ibili zen josten ikasten, baina ez zuen askorik josi etxean, baserrian bestelako lan asko egoten zelako. Ortuari asko zuten eta ama egunero joaten zen plazara. Baserrian egiten zituen lanak.

333. Garia eskuz jotzen zen, makinak etorri aurretik (OND-050/010)

Sasoi batean, makinak iritsi aurretik, garia harriaren kontra jotzen zen garantzeko. Gero, makinarekin garbitu, eta alea eta lastoa banatu. Garia errotara nora eramaten zuten. Ateratako irinarekin etxean egiten zuten ogia. Berak ez ei du goserik ezagutu.

334. "Hirubedarra"; batzuetan hiru aldiz jorratu behar lurra (OND-050/015)

Artoa eta indiaba hartzen ziren baserrian. "Hirubedarra"; batzuetan hiru aldiz jorratu behar izaten zen lurra, belarra berriz irteten zelako.

335. Baserriko tresnak; aitzurra, sega, igitaia... (OND-050/017)

Baserriko erremintak. Aitzurra, jorrarako. Belarretan egiteko sega eta eskuarea. Igitaia, garia ebakitzeko. Iratara joan izan zen, laguntzera. Ira segarekin ebakitzen zen. Goldea. Uztarriak. Tresnetan aldaketa handia egon da. Lurra lantzeko goldea, area, alperra...

336. Debara edo Mutrikura autobusean, piperrak saltzera (OND-050/019)

Lehen piper asko hartzen zen eta ama Debara edo Mutrikura ere joaten zen saltzera. Piperrez betetako zakuekin Ondarroara astoan jaitsi eta han autobusa hartzen zuen. Berak lagundu izan zion amari. Artoa ere asko hartzen zen. Gero hura zuritu egin behar.

337. Arropak garbitzeko: xaboia eman eta askan astindu (OND-050/025)

Arropak garbitzea; etxean xaboia eman eta etxe ondoko askan astintzen zituzten. Siku zegoenean, etxe azpialdeko errekara joaten ziren. Lehenengo garbigailua etorri zenean, artean kanpoko askan jotzen zuten arropa. Xaboi-pastillak erabiltzen ziren. Berak ez du ezagutu sutako hautsarekin arropak garbitzea.

338. Neguko arropa garbitzera Errenteriako errekara (OND-050/027)

Irail edo urrian neguko arropak garbitzera Errenteriako errekara joaten ziren. Negurako prest edukitzeko.

339. Behar-beharrezko arropak bakarrik plantxatzen ziren (OND-050/029)

Arropak harraskan xaboitu eta kanpoko askan astintzen ziren. Ikatzezko plantxen ondoren txapa gainean berotzen zirenak etorri ziren. Behar-beharrezko arropak bakarrik lisatzen ziren, izararik-eta ez. Izarak zerezkoak. Kirrua.

340. Etxean sagardoa egin eta saldu (OND-050/030)

Sagardoa egiten zuten etxean, dolarea zuten eta. Gero saldu. Sagar-klaseak. Sagardo-sagarra erabiltzen zen gehien.

341. Sagardoa egiten zuten; Eibarrera eta Bilbora saldu (OND-050/031)

Sagardoa egiteko prozesua. Sagarrak ganbaran gordetzen zituzten. Handik dolarera bota. Haga batekin estutu eta handik tinara bota. Patsa ganaduei ematen zitzaien. Bitsa irten arte egon behar izaten zen bukoian. Sagardo-bukoiak Eibarrera eta Bilbora saltzen zituzten. Nahiko handiak izaten ziren. Gero botiletan sartzen hasi ziren. Eibarko emakume batek azukrea botatzeko eskatzen zien.

342. Umeei lo eragiteko kanta (OND-050/037)

Umeei lo eragiteko kanta bat abesten du: "Abobatxoa lo egidazu...".

343. Itsasoko lehen urteak (OND-052/003)

Etxean ez zuten diru askorik izaten eta hamar urte ingururekin itsasora joan zen lanera. Itsasora hasi aurretik, bolintxeentzat bakailaua txiki-txiki egiten aritu zen, sardinei jaten emateko balio zuena. Motor txikiko barkuetan zaharrenak eta gazteenak batzen ziren; baporeetan (alturakoak), berriz, hamabost urtetik hirurogeira bitartekoak. Lekeitio eta Ondarru bitartean ibiltzen zen hasieran sardinetan. Soldata mailaketa.

344. Trezak prestatzea (OND-052/004)

Hamalau urterekin baporean hasi zen eta ofizio desberdina zen. Neguan trezak prestatzen ziren; neguaren aurretik antxoa koskorra harrapatu eta kontserban jarri behar izaten zuten. Ondoren, trezak prestatu behar izaten zituzten etxean, itsasora eramateko.

345. Itsasorako irteera (OND-052/005)

Eguraldi egokia ote zegoen begiratzen zuten hiru lagunek eta ondoren serenoak abisua ematen zien arrantzaleei. Eguraldi ona bazen, hiru danbateko jotzen zituzten etxeetan.Talaiaria eta farozaina. Itsasorako irteera nola egiten zuten kontatzen du. Sei txalupa farol gorriarekin egoten ziren eta haiek abisua ematen zuten arrantzarako ordua noiz zen.

346. Inauterietako ospakizunak (OND-052/006)

Txalupa-garbitzaileak egoten ziren. Ihauterietarako dirutxoa gordetzen zuten; batzuk nagusiari eske joaten zitzaizkien. Bere gazte garaian, denak mozorrotzen ziren eta tabernan afaltzen zuten. Hauts egunean bihurrikeriak egiten zituzten eta bazkaria egiten zuten. Pasadizo bat kontatzen du.

347. Antxoatara (OND-052/007)

Negua pasatutakoan, baporeak txukuntzen zituzten. Ondoren antxoatarako prestatzen ziren. Izurdeak topatu behar izaten ziren, haiek erakusten zutelako arraina non zegoen. Baporeekin konpainiak osatzen zituzten eta diru banaketa nola egiten zuten kontatzen du. Pasadizo bat kontatzen du.

348. "Salina, salina" kanta (OND-052/008)

Atunetara San Pedro inguruan irtetzen ziren. San Pedro txiki egunean "Salina,salina" egiten zuten: zahagia bizkarrean hartzen zuen batek eta besteek makila jokoa egiten zuten. Abestia kantatzen du.

349. Atunetarako tresnak eta ontziko bizimodua (OND-052/009)

Atunetara hamabi lagun joaten ziren. Ezpetak erabiltzen zituzten, hiru aparailudunak. Arto-malutak erabiltzen zituzten amuari lotuta. Itsasontziko egunerokoa kontatzen du; lotarako, ura edateko, garbitasunerako eta jatorduak egiteko nola moldatzen ziren. Berrogei egun egiten zituzten.

350. 1936ko ezbeharra (OND-052/010)

Irratirik ez zegoenez, ez zuten eguraldi txarra noiz eta nondik zetorren jakiten. 1936an eguraldi txarrarekin gertatutako ezbeharra kontatzen du.

351. Gerratik ihesi, Ameriketan lanean (OND-052/011)

Gerra garaian, Santanderretik Frantziara joan zen. Handik merkantzia-ontzi batean itsasora joan zen; sei hilabetez Ipar Amerika, Kuba eta Mexikon ikatza eta azukrea garraiatzen ibili zen. Itzuleran, ezbeharra izan zuten denboralearengatik. Ondoren, langileen batailoietara bidali zuten eta han gertatukoak kontatzen ditu.

352. Baporeetako arrantza eta bizimodua (OND-052/012)

Gerra ostean, etxeko baporea saldu egin zuten. Arrasteroetako bizimodua kontatzen du. Legatz asko arrantzatzen zuten egun gutxitan. Legatzaren prezioa. Irratirik gabe denboraleak errazago harrapatzen zituen; irratiak erabiltzen hasi zirenean, eguraldiaren partea jasotzen zuten eta porturen batean babesten ziren, behar bazuten. Ama Birjinari eskaintzak.

353. Inauterietako koplak (OND-052/013)

Parranda latzak egiten zituzten. Ihauterietarako diru pixkat izaten zuten. Lagun-taldeak batzen ziren eta kantuan aritzen ziren. Ihauterietako koplak abesten ditu.

354. Donostiako balearen bertsoak (OND-052/014)

Itsasoko bertsoak. 1855ean balea agertu zen eta Donostiarrek arpoia sartu zioten, baina getariarrek berentzat nahi izan zuten. Donostiako balearen bertsoak abesten ditu.

355. Eguraldiagatiko ezbeharra (OND-052/018)

Denboraleak eragindako ezbeharrak kontatzen ditu.

356. Peio Errota eta Txirritaren bertsoak (OND-052/021)

Peio Errota eta Txirritaren bertsoak abesten ditu.

357. Elurretarako bertsoak (OND-052/023)

Elurra egiten duenerako bertsoak abesten ditu, Ondarruko Urrusolok jarritakoak.

358. Elkarrizketatzaileari botatako bertsoa (OND-052/024)

Elkarrizketatzaileari bertsoa botatzen dio, buruz dakizkien bertso batzuei haren izena jarrita.

359. Aititaren oroitzapenak (OND-053/002)

Txikitan aititarekin ibiltzen zen beti eta sokaz lotuta erabiltzen zuen batelean, igerian ikasten ari zelako. Harreman estua zeukaten. Pasarte barregarriak kontatzen ditu.

360. Etxekoi laguntzen gerra garaian (OND-053/003)

Gerra etorri zenean, aita eta anaia Plentziara joan ziren. Egurretara joan behar izaten zuen eta arrainak ere eramaten zituen, etxekoen mantenurako.

361. Antxoatan (OND-053/004)

Itsasoan hasi zenean, domeka gauetan antxoa harrapatzen zuten sareak botata. Jende askok ateratzen zuen bizimodua antxoa arrantzatzetik. Baporean ibiltzen ziren; orduan ez zegoen arraste-ontzirik. Izurdeekin arraina batzen zutenean, orduantxe botatzen zuten sarea. Haien atzetik ibiltzen ziren. Baporeen artean konpainiak nola osatzen zituzten kontatzen du.

362. Sardinak zela harrapatzen ziren (OND-053/005)

Sardinak nola arrantzatzen zituzten azaltzen du: ondo jaten eman eta ondoren sarea botatzen zuten. Sonda erabiltzen hasi zirenean, arraina nondik nora zihoan jakitzen zuten eta ez zuten uretara jatekorik bota beharrik izaten. Lehengo eta oraingo sareak.

363. Atuna Azoreetatik Kantaurira (OND-053/006)

Atuna Azoreetatik etortzen zen eta Kantauri itsasora etortzen zenean, arraina aurrean ekartzen zuen. Gerora sateliteekin arrantzatzen hasi ziren. Lehen erlojuarekin moldatu behar izaten zuten.

364. Baporeen eta arraste-ontzien neurriak (OND-053/007)

Baporeek hiru metro eta erdi zabal eta hamalau metro luze zituzten. Gerora bi aldiz handiagoak erabiltzen hasi ziren, arraste-ontziak.

365. Itsasontziko bizimodu tristea (OND-053/008)

Itsasontziko bizimodua tristea dela dio. Denak elkarrekin lo egiten dute. Lehen hozkailurik ez zuten izaten. Belaren gainean egiten zuten lo.

366. Arrastan zela egiten zuten (OND-053/009)

Arrastan nola egiten zuten azaltzen du, bi ontziren artean. Gerora ontziek banaka arrantzatu ahal izateko ate moduko batzuk izaten zituzten. Azalpenak ematen ditu.

367. Sardinatan (OND-053/010)

Amuak botata arrantzatzen zutenek, hamabi laguneko taldea osatzen zuten. Hamabi mila amu botatzen zituzten eta batetik bestera zazpi metroko tartea izaten zuten. Hala harrapatzen zituzten sardinak.

368. Amudunen triskantzak (OND-053/011)

Arraste-ontziak plai garbian joaten dira baina amudunek edonon bota dezakete eta denetarik arrantzatzen dute. Itsaspea ongi neurtuta izaten dute arrantzaleek.

369. Jubilatuta ere, itsasora (OND-053/012)

1940tik 1983ra ibili izan da itsasoan. Semeek ez dute itsasoan ibili izan nahi. Jubilatuta egon arren, itsasora joatea gustatzen zaio. Fanekak, txibiak, muxarrak, txitxarroak eta berdelak harrapatzen ditu. Berdelak banaka harrapatzen ziren lehen.

370. Esparroiak eta izurdeak (OND-053/013)

Itsasoan arrainek elkar jaten dute. Arrain guztiek jaten dute antxoa. Izurdeek berehala nabaritzen dute. Buztanean nabaritzen zaie esparroiei ugaztunak direla. Izurde makalenak eta haurdun daudenak harrapatzen dituzte esparroiek. Izurdekumeak harrapatzea debekatuta egoten zen baina harrapatzen zituzten. Balea (bramune).

371. Itsasoko ibilbideak (OND-053/014)

Bizkaiko golkoaren mapari begira, Ondarruren kokapena erakusten du eta hainbat ibilbide azaltzen ditu. Borraskak non sortzen diren eta itsasontziak non ibiltzen diren adierazten du.

372. Itsaspean plairik ez (OND-053/015)

Euskal kostaldeak ez dauka plairik baina Frantzia aldean zabala da. Bere aitaren garaian, harantz joaten ziren. Itsasoaz gutxi dakitenak egon izan direla agintari dio.

373. Itsasoko ezbeharrak (OND-053/016)

Itsasoan eguraldi txarrak harrapatu izan du askotan. Gertaera bat kontatzen du. Kalatxoriei esker itsasoan galdutako gizonen gorpuak topatu izan dituzte.

374. Lehengo eta oraingo flota (OND-053/018)

Lehengo eta oraingo flota konparatzen ditu. Antxoatan ibiltzen direnak gutxiago izaten dira arraste-ontziekin dabiltzanak baino, arraina ez delako hain finkoa.

375. Oriotarrak Ondarruko portuan (OND-053/019)

Oriotarrek ondarrutarrekin tratua egin zuten portua erabili ahal izateko. "Union Sindical"ekoak nola moldatzen diren kontatzen du. Ez du uste arrantzaleei Bizkaiko Golkoaren galeraren errua botatzea zilegi denik.

376. Arrantzaren etorkizuna (OND-053/020)

Arrantzaren etorkizuna: beldurra ematen dio aurrerabideak, arrain guztia galduko duelako. Atuna Azoreetan geratzen da eta arrain gutxi sartzen da Bizkaiko Golkora.

377. Arana Goiri batailoian borrokan (OND-056/004)

Saturrarango seminarioan 4 urtez ikasi zuen eta beste 3 Gasteizen. Azken urtea ez zuen bukatu gerra hasi zelako. Bolondres joan zen gerrara Arana Goiri

batailoiarekin. Milloi-en ibili zen frontean. Irimiñetan telefonoko loturak zituzten.

378. Frontean, Lekeitiotik Intxortara (OND-056/005)

Juanitok lotura-lanak egin zituen gerra garaian. Hasieran Lekeitioko eskola parean zuten kuartela eta handik Laka Goikoan (Eizmendin, Milloi auzotik gora). Frontea haiengana hurbiltzen hasi zenean, Intxortara mugitu ziren. Santakutz inguruan (Mutriku) frontea egon zen.

379. Intxortan borroka handiagoa beste fronteetan baino (OND-056/006)

Francoren tropak beraiek baino hobeto zeuden prestatuta. Atsedenaldian Berriaturara jaisten ziren denak. Bertan egon zirenean ez zuten tiroketarik bizi izan. Behin kanoikadak egon ziren eta neska batzuk zauritu ziren. Gurutze Gorrira eraman zituzten. Intxortan ordea, borroka handia izaten zen bi bandoen artean.

380. Bigarren eskuko armekin borrokan (OND-056/007)

Arana Goiri batailoian fusilak erabiltzen zituzten baina ez ziren oso onak. Gerrara joan baino lehenago Bilbon bizitzen egon zen izeba baten etxean eta batzen zituzten armak garbitzen ibiltzen ziren. Bigarren eskuko arma horiek gero gerra zibilean erabiltzen zituzten batailoiek.

381. Elkar babesten zuten batailoian; Gerediaga komandantea (OND-056/008)

Militar batzuk bazeuden batailoian (Ibarrola) baina orokorrean ez zegoen antolaketarik borrokarako. Hala ere, elkar asko babesten zuten. Ibarrolaren aginduak jarraitzen zituzten. Gerediaga komandantearen heriotza.

382. Gernikako bonbardaketa I (OND-056/009)

Gernikako bonbardaketa parean tokatu zitzaion, Bilbotik trenez bueltatzen ari zela. Bonbardaketa hasi zenean, herriko sarreran zegoen Juanito, eta trenak atzeraka egin zuen. Zuhaitz batzuen azpian botata egon ziren. Bonbardaketa bukatu zenean, herrira sartu nahi izan zuten jendeari laguntzera, baina ez zieten utzi

383. Gernikako bonbardaketa II (OND-056/010)

Gernikan bonbardaketa bukatu zenean, herria sutan zegoen eta laguntzera hurbildu zirenean ez zieten utzi sartzen. Jendea korrika zebilen kaleetatik. Bilboko kuartelera joateko agindua jaso zuten. Gau hori nola pasatu zuten eta Bilbora nola heldu ziren kontatzen du.

384. Borroka batetik bestera menditik oinez (OND-056/011)

Frontean zeudenean, Bilbotik eramaten zizkieten jatekoak. Inguruko baserrikoek ere jaten ematen zieten. Menditik asko mugitzen ziren borroka batetik bestera joatera.

385. CNT-koek Saturrarango eliza tirokatzen (OND-056/012)

Batailoiak elkarrekin joaten baziren ere, askotan beste batzuekin elkartzen ziren. CNT-koek Saturrarango elizako irudiak tirokatu zituzten. Juanitoren batailoia Bizkaitik mugitu zen, Santoñararte.

386. Asturiasko emakumeen batailoia (OND-056/013)

Arana Goiri batailoia Bilboko gerriko barruan Usansolon zegoela, Asturiasko emakumeen batailoi bat agertu zen eta lapurretak egiten zituzten baserrietan. Juanitoren batailoian ez zuten lapurretarik egiten.

387. Bilboko gerrikotik atzera egiten Laredorarte (OND-056/015)

Bilboko gerrikoak ez zuen ezertarako balio izan, itsasotik ere zetozelako nazionalak. Atzera ihesi eginez, Sopuerta ingurutik ibili ziren. Laredon hondartzan egon ziren italiarrak sartu arte. Ondoren erreketeak heldu ziren eta horiek gaiztoagoak ziren.

388. Erreketeen eta falangisten ezberdintasuna (OND-056/016)

Erreketeak, Francorekin batera borrokatzen zuten soldaduak ziren, idealistak. Falangistak ezberdinak ziren.

389. Laredoko hondartzan kontzentsazio-esparru inprobisatua (OND-056/017)

Tropak sartu zirenean, arraunean ihes egin zuten. Santoñara heldu zirenean, Ondarroako ontzi batean ezkutatu ziren, iparralderantz ihes egiteko asmotan. Francoren itsasontziez inguratuta zeudenez, jeitsi eta Laredora oinez joan ziren. Bertan harrapatu zituzten eta Laredoko hondartzan egon ziren preso, kontzentrazio-esparru inprobisatu batean. Handik Bilbora eraman zituzten eta gero Miranda de Ebrora langile batailoiarekin.

390. Logroñoko zezen-plazako kontzentrazio esparrua (OND-056/018)

Logroñoko zezen-plazako kontzentrazio-esparruan egon zen Juanito bi egunez. Bertan gertatutakoak kontatzen ditu. Jendeak gose handia pasatzen zuen bertan.

391. Miranda de Ebron langileen batailoiarekin (OND-056/019)

Miranda de Ebron langileen batailoiak sortu ziren eta Juanito 12.enean zegoen. Mirandan gose asko pasatu zuten. Milaka preso ziren eta pikatxoiakin komunak egin behar izan zituzten. Hala ere, bertan ez zuten beldurrik pasa.

392. Langileen batailoilean lubakiak egiten, hildakoak ehorzten... (OND-056/021)

Miranda de Ebrotik Zaragozara bidali zituzten langileen batailoiarekin. Bertan gosea eta batez ere egarria pasa zuten. Pikatxoiarekin lurrean zuloak egiten zituzten ur bila. Zaragoza inguruan lubakiak prestatzen ibili ziren. Borroka egoten zenean, batailoiko langileek lurperatzen zituzten gorpuak. Lurperatu aurretik, gorpuan zerbait baliotsua zegoen begiratzen zen (dirua, kuttunak, urrezko hortzak...). Haizearen kontra lurperatzen ziren usaina ekiditeko.

393. Belchiteko erasoa; langileen batailoiko presoen baldintzak (OND-056/022)

Belchiten erasoa oso gogorra izan zen. Ez zen herria errea Gernikan bezala baina denak tirokatu zituzten. Bertan zegoen kiratsarekin gaixotu egin zen

Juanito. Erasoren bat zegoenean, baliabide guztiak (garraioak, medikuak...) soldaduentzat ziren eta langileen batailoieko gizonentzat ez zegoen ezer.

394. Langileen batailoiko koroa (OND-056/023)

Langileen batailoiarekin nondik ibili zen. Fragan denbora asko egon ziren eta postari moduan ibili zen Juanito, konpainia ezberdinen artean mezuak bidaltzen. Koro bat sartu zuen Juanitok langileen batailoian. Apaiz batek janari pixka bat ematen zien elizan abestearen truke.

395. Langileen batailoiarekin Fragan (OND-056/024)

Elizan koroarekin abesteagatik, janari pixka bat ematen zien. Fragan zeudela, Franco pasa behar zen eta bidea izoztuta zegoenez, pikatxoiarekin ibili ziren izotza kentzen abarkak jantzita zituztela. Franco bi aldiz ikusi zuen.

396. Langileen batailoiarekin Kataluniaruntz (OND-056/025)

Fragatik Alcarraz-era joan ziren eta han alkatea lekeitiarra zen. Lleidan bi fronteak aurrez aurre egin zuten, baina Juanito eta bere batailoiak lubakiak egiten zituztenez aurretik joaten ziren.

397. Ebroko gudako kontakizunak (OND-056/026)

Ebroko gudan gertatutakoak kontatzen ditu. Juanitoren langileen batailoiak ingeniarien menpe lan egiten zuen. Ebroko gudan lapurreta asko egin zituzten. Hutsik zeuden etxeetan sartzen ziren. Ardo upel handietan itotako gorpuak zeuden. Vi Negre herrian zeudela, libre utzi zituzten egun batzuez baina ez janari ezta laguntzarik gabe. Familia baten etxean egon zen Juanito eta espinakak, ardoa eta gailetak eman zizkieten.

398. Gerra garaian lagunak egiten (OND-056/027)

Ebroko gudaren ostean kostaldera heldu ziren. Kataluniar gizon batekin adiskidetasun handia izan du azken 50 urteetan, bere alaba lagundu zuelako behin. Hiru egunetara Bartzelonara bidali behar zuten Juanito eta bizikleta bat lapurtu zuen familia hau agurtzeko.

399. Langileen batailoiko kontakizunak (OND-056/029)

Pancrudon zegoela, postari lanak egin zituen Juanitok, gudarientzat eskutitzak, paketeak eta medikamentuak eramaten. Kamioiren batek geratzen zuen batzuetan. Behin gaua kanpoan pasa behar izan zuen eta etxe batean lo egiteko eskatu zuen, bertan zeudenak erreketeengandik babestearen truke. Oso pobreak ziren etxe hartan baina jaten eman zieten. Gabean erreketeak agertu ziren eta aldendu egin zituzten. Inoiz ez du ahaztu emakume horien laguntza.

400. Disziplinazko langileen batailoia (OND-056/030)

Langileen batailoia bukatu eta Bilbora itzuli zen. Ondarroan pasatu zituen gabonak eta egun gutxitara bigarren batailoi batera joateko deitu zioten, Erronkarira. Bertan bideak egiten ibili ziren.

401. Basarriren langileen batailoiko kantak (OND-056/031)

Bigarren langileen batailoira bidali zutenean, Juanitok pentsatu zuen soldata jasoko zuela aurrekoagatik. Ezetz esan zioten, soldadua omen zelako. Juanito

ez dago ados. 1942an bukatu zituen batailoietako lan guztiak. Basarrirekin batera ibili zen 2. langileen batailoian. Harek sortutako kantak abesten ditu.

402. Langileen bataioiarekin bideak egiten (OND-057/001)

Errenterian eta Oiartzunen zegoela, laguntza asko izan zuen herritarrengandik. Soldadu frankistak harritu egiten ziren, gorriek zuten laguntzaz. Oiartzunen Lekuonaren etxean egon zen. Bideak egiten zituzten (Langileen batailoiarekin).

403. Erronkarin bideak egiten langileen bataioiarekin (OND-057/002)

Erronkarin ere bideak egiten ibili ziren langileen bataoiarekin. Geroago omenaldi bat egin zieteten Bidagoitzen eta gizon batekin hitz egiten ari zela, honek Juanitori buruz hitz egiten zuela konturatu zen. Herritarren laguntza eta babesa beti izan zuten.

404. Barrakoietatik ihesi, gaua herrian pasatzeko (OND-057/003)

Langileen bataioian zeudela, soldaduek presoak ez ihes egiteko egoten ziren, Gabetan zerrenda pasatzen zuten barrakoietan. Zerrenda pasa ostean, barrakoitik irten, sasi artean jantzi eta Errenteriara jeisten ziren, bertako etxeetan lo egitera eta jatera.

405. Saturrarango espetxeko presoekin harremana (OND-057/004)

Saturrarango espetxeko emakumeen berri izan zuen 1.go langileen bataioitik bueltatu zenean. Presoei lanak enkargatzen zizkietela esan zion herriko emakume batek eta Juanitok jertse batzuk eskatu zizkion Pasion izeneko preso bateri. Espetxetik irten zenean, kontaktuan egon ziren Juanito berriz ere langileen bataioira bidali arte.

406. Berri txarrak lagunei ematen frontean (OND-057/006)

Ebron frentean zegoela Ondarroako emakume baten eskutitza jaso zuen (MIren Arrasate) eta esaten zion, berarekin frontean zegoen Tolosako mutil baten (Emilio Peñafiel) andregaia Saturrarango espetxean hil zela. Bienvenida Agirrezabala zuen izena.

407. Langileen bataioian egoteagatik soldatarik ez (OND-057/008)

Langileen bataioietan egon zirenek pentsio bat jasotzen dute baina Juanitok ez du jasotzen, soldadu bezala egon zelako esaten diotelako. Beste batzuei, ordea, eman zieten.

408. Langileen bataioian egondakoentzat omenaldia (OND-057/009)

Langileen bataioian egondako paperak eta dokumentuak gordeta dauzka eta hoien bitartez lagunei esan ahal izan die haien aitak noiz egon ziren bataioietan ere. Erronkarin berarekin bataioian egondako gizon baten semea ezagutu zuenekoa kontatzen du. Gero konturatu zen Erronkarin egin zieten omenaldian bataioian berarekin egondako batzuen seme-alabak ezagutu zituen. Fragako apaiza.

409. Gerraren hasiera eta Elantxobeko abadea (OND-057/011)

Gerraren hasiera nola eta non bizi zuen kontatzen du. Itsasontzian joan zen Santoñara lan bat egitera eta oraindik soldaduak Mutrikun sartu ez zirenez, buelta egin zuten. Elantxoben gelditu ziren eta -Don Jose Intxusagarri hango abandearen etxean pasa zituen egun batzuk. Abadea gogoratzen du.

410. Saturrarango seminarioko tipleak (OND-057/012)

Saturrarango seminarioan 32 tiple ziren.

411. Saturrarango seminarioko egunerokotasuna (OND-057/013)

Saturrarango seminarioko eguneroko bizimodua: ikasketak, frontoia, hondartza... Bazkal orduan irakurri egin behar izaten zuten eta adi egon behar zuten. Behin babarrun pure batekin Irungo gelakide bati gertatutakoa kontatzen du.

412. Saturrarango seminarioko abadeak (OND-057/014)

Saturrarango seminarioan irakasle zuen Don Felix Satarain Aginagako abadea gogoratzen du. Perretxiko bila joaten zen.

413. Seminarioko koruarekin abesten (OND-057/017)

Aste Santuan Mutrikuko komentuan abestera joaten zen seminarioko koroa. Mutrikun ere oso koru ona zegoen. Ondarroara elizara joaten ziren abestera. Ostegun arratsaldetan libre izaten zuten.

414. Seminarioko ikasketak (OND-057/018)

Udako oporretan etxera bueltatzen zen seminariotik. Ez zuen etxea faltan botatzen, astero amaren edo arrebaren bisita zuten. Saturraranen seminarioan 4 urte egi zituen eta Gasteizen jarraitu zituen ikasketak, baina azken urtean gerra hasi zenez utzi behar izan zuen. Bilbon azken azterketa egiteko eskatu zuen baina ez zioten utzi.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-20

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com